

JOXE GARMENDIA LARRAÑAGA

**AZKOITIKO BAILARETAKO
ESKOLAK, 1824-1977**



JOXE GARMENDIA LARRAÑAGA

**AZKOITIKO BAILARETAKO
ESKOLAK, 1824-1977**

Utriusque Vasconiae

© Joxe Garmendia Larrañaga

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2006ko ekaina

ISBN: 84-935019-0-5

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

AURKIBIDEA

HITZAURREA. Paulí Dávila	21
SARRERA.....	25

I. ATALA

AZKOITIKO BAILARETAKO ESKOLAK ETA ESKOLATZEA

1. AINTZINAKO ERREGIMENA ETA HEZKUNTZA	29
1.1. Espainiar hezkuntzaren ezarpena	29
1.2. Azkoitiko historia eta aurreneko eskolak	36
1.3. XIX. mendeko Azkoitiko eskolak. Foruak eta liberalismoa aurrez aurre	42
1.4. XIX. mendeko Azkoitiko auzo-eskolak.....	47
2. MODERNIZAZIOA ETA HEZKUNTZA-SISTEMA BERRIA (1900-1923).....	51
2.1. Bebarruan eta ezkaratzean, aldaketa sozio- ekonomikoak ate joka	51
2.2. Eskolak eta alfabetizazioa	66
2.3. Eskola gizartearen eskutik.....	75
2.4. Eskolan, <i>komunio txikitik komunio handira</i>	79
2.5. Euskara eta alfabetizazioa	86
2.6. Mende hasierako testu-liburuak eta irakaskuntza.....	92
3. AUZO-ESKOLAK ETA ALDUNDIAREN PROIEKTU BERRI- TZAILEAK (1923-1931).....	95
3.1. Auzo-eskolak suspertu beharra.....	95
3.2. Aldundiaren Auzo-eskolen Proiektua.....	97
3.3. Azkoitiko eskolen errealitatea	105

4. II ERREPUBLIKA ETA AUZO-ESKOLEN SUSPERTZEA (1931-1936).....	111
4.1. Urduritasuna pentsamolde sozial berrien aurrean. Mendi tontorretan geldiro haizea	111
4.2. Auzo-eskolen suspertzea	113
4.3. Herriguneko eskolak eta eskolatzearen garapena.....	119
5. GERRA ETA GERRAOSTEA. GOSEA ETXEAN ETA GORROTOA ESKOLAN (1936-1950)	129
5.1. Azkoitiko herria okupatuta. Minez duzu barrena, negarrez bihotza	129
5.2. <i>Eskola Berria</i> , ideologia faxistaren ispilu	132
5.3. Errepresioa. Gau iluna, gau izar gabea.....	138
5.4. Bailaretako eskoletan <i>España Imperialaren</i> pedagogia.	144
5.5. Auzo-eskola partikularren agonia luzea	146
5.6. Titulu-gabeko maisu-maistren kanporatzea eta hauen erresistentzia.....	150
6. ESKOLA NAZIONALAK BAILARETAN. BASERRITARREN HIRITARTZEA (1950-1977)	156
6.1. Bigarren Modernizazioa Gipuzkoan	156
6.2. Bailaretako eskola nazionala egoera kaxkarrean.....	158
6.3. Liburu berriak, pentsamolde zaharkitua	162
6.4. Maisu-maistra nazionalak mendian. <i>Señoridak</i> bakardadean	171
6.5. Baserrietako neska-mutilak eskolara bideratu ezinik	176
6.6. Baserritarra halabeharrez hiritartzen	181
6.7. Bailaretako eskola nazionalen azken egunak	184

II. ATALA

AZKOITIKO BAILARETAKO ESKOLAK.....	189
1. MARTIRIETA (MARTITTE) BAILARA	190
1.1. Zendoia baserriko eskola	191
1.2. Mendizabal baserriko eskola.....	197
1.3. Amunsategi (Amustei) baserriko eskola	198
1.4. Martitteko apaiz-etxeko eskola	199

1.5. Martitteko Eskola Nazionala	204
1.6. Miramonte (Montte) baserriko eskola	206
1.7. Miramonte (Montte) baserriko Eskola Nazionala.....	207
1.8. Arritte-Muno baserriko eskola	207
1.9. Korta baserriko eskola	208
1.10. Igaran (Ian) baserriko eskola.....	209
2. KUKU-HERRI (ASTARBE) BAILARA.....	210
2.1. Lizartza baserriko eskola.....	210
2.2. Astarbe-Etxeberri (Astarbe-berri) baserriko eskola	210
2.3. Astarbeko etxe-txikiko eskola	211
2.4. Lete baserriko eskola	212
2.5. Mendizabal-Astarbe baserriko eskola	213
2.6. Agarre-Portillos baserriko eskola	214
2.7. Izagirre-Astarbe (Izarre) baserriko eskola	217
2.8. Larrume-handi baserriko eskola.....	218
2.9. Astarbe-goikoa baserriko eskola	219
2.10. Astarbe-azpikoa baserriko Eskola Nazionala	219
2.11. Astarbeko Eskola Nazional berria	221
3. AGINAGA BAILARA	223
3.1. Aginagako Martin Deunaren apaiz-etxeke eskola	224
3.2. Aginagako Eskola Nazionala	228
4. AIZPURUTXO	231
4.1. Ula (Ule) baserriko eskola	232
4.2. Ibitete (Patrongua) baserriko eskola.....	233
4.3. Aizpurutxoko Agustin Donearen elizako eskola.....	235
4.4. Aizpurutxoko Eskola Nazionala	240
5. ETXOSTA-MENDI	243
5.1. Zelerdertxo (Zelertxo) baserriko eskola.....	243
5.2. Maltzeta-Etxetxo baserriko eskolak.....	244
5.3. Urazarri (Utxerri) baserriko eskola.....	244
5.4. Urazarriko (Utxerri) Eskola Nazionala.....	248
5.5. Goenagatxo (Goenatxo) baserriko eskola.....	249
5.6. Otolabarrena baserriko eskola	250
5.7. Korteta baserriko eskola	251
5.8. Zeleder (Zeler) baserriko eskola.....	251

6. ELOSU BAILARA	252
6.1. Elosuko apaiz-etxeko eskola.....	253
6.2. Elosuko Udal-eskola eta Eskola Nazionala.....	256
7. URRATEGI BAILARA.....	258
7.1. Kondekoa (Izer-Konde)baserriko eskola	259
7.2. Egurbide-ola baserriko eskola	260
7.3. Izagirre-Torre (Torre-Behekoa) baserriko eskola.....	261
7.4. Olarantxo baserriko eskola	263
7.5. Olan baserriko eskola	263
7.6. Zubazu (Zuutzuko) baserriko eskola	264
7.7. Koroategi(Koategi) baserriko eskola.....	264
7.8. Zukiazu (Zukuzu) baserriko eskola	265
7.9. Irizar-Etxetxo (Izer-Etxetxo) baserriko eskola.....	266
7.10. Urrategiko Andra Mariaren baselizako eskola	267
7.11. Urrategiko Eskola Nazionala	271
8. ZUAZOLA (ZUZULA) BAILARA.....	276
8.1. Iraolaza-Etxeberri baserriko eskola.....	277
8.2. Zuazola-Arratza baserriko eskola	277
8.3. Aginatxo baserriko eskola	278
8.4. Urkiolegi baserriko eskola.....	278
8.5. Olaso baserriko eskola	280
8.6. Olasoko Eskola Nazionala	281
9. MADARIAGA BAILARA.....	286
9.1. Madariagako Isidro Donearen baselizako eskola	287
9.2. Madariagako Eskola Nazionala.....	292
9.3. Kataolatza-azpiko baserriko eskola.....	294
9.4. Urkidi-goikoa (Laxao) baserriko eskola.....	294
9.5. Urkidi-goikoa (Laxao) baserriko Eskola Nazionala	295
9.6. Aittola-zahar baserriko eskola	296
9.7. Sakabixa baserriko eskola.....	298
9.8. Zelai-luze baserriko eskola.....	299
9.9. Katuin baserriko eskola	299
10. SANTA KUTZ BAILARA.....	300
10.1. Kamiñokua (Kamiño) baserriko eskola.....	301

10.2. Illarra (Illarra) baserriko eskola.....	303
10.3. Agirre-Basarte (Agarre-Basarte) baserriko eskola.....	304
ERANSKINAK.....	311
ITURRI DOKUMENTALAK, BIBLIOGRAFIA ETA ARGAZKIAK...	329

TAULAK

1. TAULA: <i>Eskolatzea Gipuzkoan (XIX. mende Erdialdea)</i>	33
2. TAULA: <i>Euskaldunen kopurua, herrialdeka, 1867an</i>	34
3. TAULA: <i>1913-1915 biurteko Azkoitiko Udal karguak.</i> <i>1914ko urtarrilaren 1a</i>	58
4. TAULA: <i>1922-1925 biurteko Udal karguak. 1922ko</i> <i>apirilaren 1a</i>	59
5. TAULA: <i>Udal karguen banaketa, 1931ko apirilaren 18a</i>	64
6. TAULA: <i>Eskolatzea eta Analfabetismoa Gipuzkoan 1913an</i> ...	67
7. TAULA: <i>Eskolak eta asistentzia Gipuzkoan, 1913an</i>	67
8. TAULA: <i>Analfabetoak Gipuzkoan, 1913an</i>	67
9. TAULA: <i>Urola-Kostako eskolatze eta alfabetizazioaren</i> <i>egoera, 1914an</i>	71
10. TAULA: <i>Urola-Kostako eskolatze eta alfabetizazioaren</i> <i>egoera, 1914an</i>	71
11. TAULA: <i>Urola-Kostako eskolatze eta alfabetizazioaren</i> <i>egoera, 1920an</i>	72
12. TAULA: <i>Urola-Kostako eskolatze eta alfabetizazioaren</i> <i>egoera, 1920an</i>	72
13. TAULA: <i>1900-1930eko analfabeto kopuruak</i>	73
14. TAULA: <i>Azkoitiko eskolatzeari buruko datuak, 1905 eta</i> <i>1920an</i>	73
15. TAULA: <i>Gipuzkoako eskolen zerrenda, 1920an</i>	75
16. TAULA: <i>Azkoitiko hezkuntzaren egoera, 1920an</i>	77
17. TAULA: <i>Gipuzkoako auzo-eskolak, 1920an</i>	78
18. TAULA: <i>Herriguneko eta auzo-eskoletako ikasleak</i>	80
19. TAULA: <i>Azkoitiko herriguneko eskolak, 1910ean</i>	81
20. TAULA: <i>1928an, Aldundiaren laguntza jaso zuten</i> <i>auzo-eskolak</i>	98
21. TAULA: <i>Eskolatze datuak, Azkoitia 1924an</i>	105
22. TAULA: <i>Azkoitiko auzo-eskolen egoera, 1926an</i>	109
23. TAULA: <i>Aldundiak diruz lagundutako auzo-eskolak,</i> <i>1932an</i>	114
24. TAULA: <i>Aldundiak diruz lagundutako auzo-eskolak,</i> <i>1932an</i>	116

25. TAULA: <i>Azkoitiko bailaretan zeuden auzo-eskolak , 1933an</i>	117
26. TAULA: <i>Azkoitiko eta Azpeitiko auzo-eskolak</i>	117
27. TAULA: <i>Azkoitiko bailaretako auzo-eskolen egoera, 1936an</i>	119
28. TAULA: <i>Herriguneko eskolak, 1933an</i>	120
29. TAULA: <i>Jokoak</i>	129
30. TAULA: <i>Aldundiak diruz lagundu zituen auzo-eskolak, 1938an</i>	142
31. TAULA: <i>Liburuaren Eguna ospatzeko eskatu ziren liburu eta materialak</i>	145
32. TAULA: <i>Kalifikazioak jartzeko eredia</i>	146
33. TAULA: <i>Azkoitiko bailaretako eskolak eta maisu-maistrak, 1940an</i>	147
34. TAULA: <i>Azkoitiko auzo-eskolak, 1942an</i>	148
35. TAULA: <i>Azkoitiko herriguneko eskolak, 1942an</i>	149
36. TAULA: <i>Azkoitiko auzo-eskolak, 1948-49ko ikasturtean</i>	151
37. TAULA: <i>Urola Erdialdeko populazioaren hazkuntza</i>	156
38. taula: <i>Martittek Eskola Nazionalean zegoen materiala, 1954an</i>	163
39. TAULA: <i>Urrategiko Eskola Nazional berrirako eskatu zen materiala, 1965ean</i>	164
40. TAULA: <i>Olasoko eskolan erabiltzen zituzten liburuak, 1967an</i>	165
41. TAULA: <i>Urrategiko Eskola Nazionalean zeuden ikasleak, 1958an</i>	178
42. TAULA: <i>Azkoitiko auzo-eskola nazionalak, 1958an</i>	179
43. TAULA: <i>Azkoitiko eskolak, 1960an</i>	181
44. TAULA: <i>Auzo-eskola nazionaletan matrikulatutako ikasleak</i>	185
45. TAULA: <i>Auzo-eskola nazionaletako ikasle kopurua, 1971n</i>	186
46. TAULA: <i>Azkoitiko herriguneko eskolak, 1971n</i>	186
47. TAULA: <i>Aldundiaren laguntzak, Martittek eskolari</i>	201
48. TAULA: <i>Martittek eskolara joaten ziren ikasleak, 1945ean</i> ..	201
49. TAULA: <i>Martittek eskolara joaten ziren ikasleen adina, 1945ean</i>	202
50. TAULA: <i>Aldundiaren diru-laguntzak Kuku-herriko eskolari, 1940-1947</i>	216

51. TAULA: <i>Maria Teresa Izagirre maistrarekin egondako ikasleak</i>	216
52. TAULA: <i>Maria Teresa Izagirre maistrarekin egondako ikasleen adina</i>	216
53. TAULA: <i>Aginagako eskolara joaten ziren ikasleak, 1945ean</i>	226
54. TAULA: <i>Aginagako ikasleen adina eta kopurua, 1945ean</i>	227
55. TAULA: <i>Aldundiaren laguntza Aizpurutxo maisu-maistrei, 1937-1949</i>	238
56. TAULA: <i>Aizpurutxoko ikasleak, 1954an</i>	238
57. TAULA: <i>Aizpurutxoko ikasleen adina eta kopurua, 1954an</i> .	239
58. TAULA: <i>Utxerrira joaten ziren ikasleak, 1945ean</i>	247
59. TAULA: <i>Utxerrira joaten ziren ikasleen adina eta kopurua, 1945ean</i>	247
60. TAULA: <i>Urrategiko eskolara joaten ziren ikasleak, 1945ean</i> .	269
61. TAULA: <i>Urrategiko ikasleak eta adina, 1945ean</i>	269
62. TAULA: <i>Ramos liburu-dendatik ekarritako materiala</i>	274
63. TAULA: <i>Urkiologiko ikasleak, 1954an</i>	279
64. TAULA: <i>Madariagako ikasleak, 1945ean</i>	289
65. TAULA: <i>Madariagako ikasleen adina eta kopura, 1954an</i>	290
66. TAULA: <i>Gipuzkoako Aldundiaren diru-laguntza jaso zuten auzo-eskolak, 1949</i>	324

ARGAZKIAK

1. argazkia: <i>Antzinako Azkoitia</i>	36
2. argazkia: <i>Intsaustiko Jauregia</i>	38
3. argazkia: <i>Astetea, eskoletan erabiltzen zen dotrina</i>	41
4. argazkia: <i>Madariagako Isidro Donearen baseliza eta eskola...</i>	49
5. argazkia: <i>Azkoitiko herria, atzean San Martin</i>	53
6. argazkia: <i>1913-1915 biurteko Azkoitiko Udal karguak</i>	58
7. argazkia: <i>Leturiondo Jauregia</i>	61
8. argazkia: <i>Gaztandarren Jauregia</i>	62
9. argazkia: <i>Iribe dorrea, Irizartarren etxea</i>	63
10. argazkia: <i>Txurruka-enea</i>	63
11. argazkia: <i>Idiakeztarren Dorretxea</i>	63
12. argazkia: <i>Azkoitiko Eskola Publikoak</i>	70
13. argazkia: <i>Haurrak Azkoitiko kale Nagusian</i>	74
14. argazkia: <i>Urrategiko baseliza, eskola lehen solairuan zegoen</i>	82
15. argazkia: <i>Dotrina, 1773an egindakoa</i>	89
16. argazkia: <i>Gasteizko Elizbarrutiko Kristau-Ikasbidea,</i> <i>1921</i>	89
17. argazkia: <i>Eskolan erabiltzen zen Dotrina</i>	90
18. argazkia: <i>Donostiako, Koruko Andra Mariaren</i> <i>Ikastetxeko liburua, 1930ean</i>	90
19. argazkia: <i>Astetea, 1911. urtean Azpeitiko Martinez</i> <i>moldiztegian egina</i>	92
20. argazkia: <i>Pisia</i>	93
21. argazkia: <i>Azkoitiko eskoletako ikasleek mahaia</i>	94
22. argazkia: <i>Azkoitiko eskoletako irakaslearen mahaia</i>	94
23. argazkia: <i>Ostiral Santua Azkoitian, 1925ean</i>	97
24. argazkia: <i>Azkoitiko Udaletxea</i>	101
25. argazkia: <i>Aldundiak eraikitako auzo-eskola eta ikasleak,</i> <i>Tolosa 1935ean</i>	102
26. argazkia: <i>Aldundiak eraikitako auzo-eskola, Zizurkil,</i> <i>1934an</i>	102
27. argazkia: <i>Aldundiaren auzo-eskola baten inaugurazioa</i>	104
28. argazkia: <i>Azkoitiko Kristau-Dotrinako Anaien ikasleak,</i> <i>1924an</i>	106
29. argazkia: <i>Azkoitiko Jesusen Bihotzaren ikastetxeko ikasleak.</i>	106

30. argazkia: <i>Martirietako Eskola Publiko berriaren aurreproiektua, 1924an</i>	108
31. argazkia: <i>Flores baserria</i>	110
32. argazkia: <i>Floreagako La Salle ikastetxeko ikasleak, 1935ean</i>	120
33. argazkia: <i>Jenara Aranbarriren ikasleak, 1934an</i>	121
34. argazkia: <i>Jenara Aranbarriren eskola, Plaza-Berrin</i>	121
35. argazkia: <i>Karitateko lekaiemeen eskola</i>	
36. argazkia: <i>Nekazaritzako Irakurraldia liburua</i>	124
37. argazkia: <i>Nekazaritzako Irakurraldia liburua</i>	124
38. argazkia: <i>Lopez de Mendizabalek, argitaratutako Umearen laguna liburua</i>	125
39. argazkia: <i>Lopez de Mendizabalek, argitaratutako Zenbakiztiya liburua</i>	125
40. argazkia: <i>Pirmin Iturriotzen Lutelesti liburua</i>	126
41. argazkia: <i>Pirmin Iturriotzen Txomin Irakasle liburua</i>	126
42. argazkia: <i>Gasteizko Elizbarrutinako Kristau-Ikasbidea</i>	127
43. argazkia: <i>Gasteizko Elizbarrutinako Kristau-Ikasbidea</i>	127
44. argazkia: <i>Miserikordiako ikasleak</i>	128
45. argazkia: <i>Floreagako Kristau Dotrinako Anaiak eta ikasleak</i>	128
46. argazkia: <i>1941ean Gollwitzer general nazia Loiolan</i>	131
47. argazkia: <i>Madariagako gazteak prozesioan</i>	134
48. argazkia: <i>Madariagako auzotarrak, 1954an</i>	136
49. argazkia: <i>Landa-eskola probintziala hutsik</i>	140
50. argazkia: <i>Urrategiko ikasleak, 1948-1949 urtea</i>	151
51. argazkia: <i>Azpeitiko Olatz baselizako eskola</i>	155
52. argazkia: <i>Azpeitiko Olatz baselizako ikasleak, 1953an</i>	156
53. argazkia: <i>Madariagako gazte eta helduak prozesioan, 1954an</i>	158
54. argazkia: <i>Urrategiko Eskola Nazionalaren proiektua</i>	161
55. argazkia: <i>Urrategiko Eskola Nazionalaren proiektua</i>	161
56. argazkia: <i>Enciclopedia Alvarez</i>	166
57. argazkia: <i>Enciclopedia Alvarez</i>	166
58. argazkia: <i>Cálculo Moderno</i>	167
59. argazkia: <i>Cálculo Moderno. Sumar</i>	167
60. argazkia: <i>Cálculo Moderno. Multiplicar</i>	167
61. argazkia: <i>Gasteizko Elizbarrutiaren Cristau-Dotrina, azala</i>	168

62. argazkia: <i>Gasteizko Elizbarrutiaren Cristau-Dotrina, sarrera</i>	168
63. argazkia: <i>Kristau Ikasbidea bertsoan. N. Etxaniz, 1950</i>	169
64. argazkia: <i>Urrategiko ikasleen komunioa</i>	169
65. argazkia: <i>Alkateari eskolako ikasleek egindako idatzia, 1952an</i>	170
66. argazkia: <i>Madarixako gazteak ibilaldian</i>	170
67. argazkia: <i>Zelai-luze baserriko Frantziska Egaña, Madarixan</i>	180
68. argazkia: <i>Floreagako eskola, 1960an</i>	182
69. argazkia: <i>San Jose ikastetxeko S. Encarnacionen ikasleak, 1963an</i>	183
70. argazkia: <i>Floreaga ikastetxeko P. Jose Antonioren ikasleak, 1967an</i>	184
71. argazkia: <i>Martitte, Etxosta-menditik</i>	190
72. argazkia: <i>Martirietako Emeterio eta Zeledonio Santu-Martiriak</i>	191
73. argazkia: <i>Zendoia baserria</i>	191
74. argazkia: <i>Mendizabal baserria</i>	197
75. argazkia: <i>Amustei baserria</i>	198
76. argazkia: <i>Martitteko baseliza eta eskola</i>	199
77. argazkia: <i>Martitteko eskolen proiektua</i>	200
78. argazkia: <i>Martitteko eskolako Julia Zubizarretaren ikasleak, 1949an</i>	203
79. argazkia: <i>Martitteko Eskola Nazional berria</i>	205
80. argazkia: <i>Martitteko frontoia</i>	206
81. argazkia: <i>Montte baserria</i>	206
82. argazkia: <i>Arrite-Muno baserria</i>	208
83. argazkia: <i>Korta baserria</i>	208
84. argazkia: <i>Igaran baserria</i>	209
85. argazkia: <i>Astarbe bailara, Larrume-handitik</i>	210
86. argazkia: <i>Astarbe-berri baserria</i>	211
87. argazkia: <i>Lete baserria</i>	212
88. argazkia: <i>Lete eta Letetxo baserriak</i>	213
89. argazkia: <i>Mendizabal-Astarbe baserria</i>	213
90. argazkia: <i>Agarre-Portillos baserria</i>	214
91. argazkia: <i>Maria Teresa Plazaola, Agarre-Portilloseko maistra ikasleekin</i>	217

92. argazkia: <i>Izagirre-Astarbe (Izarre) baserria</i>	218
93. argazkia: <i>Larrume-handi baserria</i>	218
94. argazkia: <i>Astarbe goikoa baserria</i>	219
95. argazkia: <i>Astarbe-azpikoa baserria zaharra</i>	220
96. argazkia: <i>Astarbe-azpikoa baserria</i>	221
97. argazkia: <i>Astarbeko Eskola Nazional berria</i>	222
98. argazkia: <i>Astarbeko Eskola Nazionala eta auzoko frontoia</i>	223
99. argazkia: <i>Aginaga</i>	223
100. argazkia: <i>Aginagako eskola</i>	224
101. argazkia: <i>Xabierxo liburua, azala</i>	225
102. argazkia: <i>Xabierxo liburua, barruko orriak</i>	225
103. argazkia: <i>Xabierxo liburua, barruko orriak</i>	225
104. argazkia: <i>Aginagako ikasleak</i>	227
105. argazkia: <i>Aginagako Martin Deunaren Eliza</i>	228
106. argazkia: <i>Aginagako Eskola Nazional berria</i>	230
107. argazkia: <i>Aizpurutxorako bidea, Etxosta menditik</i>	231
108. argazkia: <i>Ule baserria</i>	232
109. argazkia: <i>Ibitete (Patrongua) baserria</i>	233
110. argazkia: <i>Aizpurutxoko eliza eta eskola</i>	235
111. argazkia: <i>Aizpurutxoko Kongregazioko taldea, 1944an</i>	239
112. argazkia: <i>Leon Bernaola Agirrezabal</i>	239
113. argazkia: <i>Aizpurutxoko taberna</i>	240
114. argazkia: <i>Aizpurutxoko Eskola Nazional berria</i>	241
115. argazkia: <i>Aizpurutxoko Eskola Nazionala berritua</i>	242
116. argazkia: <i>Etxosta-mendi, Martittetik hartuta</i>	243
117. argazkia: <i>Zelertxo baserria</i>	244
118. argazkia: <i>Utxerri baserria</i>	245
119. argazkia: <i>Utxerriko baserria</i>	246
120. argazkia: <i>Toribia maistra</i>	246
121. argazkia: <i>Goenatxo baserria</i>	250
122. argazkia: <i>Otola-barrena baserria</i>	250
123. argazkia: <i>Korteta baserria</i>	251
124. argazkia: <i>Zeler baserria</i>	251
125. argazkia: <i>Elosuko Eliza</i>	252
126. argazkia: <i>Elosuko eskola eta eliza</i>	253
127. argazkia: <i>Elosuko eskola</i>	254
128. argazkia: <i>Claudio Orbea. Elosuko maisua</i>	254

129. argazkia: <i>Elosuko Kongregazioko taldea, 1946an</i>	256
130. argazkia: <i>Elosuko udal-eskola</i>	257
131. argazkia: <i>Ormolamendi bailara, erdialdean Urrategiko baseliza</i>	258
132. argazkia: <i>Urrategiko Gure Amaren irudia</i>	259
133. argazkia: <i>Kondekoa (Izer-konde) baserria</i>	260
134. argazkia: <i>Egurbide-Torre baserria</i>	260
135. argazkia: <i>Izagirre-Torre baserriko eskola</i>	261
136. argazkia: <i>Olan baserria</i>	263
137. argazkia: <i>Luzia Alberdi, Olan baserriko maistra</i>	264
138. argazkia: <i>Koategi baserria</i>	265
139. argazkia: <i>Zukuzu baserria</i>	266
140. argazkia: <i>Izer-etxetxoko eskola</i>	266
141. argazkia: <i>Urrategiko baseliza eta bertako eskola</i>	267
142. argazkia: <i>Urrategiko eskola zaharra</i>	268
143. argazkia: <i>Aurora Artetxe eta Urrategiko eskolako ikasleak, 1949an</i>	270
144. argazkia: <i>Ezkerretara baseliza eta eskuinean, Eskola Nazionala</i>	271
145. argazkia: <i>Urrategiko Eskola Nazional berria</i>	273
146. argazkia: <i>Izarraitz mendia eta Azkoitiko herria, Martitte aldetik</i>	276
147. argazkia: <i>Zuazola-arratza baserria</i>	277
148. argazkia: <i>Aginatxo baserria, Txintxilo gainean</i>	278
149. argazkia: <i>Urkiologi baserria</i>	278
150. argazkia: <i>Olaso baserria</i>	280
151. argazkia: <i>Manuela Arrizabalaga maistra</i>	281
152. argazkia: <i>Olasoko Eskola Nazionala</i>	283
153. argazkia: <i>Olasoko Eskola Nazionala. Eliza bezala ere erabilia izan zen</i>	284
154. argazkia: <i>Maria Dolores Iriondo eta dotrinako ikasleak</i>	284
155. argazkia: <i>D. Esteban Lizarralde Aramendiri egindako omenaldia</i>	285
156. argazkia: <i>Madariaga bailara</i>	286
157. argazkia: <i>Madariagako Isidro Donearen eliza eta eskola</i> ...	287
158. argazkia: <i>Prozesioa, atzean, kriseiluarekin Madarixako maisua</i>	289

159. argazkia: <i>Juan Jose Garmendia, Marixako maisua</i>	291
160. argazkia: <i>Madariagako kongregaziokoak, 1951n</i>	291
161. argazkia: <i>Madariagako maisua eta apaizak, Saturrarango hondartzan</i>	291
162. argazkia: <i>Prozesioa Madariagan, 1954an</i>	292
163. argazkia: <i>Madariaga bailarako Misioen bukaera, 1954an</i>	293
164. argazkia: <i>Madariagako eskola eta frontoia</i>	293
165. argazkia: <i>Laxao baserria</i>	294
166. argazkia: <i>Aittola-zahar baserria</i>	297
167. argazkia: <i>Aittolako Maria, Maria Aranbarri eta Madarixako maisua</i>	298
168. argazkia: <i>Sakabixa baserria</i>	298
169. argazkia: <i>Zelai-luze baserria</i>	299
170. argazkia: <i>Santa Kutz bailara</i>	300
171. argazkia: <i>Basarteko Gurutze-Donearen lekaimetxea</i>	301
172. argazkia: <i>Santa Kutzeko Gipuzkoako Batzar bereziaren oroigarria</i>	301
173. argazkia: <i>Kamiño baserria</i>	302
174. argazkia: <i>Illarraga baserria</i>	303
175. argazkia: <i>Santa Kutz bailarako Laja baserriko familia</i>	304
176. argazkia: <i>Agirre-Basarte baserria</i>	305
177. argazkia: <i>Trino de Uria</i>	306
178. argazkia: <i>Azkoitiko Zalduntxoen Akademi berria egitasmoa</i>	308
179. argazkia: <i>Loiolako basilika</i>	309
180. argazkia: <i>Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat</i>	313
181. argazkia: <i>Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat</i>	313
182. argazkia: <i>Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat</i>	314
183. argazkia: <i>Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat</i>	314
184. argazkia: <i>Ikuskaritzak Azkoitira bidalitako zirkularren azala</i>	315
185. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak euskaratua</i>	315
186. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak euskaratua</i>	320

187. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak</i> <i>euskaratua</i>	321
188. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak</i> <i>euskaratua</i>	321
189. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak</i> <i>euskaratua</i>	322
190. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak</i> <i>euskaratua</i>	322
191. argazkia: <i>Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak</i> <i>euskaratua</i>	323

HITZAURREA

Gaur egun hezkuntzaren historia aztertzerakoan hedatuena dagoen joera zera da, hezkuntzari buruzko ikerketak gure maisu-maistrentzako jardunbide-egokien bilduma gisa aurkeztea, edo bestela, hezkuntzaren gorabeherak azalpen unibertsalera mugatzea. Lan honek ihes egiten du planteamendu horietatik, eta herri batetako gune zehatz baten, bailaretako eskolen, azterketa sakona egiten du; pertsonaiak, iniziatibak, hezkuntza-proiektuak eta, azken batean, eskolaren errealitatea zein estrata, bidezidor eta zirrikitutatik sortzen den erakusteko.

Historia egiteko modu hau ez da oso ohikoa, ez da hedatuena. Beraz, hezkuntzaren historiak jarduterakoan, bai eta Euskal Herriko hezkuntzaren historiak jarduterakoan ere, kasu zehatzak falta zaizkigu hezkuntza-erakundeen bilakaera, maisu-maistren egoera eta eskola barruan garatzen den praktika pedagogikoa, beren egunerokotasunean ulertu ahal izateko.

Lurralde-erreferenteen eraikuntza historiko eta sinbolikoa, Azkoitiko eta Gipuzkoakoa kasu honetan, identitatearen moldatze-prozesuaren menara dagoela ezin da ukatu, askotan, prozesu horren subjektuek euren errealitate sozialean antzematen dutenez baino haratago. Historiografiaren baitan tradizio handikoa da tokian tokiko historia, historia lokala, eta Josep Fontanak duela hogeita bost nabarmendu zuen bezala, bere garrantziak gainditu egiten du kronista, artxibozain eta herriko erudituen lanen garrantzia, 60. hamarkadan jazotako aldaketa historiografiakoak hartuz begi-puntuatzen. Historia lokalaren ikuspegi berri bat sustatu zuten aldaketa hauek, hiru eremutakoak ziren: “ahozko historia”, “mikrohistoria” eta “history workshops”. Ikuspegi berri honek, tokian tokiko historiak, “historiarik

gabeko” pertsonengan arreta berezia jartzen du. Fontanak berak, historia lokala ere beharrezko zela pentsatzen zuen, historia orokorraren interpretazio globala hobeto egiteko.

Prozesu historiografikoaren argitara, historialarien eginkizun ez ezik, gizarte baten iragana ulertzeko ezinbesteko diren legitimazio-prozesuen zati garrantzitsu bilakatu da historia. Hala ere, onartu beharra dago badela merkatu bat, Historia kontsumo-produktu gisa hartu eta honen inguruan eratua, historialariak, argitaletxeak, publikoa, aldizkariak, kongresuak, molde historikoko filmak, historia-bildumak, eta abar biltzen dituen bere baitan, eskaera-eskaintza legearen menpe dagoena erabat.

Historia (zientzia gisa) eta bere funtzio sozialari buruzko gogoeta hauek, Joxe Garmendiaren lanaren aurrean hartzen dute zentzua, herritik abiatuta, eskola eta eskolatzearen garapenean parte hartzen duten eragile guztien berri ematen baitigu. Horretarako, Azkoitiko historiaren garai zabal bat hautatzen du, arreta XX. mendean jartzen badu ere bereziki, eta xehetasun osoz marrazten du herri inportante baten egoera, eta agerian uzten du landa-eremuko hezkuntzaren garrantzia. Honela, herri honen adibideari jarraituz, sumatu dezakegu nolakoa zen hezkuntza Euskal Herriko landa-eremuko herririk gehienetan. Hausnarketa eta deskribapen zehatza, hauxe da lan honen meriturik handienetarik bat. Ez du soilik eskolaren bilakaera erakusten, baizik eta zorrotz abiatzen da eskola bakoitzaren deskribatzaera, koka-pen geografikoaren berri emanez, eta eskolaren garapenaren, irakaslearen, ikaslearen eta irakaskuntzaren xehetasunetan jarriz begia; aipatzeko moduko meritua dena, esaten duen oro oinarritzen baita eskolaren errealitateari buruzko datu frogagarrietan.

Bestalde, gogoratzen ere laguntzen du lan honek. Baserrietako seme-alaba askok bizi izan duten eskola nolakoa izan den jakitera gerturatzen gaitu; ikasle askoren memorian ondo gordeta dagoena, eta zaharren kontuetan askotan entzuten ahal izaten duguna oraindik, euren haurtzarora eskola horiek markatu baitzuten, pairatu zituzten ankerkeria guztiengatik batik bat. Eskola horien memoria berreskuratu du Joxe Garmendiaren lanak deskribapen eta argazkien bidez. Espazio arkitektonikoen, ikasle-taldeen edo auzo-eskolen irakurketa hau, ordea, deskribapen hutsetik haratago doa, eta denboran hurbil izan arren galdutzat ematen dugun eskola baten oroitzapenak dakartzkigu.

Bukatzeko, orain arte azaldutakoari buruzko pare bat ondorio aipatu nahi nituzke: garrantzitsua da hezkuntzaren historia onak egitea, albo batera utzita euren erreferentzia, izan lokala, erregionala, autonomikoa edo nazionala; historia lokala da historialariak formatzeko modurik onena. Historialari onen tailerra, gehienetan, historia lokala da.

Paulí Dávila Balsera
Hezkuntzaren Historian Katedraduna
Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA

Azkoitiak eta azkoitiar askok aparteko lekua dute Euskal Herriko historian; aristokrata, ilustratu, jauntxo, eta beste hainbat pertsonaiaren izenak maiz agertzen dira liburu eta aldizkarietan. Zalantzarik gabe esan dezakegu historia handiko herria garela. Baina hauetaz aparte badira beste hainbat azkoitiar lan handia egin dutenak, eta isilpean gelditu direnak. Azkoitiko historiaren orrietan inork ikusi al ditu: Clara *Altamira*, *Marixako* maisua, Maria Teresa Plazaola, Aurora Arretxe, Maria Dolores Iriondo, Xerapio Sagarzazu... eta gure bailaretan egon diren beste hainbat maisu-maistra? Inor gogoratzen al da Patxi *Estra*, *Urkirolei* edo Patxi *Laja* bertsolariekin? Edo Emakume Abertzale Batzako kide izandako Julene Urzelairekin? Historia aztertzerakoan, urte luzez, herri xehearen kontu eta gorabehera asko isilean, itzalpean, gelditu izan dira.

Azkoitiko herriaren historian ezin daiteke arakatu kontutan izan gabe nekazal herria izan garela, eta herritar gehientsuenek baserriarekin izan duten harremana. Azkoitiko herriak garapenaren gurpilari jarraitzen eta, bide batez, tradizioari, ohitura zaharrei eta kulturari sendo eusten jakin izan du. Azkoitiak azken 150 urteotan aldaketa anitz izan ditu: garapen industrialak, demografikoa, aurrerapen teknikoak, aldaketa sozialak, demokrazia... eta eraldaketa honetan eskola eragileetako bat izan da. Baina eskolaren historia aipatu denean, ia beti, herriguneko eskola publikoetaz, pribatuetaz eta partikularretaz aritu izan gara, ahaztuz gure bailaretan, baserrietan eta baselizetan, egon diren eskolak.

Baserrietako eskolen errealitatea deskribatuz, ikasleen eta maisu-maistren memoria berreskuratuz, landa-inguruneko errealitatearen zati

bat islatu nahi da. Eta nola ez, baserrietako neska-mutilak izango dira historia honen protagonista isilak. Batzuk, eskolara *komunio txikia* egin ondoren hasten ziren, beste batzuk lehenago, baina guztiek *komunio handia* egindakoa uzten zuten eskola. Ikasle bakar batzuk ziren erabat joaten zirenak. Gehienak noizbehinka, baserriko lanak egin ondoren, edo ahal zenean, seme-alaba guztiena ordaintzeko dirurik ez baitzen egoten. Ez zen nolana hikoia, *bidetxurretatik* eta oinetako egokirik gabe, 2 edo 3 kilometrotara zegoen eskolara joatea. Eta han, *puntatik-punta* euskarazko dotrina buruz ikasi behar, eta baita ere gaztele-razko hainbat olerki eta esamolde, jakin gabe zer esaten ari ziren. Gaur, oraindik ere, baserrietako aiton-amonei zera entzuten zaie: *orduan erderie ikastie iletargire joatie bezain zaila zen*. Dotrina euskaraz ikasten zen; bestela nola hedatu eta eraiki Elizaren pentsamoldea.

Ondorengo orrietan azken 150 urteotan Azkoitiko bailaretan egon diren ia 65 eskolen berri emango da, hauetako gehienak baserrietan egon ziren, baina baita ere Elizaren lokaletan; 1954tik aurrera hasi ziren eraikin berriak egiten, eskola nazionalak. Eliza, jauntxoak, gosea, dotrina, itu-lana, euskaraz... etengabe azalduko diren errealitateak izango dira, hezkuntza baldintzatuz, gure herriko gizartearen ispilu.

Lehen atalean, hasieran Antzinako Erregimenean Gipuzkoan garatu zen hezkuntzaren historia deskribatzen da; gero XX. mende hasieratik Gerra Zibila artekoa lantzen da eta bukatzeko Gerra ondorengo auzo-eskolak eta maistra nazionalen ibilbidea. Azpimarratzekoa da 1949tik aurrera, maisu-maistra nazionalak etortzen hasi zirenean, egoera aldatu egin zela; eraikuntza berriak egin eta tituludun maistrek lehengo maistrak ordezkatu zituzten. Hala ere, baliabide gehiago izan arren, maistra nazional askok ez zuten bat egin baserrietako seme-alaben beharrekin. Auzo-eskola hauen historia 1977an bukatu zen, irakaskuntza herrigunean zentralizatu zenean; bailaretako ikasleek eta maistrek herriko Eskola Nazionalera jaitsi beharra izan zutenean. Bigarren atalean Azkoitian egon diren auzo-eskolen deskribapena egiten da, eskola bakoitzari buruz ekarpen ahalik eta zabalena eginez.

Lan hau burutzerakoan zalantza dezente izan ditut. Aurrena eskola hauek izendatzeko izen egokia aukeratzea; gaztele-raz auzo-eskola partikular hauei *escuelitas rurales* deitzen zitzaaien eta euskaraz, tokiaren arabera, izen ezberdina jaso dute: *mandio-eskolak* deitu izan zaie (Nikolas Zendoia, bertsolari eta idazlea), *mendi-eskolak* ere bai (Marina Fernandez, gerra aurreko maistra), *baserri-eskolak* (Trino de Uria,

gerra aurreko maisua), *auzo-eskolak* (Gregorio Arrien, historialaria) eta baita landa-eskolak. Ikusten denez izen dezente eta denak balekoak. Beraz, aukera hauetako bakoitza ontzat emanez, ni neuk, *auzo-eskola* erabili izan dut, eta kasuaren arabera zehaztu (auzo-eskola partikularra, auzo-eskola nazionala, landa-eskola...); gaur egungo eskola eta garai batekoak ez baitira berdinak. Bailara edo auzo hitza erabiltzerakoan nire zalantzak ere izan ditut; gaur egun auzo erabiltzea egokiago izan arren, ia orain arte Azkoitiko baserritarrek bailara erabili dutenez, bailara hitza erabili dut gehienetan. Elosu eta Aginagako bailaretako eskolak ere aztertu ditut, bailara hauek historikoki Azkoitiko udalerriarrekin izan duten harremanagatik. Aipatzekoa da liburu hau ikerketa zabal baten ondorioa dela eta, arrazoi pedagogikoak medio, artxiboe-tako aipuak ez direla orri orri aipatzen; norbaitek behar izanez gero, aipuak zehatz-mehatz ikerketan daude. Erabili ditugun artxiboko dokumentu gehienak, Azkoitiko Udal Artxibotik eta Gipuzkoako Artxibo Orokorretik atera dira.

Gauza bat baino gehiago faltako da, ziur. Dena dela azken 150 urteotan Azkoitiko bailaretan izan diren auzo-eskola gehienen aipamen xumea egitea izan da lan honen asmoa. Bukatzeko nire esker ona adierazi nahi nieke lan hau burutzen lagundu didatenei: lehenik etxeko denei eta hauen artean bereziki, Mari Jose, Haritz, Beatriz, Josune, Joxepi, Jexux eta *Laja Motzari*, hartu duzuen pazientzia eta eskaini didazuen babesagatik; eskerrekin jarraituz, nola ahaztuko naiz ba zue-taz, adiskideok: Xabier Gantzarain, Paulí, Leire, Txomin, Jon, Joxe Luix, Horminda,... eskerrik asko zuen animuagatik eta ekarpen ordain ezinagatik. Eskerrak Azkoitiko Udalarari eta Kultura Saila kudeatzen duen Joxe Luis Arrizabalagari, eskaini digun laguntzagatik. Eta, nola ez, informazioa eta laguntza eskaini didaten herritarrei, eskerrik asko. Bukatzeko Paulo Iztueta aipatzea nahi nuke, beragatik ez balitz ez zen liburu hau posible izango.

I. ATALA

AZKOITIKO BAILARETAKO ESKOLAK ETA ESKOLATZEA

1. Aintzinako erregimena eta hezkuntza

1.1. Espainiar hezkuntzaren ezarpena

Gaur egun Estatua eskolaren suspertzaile nagusia izan arren, ez da historikoki horrela izan. Antzina, eskola eta heziketa Elizari erabat lotuta zeuden, eta Lehen Hezkuntzako ikasketei dagokienez, irakas-kuntza-plana dotrina ikastera eta *trivium*-era mugatzen zen; hots, dotrina buruz ikasi eta, ahal zen neurrian, irakurri, idatzi eta zenbatu. XIX. mende erdialdean hasi ziren aldaketaren lehen urratsak, demokratizazioa eskolara iritsi eta curriculumean ikasgai berriak sartzten hasi zirenean. Dena dela, aldaketak gehienbat formalak ziren, ez errealak. Erljioa zuztarretaraino sartua zegoen euskal gizartean, liberalismoak proposatzen zituen aldaketak ia ezinezkoak ziren. Oraindik ikasleen lehen ikasgaia dotrina buruz ikastea zen, eta honekin batera ezinbesteko obligazioak mezatara joatea, bezperak, prozesioak... Gizartean eta hezkuntzan aldaketak ikusteko XX. mendera arte itxaron beharko da, bai hirietan eta baita landa-ingurunean ere.

Trentoko Kontzilioaren ondoren, Eliza herri-mintzairak kontuan hartzen hasi zen, katekesi-lana eta eliza-predikuak euskaldunei euskaraz bideratuz. Urte hauetan, aurreko mendeetan ez bezala, euskal

dotrina eskola bidezko irakur-idazgintzan txertatzeko ahaleginak egin ziren. Kardaberazen 1761eko *Eusqueraren Berri Onac eta ondo escribitzeco, ondo iracurteko eta ondo itzeguiteko erregelak* dira horren adierazlerik argienak. Hau horrela izanik ere, bestelako bidetik jo zuen XVIII. mendean eskolatzearen hedapenak. Ahozko transmisio-alorrera mugatu zen euskarazko dotrinaren irakaskuntza, eta eskolan erdal hezkuntzaren hedapen-moldea ezarri zen.

Lehen Hezkuntzako eskolak ugaritzen hasi zirenean, funtzio berria erantsi zitzaion irakaskuntzari, euskal hiztunak erdalduntzekoa. Eta, ordura arte ez bezala, estatus sozio-ekonomiko altueneko hiritarren haurren formazioa ez ezik, orain herritar euskaldunaren belaunaldi osoaren translinguifikazioa zen xede-gaia. Eskola gutxi hedatua zegoenez, hasiera batean, herri txiki eta baserrietan eragin mugatua izan zuen erdal eskolak. Kardaberazek 1761ean esango zuenez, *gure baserrietan gende prestuac dirauten artean, euscarac iraungo du*. XVIII. eta XIX. mendeetan ukazina da eskolak ez zuela gaur duen eragina.

Historia orainaldian interpretatzea zuzena ez izan arren, ikuspegi historikotik ukazina da Estaturik gabeko herria izateak eragin handia izan zuela/duela Euskal Herrian. Eta bistakoa da historian zehar boterean egon diren instituzioek, eta agintariak, gutxi suspertu zutela bertako hizkuntza eta hezkuntza garapena. Ezin dugu ahaztu, ere, hizkuntza eta hezkuntza ia beti batera joaten direla, eta aspaldidanik hasi zirela Espainiako eta Frantziako agintariak, euskararen aurkako beren gurutzadarekin (Bourdieu, P. eta Passeron J. C. 1970). Eskoletan, eta instituzioetan, aspaldidanik hasia zegoen euskararen aurkako eraso honen aurrean, ezer gutxi egin zuten bertako agintariak. 1768an, Carlos III.ak ekainaren 13an sinaturiko Errege-zedularen VII. artikulua zera zioen:

Finalmente mando, que la enseñanza de Primeras Letras, Latinidad, Retórica se haga en lengua castellana generalmente, donde quiera que se practique, cuidando de su cumplimiento las Audiencias y Justicias respectivas, recomendándose también por mi Consejo a los diocesanos, Universidades, y Superiores Regulares para su exacta observancia, y diligencia en extender el idioma general de la Nación para su mayor armonía, y enlace reciproco.

Hasiera batean erretolika hutsa izan arren, poliki-poliki, lege hauek eragin sakona izan zuten Udalek plazaratzen zituzten aginduetan. 1784ko azaroaren 27ko Aiako Eskrituretan zera zehazten da:

Dará orden estrecha de que nunca hablen entre sí el vascuence, sino el castellano. Y para puntual observancia de esta orden se valdrá del medio común o sortija, tomando cada sábado razón de su paradero y reprendiendo, apercibiendo y castigando directamente al que se hallare con él.

Ezin da ahaztu zigorra ezartzerakoan maisu-maistrek herriko agintarien onespena zeukatela. 1787ko martxoaren 18an, Elgoibarko Udalak, Gregorio Landibar maisuari, eginiko kontratuak zera azpimarratzen zuen:

Que no permita a los niños que hablen dentro ni fuera de la escuela otro idioma que el castellano; y entreguen el anillo para que vaya circulando entre ellos en la falta en que incurrieren; y al último que llevare el tal anillo a la escuela le aplique la pena de azotes o palmada con suavidad...

Eskolan euskaraz hitz egiteagatik jartzen ziren zigorretaz asko hitz egin da. Justo Garatek (1976) luze eta zabal jardun zuen eraztunaren erabilerari buruz. 1801ean, Humboldt ere mintzatu zen erabilera horretaz:

Se persigue el vasco en las escuelas. El maestro da al principio de la semana a un niño el *anillo*. Este niño se llama “el rey”. Presta atención a quien habla una palabra en vascuence fuera o dentro de la escuela con otro escolar y le da el *anillo*. Éste a su vez presta atención a lo mismo, y da el *anillo*, y así sucesivamente. Al fin de la semana pregunta el maestro por el *anillo* e inquirere en serie a todos lo niños que han recibido unos de otros. Estos se han de poner luego con los brazos en alto en cruz, levantar por detrás la camisa y se les castiga. Si uno de ellos quiere decir algo al otro, lo dice al árbol, a la estrella, y el otro y el otro contesta así, o a un transeúnte, pero no el uno al otro. Lo mejor es que se ven realmente obligados a ello, por lo que a menudo no saben las expresiones castellanas. Muchos de los caseros no envían a sus niños a la escuela. Hay pocos que sepan escribir en vascuence. Cartas en vascuence no se escriben.

Lotsagarria zen neska-mutilek euskaraz mintzatzegatik jasotzen zuten jazarpena. Estatuko beste hainbat herrialdetan ere, Galizian edo Valentzian kasu, egoera berdinean aurkitzen ziren. Baina hau ez zen soilik frantziar eta espainiar estatuen jokoera maltzurra, beste hainbat lurraldetan ere antzera saiatzen ziren agintariak, estaturik gabeko nazioen hezkuntza zanpatzen. Galesen (Bretainia Handian) *eraztunaren*

ordez, *galestar oharra* erabiltzen zuten (Gernikan egin zen Eusko Ikaskuntzako III. Kongresuan Sir Alfred T. Daviesek zehaztu zuen bezala). Galesen lepotik zintzilik seinale bat jartzen zitzairen haurrei, galestar hizkuntza erabiltzen bazuten. *Ohar* hau, *eraztuna* bezala, ikasle batek besteari pasatzen zion. Euskal Herrian, Gerra Zibilaren aurretik ere, euskara erabiltzeagatik zigortzea oso hedatua zegoen; 1936ko gerra ondoren ohitura hau erabat hedatu zen (Lasa, J. I., 1968). Azkoitiko Martirieta (Martitte) auzoan haurrak zigortzerakoan, *eraztuna* ez ezik, *medailoia* –lepotik zintzilik ematen zen domina– ere aipatzen da

Gipuzkoako hezkuntzaz ari garenez, Espainiako legedia eta irakaskuntza-planei buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Espainiako legerian bi dira aipatu beharreko mugarrak: 1812ko Cadizko Konstituzioa eta 1857ko Moyano Legea (Quintanaren Informea eta 1814ko Lege Proiektuarekin batera, Espainiako hezkuntza-sistema nazionalaren sorburua izango dena). 1812ko Konstituzioak, lehenbiziko aldiz, etorkizunean izugarritzko eragina izan zuten printzipioak aipatzen zituen:

336. artikulua. Lehen Hezkuntzako eskolak “*en todos los pueblos de la Monarquía*” ezartzeko agindua zehazten du. Inongo hizkuntzarik aipatzen ez denez, tokiko hizkuntzak baztertuz, gaztelera ezartzeko bide eraginkorrena zela pentsatu beharko da.

368. artikulua. Garrantzi handikoa da, liberalismo espainiarrak hezkuntza-arloan izan duen bateratze helburua zehazten baitu: “*El Plan General de Enseñanza será uniforme en todo el Reino...*”.

369. artikulua. Bertan azaltzen da Estatuak irakaskuntza kontrolpean izateko duen ahalmena: “*Las Cortes por medio de planes y estatutos especiales arreglaran cuanto pertenezca al importante objeto de la Instrucción Pública...*”.

Fernando VII.aren eskutik etorri zen erreakzio absolutistaren itzulerak, pikutara bidali zituen, momentuz, politikari liberalen ametsak (1820ko abuztuan, Jesusen Lagundia Espainiatik desterratua izan zen, eta honekin batera beste hainbat orden erlijioso). 1821ean, berriro ere liberalek, izaera berritzailea zuen hezkuntza-egitura berriari hasiera eman zioten, lehenengo erregelamendua sortuz, *Reglamento General de la Instrucción Pública* delakoa. Baina ez zuen asko iraun liberalen garaipenak. 1823tik 1833ra arteko garaia absolutismoaren aginte garaia izan zen eta berriro, 1814an bezala, absolutismoak Antzinako Erregimeneko egoera juridiko-politiko jarri zuen indarrean, hezkuntzari buruz 1771ko egitasmoak indarrean ezarriz.

Lehen Hezkuntzari dagokionez, ekarpen interesgarrietakoa 1838an onartutako Oinarrizko Irakaskuntzari buruzko Legea izan zen. Honek 1812ko Konstituzioaren printzipio nagusiak jarraitzen zituen (estatalizazioa, zentralizazioa, bateratze-mailak, curriculum-a, ikuskaritza...) eta Espainiako hezkuntza-sistema nazionalaren zutabea izango den Moyano Legearen aitzindari izan zen. 1857an martxan jarri zen Moyano Legeak ia beste 100 urte iraun zuen. Baina asmoak asmo, oraindik XIX. mendean Estatuaren ahulezia nabarmena zen: alde batetik, legea betetzeko eskolak falta ziren eta Estatuak ez zuen honen ardura hartu nahi, zama hau Udalen gain utziz. Estatuak, berak eraiki ez zituen eskolak gobernatu nahi zituen, udalek finantzaturako udal-eskolak esate baterako, eta hau ez zen udalen gogokoa.

Ikasleen hezkuntzari eta asistentziari buruz, Hezkuntza Ministerioak agindu zehatzak eman arren, errealitatea bestelakoa zen. Nahiz eta XIX. mendean eskolara joateko derrigortasuna ezarri, oso jende gutxi joaten zen eskolara (Madoz, P., 1991). Ikasgeletako hezkuntza-baldintzak penagarriak ziren eta motibazioa ere hutsaren hurrengoa.

1. TAULA: *Eskolatzea Gipuzkoan (XIX. mende erdialdea)*

Barruti Judiziala	Udal kopurua	Herritarrak	Biztanleak (arimak)	Eskolak	Asistentzia Mutilak-neskak	Eskolara bertaratutako biztanleak, %-etan
Azpeitia	23	4.928	24.653	34	1.080-524	6,51
Donostia	16	5.257	26.776	28	1.256-580	6,86
Tolosa	39	5.349	26.850	53	1.641-841	9,24
Bergara	15	5.261	26.366	27	1.330-495	6,97
Gipuzkoa	93	20.785	104.645	142	5.307-2.440	7,42

Hizkuntzaren ezagupenari dagokionez honakoa zen, herrialdeka, 1867an euskaldunen kopurua. Ikusten denez, gipuzkoar ia gehienak euskaldunak ziren (Núñez L., 1977):

2. TAULA: *Euskaldunen kopurua, herrialdeka, 1867an*

Herrialdea	Biztanleak	Biztanle euskaldunak	Euskaldunen proportzioa
Araba	123.000	80.000	% 65
Gipuzkoa	176.000	170.000	% 96
Bizkaia	180.000	149.000	% 83
Nafarroa	300.000	60.000	% 20

Herrietako hezkuntzari dagokionez, XVIII. mendera arte eskola gehien funtzionamendua autonomoa izan zen; gehienbat instituzio partikularrei, Udalei eta Aldundiei zegokien bere ardura. XIX. mendean Espainiak, Frantziak eraiki zuen eskola eta hezkuntza-sistema ereduari jarraiki, lege zentralista eta homogeneoak agindu zituen. Dudarik gabe, gizartearen modernizazio prozesuan eta klase interesak medio, burgesiak boterearen hegemonia ziurtatzeko ezinbestekoa zuen eskola eta heziketa kontrolatzea; Estatu-Nazioaren markoan kultur homogeneotasuna bultzatzea (Peset, J. L., 1978):

Evidentemente: con la lectura y escritura (en castellano) el ciudadano puede comprender y conocer los beneficios del nuevo régimen; con una gramática, una ortografía y una misma aritmética para todo el Estado se unifica la lengua, se sistematiza la base de unas relaciones de producción a nivel nacional.

Hezkuntzan ematen ari zen mugimendu liberalak Harrera ona izan zuen zenbait euskaltzale eta euskal instituzioen aldetik. Hezitzaileen artean Pascual Iturriaga nabarmenduko genuke; kontuan hartzekoa da autore honek 1839an idatzi eta 1842an aurkeztu zuen *Diálogos Vasco-Castellanos para las escuelas de Primeras Letras de Guipuzcoa* liburua. Baina Iturriagak (1778-1851) urratutako bide honek jarraitzaile gutxi izan zituen. Lege zentralisten ezarpenei euskal foru-instituzioek, samur bada ere, une batzutan aurre egin zioten, horrela 1859ko uztailaren 4ko Dekretuarekiko desadostasuna adieraziz. Egingdako eskakizunei erantzunez, espainiar Gobernuak Foru Aldundiek aurkezturiko proposamena jaso zuen. Kexa honi esker Moyano Legea, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian aldaketekin garatu zen.

1867an, J. M. Eguren (1859tik 1876ra bitartean Hezkuntza Ikuskaria izandakoak) *Diccionario Vasco-Castellanoa* argitaratu zuen, gaztelera irakasteko. Ikuskari honek onartzen zuen euskal biztanleek

euskaraz hitz egiten zutela erabat, eta hurrek eskolara joaten zirenean ez zutela gartzeleraz emandako azalpenik ulertzen; euskal ikasleek doctrina omen zuten gogokoena, hau baitzen euskaraz ematen zen gai bakarra. Egoera hau aldatzeko bere metodoa proposatu zuen:

La inmensa mayoría de los niños que asisten a las escuelas de nuestro país no entiende el castellano, pues que en los pueblos rurales, que son los que forman la mayor parte de la hermandad guipuzcoana, solamente se habla el vascuence, con muy cortas excepciones, y aún en las poblaciones de más importancia no es todavía habitual la lengua castellana sino entre las personas cultas y de más instrucción. Así es la conveniencia y hasta la necesidad apremiante que hay de enseñar la lengua castellana en las escuelas de Guipúzcoa. En general, el pueblo guipuzcoano habla usualmente el vascuence y por consiguiente, esta es la primera lengua que aprenden los niños.

Resulta, pues, que cuándo empiezan á asistir á la escuela no entienden bien el castellano, y como en este idioma aprende a leer, escribir y todos los demás ramos de la enseñanza, excepto la doctrina cristiana, no comprenden lo que leen y estudian y el desarrollo intelectual, en el cual consiste la verdadera instrucción, es sumamente lento. De aquí el que los maestros tengan en las escuelas vascongadas mucho más trabajo en el ejercicio de su penosa misión, con el disgusto de no conseguir satisfactorios resultados muchas veces por más que se esfuerzen; por consiguiente no progresa como debiera la enseñanza. (Eguren, J. M., 1876)

Moyano Legea martxan jarri eta Foruen indargabetzea suertatu arte, hots 1859tik 1876ra, euskararen eta hezkuntza-politika propioa gauzatzeko ahaleginak egin zituzten indar karlistek, baina hauen ekimenak ez zuen asko iraun. Karlisten Lehen Instrukziorako Batzarraren aginduz, *Iracurtzaren asirac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat-Principios de lectura para los niños de Euskal Herria* argitaratu zen (begira 1go eranskina). Argitalpen horrek *Reglamento Provisional de las Escuelas de Instrucción de la M.N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, agintzen zituen baldintzak betetzen zituen. Azpeitian argitaratutako erregelamendu honek, oinarritzko hezkuntzan zer eta nola irakatsi adierazten zuen (Echegaray, B., 1935):

Doctrina cristiana y principio de Historia Sagrada en vascuence. Lectura y escritura, primero en vascuence y después en castellano. Nociones de Gramática Bascongada y después de la Castellana. Las cuatro reglas de Aritmética por números abstractos y denominados,

y sistema legal de pesos y medidas. Se recomienda el estudio de los rudimentos de Historia de España.

1879an argitaratutako “*Reglamento Provisional de las Escuelas de Instrucción Primaria*” azertzeak hezkuntza arloan euskal erakundeen helburu politikoak eta asmoak zein ziren ezagutzea posible egiten du. Erregalamendu horrek Espainiako hezkuntza-sistemari garai horretako kalte ugari egozten dizkio; gainera azpimarratzen du Gipuzkoari erlijioak eta euskarak aparteko babesak ekarri diotela. Alderdi liberalen eta tradizionalisten artean zegoen liskarra nabarmena da idatzi hauetan. Dena dela, XIX. mendean, nahiz eta Diputazioak oinarriko irakaskuntzaren kontrola izan, ezin daiteke esan espainiartzat har daitekeen ereduaren apurtzen edo aldatzen ahalegin handirik egin zuenik. Une berezietan salbu, esan dezakegu euskal instituzioek ez dutela euskarazko hezkuntza bultzatu, eta garatu den alfabetatzea gaztelaniaren irakaskuntza errazteko izan dela, behin-behineko elebitasuna dela medio.

1.2. Azkoitiko historia eta aurreneko eskolak



Antzinako Azkoitia

Egungo Azkoitia, Iraurgi ibarra izenez ezagutzen zen barrutian zegoen kokaturik. Lehenengo dokumentazio idatzia Iruñeko Gotzaindegikoa da, lurralde bezala aipatzen baita 1027. urtean (edo 1186-1189. urtean beste iturri batzuen iritziz). Idazki horren arabera, bazen hemen lurralde entitate bat, Iraurgi bailara izena zeramana, eta Gotzaindegi horren jabetzapean zegoena. 1310. urtearen aurretik, bi erlijio-gune zehazten dira bailaran: Baldako Santa Mariako parrokia batetik, gerora Azkoitiko herriari sorrera emango diona –ez da gaurkoa, *Antes Balda que Azkoitia* esaldia– eta Soreasuko Sebastian donearen Eliza bestetik, gerora Azpeitiari sorrera emango diona. Lur horietako agintea noren esku gelditzen zen erabakitzeko, elkarren artean etengabeko borrokan aritu ziren Balda eta Oinatz familiak.

1324ko urtarrilaren 4an, Burgosen idatzitako Hiri-Gutunaren bidez, Alfontso XI.ak Sant Martin de Ahezcoytia de Yraurguiko biztanleria-guneari zenbait pribilegio eman zizkion. Iraurgiko San Martinen zegoen jende multzoak egindako eskariari erantzunez, Alfontso XI.ak pribilegio berria eman zion, Illescasen, Toledon, 1331ko uztailaren 9an, Iraurgiko Miranda izena hartuz asentamendu berriak.

XV. mendean zehar, poliki-poliki, hiribilduak indar hartzen joan ziren. Horrela sartu zen Azkoitia XVI. mendean, gizartearen baitan eraldaketa sakona ekarri zuen krisia gaindituz. 1458az geroztik, Azkoitiko Kontzejuak bazuen dorre bat bileretarako eta horri esker garrantzi nabaria lortu zuen Gipuzkoaren bizitza politikoaren antolaketaren barnean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilkura-leku eta Korrejidorearen egoitzatarako, aldizka-aldizka erabiltzen ziren lau herrietako bat izatera iritsiz.

Aro modernoan, XVIII. mendean, agertzen dira Azkoitian lehenengo euskal ilustratuak Xabier Munibe, Peñafloidako kondea, buru delarik. Honek, Azkoitiko pertsona nagusi eta ospetsu batzuekin batera, Euskalerrriaren Adiskideen Erret Elkartea (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País) aurkeztu zuen 1763an, geroxeago *Azkoitiko Zalduntxoak* izenarekin ezagunagoa izango zena, Intsausti jauregian eginez euren bilkurak. Urte batzuk geroago beste gertaera entzutetsu bat ere gertatu zen Azkoitian, 1766ko Matxinada. Altxamendu horretan herritarrek bat egin zuten jauntxoan aurka, alea garestitu zelako. Ilustrazioa eta aldarrikapen sozialak aurrez aurre aurkitu ziren.

Eta ezin emakumeen aipamenik egin gabe gelditu. 1782an Azkoitian jaio zen, Bizenta Mogel euskal literaturako aurrenetako emakumea

izan zena. Idazle honek hemeretzigarren mende hasieran, 1804an, *Ipuin Onak* liburua argitaratu zuen.



Intsaustiko Jauregia

Baina batzuk Ilustrazioaren bidea jorratzen ari ziren bitartean, besteek ez zuten jateko alerik ere. Haur gutxi batzuek, aberatsen seme-alabek, latineko irakasle partikularra zuten; besteek, 8-9 urterekin lanera joan behar izaten zuten.

Baina aldaketak ate aurrean aldabaka ari ziren. Hirietan udal-eskola berriak irekitzea aurrerapausoa izan zen, nahiz eta hasieran Elizaren aginduetara egokitutakoak izan. Udal-eskola hauetako mai-suari zera eskatzen zitzaion: moral onekoa izatea, dotrina jakitea, irakurtzen, idazten eta oinarrizko ariketak egiten moldatzea. 1745ean Iruñeko apezpikuak sinestunei dotrina ikasi beharraren derrigortasuna ezarri zien, derrigortasun hau XX. mende arte luzatu zen Gipuzkoako herri guztietan; 1936ko gerra ondoren ere Dotrina jakiteak *txartela* izateko eskubidea ematen zuen eta hau beharrezkoa zen zenbait elizkizunetarako.

Antzinako Azkoitiko eskolei eta hezkuntza-jarduerari errebasoa eginez, esan dezakegu herrian nabarmendu zen aurreneko eskola, 1599an Domingo Perez de Idiaquez eta Catalina de Olano y Loyola andre-gizonak testamentuan jarritako diruarekin eratu zena izan zela. Plaza Berri kalean zegoen eskola horretan, 86 eta 90 zenbakia zuten etxeen artean, bi maisu jarri zituzten, bat lehen mailako irakaskuntzarako, hots, irakurri, idatzi, zenbatu eta Kristau Dotrina irakasteko; bestea Latina emateko –datuak 1732koak dira–. 167 urte luzez egon zen Azkoitiko eskola hau Jesuiten eskuetan, Carlos III.ak bidali arte. Malaxecheverriak bere liburuan dioenez, kolegio horretan Kristau Dotrina ez ezik, beste hainbat gai ere ematen omen ziren euskaraz. Aipatzen du, baita, *Azkoitiko Kolegioko* arautegia euskaraz zegoela (1673an, Jesusen Lagundiak Bergarako Udalarekin izenpetutako akordioan, irakurketa eta zenbaketa gazteleraz eta kristau-dotrina euskaraz irakatsi behar zela zehazten zen).

Gipuzkoako udal-eskolei dagokionez, Udal gehienetan *Baldintzen Eskriturak* egoten ziren eta hauen bidez Udal-Batzak maisuaren zeregina bideratzen zuen. 1768ko apirilaren 6an, Azkoitiko Udaleko Erregelamenduan, maisuaren jardueraren bereizgarriak aipatzen ziren. Labur bilduz, zera zioen arautegiak:

Eginkizunak eta betebeharrak:

Deberá cobrar el salario que se le tiene asignado por la villa.

No podrá ausentarse de la villa bajo ningún pretexto, sin especial permiso del señor alcalde, y en dicho caso deberá de tener un sustituto para la enseñanza de los chicos, que cuente con la aprobación del señor alcalde o de su lugarteniente.

Es deber del maestro enseñarles a rezar el santo Rosario todos los días por la tarde y media hora antes de que salgan.

Deberá de procurar que los alumnos acudan los días festivos a los oficios divinos, como misa mayor, sermones, pláticas, vísperas, Salve... castigando a los que fueran omisos y no estuvieran con la debida devoción en los expresados oficios.

El sábado por la tarde era la hora de tomarles la Doctrina Cristiana y los demás rudimentos necesarios de la religión cristiana.

Ordutegia eta eskola egunak:

El horario de la escuela. En invierno, de siete y media a once y por la tarde de una a cuatro y media; en verano (desde Santa Cruz de mayo hasta Todos los Santos) de siete de la mañana a once y por la tarde de una a cinco.

Los días de fiesta también estaban regulados, señalando que a la juventud solo le apetece por naturaleza el recreo y la libertad. No habría clase los días festivos, y en fiestas religiosas que eran muchas, pero era de precepto oír misa. Los jueves por la tarde de cada semana (no habiendo alguna fiesta de entre medio, pero sí cayese en sábado o lunes se haría fiesta).

Eginkizun pedagogikoa:

El principal objeto del maestro es enseñar a leer, escribir y contar, no obstante se le encarga que a los adelantados se le enseñe a contar y parte de las cuatro reglas que tiene la Aritmética. Así como que sepan escribir con la debida instrucción y ortografía en la Lengua Castellana y compuesta por la Real Academia Española, y que de este libro se les enseñe el método de escribir.

Ikasleen onarpenaz:


El maestro se reserva el derecho de admitir a los que él les parece adecuados, ya que en muchos casos sólo se les manda a la escuela para librarse de ellos, y no hacen nada mas que estorbar en la escuela.

Araudi hau eskola sarreran itsatsi eta denen bistan jartzen zen, irakurtzeko moduan egon zedin. Erregelamenduak jauntxo, maisu, apaiz eta agintarietikiko errespetua eskatzen zuen. Gipuzkoako udal-errietako irakaskuntza Eliza eta apaizen kontrolpean egon zen luzaro. Dotrina, urte luzez, curriculumeko egitasmo bakarra izan da, bereziki auzo-eskoletan. Ez dugu ahaztu behar eskolan irakasten zen moralala Elizaren eskumena izan dela aspaldidanik eta eskumen hau Espainiako Gobernuak Egoitza Santuarekin sinatu izan dituen akordioetan oinarritua zegoela (Tuñon de Lara, 1985):

Por el se reconoce a la Iglesia el derecho al control de toda la enseñanza tanto en los establecimientos públicos y privados. La autoridad eclesiástica veía así reconocidas sus facultades *para velar por la pureza de la doctrina de la fe y de las costumbres, y sobre la educación religiosa de la juventud, aún en las escuelas públicas.*

Euskal Herriko Elizak, ohitura Tridentinoari jarraiki, euskara erabili eta bultzatu zuen. Bere helburua argia zen, euskaldunen artean bere mezua ahalik eta gehien zabaltzea. Ahozko transmisioa dotrina irakasteko era nagusia izan arren, dotrinaren irakurketa ere lantzen zen. Honela deskribatzen zuen mende hasierako egoera Serapio Mujikak (Cillan Apalategui, A., 1975):

Los preceptos de la Iglesia se cumplen con una exactitud y fidelidad completa. Es muy raro el que deja de cumplir con el precepto Pascual. Y no lo es menos el que deja de oír misa todos los domingos y fiestas de guardar y esta rareza sube de puntos en los pueblos rurales, aunque para salvar la distancia que separa algunas caserías de la parroquia, haga falta caminar durante una hora o dos.



Astetea, eskoletan erabiltzen zen dotrina

Eskoletan eta etxean kristau-dotrina irakastea nahitaezkoa izaten zen. Goiz eta arratsalde, egunero, aldiko irakasgai motzak eginez, buruz ikasten ziren testuak. Gure eskualdeari dagokionez Jose Luis Otamendik eta Iñigo Aranbarrrik, bikain deskribatu dute Elizaren eragina *Loiolarik ez balitz* liburuan, literaturaren hausnarketa soziala eginez.

Azkoitian nesken eskolarako egindako Baldintza eta Erregelamendu berezirik ez dugu aurkitu, beraz Azpeitiko aipatuko ditugu. 1852ko azaroaren 22an, Azpeitiko Udalak ordainketari buruz zera esaten zuen:

Las niñas que se dediquen a la instrucción de las primeras labores del sexo, que son el punto y la calceta y los rudimentos de lectura y doctrina cristiana, cuatro maravedís por semana, pagables los días sábados de cada una. Las que se dediquen a la escritura, contri-

buirán con cuatro maravedís más por semana, en todo cuatro maravedís. Las que a la Aritmética con las lecciones de Gramática castellana, satisfarán otros cuatro maravedís más, componiendo en todo 12 mrvds. por semana. Las que tomen instrucción de costra, contribuirán otros cuatro maravedís más por semana, en todo 16 mrvds.

1.3. XIX. mendeko Azkoitiko eskolak. Foruak eta liberalismoa aurrez aurre

Garapen sozialari dagokionez, XVIII. mendea herri xumearentzat gogorra izan zen eta gosea nonahi zabaldu zen. Ez zen askoz hobeia izan XIX. mendea; Guda Karlistetako borrokek emandako jipoiagatik batetik, eta burdinoletan oinarritutako ekonomiaren amaieragatik bestetik. XIX. mendearen erdi aldera Azkoitian industrializazioa hedatzen hasi zen ehungintzaren inguruan, oihal, abarketa eta txapelak egitean oinarritua. Poliki-poliki proiektzio handiko lantegi garrantzitsuak sortzen joan ziren.

XIX. mendean, Gipuzkoan, oinarrizko heziketaren ardurua Udalen esku zegoen, Foruen babesean eta ohiturarekin jarraituz. Politika liberala gizartearen ezartzen joan zen eran, Espainiako Gobernuak herritarren hezkuntza kontrolatu nahi izan zuen. Arrazoi honegatik Euskal Herriko Udal gehienak 1838ko Irakaskuntza Publikoaren Lege Orokorren aurka agertu ziren. Lehenengo Gerra Karlistako adierazgarri dira ondorengo bertsoak, *Muñagorriren Kantak*, bildumatik aukeratutakoak (Bujanda J., 1991):

Semeak soldadu ta preso gurasoak/ ezin pagaturikan kontribuzioak;
Trintxera lanetan gañera auzoak; /dolorezkoak dira gaur gure pau-
soak.

Ateak itxi eta ogia garesti/ artua ere ari da igotzen poliki;
Dirua ezkututzen da egunero hemendik/ nola bizi geraden arritutzen
naiz ni.

Erljio santuan guk elkar arturik/ ez dugu gure artean izango
kalterik;

Len bezela eginikan gure funtzioak/ Elizetan sermoiak ta prozesioak.

Baina Madrildik ezartzen zen legeria ez zen bertako agintarien gustukoa. Horrela, Moyano Legea ez zuten begi onez ikusi Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Aldundietako ordezkariak. II. Gerra Karlistak iraun zuen bitartean, 1873tik 1876ra, Euskal Herrian sortutako hezkuntza-

politika baten garapena ahalbideratu zuen, baina denbora gutxi iraun zuen. Indar Karlisten politika honen bereizgarriak honakoak izan ziren:

Maisu-maistrak Udalek izendatzen zituzten eta euskara ezagutu eta menperatu behar zuten.

Irakaskuntza edukiaz, erlijio kristauaren alde zegoen.

Ikuskaritzan, eliz-gizonen presentzia nabarmena zen.

1876tik aurrera, Foruen indargabetzearen Legeak, irakaskuntzari dagokionez, euskal Aldundien eta Udalen ekarpena baldintzatu zuen. Karlisten errebindikazioak isildu ondoren, liberalak berriro ere gogor ekin zioten beren hezkuntza-jarduerari. 1885ean, Gipuzkoako Aldundia euskararen alde atera zen, Instrukzio Publikoko Lege berrian azaltzen zen euskararen erabileraren aurkako artikulua bertan behera uztea eskatuz. Ekarpenekin bat egin zuten Bizkaia, Araba eta Nafarroako Aldundiek ere. Horrela zioten nafarrek euskararen aurkako erasoari buruz, Oiartzungo Udalarari bidalitako idatzian:

Perder la lengua propia es abrir un abismo infranqueable entre los progenitores y los descendientes, rasgar la trama de la conexión social e histórica, desnaturalizarse u cambiar el alma. El pueblo vasco navarro, como todos los pueblos del mundo, tiene derecho perfecto e indiscutible a su lengua.

(...) La Diputación de Navarra, atenta a conservar rasgo diferencial tan típico y de abolengo tan añejo e ilustre como es la lengua vascongada, ha acordado gestionar cerca del Gobierno de su S. M. la declaración preceptiva de la enseñanza del vascuence en las escuelas del territorio vascongado.

(...) Con la formula adoptada, cualquiera que sea la autoridad revestida con el derecho de nombrar maestros, autoridad que por fuero tienen aquí los Ayuntamientos, habrá que exigirse a las personas que hayan de regentar las escuelas, como condición ineludible el conocimiento de la lengua euskara, que es precisamente la laudable y patriótica moción de V. E.

Euskarari eustea liberalismoari aurre egin eta tradizioak mantentzeko era bat zen, eta ez zen nolana hikoia nekazal jauntxo tradiziozaleek zuten indarra. Azkoitiko landa-inguruneari dagokionez, 1874an bi baserri jabe bakarrik bizi ziren bere baserrietan, Izagirre-Astarbekoak (Izer) eta Arrandolaza-Zabalekoak. Gainontzeko 220 baserri edo etxebizitza 48 jauntxoen ondasunak ziren: Antonio Maria Zabala (29 etxe-

bizitza), Esteban Hurtadoren oinordekoak (18 etxebizitza), Narrosko Markesa (13 etxebizitza), eta abar. Kontu hauek poliki-poliki aldatzen joan ziren, herritarren mesederako. 1902ko uztailearen 24an Azkoitiko Udalak honako zehaztapena eman zuen.

En este término municipal existen 292 fincas rústicas y 192 urbanas. Los propietarios que cultivan por sí mismos sus fincas rústicas, son 83, y las restantes en su mayoría son propiedades de personas que son forasteras, resultando por lo tanto 210 colonos o arrendatarios.

Hezkuntzaren egoerari buruz esan beharra dago, 1850ean Azkoitiko herrigunean bi Eskola Publiko zeudela eta hauetara ia 150 ikasle joaten zirela. Garai hartan, Madozek dioenez, Azkoitiko landa-inguruetan ere ba omen zeuden auzo-eskola batzuk. XIX. mendeko maisuen gorabeherak horrela deskribatu zituen 1953an Trino de Uriak, Azkoitiko Epaille eta Ohorezko Kronista izandakoak:

“Los maestros de escuela del XIX en los pueblos guipuzcoanos”

La villa de Azkoitia sustentaba entonces dos escuelas: una de niños y otra de niñas, sostenidas por un maestro titular y ayudante la primera, y por una maestra, la segunda. Los que no marchaban a Vergara u Orduña tenían, además, su cátedra de latinidad, regentada, las más de las veces, por cualquier venerable beneficiado. Pero esta cátedra era de fundación particular, independiente, como las escuelas de los maestros privados que asistían a las barriadas.

Las escuelas públicas, dotadas por el Ayuntamiento, hacia mediados del siglo pasado, lograban reunir a unos doscientos cincuenta alumnos en un edificio de grandes vigados y chimeneas de amplia campana, habilitado de hospital cuando las guerras carlistas. Muchas veces, el número de alumnos era mayor, y en tanto la quebrada tesorería municipal no podía pagar el sueldo estipulado al maestro o maestra titular, tenían estos que enfrentarse con las más díscola chiquillería, avezada a pedreas de “churis” y “beltzak”; es decir, de carlistas y liberales, de “blancos” y “negros”. Toda la pedagogía del maestro de primera educación y su ayudante –cualquier tonsurado desertado y memorialista– era poca, aún con ayuda de palo, para enseñar los rudimentos de las cuentas, la doctrina, la historia de los nietos de Noé que poblaron España y aquella estupenda pendolística de que hacían gala en competición cuando solicitaban alguna plaza.

Amparados en las ordenanzas municipales, que no permitían que ningún chico ni chica en edad escolar pudiera encontrarse por las calles, el maestro de “Santo Domingo de la Calzada” o “el de Cegama”, famosos en este pueblo, hacían practicar verdaderas redadas para que no quedara ningún pillastre azcoitiano sin saber que “los en “um”, sin excepción, del género neutros son”.

Maestros aquellos, de venerada memoria, cuyas emocionantes apologías se habían de hacer luego tantas veces junto a los bancos de alpargata. El maestro azcoitiano del siglo pasado era elegido con gran sentido de responsabilidad. Había de tener ciertas virtudes, que, a veces, podían pesar en el criterio de los regidores tanto como su grado de “maestro de primera educación”, con título del Consejo Superior. Enterados de la vacante, anunciada en todos los cartelones de la provincia, los aspirantes hacían la pertinente solicitud, caligrafada con elegante letra. Tenía mucha importancia la caligrafía. Así, las solicitudes se hacían con gran aparato pendolístico, y el aspirante contaba con su mejor letra, su historial pedagógico y vocacional. La sentimentalidad también pesaba lo suyo en aquel tiempo, y los solicitantes solían intercambiar detalles enternecedores sobre su situación pecuniaria, etc., dirigidos a mover el fondo de “hondad acendrada” de los regidores, en especial los aspirantes a ayudantías que, generalmente, eran del pueblo.

Con un concepto de dignidad profesional tan severo como los negros levitones que gustaban llevar, estos maestros dieron buenas pruebas de su vocación y eficiencia, haciéndose merecedores de las mayores consideraciones. Da que pensar la gran labor que hicieron son sueldos tan mezquinos, especialmente los auxiliares –los ayudantes–, que muchas veces llevaban el peso mayor del trabajo. Es impresionante una comunicación de cierto Pedro Alberdi dirigida al Ayuntamiento en 1862: “Aunque con el sentimiento de tener que separarme del solar de V. S., mi país natal, siéndome insuficiente para el sustento de mi familia la tenue renta que me proporciona la ayudantía de primeras letras que V. S. tuvo la bondad de confiarme, y que la he desempeñado con celo que me ha sido posible, he resuelto dejarla y encontrar la subsistencia en los Caminos de Hierro, donde he conseguido una ocupación”.

Es preciso considerar que con una dotación de 1.400 reales anuales, con derecho a vivienda no se podía hacer ningún milagro por los años de la primera postguerra civil. Los mismos 4.000 reales

que, en honor al grado, percibía el maestro titular no eran tampoco ninguna gran cosa. Sin embargo. Sin embargo, las vacantes, se cubrían fácilmente. Es curioso, en el caso citado, cómo, a los pocos días, venían dos o tres solicitudes tras de la plaza. Un aspirante, habiendo terminado “a satisfacción de su maestro la gramática latina” el debido respeto y la consideración pedía la plaza vacante “con el sueldo que a V. S. le pareciera conveniente”. En tanto, otro, seguramente más considerado, solicitaba también la misma plaza, pero con una dotación de seis reales; es decir, con un aumento de dos diarios sobre el sueldo anterior; en atención, como él mismo decía a “lo que valen los artículos de primera necesidad y el decoro en que debe de presentarse un empleado público, así en el vestido como en todo lo demás”

(*La Voz de España*, 1953ko otsailaren 1a).

1877an, Azkoitiko Udal Instrukzio Publikoko Batzarrak zera zioen herriko hezkuntzari buruz:

El Sr. Inspector expuso que había girado la visita a las escuelas publicas de ambos sexos de esta localidad, habiéndose encontrado la enseñanza en buen estado, quedando satisfecho así de la conducta y aptitud de los profesores como del celo y el interés que el Ayuntamiento y de la junta Local vienen desplegando en este punto tan interesante de la Administración Pública. Dicho señor manifestó asimismo la necesidad de instalar una escuela nocturna de adultos.

XIX. mendean Azkoitiko herrigunean zeuden eskola publiko, udal-eskolak (*eskola-munizipalak*), eskola partikular eta erlijiosoek Udalaren aldetik atentzio eta laguntza jasotzen zuten, batzuk besteak baino gehiago. Eskola hauetaz ez gara luzatuko, bakarrik *Bastarrika* aldeko maisuaren aipamena egingo dugu, Trino de Uriaren idatzia aipatuz:

Celestino (Selestiño) era de la familia de los “Putre”. Un alpargatero que alternaba el cosido de suelas con el magisterio. Mientras trabajaba en su banco de artesano este humilde azcoitano, rodeado de atenta chiquillería con Catones, enseñaba a leer y a ser hombre. Digno y comedido, a la sombra de la antigua iglesia de San Sebastián, “Selestiño” educó al arrabal de Bastarrica.

(*La Voz de España*, 1953ko otsailaren 1a)

1.4. XIX. mendeko Azkoitiko auzo-eskolak

Historiak irakasten digunez, eskolaratzearen sozializazioa azken XIX. eta XX. mendean garatu den errealitatea izan da. XVIII. mendean hirigunetatik, herrigunetatik at, ia ez zegoen eskolarik. XIX. mendean, herriguneko eskolak poliki-poliki hedatzen joan ziren eta auzo-eskola bakar batzuen berri ere ematen digu Gipuzkoako Aldundiak. 1824an aurkeztu zuen *Reglamento de Instrucción Pública* idatzian, bigarren kapituluan, zati bat eskaintzen zaie auzo eta baserrietan lanean ari diren maisuei:

1ª La especie de población de este solar en barrios separados y algunos muy distantes de las poblaciones unidas donde se hallan las primeras letras, priva á la multitud de niños y niñas de los bienes de esta enseñanza; y lo más sensible es que los años primeros que no pueden ser útiles en las labores del campo, pasan en la ociosidad sin aprender apenas las primeras obligaciones del cristiano. Sus padres ocupados y cansados que casi no saben de religión mas que algunas practicas, no pueden servirles de maestros; no pueden oír la voz de su pastor en la parroquia sino raras veces por la distancia en que viven; el precepto de la iglesia con relación a la misa lo cumplen en ermitas y tanto muchacho de caserío se ve obligado a abandonarlo. No aprender lo que deben saber porque no hay quien le enseñe y no ignoran lo malo porque no hay maestro para aprenderlo. Esta necesidad clama por el remedio y no hay párroco el más celoso que lo pueda poner. Predica, instruye y exhorta en su parroquia; pero las grandes distancias y la dificultad de las másimas entras separa para siempre a multitud de feligreses. Los únicos que disminuyen de gran manera estos males son los maestros de despoblado, que en ermitas o casas separadas ponen su escuela y hacen el bien que solo ellos pueden hacer por el módico alimento o recompensa que pagan los padres pobres del campo. Dícese que son los que disminuyen los males, no que los quitan, porque siempre quedan barrios sin este único é inapreciable auxilio ¡Ojalá no hubiese un solo muchacho privado de bien tan grande ;

2ª. Estos operarios cubiertos de andrajos, y mal alimentados si se quiere, son hombres muy dignos de toda consideración y aprecio de las Juntas de inspección. Uno de los grandes bienes que deben de esperarse de estas juntas es el fomento que deben de dar a estas escuelas del campo. En ellas aprenden el libro de los libros que nos dejó el divino Salvador en su celestial doctrina: aprenden á leer, á

escribir y el catecismo: rezan el rosario todos los días, hacen la devoción del calvario, en una palabra, aprenden las principales reglas de moral, y los fundamentos de la religión. Anímese pues a los maestros, y procúrese multiplicar esta especie de escuelas. Que la junta de pueblo por algún individuo de su seno y por algunos hombres honrados de los mismos barrios, cele la conducta de estos maestros aleje al que fuese conocidamente escandaloso y honre hasta los andrajos de hombres tan útiles y tan dignos; en una palabra, la junta no tolere que un perverso enseñe a los muchachos, y anime al que es bueno en su conducta: este debe de ser el único objeto, y estas las únicas reglas de esta parte.

1823an, Gipuzkoako Batzar Nagusien aginduz, Batzorde berri bat sortu zen; Gipuzkoako haurrentzat eskola-arauak eta orientabi-deak finkatzea zen horren xedea. Batzorde horrek aurkezturiko proposamenetan *auzo eta ermitetako maisuen* defentsa bizkorra egin zuen. Kultur eta erlijio gaiak ikasten ziren eskola umil haietan, maisuei ordu-a pagatzeko adina ordaintzen zitzaien. Ikasle gehienek eskolara bidezidorretatik ez zenean, gurdibidetik joan behar izaten zuten (Bujanda, J., 1991).

Azkoitiko landa-ingurunetako eskolak aztertzerakoan aipatu beharra dago *igande-eskolak* martxan jartzeko Jesuitek egin zuten ahalegina. Baserri eta auzoetako haurrei, ikasteko maisurik, ez apaizik gertuan ez zutenei, erlijiozko eta lehen letrazko hezkuntza eman nahian sorra-razi zituzten *igande-eskolak*. Baserri mordo baten erditsuan zegoen alderrian, andereño baten babespean ipintzen zituzten ingurutako umeak. Eskola hauek Aita Aranak dioenez, XIX. mende bukaera aldera asko zabaldu ziren Azkoitia eta Azpeitia aldean, Loiolako Jesuiten eraginez. Eskola hauekin batera garatuko dira bailaretako auzo-eskolak (Altuna, P., 2000).

Lehen azaldu ben bezala, herriguneko eskolak, bere neurrian, atentzioa jasotzen zuten, baina ez zen horrela gertatzen auzo-eskolen kasuan. 1893an Azkoitiko Udalak Komisio bat aukeratu zuen bailaretako eskoletako maisu-maistrei zenbat ordaindu behar zitzaien erabakitzeko. Hauek erabaki zuten urteko 125 pezeta eman behar zitzaizkiola Madariagan zegoen maisuari eta 62,5 pezeta beste bailaretakoei. Gainera Komisio honek azpimarratu zuen bailara hauetan ez zela posible izango Eskola Publikorik jartzea, legeak ezartzen zituen baldintzak ez zituztelako betetzen, beraz ezinbestekoa zela auzo-eskola txiki hauek mantentzea.



Madariagako Isidro Donearen basiliza eta eskola

Landa-inguruneko haurrei oinarrizko instrukzioa eskaintzearen truke, Udalak diru laguntza eskaintzen zien maisu-maistrei. Hauek gehienetan oinarrizko formazioa zuten eta titulurik gabekoak ziren. Eskolak irekitzen ziren auzotarrek eskatzen zutelako. 1896an Izarraitz azpiko Pikoaga eta Aranaga baserrikoek, Tomas Aldalur eta José Arrieta jaunek, horrela eskatu zioten Udalari:

Que de acuerdo con los demás vecinos de la barriada han acordado establecer una Escuela particular a fin de que los jóvenes puedan aprender la doctrina Cristiana ya a leer el libro de misa y para cumplir con los preceptos de nuestra Santa religión cuando lleguen a su edad y como no llegan los cuartos para pagar al maestro, por lo que: Suplican a VS. que para establecer la escuela de que se trata, abone la cantidad que bien tenga conforme lo hace con los demás barrios.

Baserrietan eskola berria ireki aurretik lehen urratsa zera izaten zen, eskolarentzat Udal baimena izatea. Ondoren eskola horretako maisu-maistrarentzat diru laguntza ziurtatzea, baina hau ez zen beti segurua izaten. 1899an Aitubeondo eta Ula baserrietako bizilagunek beren harridura azaldu zuten bertako maistrari azken sei hilekoa ez zitzaiolako ordaindu (45 pezeta). 1900eko otsailaren 4an, Manuel Ulua eta Valentin Barriola baserritarrek gogor defendatu zuten bertako maistrak egindako lana:

Los padres de todos los discípulos que van a la Escuela estamos satisfechos de lo bien que desempeñan su cargo las maestras, pues tía y sobrina, en conjunto sirven para enseñar a leer y escribir y se instruyen los que acuden. Los días de labor enseñan en su casa de Abajo y los días de fiesta suben a las casas de arriba, cuales, por semestre tienen obligación tomada de disponer local o habitación para escuela. De este modo, estamos todos muy conformes y sería tan sensible que la falta de la retribución de setenta pesetas anuales viniera a trastornar esto que con algunos sacrificios hemos conseguido establecer para nuestros hijos.

Maisu hauen lana horrela deskribatu zuen Trino de Uriak:

“Los maestros de escuela del XIX en los pueblos guipuzcoanos”

Junto a los maestros de escuelas municipales, pagados de la gravedad de su título de “Maestros de Primera Educación”, hombres de perilla, rígidos y correctísimos, destaca la estampa de los maestros privados; los humildes “eskola-maishus” de barriada. Personajes pintorescos, estrechamente ligados con el pueblo, que les admiraba tanto por lo “shelebres” como por educadores competentes. Curiosos tipos que daban notas de carácter en todos nuestros pueblos. Aparte, en una época en que apenas había escuelas fuera de los pueblos, hicieron gran labor.

Como personas son difícilísimos de catalogar en cualquier estrecha casilla. Entre ellos hubo de todos, desde extraños bohemios en cuya vida nadie podía hurgar, hasta los descentrados de las guerras civiles, los hijos pródigos del lugar y los “odiables liberales”. Gente todas que, un buen día, después de ignoradas correrías, paran en cualquier barriada, metiéndose a dar palos y educación a toda la chiquillada del contorno, por poco que les dieran los afortunados labradores. De cultura varia, en tanto unos eran verdaderos “posos” de ciencia, de completísima educación, otros no sabían nunca más allá de ciertos rudimentos para poder enseñar el “Catón”. Así, aquella maestra de feliz memoria, que educó varias generaciones de pillastres azcoitianos sin más bagaje que el Catecismo bien sabido, el “Caton” y la copia para la lección de caligrafía, que invariablemente, era aquello de “Paloma hermosa, Mazaret, Igitho, Jerusalén”.

(La Voz de España, 1953ko martxoaren 1a)

Baina euskarari eta ofizialak ez ziren auzo-eskola partikular hauei laguntzea ez zen Espainiako Hezkuntza Ministerio berriaren jomuga (1900ean, Gobernuak Hezkuntza Ministerioa sortu zuen, *Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes* deiturikoa; ordura arte Instrukzio

Publikoaren ardura Sustapen Ministerioaren, *Ministerio de Fomento*, eskumena izan zen). Euskararen erabilera errebindikatuz, hots, Udalak eskoletan maisu-maistra euskaldunak izateko eskumena eskatuz, azkoitiarrak ere gogor aritu ziren. Kontu hau dela eta, 1904ko azaroaren 22an Azpiazu jaun azkoitiarrak, Gipuzkoako Aldundiari eginiko eskakizuna aipatu beharrekoa da:

El asunto a que se refiere la solicitud del señor Azpiazu es verdaderamente trascendental para el País, y diferentes veces, y utilizando circunstancias que lo estimaba oportunas, ha intentado V. E. lograr, en bien de la tierra euskara, lo que con tan noble celo pretende el recurrente. Las gestiones practicadas por su V. E. cada vez que ha creído que se presentaba una ocasión propicia para obtener de los Poderes públicos una disposición encaminada a que fuese precisa la posesión del idioma vascongado para desempeñar las plazas de maestros titulares de Guipúzcoa, y para que estos sean nombrados por los Municipios respectivos, no han tenido desgraciadamente el éxito que era desear.

Modernitatearekin batera, liberalen hezkuntza indartsu ari zen hedatzen. Eskola berriak eraikitzea eta Ikuskaritzaren irudia indartzea agintari berrien lehentasuna zen. Poliki-poliki, ideia liberalen eragina zoko eta bazter guztietara ari zen hedatzen, eta Azkoitia ez zen salbuespen. Jarraian ikusiko dugun bezala, XX. mendean aldaketa sakonak izan ziren.

2. Modernizazioa eta hezkuntza sistema berria (1900-1923)

2.1. Bebarruan eta ezkaratzean, aldaketa sozio-ekonomikoak ate joka

XX. mendean politika liberalaren eta zentralismoaren indarra nagusitu eta hezkuntza-politika estatalista finkatzeko lehenengo urrats eraginkorrak eman ziren (Fernandez, I., 1994). Aldaketa sozialei dago-kienez Gipuzkoan aldaketa mailakatua izan zen, ohitura zaharrak eta joera berriak tentsio handirik gabe txertatzen joan ziren. Azkoitiko industrializazioa, historiagileen iritziz eta Bizkaia eta beste herrialde batzuekin konparatuz, aldaketa sozial gutxi izan dituen trantsizio

industrialaren erdiz hartu izan da. Aurreneko lantegiak XIX. mendearen erdi aldera hasi ziren funtzionatzen eta industrializazioa abarketa eta txapel lantegien eskutik sartu zen gure herrian.

Guipúzcoa gracias a su ponderación, disfruta de un relativo bienestar. La industria está bien ponderada y asentada en bases sólidas. Es múltiple y variada, dirigida, mayoritariamente por sus fundadores o sus hijos. Necesitaría mejora de los transportes, electrificando la red. El bienestar es alto, ya que el equilibrio y reparto más equitativo de su riqueza hace que sea la que menos pobres tenga y por lo tanto disfruta de una vida mejor que precisa conservar y aún mejorarla (Orueta, J., 1919).

Mende hasieran eskolara joateko joera gutxi zegoen. Egoera arrazoitzeko argudio oso bitxiak ematen zituzten instituzioetako ordezkariak. 1913ko abenduaren 11n, Aginaga foru-diputatu gipuzkoarrak, horrela zioen Gipuzkoako Batzarretan, auzo-eskoletan ematen zen eskolatzear:

El carácter utilitario de éste que sólo se mueve por lo que le produce un beneficio inmediato; utiliza a sus hijos en labores agrícolas, manda al niño lo suficiente para recibir la instrucción necesaria para comulgar, corriéndose el riesgo de que después de siete años, no los mandaran sus padres a instruirse.

Baina denak ez ziren pentsaera berdinekoak. Orbea foru-diputatuak, bilera berean, zera erantzun zion:

Los habitantes de la provincia tienen un patrimonio moral envidiable y por su honradez y por su energía constituyen la honra de la raza, enaltecida por la legión colonial vascongada, que de tan alto predicamento goza en los países americanos, elogia a los maestros que enseñan la educación a los niños guipuzcoanos, *komulgatzeko lain*, porque eso quiere decir que ellos anhelan que sus hijos sean buenos, que sean cristianos, que sean cumplidores de sus deberes con Dios, para con la patria y para consigo mismos, y no soldados del motín y de las Sociedades de resistencia.

Bi iritzi hauek garaiko ideologia nagusien isla ziren, liberala eta tradizionalista. Politikoez beren kontuekin jarraitzen zuten bitartean, baseritarren egoera penagarria zen. Joan Mari Zubizarreta Larrañagak, *Etxeberritxok*, izen bereko baserrian 1855ean jaiotako azkoitiarrak, horrela deskribatu zuen garai hartako bizimodua, bederatzi puntuko *Nere ofizioa* bertso sortan:

(5) Zortzi ume ditugu, familia fina,/ trabajua jateko sortu ezina;
guzientzako ez da munduba berdina;/goizian porru salda, gaubian
jakina:

ondo irakina,/ aparra egina,/ andriak kozina,/ postrian sardina;
ondo izan nahi nuke ezin det baina.

(6) Nire ofiziua alpagata josten,/saiatuko gerade aulki eta ezten;
jornal handirik ere ez dute ematen:/sei ta erdi ta zazpi igez eta
aurten;

egiak esaten,/ gutxi irabazten,/ ez degu izaten,/ miseria jaten,
aberastuko gera halakoen baten!

XX. mende hasiera berrikuntza garaia izan zen Azkoitiko gizar-
tean. Jute eta abarketa lantegien garapenarekin, poliki-poliki, langileen
egoera negargarria eztabaidatzen hasi zen, eta honek liskar gogorrak
ekarri zituen. Garapen industrialak, demokratizazioak, komunikabide
berrien sorrerak, Urolako trenaren ailegaerak (1926an), langile mugimenduak, pentsaera jeltzalearen garapenak... ikuspegi berria ekarri zuten. Demokrazia sumatzen zen.



Azkoitiko herria, atzean San Martin

Aldaketa hauek sakon eragin zuten herritarren eguneroko bizimoduan. Herrigunean aldaketa nabarmena izan zen: lantegi berrien irekiera, populazioaren gorakada, etxe berriak... Landa-ingurunean, oraindik, egoera bestelakoa zen; baserriko lanak diru gutxi ematen zuen eta hauek ere lantegietara joaten hasi ziren, horrela baserriko ekonomiari bultzada emanez. Nahiz eta pentsaera tradizionalak aldaketa gutxi izan, baserrian ekonomia mistoa errealitate bihurtzen ari zen.

Azkoitian, urte hauetan, hiru joera politiko nagusi zeuden: integrista, karlista eta nazionalista; joera hauetatik indartsuena integristena zen. Alderdi Integristako buru nazionala, Manuel Senantes, Azpeitiko barrutitik aurkeztu zen Kongresura, eta 16 urtez jarraian, 1907tik 1923ra bitartean, aukeratua izan zen. Azkoitiko herriaren ezaugarrietako bat gizarte tradizionalista eta oso elizkoia izatea zen, proportzioan Gipuzkoan boto tradizionalista gehien zeukan udalerria zen. Urte hauetan, jauntxoek, Elizaren laguntzarekin *fabrikak ez ezik, fabrikanteen* eguneroko bizitza soziala ere kontrolatzen zuten. Ondorioz, aldaketa handirik gabe garatu zen industrializazioa. 1920an, Azkoitian, Sindikatu Libreak ateratako bertso paperetan azaltzen den bezala (Zabala, A., 1970):

Iñoiz etortzen bada eleziyorian,
Erakusten digute ejemplo onikan:
Nai badezu aurrera pabrian lanikan,
Ez zaiozu besteri eman botorikan.

Joera hau 1917tik 1923rako epealdian zerbait aldatu zen, garai hau gatazkatsua izan baitzen:

La población obrera guipuzcoana deja de ser aquel personal *sumiso y satisfecho* del que hablan con orgullo y alegría los mismos patronos industriales en los primeros años de la década de 1910, para convertirse en componentes y protagonistas de una sociedad con un alto índice de conflictividad (Luengo Teixidor, F., 1990).

Honen lekuko da *La Constancia* egunkariak, 1920ko uztailaren 20an, ematen zuen informazioa:

El pueblo de Azcoitia era el pueblo más católico y más pacífico y religiosos del mundo; y coincidiendo con la propaganda sembradora de odios entre el capital y el trabajo que allí han hecho los llamados sindicatos católicos libres, hoy está completamente perturbado.

Baina industriarekin batera, langileria ere bere lekua hartzen ari zen. Bilbo aldean sindikalismoa sozialismoaren eskutik sartu bazen, Azkoitian eta Azeptitian sindikatu indartsuenak katolikoak ziren. Urolaldean industrializazio prozesua poliki eman zen, ia ez baitzen etorri kanpoko langilerik. Komunikabideen egoera kaskarrak, Elizak eta jauntxoan iritziek zerikusia izan zuten garapen berezi honetan. Baina poliki bazen ere, langileriaren egoera aldatzen joan zen. 1920an, Azkoitiko fabriketako langileek greba gogor bat bultzatu zuten, beren lan baldintzen defentsan. Urte latza izan zen eta Elizaren eragina, berriro, nabarmena, gatazkaren alde bietan ordezkaturik baitzegoen. Hain herri eta gizarte erlijiosoan sindikatu katolikoak nagusi izanik, klase kontzientzia eta erlijio fundamentuak nahastuta aurkitzen ziren.

Azkoitiko sindikatuek bi ildo nagusi jarraitzen zituzten: Sindikatu Katolikoan erakoa eta Sindikatu Librea. Sindikatu Katolikoan erakoa 1895ean hasi zen Azkoitiko langile katolikoak biltzen, eta 1900ean *Sociedad de Socorro de los Obreros Católicos del Purísimo Corazón de María* bezala erregistratuta azaltzen zaizkigu; hauei *amarilluak* deitzen zitzairen eta sarritan atzetik nagusien itzala izaten zuten. Sindikatu hau Manzisidor enpresaburuak sortu zuen eta Loiolako jesuiten babes osoa zuen. Beste ildoan Sindikatu Librea zen eta hauek bi azpitalde zituzten *Langillian Alcartia* eta *Makinisteen Anaitasuna*; sindikatu librekoek erresistentzi kutxa zuten eta sindikatu hau dominikoek bultzatua zen, Aita Gerardek eta Aita Garfok batez ere (Garmendia, G., 2003). *Solidaridad de Obreros Vascos*, 1919an eratu zen eta elkarte hau EAJko alderdi kideek osatzen zuten. Sindikatu Libreaz aritzekotan, herritar asko nabarmendu genitzake, baina hezkuntzan izan zuen eraginagatik Angel Larrañaga Juaristi aipatuko dugu. Honek parte hartu zuen 1927ko azaroaren 2an Madrilen egin zen hezkuntzari buruzko *Asamblea Nacionalean*. Bertako agirietan horrela deskribatzen zen bere biografia:

Nació en Guipúzcoa el 24 de febrero de 1899, hijo de modestísimos obreros alpargateros se educó y formó su temperamento con los Hermanos de las Escuelas Cristianas. Sus mayores actividades las ha dedicado a las organizaciones sociales. Fue Presidente de la disuelta Confederación nacional de Sindicatos Católicos libres de España. Ha importantes cargos, siendo el *alma mater* de las importantes instituciones sociales de Azcoitia y nombrado concejal de aquel Ayuntamiento.

Angel Larrañaga Juaristik bere buruaz egiten duen deskribapenean, horrela zioen:

Soy obrero y sindicalista libre por convicción. Tengo absoluta fe en la organización profesional, única, a mi manera de entender, que puede equilibrar la vida de los pueblos e implantar los principios de Justicia y Libertad. El pueblo obrero sufre. A aliviar, a mejorar y dignificar su situación he de dedicar todos mis esfuerzos...

1920ko urriaren 6an, ehundegietan izandako grebak liskar gogorrek sortu zituen, Guardia Zibilak gogor eraso zien langileei, emakume eta umeei, eta ondorioz zenbait zauritu izan ziren. Alkateak Gobernadoreari egun horretan bertan bidalitako telegrama dugu ezau-garririk egokiena:

Cerca de ocho mañana momento abrir fábricas, presentáronse grupos mayor parte mujeres y niños en la de Alberdi y Cía. en actitud tumultuosa. Lejos de atender indicaciones Guardia Civil para que se retiraran partieron del grupo dos disparos en cuya virtud la fuerza hizo uso de sus armas para disolverlos hiriendo gravemente dos hombres y una mujer y levemente a cuatro muchachos los que han sido trasladados hospital Manteo esa ciudad...

Urkiologiren bertso hauek deskribatzen digute orduko egoera (Aranbarri, I, 1982):

- 1) Milla bederatzieun ta ogeigarrenian, / Zeruko Aita nago zure biarrian;
gaizki bizi gerade paraje onian, / bendiziyo bat arren, zuzendu gaitian.
- 3) Arrazoitian jarri gaitian begira:/ pabrikako atiak zertan itxi dira?
orrelakorik etzan justuak balira,/ goseak errenditzen pobriak ai dira.
- 10) Beren langille onak tiroz ill nayian, / milagro bat Jainkuak ein du Azkoitiya'n;
kapitalista oiek joan dan aspaldiyan, / amenazoka pobria zeukaten azpiyan.
- 17) Obreru bihotzekuak biegu unitu, / geroko esperantzan ez inor gelditu;
premiyako orduan elkar sokorritu, / Eleiza Santak hala ordenatzen gaitu.

Eskualde honetako jauntxokeria gogor salatu zuen Evaristo Bouzas kazetari liberalak. Gipuzkoako Aldundia ere akusatu zuen, esanez iruzurra egiten zuela hauteskundeetan eta horren eredu onena Azpeitiko barrutian zegoela:

Se ha hecho aguas mayores en nuestros Fueros y hace y deshace concejales y ayuntamientos, diputados provinciales, diputados a Cortes y senadores; porque esa política se inclina siempre, solícita y humilde “al sol que más calienta” mantiene en Azpeitia, por los años de los años, el Artículo 29, compra y paga compromisarios para que elijan los senadores de su gusto, zarandea a los ayuntamientos cuando le conviene; si lleva parte en la defensa les defiende, si no, los abandona a su suerte; realiza una administración dispendiosa; otorga favores a sus secuaces; persigue y anula a sus adversarios; mueve gente en la Banda; en el Clero; en los partidos de la derecha y hasta en los de la izquierda; construye ferrocarriles a cuenta del dinero de la provincia o del Estado; no rinden cuentas a nadie de su gestión, ni de sus cuentas;...

(El País Vasco, 1924ko martxoaren 7a)

Evaristo Bouzasek ausart eraso zien Urolaldeko jauntxoei, esanez hauek 29. Artikulua erabiliz, nahi zutena egiten zutela. Bouzasek zera zioen, 1921eko hauteskundeetan bi nazionalista, jaimista bat eta integrista bat aukeratuak izan zirela eta talde berean hiru alderdi ezberdinetakoak egotea ez zela oso arrunta:

Nunca en esta cuenca han llevado representación de masas los concejales y diputados provinciales. Jamás se llegó a consultar el nombramiento de concejales a las Juntas Generales de las asociaciones políticas locales y hasta en casos determinados se procedió al nombramiento, sin que los directivos tuviesen el menor conocimiento de los nombramientos hasta la fecha de la elección”.

(El País Vasco, “El caciquismo en el Urola”, 1924ko martxoaren 26a)

Urte hauetan, hauek ziren Udalean agintzen zeuden taldeak eta ordezkariak:

3. TAULA: 1913-1915 biurteko Azkoitiko Udal karguak.
1914ko urtarrilaren 1a

Zenb.	Izan-abizenak	Kidetza	Kargua
1	Francisco Alberdi Artetxe	Integrista	Alkate Udalburu
2	Juan Jose Alberdi Oñederra	Integrista	Lehen Alkateorde
3	Jose Luis Etxaniz Maiz	Integrista	Bigarren Alkateorde
4	Manuel Lascurain Areizaga	Integrista	Errejidore sindikoa
5	Francisco Izagirre Unanue	Nazionalista	Sindikoa ordezkoa
6	Carlos Kerejeta Etxaniz	Integrista	Errejidore kontu-hartzaile
7	Fermin Goenaga Alberdi	Nazionalista	Errejidore
8	Esteban Arenas Alberdi	Integrista	Errejidore
9	Eugenio Narvaiza Sudupe	Integrista	Errejidore
10	Pedro Zendoia Arrizabalaga	Integrista	Errejidore
11	Jose M ^a Urzelai Lertxundi	Nazionalista	Errejidore
12	Tomas Badiola Jauregi	Integrista	Errejidore
13	Angel Areizaga Murgiondo	Integrista	Errejidore



1913-1915 biurteko Azkoitiko Udal karguak

Goian eta atzean, ezkerretik eskuinera: Eugenio Narvaiza Sudupe, Julian Urrestarazu –Udal Idazkaria– eta Tomas Badiola Jauregi. Atzetik bigarren ilaran, ezkerretik eskuinera: Jose Azkoitia –ordenantza *merixue*–, Francisco Izagirre Unanue, Fermin Goenaga Alberdi, Esteban Arenas Alberdi, Angel Areizaga Murgiondo, Pedro Zendoia Arrizabalaga, Ricardo Iturbe. Aurreneko ilaran, ezkerretik eskuinera: Carlos Kerejeta Etxaniz, Manuel Lascurain Areizaga, Juan Jose Alberdi Oñederra, Francisco Alberdi Artetxe, Jose Luis Etxaniz Maiz, Jose M^a Urzelai Lertxundi (*Album de Guipúzcoa*, Donostia, 1915).

4. TAULA: 1922-1925 biurteko Udal karguak, 1922ko apirilaren 1a

Zenb.	Izen-abizenak	Kidetza	Kargua
1	Juan Jose Alberdi Oñederra	Integrista	Alkate Udalburu
2	Jose Luis Etxaniz Maiz	Integrista	Lehen Alkateorde
3	Manuel Lascurain Areizaga	Integrista	Bigarren Alkateorde
4	Jose Manzisidor Etxaniz	Integrista	Errejidore sindikoa
5	Esteban Arenas Alberdi	nazionalista	Sindikoa ordezkoa
6	Eustaquio Larrañaga Arrieta	Integrista	Errejidore kontu-hartzaile
7	Eugenio Narvaiza Sudupe	Integrista	Errejidore
8	Francisco Cuende Unanue	Integrista	Errejidore
9	Ramon Zubizarreta Mendizabal	nazionalista	Errejidore
10	Eusebio Aranbarri Azpiazu	Integrista	Errejidore
11	Angel Areizaga Murgiondo	nazionalista	Errejidore
12	Ascensio Elorza Larrañaga	Integrista	Errejidore
13	Ramon Uranga Orueta	Integrista	Errejidore

Aldaketa guztien gainetik, herriko jauntxo industrialen helburu nagusia patronalaren eta langileen arteko harremana ez aldatzea zen. Ideia berrien beldur ziren eta orain arteko statusa mantendu beharra zegoen, egoera mikaztu gabe. Langilea lantegian kontrolatzeaz gain,

eguneroko bizitza pertsonalean ere sartzen ziren. *Epelde y Compañía* lantegiko nagusiek diru apur bat ematen zieten euren langileei egunero mezetara joateagatik, eta igandeko meza nagusira joaten zirenek diru-saria oraindik eta altuagoa izaten zuten. Elizaren kode moralean kontrolatu nahi zituzten herritarrak.

1932ko datuen arabera, Azkoitiko *Sagrado Corazón de Jesús* eta *San Francisco* lantegiek bostehun langiletik gora zituzten, eta biek osatzen zuten elkarte Estatuako bigarren enpresarik handiena zen, jutezko trentzen arloan: datu honek adierazten digu industriaren garrantzia herri honen garapenean (Garmendia, G., 2003).

En Azkoitia región inminentemente agrícola, existen desde tiempo inmemorial, la industria de fabricación de alpargata. En los caseríos de aquellos contornos se trabajaba a domicilio para las fábricas. Los hombres confeccionan las suelas y las mujeres la tela. Más de mil individuos de ambos sexos participan a menudo en esta clase de trabajos que intercalan entre las horas que les deja libre el cultivo y los cuidados del ganado.

Mende hasieran lurjabe handiek (Hurtado de Mendoza, Leturiondo, Granadako Dukea, Irizar, Txurruka,..) eta lantegietako nagusiek agintzen zuten herrian. Lantegietako nagusien artean, honako hauek aipatuko ditugu: *Intxustikoak* –Esteban Alberdi y Cía.–; *Bizkargikoak* –Epelde, Larrañaga y Cia, hots, *Esteban Nartzixo, Pako Gaztan, Pepe Gaztan...*–. Hauekin batera beste hainbat enpresari berri, *Amurketanekoak* –Mancisidor y Cía.– etab. Hauek izan ziren Azkoitiko industrializazioa bultzatu eta bideratu zutenak. 1920an *Alberdi y Compañía* lantegiak 275 langile zituen eta Epelde lantegiak, 130 langile. Jauntxo hauenak ditugu herriko etxe eta jauregi esanguratsuenak:

Leturiondo Jauregia. Barroko estilokoa eta Udaletxearen ondoan dagoena.

Gaztan-eneako jauregia. Euskal estilo neoerrenazentista egina, XX. mendearen hasera aldera. Garai hartan Alberdi familiaren jabetzakoa, gaur egun Musika Eskola bihurtu da eta Bizkargi Musika Eskola izena hartu du, XVI. mendeko musikari ospetsuaren ohorez.

Iribe dorrea. Erdi Aroko dorrea da eta urteen joanean aldaketak jasan ditu, mendeen eskariei egokituz. XVIII. mendetik Palacios eta Irizar familien jabetzakoa da eta Joaquín de Irizar jaunak zaharberritu du. Etxe honi lotua daude Aingeru Goardakoaren elizatzko barrokoa eta Egurbideolako burdinolak.

Txurruka etxea. XVI. Mendekoa, Okendo Almirantearen ondorengo ziren San Millango Markesei lotua dago. 1847an handitze lanak egin zitzaizkion, estilo kolonial neoklasikoan

Idiakeztarren Dorretxea. 1456an Gipuzkoako Ahaide Nagusiek bere azken erronka jarri zuten atearen ondo-ondoan dago. Etxe-Beltz izenaz ere ezaguna da, duen itxuragatik, eta Granada de Egako dukeen jabetzakoa da. Hemen ezkondu zen, 1838an, karlisten lehen pretendientea, Carlos V.a izenaz ezagutu izan zena, Beirako Printzesarekin

(Azkoitiko Udala, Azkoitiko historia).

Azkoitiko jauntxoek jokaera politikoa, ia gehienetan, karlista edo integristen aldekoa izan zen. Orduko Idazkariak horrela idatzi omen zion bere familiari: *Azkoitian agintari izateko Elizara joan eta belaunpean La Constancia egunkaria jarri ezkerre, Jauntxoak eskutan dituzu.* Eta jauntxo hauen lantegietara jaisten ziren baserrietako semeak, lanerako adina izan orduko, baserrietan ez baitzegoen etorkizunik, ez baitzegoen dirurik.



Leturiondo Jauregia



Gaztandarren Jauregia



Iribe dorrea, Irizartarren etxea



Txurruka-enea



Idiakeztarren Dorretxea

Udal karguak aukeratzeko erabiltzen zen sistemak, mende hasieran aipaturako legearen 29. artikulua, Errepublika iritsi arte iraun zuen. 1931n ere, lege hau aipatzen zen:

En el acto de la sesión de esta Junta celebrada en el día de hoy para la proclamación de Candidatos para las próximas elecciones municipales, ha sido proclamado Candidato a Concejal por el Distrito Primero Don José Lascurain Etxaniz.

Asimismo certifica; Que, por virtud de dichas proclamación y de no haber sido en mayor numero los Candidatos proclamados para dicho Distrito de los llamados a ser elegidos Concejales, esta Juntam en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley Electoral de 8 de agosto de 1907, proclamó definitivamente elegido Concejal al citado D. Jose Lascurain Etxaniz.

Azcoitia, a cinco de abril de mil novecientos treinta y uno.

5. taula: Udal karguen banaketa, 1931ko apirilaren 18a

Zenb.	Izen-abizenak	Kidetza	Kargua
1	Juan Jose Alberdi Oñederra	Integrista	Alkate Udalburu
2	Jose Lascurain Etxaniz	Integrista	1.go Alkate orde
3	Jose Manzisidor Seguro	Integrista	2. Alkateorde
4	Ramon Zubizarreta Mendizabal	Nazionalista	3. Alkateorde
5	Eusebio Aranbarri Azpiazu	Integrista	Errejidore sindikoa
6	Eustaquio Larrañaga Arrieta	Jaimista	Sindikoa, ordezkoa
7	Carlos Kerejeta Etxaniz	Integrista	Errejidore kontu-hartzaile
8	Romualdo Larrañaga Irureta	Jaimista	Errejidore
9	Jose Maria Epelde Odriozola	Integrista	Errejidore
10	Pedro Abaunz Arrizabalaga	Integrista	Errejidore
11	Jose Ulazia Mendizabal	Nazionalista	Errejidore
12	Marcelino Arenas Epelde	Integrista	Errejidore

13	Eugenio Narvaiza Sudupe	Integrista	Errejidore
14	Angel Areizaga Murgiondo	Integrista	Errejidore
15	Daniel Arroitauregi Elgoro	Nazionalista	Errejidore
16	Jose Etxaniz Iturrioz	Jaimista	Errejidore

Modernizazioaren eragina berehala nabarmendu zen herriguneko eskola publiko eta pribatuetan (eraikin berriak, tituludun maisu-maistrak, eskola erlijioso kualifikatuak, eskola partikularrak, hezkuntza graduatua...). Landa-ingurunean, aldiz, aldaketa gutxiago nabarmendu zen. Nekazal ekonomian murgildurik, auzo-eskolak, oraindik hezkuntza tradizionalaren eredu mantentzen ziren: formazio gabeko maisu-maistrak; eskolarentzat eraikuntza berezirik gabe, baserrietako gela eta mandioetan ematen zen; eskolarako material eta altzari gabezia nabarmena...

Baina aldaketak iristen ari ziren. Modernitateak eta Estatuak di-seinaturiko hezkuntza eredu berria indartsu zetorren. Espainiako liberalismoa eta zentralismoa gazteleraz mintzatzen zen, gehiengo batek ulertzen ez zuen hizkuntzan. Gipuzkoako biztanleria XX. mende hasieran ia euskaldun elebakarra zen, % 90ak euskara erabiltzen baitzuen, eta hau ez zuten gogoko Espainiar estatuko agintariak. Euskararen atzean pentsaera eta bizimodu tradizionala zegoen, eta honek prozesu berriari erresistentzia jartzen zion. Hizkuntza arazo handia izan zen Espainiar estatuaren ideologia eta bere hezkuntza eredu berria ezartzerakoan. Eragozpen honi aurre egiteko Estatu espainiarrak, kontrolpean zuen hezkuntza-sistemaren bidez, gaztelera inposatu zuen, estatuko beste hizkuntzak kaltetuz eta ahulduz.

Ezin da uka, historikoki, boterean egon diren instituzioek hizkuntzari eskaini izan dioten garrantzia ingeniarietza sozialaren barruan handia izan dela, horregatik euskararen eta gazteleraren arteko gatazkak aparteko garrantzia izan zuen, eta izan du, hezkuntza hedatzerakoan eta ideologiak oinarritzerakoan (Hobsbawn, E. J., 1991):

El Estado sólo se muestra favorable a aquellas formas de acción cultural que favorezcan la conservación de su poder; pero persigue con odio irreconciliable toda manifestación cultural que va más allá de las barreras por él trazadas y puede poner en litigio su existencia (Breully, J., 1990).

De todos los elementos que se han mencionado para cimentar una ideología nacional, la comunidad del idioma es seguramente la más importante (Rocker, R., 1977).

Kontuan hartu behar dugu erabaki politikoek zuzenean bat egiten dutela hezkuntza-sistemarekin; egun dugun eskola-egitura hau, ez zen posible izango Estatuaren esku hartzerik izan ezean. Alfabetatze eta eskolatzearen lehenengo sistematizazio ahalegina Estatutik etorri zen. Estatuaren helburu politikoa Antzinako Erregimenarekin hautsi eta Estatu berria eraikitzea baitzen (Zabaleta, I., 1999).

2.2. Eskolak eta alfabetizazioa

Gipuzkoako Aldundiak, 1913an, oinarrizko instrukzioaz eta alfabetizazioaz azterketa sakona egin zuen. 1913ko abenduaren 11n egin-dako bileran, datu hauek aurkeztu zituen Aginaga foru-diputatuak:

De los 80 municipios a los que se extiende su administración y acción tutelar, son contadísimos aquellos en que baja de un 40 por ciento el número de electores analfabetos y que en cambio los hay, y de ello dan ejemplo Oyarzun, Aya, Hernialde, Zaldivia y otros, en los que pasan de 76 y llegan a 85 por ciento dichos electos analfabetos; es decir, que de cada cien guipuzcoanos mayores de 25 años a quienes la ley otorga capacidad ciudadana para hacer uno del sufragio, más de las dos terceras partes no saben leer y por lo tanto ignoran los nombres impresos en la candidatura que se disponen a depositar

Bileran Gipuzkoako ia herri guztien datuak azaldu zituen. Gipuzkoako hiri nagusien artean (kanpoan utzi ditugu Irun, Eibar eta Donostia) bazeuden ezberdintasunak, baita Azkoitia eta Azpeitia artean ere:

6. TAULA: *Eskolatzea eta Analfabetismoa Gipuzkoan, 1913an*

Udalerrri	Biztanleak	Analfabeto %	Eskola-biztanleria herrigunean	Eskola-biztanleria landa-ingurunean
Azkoitia	6.000	26,75	420	515
Azpeitia	6.066	18,29	430	1.090
Bergara	6.742	18,49	700	288
Errenteria	5.938	33,44	613	319
Hondarribia	5.118	16,78	322	238
Oñati	6.169	15,80	430	194
Tolosa	9.386	23,06	1384	93

7. TAULA: *Eskolak eta asistentzia Gipuzkoan, 1913an*

Udalerrri	Eskolak hiriburuan	Eskolak landa-ingurunean	Asistentzia herrigunean	Asistentzia landa-ingurunean
Azkoitia	8	10	550	210
Azpeitia	8	10	350	570
Bergara	8	-	380	210
Errenteria	7	-	564	60
Hondarribia	3	1	424	14
Oñati	7	9	338	230
Tolosa	19	-	1187	56

Egoera ez zen hobea Gipuzkoako herri txikietan.

8. TAULA: *Analfabetoak Gipuzkoan, 1913an*

Herria	Biztanleen errolda	Analfabetoak	Analfabetoak %
Aia	2.367	2.068	87,36
Hernani	4.214	2.700	64,07
Zegama	2.109	1.000	47,41
Hondarribia	5.000	2.100	42,00
Idiazabal	1.400	780	55,71
Lazkao	1.380	650	47,10
Arrasate	4.700	1.800	38,29
Errenteria	5.500	2.600	47,27

Ikusten denez, alfabetizazioaren egoera penagarria zen. Egoera txar honen arrazoiak azaltzerakoan honako hauek nabarmentzen zituzten Aldundiko ordezkariak, 1913ko abenduaren 11n egindako bileran:

1.- Gurasoen norberekoieria:

El egoísmo de los padres, que por un malentendido cálculo interesado, no vacilan en tener a sus hijos alejados de las escuelas y privar a éstos de los más rudimentarios conocimientos de instrucción, a cambio de que les ayude en las faenas caseras y agrícolas. Sin tener en cuenta, ni reflexionar, que esos mismos niños, instruidos y educados convenientemente, habrían de reportarles servicios, utilidades y afectos de mucho mayor aprecio. La errónea y arraigada creencia de que el casero ó labrador para nada necesita instruirse ó poseer la instrucción primaria o elemental, ya que su misión habría de reducirse a cuidar ganado y labrar la tierra, incomunicado o poco menos, con sus semejantes y que para tales labores les era inútil tener escuela.

Baina denak ez zeuden ados iritzi honekin. Orbea diputatuak gogor azpimarratu zuen baserrietako gurasoak beren seme-alaben heziketaz ardura handiz kezkatzen zirela:

Eran merecedores de grandes elogios por el cuidado con que han procurado la educación moral de sus hijos, encargándose de que se les enseñe lo necesario para comulgar, *komulgatzeko lain*. Con eso quería decir que ellos anhelaban que sus hijos fuesen buenos cristianos, cumplidores de sus deberes para con Dios, para la Patria y para consigo mismo, y no soldados del motín y de las Sociedades de Resistencia.

2.- Instituzioen ardura falta:

La desidia de las autoridades, Corporaciones y personas de reconocida influencia social que, identificados sin duda por el precedente tópic, sea por calculo o por lo que fuere, no se cuidaron de deserrarlo de la mente de la masa inculta.

3.- Eskolak baserrietatik urruti egoteak, eskolara joatea zailtzen zuen. Arazoari irtenbidea emateko, Hezkuntza Ministerioa eta Udalak eskola berriak eraikitzen hasi ziren, eta laster eskolak ikasle guztien eskura egongo zirela uste zen. Dena dela, bitartean, legea bete beharra zegoen eta honek eskolara joatea agindu eta behartzen zuen, eta hau batzutan ia ezina zen:

a.- La ley de 23 de junio de 1909, reformativa de la llamada de Moyano, que declaraba obligatoria la Instrucción Primaria. Esta ley prohibía que se expidiese, por ninguna autoridad ni centro dependiente del Estado, provincia o municipio, nombramiento remuneratorio a favor de personas que no supieran leer y escribir de modo suficiente, no dándoles posesión del puesto de que se tratase mientras no acreditase tener esa condición.

b.- La ley de reclutamiento y reemplazo del ejército. Esta ley exigía la instrucción teórica a los mozos que aspirasen a acogerse al beneficio de la reducción del tiempo de servicio en filas, y al disponer que las licencias temporales se otorgasen preferentemente a quienes acreditasen poseer la instrucción primaria.

c.- El arraigo y generalidad que en el País había adquirido la tendencia y corriente emigratoria a ultramar, debido a la cual se contaban por centenares los caseríos o familias que tenían a parientes en las distintas partes del mundo, donde por desgracia o fortuna habrían podido apercibirse de las ventajas de la instrucción primaria y de los incalculables perjuicios que suponía el no poseerla.

Azkoitiko Udalak herriko analfabetismoaren arazoak azaltzerakoan, zera adierazten zuen: *haurrak behar adina ez zirela joaten eskolara*. Baina hau ez zen berria, legeak horrela agindu arren, gehienetan hurrek eskolari uko egiten zioten. 1915eko ekainaren 15ean, Josefa Ignacia Espilla maistrak nazionalak zera azaltzen du bere Memorietan: “hezkuntzaren egoera ona da, aurrerapena egiten dute arlo guztietan, eta gehiago ezin dute egin ikasleak eskolara ez direlako joaten”:

Trabajos realizados

Ha procurado la que suscribe dar una enseñanza integral y educativa inculcando en las niñas el amor a Dios, a la patria y a la familia, como también hábitos de trabajo y costumbres piadosas y contribuyendo a que asistan a las prácticas religiosas que tanto enaltecen a esta católica villa

Resultados

Todas ellas han avanzado en las secciones correspondientes, especialmente en aquellas enseñanzas de utilidad más inmediata, como la lectura, Doctrina Cristiana e Historia Sagrada, Escritura, Aritmética, Labores y Gramática.

Obstáculos

El mayor obstáculo es que todas las niñas, excepto en algunas pocas, la irregular asistencia y suplicando a las autoridades y a los padres a que cooperen por todos los medios en esta labor.

Eskolara huts egitea, eskolara ez joatea, herrigunean eta auzo-eskoletan, bietan ematen zen. 1915eko uztailaren 25ean, Carlos Kerejetak, Udaleko zinegotzi eta Instrukzio Publikoko Batzordeko partaideak, herriko bailaretako udal-eskolak bisitatu eta ikasleen azterketa egin ondoren, zera adierazi zuen: hezkuntza egoera lotsagarrian zegoela, bereziki ikasleak eskolara ez zirelako joaten:

Que habiendo asistido a los exámenes de fin de curso en las escuelas municipales de esta villa ha quedado desagradablemente impresionado por el estado lamentable que se encuentra la enseñanza en dichas escuelas. Investigada la causa de este, parece que es debida a la pésima asistencia de los alumnos tanto en la escuela de niños como en la de niñas. Las consecuencias que se originan de la falta de instrucción y educación en los pueblos son muy graves, siendo el municipio el encargado de velar por la cultura y el bienestar de sus administrados.

Egoera honen berri ondotoxo zekiten bai Aldundiak eta bai Estatuak, baina ez zuten jarri hau hobetzeko neurririk. Legeri zabal eta zorrotzak argitaratu arren, oinarrizko hezkuntzarako ez zegoen txanponik.



Azkoitiko Eskola Publikoak

1914an eta 1920an hauek ziren eskolaratze eta alfabetizaziori buruzko datuak Urola-Kosta eskualdean.

9. TAULA: *Urola-Kostako alfabetizazioaren egoera, 1914an*

Udalerrri	Biztanleria	Analfabeto %	Eskola-biztanleria herrigunean	Eskola-biztanleria landa-ingurunean
Aia	2.367	71.60	36	349
Azkoitia	6000	26,75	420	515
Azpeitia	6.066	18,29	430	1090
Beizama	598	9.19	18	64
Errezil	1.614	49,93	66	146
Getaria	1.536	32.81	150	59
Orio	1.510	31,12	110	0
Zarautz	3.149	24,48	304	124
Zestoa	3.009	33,76	147	243
Zumaia (daturik ez)	-	-	-	-

10. TAULA: *Urola-Kostako eskolatzearen egoera, 1914an*

Udalerrria	Eskolak herrigunean	Eskolak landa-ingurunean	Asistentzia herrigunean	Asistentzia landa-ingurunean
Aia	2	0	41	0
Azkoitia	8	10	550	210
Azpeitia	8	10	350	570
Beizama	2	1	49	11
Errezil	2	0	59	0
Getaria	2	2	100	42
Orio	2	0	130	0
Zarautz	3	0	141	0
Zestoa	3	6	101	154
Zumaia	-	-	-	-

11. TAULA: *Urola-Kostako eskolatzearen egoera, 1920an*

	Biztanleria	Eskola populazioa herrigunean	Eskola populazioa landa-ingurunean
Aia	2.361	44	596
Azkoitia	6.594	838	832
Azpeitia	6.800	990	445
Beizama	589	32	119
Errezil	1.614	40	340
Getaria	1.815	132	86
Orio	1.539	120	20
Zarautz	-	-	-
Zestoa	3.120	304	492
Zumaia	2.927	652	188

12. TAULA: *Urola-Kostako eskola mota ezberdinak, 1920an*

Udalerria	Eskolak herrigunean							Auzo- eskolak
	<i>U-e</i>	<i>E-n</i>	<i>P</i>	<i>Par</i>	<i>H</i>	<i>Arle</i>	<i>I</i>	
Aia	-	2	-	-	1	-	6	5
Azkoitia	4 (4 maisu- euskaraz)	2	-	1	2	1	-	10
Azpeitia	-	6 (3. euska- raz)	-	4	1	1	-	8
Beizama	-	2	-	-	1	-	-	1
Errezil	-	2	-	-	1	-	-	-
Getaria	-	2	-	-	-	-	-	2
Orio	1	2 (1. euskaraz)	-	-	1	-	-	-
Zarautz	-	-	-	-	-	-	-	-

Zestoa	3 (3. euskaraz)	5 (2. euskaraz)	1e	3 (2. euskaraz)	3	-	-	4
Zumaia	1e	2	2	2	1	-	-	2

(Udal-eskolak, *U-e*; E. Nazionalak, *E-n*, Patronatuko eskolak, *P*; partikularrak, *Part*; Helduenak, *H*; Arte eta Lanbide eskolakoak, *Arle*; Igandekoak, *I*)

Alfabetizazioaren egoera nahiko larria izan arren, Gipuzkoako datuak Estatukoak baino hobek ziren (Cosano, J., 1920).

13. TAULA: 1900-1930eko analfabeto kopuruak

Urtea	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Espainia
1900	33.054 %34,2	90.594 %46,2	137.221 %44,6	145.553 %46,7	%63,7
1910	31.456 %32,3	92.222 %40,6	135.539 %43,4	142.733 %40,7	%59,3
1920	27.064 %27,4	90.419 %34,9	121.332 %36,7	133.970 %32,7	%52,2
1930	23.420 %22,4	77.152 %25,5	101.149 %29,2	132.558 %27,3	%42,3

14. TAULA: Azkoitiko eskolatzeari buruzko datuak, 1905 eta 1920an

Urtea	Biztanleria	Ikasleak	Ikasleak Herrigune	Ikasleak Ilzarraitz	Ikasleak Ormola	Ikasleak Arrieta
1905	5.263	761	389	130	109	133
1920	7.2201	965	644	109	96	116

Herriguneko eskoletan, eta baita auzo-eskoletan ere, gau-eskoletan irakastea sustraitutako ohitura zen. Gau-eskoletara joatea beharrezkoa ikusten zen gazteleraz ikasteko, eta bereziki irakurtzen eta idazten berrikasteko. Eskola hauetara joaten ziren ikasle gehienak lehen ere eskolan aritutakoak ziren. Eskola hauetara neguko partean, arratsetan, joaten ziren hiru edo lau hilabetez. 1913ko irailaren 22an, horrela zuzendu zitzaion Jose Azarola Udalari:

Que estando próxima la temporada para dar comienzo a la clase nocturna, al exponente se le ocurre la idea, de que dada la importancia del número crecido de obreros que trabajan en los talleres y fábricas de la localidad, crear o abrir otra clase de adultos a las mismas horas que las de costumbre, que graduando la enseñanza de común acuerdo con el Maestro señor Hidalgo, es innegable que se obtendrían grandes resultados.

Para el fin que se propone, solo hace falta voluntad por parte la esa ilustre corporación, pues con instalar la luz eléctrica en la sala auxiliaría, señalar algunas cantidades para surtir de material a los adultos y retribuir o remunerar el trabajo del suscribiente es de creer que bien poco mermarían los fondos de las arcas municipales y en cambio se darían facilidades al elemento joven de la villa para ampliar los conocimientos adquiridos en la niñez.

1918an, kaleko gau-eskolan, beste ikasgai batzuen artean Aritmetika, Geometria, Kontabilitatea eta Marrazki irakasten zen –Marrazki lineala ikasten, 15 gazte aritu ziren–, azarotik martxora arte. Eskola hauei eusteko Udalak 500 pezeta ordaintzen zizkion maisuari. Auzo-eskoletan ere hedatu ziren gau-eskolak, baina pixka bat geroxeago eta horrelako dirutzarik jaso gabe.



Haurrak, Azkoitiko Kale Nagusian

2.3. Eskola gizartearen eskutik

I Mundu Gerra bukatu ondoren, bai Europan eta bai Euskal Herrian, egoera soziokulturala eta politikoa nabarmen aldatu zen. Kulturari dagokionez, aipatzekoak dira 1918an Oñatin egindako Eusko Ikaskuntzako I. Kongresua eta urte horretan sortu zen SEV-EI Elkarteak, kultura eta hezkuntza suspertzaile nagusia izango dena luzaroan. Gizartea aldatzen ari zen, baina landa-inguruetan eskolaren egoera, oraindik, eskasa zen. Baserritarrak eskolatzeko, ez zegoen dirurik. Egoera honen adierazle dira, 1919an, auzo-eskolei buruz Orueta jaunak eginiko adierazpenak (Orueta, J. de, 1919):

Lo que la Diputación gasta por sí en Instrucción Primaria deja mucho que desear, especialmente en la parte rural. No está además en relación con lo que se gasta en algunos ramos atendidos con más preferencia y fuera de desear que la iniciativa de la Diputación avance en este punto, especialmente en lo que el Estado y los Ayuntamientos han de hacer poco, esto es, en la parte rural, donde el atraso es mayor, y por los sistemas antes indicados de escuelas volantes o alimentación, calzado y calefacción de los niños que están distantes de los pueblos, propaganda de la primera enseñanza de doctrina, lectura, aritmética... en vascuence, pues es desastroso el sistema de enseñar las primeras letras en idioma que los niños no entienden y por otros mil medios que tiendan a que la parte rural no de como da, por esas causas, un enorme contingente de analfabetos.

Gipuzkoako Aldundiak arazoari irtenbidea bilatu nahian, 1920an, galdeketa pasa zien Udalei, hezkuntzari eta eskolei buruz informazioa bildu nahian. Gipuzkoan, 1920an, eskola hauek zeuden:

15. TAULA: *Gipuzkoako eskola ezberdinak eta kopurua, 1920an*

<i>Eskola ereduak</i>	<i>Eskola kopurua</i>
Udal-eskolak	41
Nazionalak	212
Patronatuak	21
Partikularrak	66
Helduenak	97
Arte eta Lanbide Eskolak	14
Igandetakoak	15
Auzo-eskola partikularrak	71

Galdeketa horretan, Udalerri bakoitzak bere egoera eta arazo partikularren berri eman zion Aldundiari. Ekarpenean artean aipagarria da Oiartzungo Udalak emandakoa, bere idatzian islatzen baitu Gipuzkoako beste herri askotako eskolen egoera eta errealitatea :

La enseñanza en este valle se hace bastante difícil por la extensión considerable de la población agrícola que hace casi imposible su reunión para los efectos de la enseñanza en los puntos donde radican actualmente las escuelas públicas, particularmente los duros días invernales. La creación de escuelas rurales relativamente numerosas que recogiesen a esa población escolar diseminada y abandonada sería un paso importante para conseguir la superación de la enseñanza en la localidad, hoy bastante descuidada. Inconveniente grande es el desconocimiento por parte de los profesores —en nuestro caso de las profesora de la lengua del país, que les imposibilita a entenderse con los niños que no saben hablar otro idioma que el suyo propio, siguiendo métodos pedagógicos en pugna con los más elementales principios científicos y forzando las tiernas inteligencias infantiles a los rigores de una mnemotecnia absurda martirizante, sin beneficio alguno para la enseñanza en general ni para los discípulos en particular. Para el municipio de este valle es así mismo problema de importancia suma, el de construcción de escuelas.

El Estado favorece esta construcción subvencionando con cantidades importantes a los ayuntamientos que se dedican a hacerlo. Viviendo Guipúzcoa un régimen especial, y teniendo en cuenta las aspiraciones del país, que se alejan cada día más del régimen centralista absorbente del Estado, la Excma. Diputación haría una obra magna si viniese con su ayuda positiva a sustituir en sus funciones al poder Central en este importante aspecto del problema de la enseñanza.

Alegiko Udalak emandako iritziak ere kontuan hartzekoak dira, garai hartako egoera sozialaren isla baitira :

Hay una falta de criterios en cuanto a la enseñanza. Se destaca el abandono de los hijos, que viven alejados de la escuela, los mandan a clase en temprana edad, por evitar durante algunas horas el estorbo.

Para ganar el salario, los arropan en el taller o fábrica en donde fenecen los pocos conocimientos intelectuales. El niño que aprendió a leer, pasa su juventud ceñido a la lectura del gacético o periódico y de los crímenes que a mansalva relatan o de la novela obscena que el compañero relata.

El cine y la fábrica terminan por abolir el sentido moral.

Los amos de las fábricas y los talleres unidos a los sacerdotes de la localidad, son los llamados por su posición social y saber, a corregir esta gangrena social.

Otro factor es que los maestros son incapaces, y si a esto se les añade el absoluto desconocimiento de la lengua.

Informes funestos que asolan este pueblo cuyo destino que desgraciadamente me toca regir; esta desgraciada nación digna de mejor suerte. La satisfacción del deber cumplido me ha obligado a emborrinar estas líneas, que Dios quiera servirán para el bien de nuestro pueblo.

Aipaturiko inkesta eta txostenetan oso argi azaltzen da auzo-eskolen, euskararen eta garaiko gizartearen egoera.

Azkoitiari dagokionez, hauek ziren hezkuntzari buruzko datuak:

16. TAULA: *Azkoitiko hezkuntzaren egoera, 1920an*

Biztanleria	Eskolarako adinekoak herrigunean/landa-inguruetan	Herriguneko eskolak			Landa-ingurunea
		Eskola Munizipalak	Eskola Nazionalak	Eskola Partikularrak	
-	-				Auzo-eskolak
6.594	838/832	4 (4 maisu-euskaldun)	2	1	10

Datu hauek zer pentsa eman zien Aldundiko eta Udaleko ordezkariari. 1921eko abuztuaren 4an izandako bileran, Julian Elorza Jau-nak, Aldundiko Diputatu Nagusiak, honako azalpenak eman zituen:

El Estado monopoliza la enseñanza en forma tan odiosa que a la Diputación se le ha negado toda iniciativa en la materia; de ahí que abandonada la enseñanza a la acción del Estado, sea esta tan deficiente en Guipúzcoa, que si no fuera por lo que dan las distintas Comunidades religiosas, esparcidas por el País, fuera este uno de los más atrasados de la península.

Julian Elorzak, bi hitzetan, zehatz azaldu zuen garaiko hezkuntzaren egoera, diagnosi zuzena eginez. Bere iritzia azaltzerakoan kon-tuan izan zituen 1920an egindako galdeketa onorioak:

No hay maestros que sientan en vasco, conocedores del espíritu de nuestro pueblo, y que puedan enseñar a los niños en su lengua el euskara. De 204 maestros nacionales, 90 no conocen el vascuence, lo que representa un porcentaje de 45%. En la parte urbana hay 220 escuelas públicas, a las que asisten 12.083 niños, o sea 60 alumnos por maestro. En la parte rural no hay más que 73 escuelas para un censo escolar de 17.537. De un censo escolar de 38.174, hay 15.408 niños/as no asisten a ninguna escuela nacional ni particular, lo que da una cifra bochornosa de analfabetos.

Gipuzkoako Aldundiko Komisia iritzi berekoa zen:

El analfabetismo alcanzaba la proporción de 40,70 % hace un par de años, y no había aquí maestros capacitados, conocedores del espíritu de nuestro pueblo, que se adapten a su idiosincrasia. Los edificios escolares son deficientísimos y resultan reducidos especialmente en la parte rural. Las escuelas resultan anticuadas, no reúnen las dependencias accesorias (un patio cubierto, un campo de juegos y experimentación...) exigidas por la Pedagogía y la higiene. El material tanto higiénico como el de enseñanza es también deficiente y en ellas no hay más que bancos, mesas, algunos libros de lectura, otros libros para aprender de memoria, algún que otro mapa, cuadernos, tinta, pluma, láminas de Historia Sagrada en las paredes, tableros con greda. La cantidad consignada por el Estado para dicha atención es reducida y además lo paga tarde y mal. Carecemos en absoluto de material y libros de texto en vascuence.

Ez dugu ahaztu behar Gipuzkoako gizartea tradizionala zela, eta kristau heziketa, ohiturak zaharrak eta euskara ezinbesteko zutabeak zirela herritar gehienentzat. Eskola Publikoak, 1910etik aurrera Eskola Nazionala bezala ezagutuko denak, ez zuen hori eskaintzen.

17. TAULA: *Gipuzkoako auzo-eskola partikularrak, 1920an*

<i>Udalerrria</i>	<i>Eskolak</i>	<i>Udalerrri</i>	<i>Auzo-eskolak</i>
Aizarnazabal	2	Hernani	2
Antzuola	1	Leaburu	1
Aia	5	Legazpi	2
Azkoitia	10	Arrasate	2
Azpeitia	8	Mutriku	2

<i>Udalerrria</i>	<i>Eskolak</i>	<i>Udalerrri</i>	<i>Auzo-eskolak</i>
Beasain	1	Oñati	4
Beizama	1	Oiartzun	3
Berastegi	1	Segura	1
Zestoa	4	Urnieta	1
Deba	2	Usurbil	1
Eibar	2	Bergara	7
Elgoibar	3	Villabona	1
Gabiria	1	Zarautz	1
Getaria	2	Zumaia	2
		DENERA	73

Datu hauek kontuan hartuz, landa-ingurunetan alfabetizazioa bultzatzeko, Aldundiak plan berriak proposatu zituen. Ez dugu ahaztu behar, 1919tik aurrera, Bizkaiko Aldundiak Auzo-eskolak martxan jarri zituela, eta arrakasta handiz gainera. Horrelako proiektu bat nahi zuen jarri Gipuzkoako Aldundiak landa-ingurunetan, baina diru asko eskaini beharra zeukan eta horretarako ez zegoen prest.

2.4. Eskolan, komunio txikitik komunio handira

Erakundeetatik eskolara joan behar zela eskatu arren, gehienetan baserrietako neska-mutilak ez ziren joaten eta hau arazo larria zen. 1902an, Francisco Oianburu maisuak, Martirieta (Martitteko), baserrietatik eskolara joaten ziren ikasleen berri eman zion Udalari. Egoera deskribatu ondoren, horrela adierazi zion Udal-Batzari:

...me comprometo a enseñar la Doctrina Cristina y lo principal para la salvación de su alma, que buena falta les hace a esta gente, pero todos cuantos medios he empleado para animar a mandar a la Escuela han sido inútiles y es una lastima pues están en un error y para evitar eso se me ocurre, como achacan que no pueden pagar, haber si rebajando la parte de la cuota mandarían mas pronto y mejor a la escuela y de ese modo se podía hacer algo mas con la instrucción pero deseo que el ayuntamiento aumente el sueldo que creo conveniente, yo por mi parte estoy conforme con otros mil reales

que me diera y así se podrá poner mucho mas barato y se animaría la gente y se puede poner la escuela bastante mas completa y mucho mas aprovechando la ocasión del *Cocoerri* que no tiene maestra pues ya algunos asisten a esta escuela. No crea V. que esto lo hago solo por aspirar a mas sino que lo hago por el bien del Barrio...

Baina Udalak emandako erantzuna ez zuen izan gogoko eta Martittek eskola utzi zuen:

...a fuerza de economía va pasando, pero en lo demás no da esto suficiente y oso que es un barrio bastante crecido y que hay suficiente numero de niños y algunos mas que asisten fuera del barrio, si es que asisten, bien así que no dudo en hará cuanto pueda para evitar muchos males que vienen de la ignorancia de la juventud. Además en bien del barrio y mío que después de agradecer y corresponde como mejor pueda, Dios se lo pagará.

Industrializazioarekin batera, hezkuntza eta alfabetizazioa gartzten joan ziren. 1904an, eskoletara ikasle gutxi joaten zenez, Udalak erabaki zuen neurri gorrak hartzea:

Habiendo observado que la asistencia a todas las escuelas deja mucho que desear y esto es causa del poco interés que se siente por parte de los padres para mandar sus hijos a la escuela, acordó publicar un pregón en los primeros días de septiembre, excitando a los mismos a que conforme previene la ley manden sus hijos a las escuelas, pues en caso contrario el Ayuntamiento se verá obligado aplicar las disposiciones del reglamento sobre el particular.

1905ean, Azkoitiko Udalak, Eusebio Aranguren alkate zela, datu hauek eman zituen herriguneko eta auzo-eskoletako ikasleei buruz:

18. TAULA: *Azkoitiko herriguneko eta auzo-eskoletako ikasleak*

	Biztanle kopurua	Eskolara joaten diren haurrak
Herrigunean	2844	389
Izarraitz-mendi	929	130
Ormola-mendi	499	109
Arrieta-mendi	991	133

1906an, Azkoitiko herriguneko eskola nazionaleri dagokionez, zera zioen Udalak: mutilentzako bi eskola, hauetarik bat osoa eta

bestea *auxiliarra*, eta neskentzat beste bi eskola zeudela aipatu arren, egon bakarra zegoela. Lekaimeen eskolak betetzen zuen haren hutsunea; eskola honek Ikuskaritzaren oniritzia zuen eta Udalak diruz laguntzen zuen.

19. TAULA: *Azkoitiko herriguneko eskolak, 1910ean*

Mutilen Eskola Publikoa	50 ikasle
Mutilen Eskola Publiko <i>auxiliarra</i>	52 ikasle
Nesken Eskola Publikoa	50 ikasle
Nesken Miserikordiako Eskola	109 ikasle
Miserikordiako Haur Hezkuntza	112 ikasle
La Salleko Anaïen Eskola	120 ikasle

Bazirudien herriguneko eskolak egoera berrira egokitzen ari zirela, baina ez zen berdin gertatzen kaletik urrun zeuden auzo-eskoletan. 1906an, 9-10 auzo-eskola zeuden eta hauentzat Udalak urtero 625 pezeta ematen zituen. Urte berean horrela zioen Azkoitiko Udalak:

En la parte rural de esta villa las viviendas están muy diseminadas y a grandes distancias; así que no es posible formar los centros escolares, en el modo y forma que determina la ley, sin embargo a fin de que no les falte donde instruirse a los niños que viven en caseríos tan distanciados, el Ayuntamiento subvenciona a personas instruidas, aptas para el objeto, pero sin título y en cada barrio hay establecidas dos, tres o cuatro escuelas según las necesidades y las distancias dirigidas por las personas referidas.

Auzo-eskola partikular hauek baserrietako mandioetan, baselize-tako geletan... egon ohi ziren. Eskola hauetaz horrelako deskribapena egin zuen, 1906ko maiatzaren 20an, Udal Instrukzio Batzordeak:

...por causa de la configuración del terreno es de todo punto imposible formar los centros escolares en la forma fijada en el arreglo, porque no hay ningún punto céntrico a donde podrían acudir 20 niños por lo escabroso del terreno y cuestas tan pronunciadas y muy difíciles de salvarlas por los niños y el resultado inmediato sería que los maestros no tendrían asistencia en sus escuelas y se aburrirían viviendo en estos vericuetos tan elevados. Por salvar los inconvenientes apuntados y con el fin de atender en la forma más apropiada y conveniente a la instrucción primaria, este ayuntamiento después

de un maduro estudio tiene establecido nueve o diez escuelas según las necesidades de los puntos, que subvenciona a personas instruidas y aptas para el fin que persigue...



Urrategiko basiliza, eskola lehen solairuan zegoen

Eskola hauetara inguruetakoko neska-mutilak joaten ziren. Auzoko familien artean maisu edo maistra hartu eta denen artean ordaindu eta mantentzen zuten (beti auzoko apaizaren onespenerekin). *Komunio txikia*, zazpi urterekin, eta *komunio handia*, hamabirekin, izaten ziren eskola garaiko mugak. Eskola hauetan, aurrena, errezatzen irakasten zen, baina ez dugu ahaztu behar, otoitzak eskolan hasi baino lehen, amak edo amonak erakutsiak izaten zirela. Idazteko, gurasoek erositako koaderno batzuk, lapitza eta pintura kaxaren bat erabiltzen zituzten ikasleek. Pizarra edo arbel txiki batzuk ere izaten zituzten, txandaka erabiltzeko. Batzuk *sumar*, *restar*, *multiplicar* eta *dividir* egiten zuten bitartean eta besteak idazten egoten ziren. Eskola batzuetan tintero txiki batzuk ere izaten ziren, bere tinta urdinarekin, orduan ez baitzen boligraforik (Zendoia, N., *Diario Vasco*, 2003ko irailaren 30a).

Azkoitian tradizio handiko eskola, Izagirre-Torre baserrikoa izan zen, eta han, urte luzez, Clara Etxaniz, *Clara Altamira*, maistra egon zen. Ematen zen irakaskuntzari buruz zera esan genezake:

Etzosta-mendi eta Ormola mendiko ikasleak etortzen ziren eskola honetara. 7tik 12 urte bitarteko ikasleak, bai neska eta bai mutilak. Eskola honetatik, mutil batzuk kaleko Kristau Dotrinako Anaien Eskolara zuzentzen ziren. Mutilek abarkak eta brusa erabiltzen zuten eta bigarren komunioa egin ondoren (12 urterekin) txapela. Eskola goizez, 9etatik 11etara eta arratsaldez 2etatik 4½etara, izaten zen. Ostegun arratsaldeetan ez zen eskolarik egoten. Ikasleak, hilaren lehenengo ostiral arratsaldean mezetara joaten ziren, Altzibarko elizara eta han D. Primitivok ematen zuen meza.

Lau eragiketak irakasten zituen (batuketa, kenketa, biderketak eta zatiketak). Irakaskuntza euskaraz eman arren, gaztelarazko esaldiak ere ikasten zituzten, maistra berak itzultzen baitzituen euskarazko esaldi batzuk gaztelarara. Dotrina ikasten pasatzen zuten denbora gehiena, eta Udal agintariak etortzen zirenean ondo prestaturik edukitzen zuten. *Debererik ez* zien ematen ikasleei.

Testu-liburu erabilienak hauek ziren: *Jesuseko Lehen*, letra handiz idatzia; *Catona*, eta *Dotrina*. Bataz beste 20 ikasle joaten ziren eta ikasleek zerbait ordaintzen zuten. Kurtso bukaeran eskolara bisita egin eta galdeketa egiten zuten Udal ordezkariak; 3 pertsona etortzen ziren, (galdeketa ondoren, ikasle bakoitzari 2 pastel ematen ziotelarik). Baserrietan txerria hiltzen zenean, eskolan bertako seme-alabak izanez gero, andereñoarentzat 2 odolki ekartzeko ohitura zegoen. Badirudi eskola hau, 1939 ondoren itxi zela.

(Joxe Mari Mendizabal).

Auzo-eskola partikular hauetan, *eskola komulgatzeko lain* ikastea nahikoa zen. Egoera hau aldatzea Hezkuntza Ministerio berriaren, *Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes*, helburuetako bat zen. Hau gauzatzeko auzo-eskoletan zeuden maisu-maistra tituluak gabeak ordezkatu beharra zegoen. 1902ko azaroaren 14an bidalitako zirkularrean, zera azpimarratzen zuen Gipuzkoako Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialak:

El artículo 12 de junio último sobre Inspección de los establecimientos de enseñanzas privada establece que no se podrá recibir subvención alguna del Estado, provincia ó municipio si sus Directores o Maestros no poseen el título que acredite su capacidad y habiendo observado al examinar los presupuesto de ese Ayuntamiento consignar en las partidas 1.250 y 800 pesetas para sostenimiento de algunas escuelas particulares, sírvase V. manifestar en la mayor urgencia posible, si los maestros encargados de la enseñanza en dichas escuelas tienen título profesional correspondiente debiendo en otro caso

rebajar las mencionadas partidas en 1250 y 850 pesetas del presupuesto de gastos de ese municipio.

Azkoitiko ia auzo-eskola partikular gehienek legalitate berria ez zuten betetzen. 1906ko abuztuaren 14an, Udalak Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzatik eskola publiko ez-ofizial hauek ixteko agindua jaso zuen:

1. Francisco Oianburu
2. Josefa Aramendi
3. Josefa Goenaga (Erri Etxeta)
4. Maria Lizarralde (Zuazola)
5. Antonia Etxezarreta
6. Jose Lizarralde
7. Joaquin Iturbe (Zelertxo)
8. Eusebio Elortza
9. Roberto Iraeta
10. Jose Otaño

Baina agindua ez zen bete. Herrian eskola gutxi izanik, nola itxiko zituzten martxan zeudenak? Asmo hauen atzean eskola zahar tradizionalak itxi eta berriak ezartzea zegoen, baina horretarako Udalak ez zuen dirurik, ezta kasu batzuetan borondaterik ere. Gobernuak eskola berriak eraikitzeko aholkua, agindua, ematen zuen, baina ez diru laguntzarik. Beste 60 urte pasa behar izan zuten landa-auzoetan eskola berriak eraiki arte:

La convicción de que el edificio escolar es elemento de gran importancia para la obra educativa de la escuela, por su influencia en la higiene y en la disposición de espíritu de los alumnos, va penetrando en el ánimo de todas aquellas personas y Corporaciones a quienes corresponde, de más ó menos cerca, alguna intervención en ese ramo de la vida publica; así menudean ya los espontáneos ofrecimientos de Ayuntamientos y particulares, para sustituir, mediante esfuerzos económicos veces cuantiosos y siempre plausibles, los málfimos locales que actualmente, por lo general, se alberga la enseñanza primaria.

La proporción con que el Estado puede contribuir a esas iniciativas ó secundar los donativos ú ofrecimientos de solares y de créditos para construcción, es todavía muy escasa, por la cortedad de los créditos que dispone, pero, sea cual fuere el auxilio, le corresponde el deber de orientar á los que intenten solos o ayudados por subvenciones, la creación de edificios nuevos para que el esfuerzo no se

malogre y el dinero presupuesto se emplee debidamente en el mayor resultado útil posible. Los dos Centros referidos son: el Negociado de Construcciones civiles, parte de cuya competencia (la relativa a la Primera Enseñanza) depende de esta Dirección y el Museo Pedagógico Nacional.

Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes. Dirección General de Primera Enseñanza. Circular de 11 de junio de 1911.

Azkoitiko auzo-eskolen egoera ez zen batere ona, ezta Gipuzkoako beste herrietakoa ere. Azpeitiko Udalak zera zioen mendiko-eskola hauei buruz:

La parte rural se halla tan diseminada, que hay grandes distancias entre los caseríos por lo que se hace imposible la formación de centros escolares. Para evitar que los niños de los citados caseríos estén desprovistos de instrucción, el Ayuntamiento subvenciona a personas instruidas y aptas, aún sin título, para la enseñanza de tan apartados puntos.

Landa-inguruneko eskola hauen egoera aldatu beharra zegoenez, 1920ko hamarkadan, Azkoitiko Udalak erabaki zuen hainbat bailaretan eskola berriak eraikitzea, eta maistra nazionalak jartzea. Baina asmoa ez zen gauzatu, eta urte asko pasa ziren nahi hau bideratzerako. Beste aukerarik ezean XIX. mendeko egiturarekin zeuden eskola partikular hauek urte askotan mantendu ziren. Landa-inguruneko eskola gehienetan egoera tankerakoa zen, eta ez pentsa eskola nazionala izateagatik egoera hobea zenik. 1924an Oiartzunen, Karrika auzoan zegoen auzo-eskola nazionalaren egoera azalduko dugu jarraian:

La escuela al margen anotada, carece de condiciones higiénicas y pedagógicas, como lo hizo presente a la Junta local el día que tomó posesión de la misma. La sala escuela además de ser muy pequeña para el número de niños que asisten; y muy húmeda, que el material científico se está cayendo a pedazos, es muy oscura. La choza o guardilla que se quiere destinar para habitación de la maestra, tiene los mismos defectos. El techo sumamente bajo y abuhardillado, con luceros al tejado, muy pequeños y sin ventilación. El retrete, con cañería oblicua, sin bomba, ni agua. No hay donde poner un saco de carbón, ni donde secar la ropa, aquí que siempre está lloviendo. Tanto debajo de la guardilla como debajo de la escuela hay sidrerías... con los desordenes consiguientes, pues como carecen de retretes, las puertas de la escuela los suplen y hacen las veces de cama dormitorio, etc., etc. Donde los niños que vienen a recibir una edu-

cación completa, ven cuadros altamente indecentes, inmorales, y extremo escandalosos, como consecuencia del abuso de las bebidas.

Antzeko gauzak aipatuko dira Azkoitian, 1949tik aurrera, auzo-
eskola nazionalak baserrietan jartzen dituztenean.

2.5. Euskara eta alfabetizazioa

Urteak aurrera zihozten heinean, aldaketa sozio-ekonomikoak bertako biztanleen hezkuntzan eta hizkuntzan eragin nabarmena izan zuen. Ez dugu ahaztu behar, XX. mende-hasierako lehen bi hamarkadetan gaztelera asko garatu zela. Garapenaren arrazoen artean hauek azpimarratuko ditugu:

Gaztelerazko eskolatzearen zabalkundea.

Herriko gizon-emakume ospetsuen imitazioa, eskolatuak gaztelaniaz mintzatzen baitziren.

Bere praktikotasuna hainbat arazo konpontzeko, bereziki herritik kanpo egin behar ziren gestioak bideratzerakoan.

Gaztelaniaren inposaketa zigor eta debekuen bidez.

Hiztunen artean, euskara mantendu zen, baina bere erabileraren balorazioa eta aplikazioa aztertzen baditugu, gaztelerak euskararekiko nagusitze/mendetasuna erlazioa mantentzen zuen. Urte hauetan, jeltzaleen garaipen politiko-soziala medio, instituzioek zenbait neurri proposatu zituzten euskararen alde, baina ez zen nahikoa izan (Aizpuru, M., 1990). Estatu botereak gogor bultzatu zuen gazteleraren erabilera, Estatu espainiarreko neska-mutil guztiak jakin behar zuten gaztelera, horrela zioen behintzat 1902an, Espainiako Kongresuan Romanones jaunak. 1902ko azaroaren 21eko Errege-dekretuak zera zioen:

Señor: Un hecho anómalo, de aquellos que no provocan clamores en la opinión porque se producen de un modo silencioso, disfrazándose con la santa apariencia de la tradición y de la costumbre, ha llegado á noticia del Ministerio que suscribe, por los informes que en cumplimiento de los deberes de su cargo le han dirigido algunos Inspectores provinciales de primera enseñanza, acerca de la situación anómala creada á la instrucción primaria en las escuelas visitadas por aquellos funcionarios en alguna región de nuestra Patria donde se dan enseñanzas, tan importantes como la religión, en lengua distinta del castellano.

Parece indudable que tal conducta obedece á una impropia interpretación de lo dispuesto en el art. 87 de la ley de Instrucción

publica, que previene “ que la Doctrina cristiana se estudiará por el Catecismo designado por el Prelado de la diócesis” con intención explícitamente determinada en el art. 92 de la misma ley al disponer que las obras que traten de Religión y Moral no podrán declararse de texto sin previa declaración de la Autoridad eclesiástica de que nada contienen contra la pureza de la doctrina ortodoxa, y al hecho singular de no existir, aprobados por los respectivos Prelados, textos escritos en castellano.

No puede el Ministro que suscribe permanecer indiferente ante la gravedad y trascendencia de este asunto. No cabe desconocer la honda perturbación que puede producir en los espíritus todo aquello que se refiere al desuso del lenguaje, que es como la piel dentro de la cual viven y funcionan músculos y huesos, nervios y venas, corazón y pulmones, voluntad é inteligencia, todo el cuerpo y también toda el alma de un pueblo.

Fuera temeridad pensar que si educamos a la generación de hoy no enseñándola los principios fundamentales de la religión en castellano, en el idioma de Cervantes, en aquél que nos sirvió en el Nuevo Mundo para propagar nuestra fe y nuestra civilización, tendríamos mañana ciudadanos unidos por la fraternidad, amantes de la patria común y capaces de servirla y engrandecerla. Fuera también vana ilusión creer que la enseñanza de la doctrina cristiana en lengua distinta que el castellano no habría de redundar forzosamente en lamentable desconocimiento del idioma nacional, con grave daño de los intereses de la patria, que en la lengua tiene su más preciado vínculo de unión entre todas las provincias del reino, vínculo que en ninguna parte tanto importa robustecer como en las escuelas, fundamento el más firme de la educación nacional. Por otra parte, y descendiendo ya al terreno de la práctica, no es posible ni puede considerarse justo exigir a un maestro o una maestra, que en castellano han estudiado y que solo hablan ese idioma, que aprendan otra lengua o dialecto para explicar dentro del territorio español...

Nafarroako Gobernadore Zibila, landa-inguruneko zenbait eskoletan irakaskuntza euskaraz ematen zela jakin zuenean, gogor mintzatu zen baserritarren aurka (Aranbarri, I., 1999):


No es solo al calor de la familia ni en la atmósfera de las afecciones donde se desenvuelve la vida. En otras esferas hay diversas necesidades que satisfacer y el honrado montañés que conserva como dulce tesoro el antiguo idioma, que le legaron sus descendientes, se encontraría solo, aislado de toda comunicación en su propia patria, si no le enseñara a hablar, a pensar y a sentir en el idioma adoptado

por esta. Esta es la misión que le corresponde a la escuela y el encargado de llenarla es el maestro. No corresponder a ella, sería cometer un verdadero delito (...).


Así que recuerdo a los señores maestros y a las autoridades, el exacto cumplimiento de la ley y confío que bajo ningún concepto se perturbará la buena marcha de la enseñanza regulada mediante disposiciones categóricas, hallándome dispuesto si se hace lo contrario a exigir sin contemplaciones las responsabilidades consiguientes.

1917tik aurrera egoera politikoa aldatzen hasi zen eta honek eragin handia izan zuen euskal gizartean. Ez dugu ahaztu behar erakunde abertzaleak indarra hartzen joan ziren heinean, euskara eta euskal hezkuntza bultzatuz, herri identitatea errebindikatzen ari zirela, Hutchinson-ek *Cultural Nationalism* deitzen diona (Hutchinson, J., 1987). Euskal kulturaz aritzen garenean sarri azpimarratzen da gaztelera Eskolaren eragina, askotxo, esanez hau izan dela euskal gizartearen akulturalizazioaren tresna nagusia, eta errealitatea konplexuago da. Akulturalizazioa esaterakoan adierazi nahi dut hizkuntza-inbertsioan (gaztelaniakuntza) eta ahozketasunean oinarritutako giza antolakuntzako adimen eta logikazko egiturak ordezkatzeko. Ez dugu ahaztu behar familiak, Elizak... beren balioen transmisioa eskolan eta eskolatik at euskaraz garatzen zutela. Gaztelera ematen zen eskola ere ez da izan, arrazoi berdinagatik, modernizazio faktore, eskola honen eragina oso mugatua izan zelako. Landa-inguruetan gaztelera ematen zen eskolak, oro har, ez zion erabateko eraginik egiten populazioaren multzo handi bati, botere tradizionalaren giza kontrol mekanismoak euskaraz garatzen baitziren.

Elizaren eragina azaltzerakoan nabarmendu behar da dotrina zela testu hedatuena, eta euskaraz zegoenetatik erabiliena. Dotrinen artean ondorengo hauek nabarmenduko ditugu: *Asteteren* dotrina eta *Kristau-Ikasbidea*. Liburu hauen argitalpen ugari eta ezberdinak egin ziren (begira 3.eranskina).



Dotrina, 1773an egindakoa



*Gasteizko Elizbarrutiko
 Kristau-Ikasbidea, 1921*



Eskolan erabiltzen zen Doctrina

Gipuzkoako hiriburuan, Donostian, indar handiz garatu zen *Koruko Andre Mariaren* eskolak bere liburuak argitaratu zituen, ikasleak euskaraz eta kristautasunean hezteko.



*Donostiako, Koruko Andra
Mariaren Ikastetxeko liburuak,
1930ean*

Eskolatzea eta alfabetizazioa aurrera zihozten heinean, komunikabide idatziak eta irratia ere asko hedatu ziren. Prentsari buruz, Azkoitian gerra aurrean, gutxienez, bederatzi egunkari banatzen ziren: *La Voz de España*, *El Diario Vasco*, *La Constancia*, *El Día*, *La Voz de Guipúzcoa*, *El Pueblo Vasco*, *La Cruz*, *El Correo del Norte* eta *El Correo de Guipúzcoa*.

Egunkaria, egunero, aberatsek bakarrik erosten zuten. Azkoitian egunkari garrantzitsuenak la *Constancia* eta *El Día* ziren. Gure etxean *El Día* egunkaria irakurtzen zuten, etxepeko batek ekartzen zuelako, Maria *Batzokikoak*, beraiek saltzen baitzuten egunkaria. Azkoitiko jauntxoek *El Día* egunkaria ez zuten gogoko
(Pedro Aldalur).

Aldizkarien sailean, gehientsuenak kirolei buruzkoak ziren: *Campeón*, *Aire libre* eta *Excelsior*, hauek Bilbotik ekartzen zituzten. Honako astekariak ere irakurtzen ziren: *Semanario Católico*, *Mundo Gráfico*, *Blanco y Negro*, *Revista de Toros* eta *Argia*. Azkoitiko herrian, XX. mende hasieran, baziren irratigailuak, baina gutxi eta bakarrik aberatsen etxeetan. Bertso-paperen eta egutegiaren zeregina garrantzitsua eta ahaztu ezina dugu.

Komunikabideen hedapenarekin batera, Elizak ere bere ideologia hedatzeko bide berriak aurkitu zituen. Aldaketa garaia zenez, Eliza barruan ematen ziren eztabaidek izaten zuten leku komunikabideetan, baina, dudarik gabe, hierarkiaren proposamenak eta ideiak ziren oihartzun handiena jasotzen zutenak. Azkoitian, Urolako trenaren inaugurazio ekitaldian, 1926an, honela mintzatu zen Gasteizko apezpikua:


Señor, la Iglesia tiene sus bendiciones para las rutas del mar, que siguieron las carabelas de Colon, al llegar al mundo de América. Tiene bendiciones también para las vías del aire, que acaba de abrir el comandante Franco y sus compañeros, reverdeciendo los lauros de esta patria bendita, de esta patria inmortal y haciendo que todas las naciones del globo, todas, por unos días, piensen en España.

Pues bien, la iglesia tiene también bendiciones para las vías de comunicación terrestres porque adquiere la fraternidad de todos los hombres y porque ella sabe que es el medio de conocer los países del mundo de Dios. Por eso, nosotros al inaugurar este ferrocarril del Urola, en presencia de vuestra majestad, que es rey católico de Europa, por excelencia, en presencia de Vuestra Majestad que es el mas español de todos los españoles, en presencia del dignísimo Jefe de Gobierno que entre otras cosas vino a traer la paz y la tranquilidad,

en presencia de la Excelentísima Diputación de Guipúzcoa, colaboradora con gran celo de esta obra, la iglesia pide también por mediación mía que por esta vía férrea crucen la riqueza de la provincia, con sus frutos, con sus industrias, pero que no cruce nunca la mercancía de la corrupción, del vicio, de la rebeldía, del desorden, de las ideas separatistas, antipatrióticas, suicidas, sino la idea santa de la paz, del trabajo, de la honradez, del amor santo de todos a la Patria grande. Ahora, señores, decid conmigo: ¡Viva el Rey, Viva España, Viva las Provincias Vascongadas! (*El Pueblo Vasco*, 1926ko otsailaren 23a)


2.6. Mende hasierako liburuak eta irakaskuntza

Auzo-eskoletan liburu garrantzitsuena *Jesusena* zeritzana izaten zen; *a-e-i-o-u*-tik hasita, letra handiduna eta irakurteraza, noski irakurtzen ikasitakoan. Irakurketaren ondorengo urratsa *Catona* menperatzea izaten zen, hau liburu handiagoa zen baina letra txikiagoekin. Ondoren, euskarazko Dotrina izaten zen, hasieran *Dotrina zaharra*, hau neurri txikikoa zen, eta gero *Dotrina handia*.




*Astetea, 1911. urtean Azpeitiko
Martinez moldiztegiyan egina*

Erdaraz irakurtzeko liburu erabilienak *Lecturas* eta *Manuscrito* izenekoak ziren, azken honek mundu guztiko berri ematen zien baserriar gazteei, letra txiki eta bihurri batekin. Matematika, Gramatika, eta beste hainbat eskola-liburu, maisuaren arabera aldatzen ziren.



Pisia

1917tik aurrera, euskarazko liburuak azaltzen hasi ziren, poliki-poliki, pentsamolde abertzaleko idazle eta argitaldariei esker. Tolosako Issac Lopez de Mendizabal, *Ixaka*, eta bere argitaletxea ahaztu ezineko erreferentzia ditugu. Urte hauetan dotrina zen auzo-eskola denetan erabiltzen zen euskarazko liburu hedatuena eta ia bakarra. Liburu berriak azaltzen zihozten heinean, eskolako mahai eta bestelako materiala ere ugaltzen joan zen, baina hauek oso makal iristen ziren eskolara. Azkoitiko Udalak honelako irakasle-mahai, arbel eta bi pertsonentzako mahaiak ematen zizkien herriko eskolei.



Azkoitiko eskoletako ikasleen mahaia



Azkoitiko eskoletako irakaslearen mahaia

3. Auzo-eskolak eta aldundiaren proiektu berritzaileak (1923-1931)

3.1. *Auzo-eskolak suspertu beharra*

Primo de Riveraren Diktadurapean, 1923tik 1930era bitartean, hezkuntzari bultzada handia eman zitzaion eta eskola berri asko ireki ziren. Tamalez, maisu-maistra eta testu-liburu euskaldunek jazarpen gogorra jasan zuten:

2º. Los inspectores de Primera Enseñanza, en las visitas que realicen, examinarán los libros de texto de las escuelas, y si no estuviesen escritos en español o contuviesen doctrinas o tendencias contrarias a la unidad del a Patria o contra las bases que constituyen el fundamento del régimen social, los harán retirar inmediatamente de manos de los niños y procederán a formar expediente al maestro, suspendiéndole de empleo y medio sueldo y dando cuenta a V. E.

(1925eko urriaren 13a, Errege-ordena)

Estatuak bultzatu zuena gaztelerazko eskola izan zen eta, berriro ere, gogor eraso zitzaion euskarari, euskal kulturari eta euskarazko hezkuntzari:

Art. 1. Los maestros nacionales que proscriban, abandonen o entorpezcan la enseñanza en su escuela del idioma oficial en aquellas regiones en que se conserva otra lengua nativa serán sometidos a expediente, pudiendo serles impuesto la suspensión de empleo u sueldo de uno a tres meses

Art. 3. Si se tratase de escuelas de Primera enseñanza públicas o privadas, cuyos Maestros no estén comprendidos en lo dispuesto en los anteriores artículos, podrán ser clausuradas temporal o definitivamente.

(Errege-ordena 1926ko ekainaren 11)

Auzo-eskolen garapenari dagokionez, Gipuzkoako Aldundiak aurreko urteetan markaturiko bideari eutsi zion, diru-laguntzak eskainiz. Baina 1924ko abenduaren 23an egindako bileran ikusten den bezala, asmo onak izan arren, agintaldi honetan, diru eskasia izan zen eragozpen nagusia:

El hecho de existir más de 10.000 niños que quedaban sin recibir instrucción, era por sí solo dato suficientemente elocuente para

demostrar la gravedad del problema, tan vital cuyo remedio era imprescindible para el verdadero progreso de todo pueblo que se precie de culto, logrando que la acción benéfica de la enseñanza privada supla las deficiencias de la acción oficial en esta trascendental materia.

1923an, Gipuzkoako Aldundiak diru-laguntzak emateko erabakia hartu eta berehala, eskakizunak ugaltu egin ziren. Baina eskakizunak asko ugaltu ziren eta aurreikusitako diru kopurua, 50.000 pezeta, oso urri zela nabarmen gelditu zen. Arazoa larria izanik, beste egitasmo batzuk ere plazaratu ziren. 1924ko ekainaren 16an, Barriola jaunak zera proposatu zuen Aldundiaren bileran: instituzioen laguntza iristen ez zen lekuetan, apaizen esku uztea irakaskuntza:

Uno de los medios para solucionar el analfabetismo es que nuestros maestros sepan vascuence. Creo que esto se puede conseguir. Tenemos una escuela Normal de maestras, cuyas alumnas conocen en su mayoría el vascuence, las cuales una vez que obtengan el título, pueden regentar las Escuelas de la Provincia. Es preciso también fundar escuelas. En aquellos lugares en que no exista maestro se pueden pedir la colaboración del sacerdote, en la seguridad de que se presentará muy gustoso a dar las lecciones de una elemental instrucción a los niños. A este propósito citaré un caso relacionado con el Ayuntamiento de San Sebastián. En Artikutza, donde esta Corporación adquirió una finca, no existía ni escuela, ni maestro y todos los niños de aquel lugar puede decirse que eran analfabetos. El Ayuntamiento solicitó del Obispado de Pamplona un sacerdote, que fue cedido inmediatamente para que se hiciese cargo de la enseñanza. Pues bien; el cabo de cuatro o cinco años puede asegurarse que todos los niños han aprendido a leer y escribir y han adquirido las nociones de una elemental instrucción. Por ello creo que la colaboración de los sacerdotes sería de gran eficacia en el remedio del analfabetismo.

Azkoitiko errealitatea eta Barriola jaunak proposatzen zuena, oso gertu zeuden. Elizaren eragina izugarria zen.



Ostiral Santua Azkoitian, 1925ean

3.2. Aldundiaren Auzo-eskolen Proiektua

1927ko eta 1928ko datu estatistikoaren arabera, Gipuzkoan 236 auzo eta bailaretan, 120 eskola zeuden (hainbat auzo-eskola nazionalak ere kontuan izanik), hauetatik 40 eskola baldintza txarretan eta berritu beharrean; beste 80 auzo eta bailarek ez zuten eskolarik. Mar-txan zeuden eskolen egoera eta ekimenari buruz zera zioen Aldundiko Hezkuntza Komisioak:

a.- Eraikuntzak

Baldintza onean zeudenak oso gutxi ziren. Udalek ez zuten behar adina diru ematen hauek konpontzeko, eta ematen zuen diru saria maisu-maistrak ordaintzeko izaten zen gehienetan (batez beste urteko 250-500 pezeta). Kasu batzutan alokairua ordaintzeko ere ematen zuen, adibidez, *Illarra* eta *Agarre-Basarteko* baserrikoiei ematen zien laguntza.

b.- Altzarien egoera

Eskola gehienetan mahai eta aulkien beharra nabarmena zen.

c.- Curriculuma

Oinarrizko edukiak ikasten zituzten: irakurri, idatzi eta kalkulua. Hortik apartekoa, bertako maisu-maistraren jakintzaren arabera

izaten zen. Irakaskuntza euskaraz edo gazteleraz izaten zen, eta baita bi hizkuntzetan ere. Hizkuntza ereduak aukeratzea, maisu-maistra, apaiz eta gurasoen esku egoten zen gehienetan.

d.- Ikasleria

Eskoletara 6-12 urte bitarteko ikasleak joaten ziren. Gehienek euskaraz bakarrik ulertzen zuten. Asistentzia ez zen jarraitua eta urte sasoiaren arabera aldatzen zen. Baserriko lana ugaritzen zenean eskolak hutsik gelditzen ziren.

e.- Ikuskaria

Hauen lana ikuskaritza ez ezik, hainbat instituzioekin (Udal, auzoko-batzar...) bitartekaritza egitea ere izaten zen. Maisu-maistren esanak eta kexak jasotzen zituzten.

Eskola hauetako maisu-maistrak, sasi-maisu eta sasi-maistrak deitu izan direnak leku batzuetan, gehienetan titulu-gabeak izaten ziren eta batzuetan gazteleraren ezagupenik ere ez zuten izaten. Horrelako kasuetan gaztelera ikastea eskatzen zitzairen. Apaiz eta mikeleteek ere izan zuten auzo-eskola hauetako batzuen ardura. 1924tik 1936ra bitartean, hainbat auzo-eskola Mikeleteen kargu egon ziren. 1924an, Urkarregi (Elgoibar) eta Kanpazarko (Arrasate) mikelete-postuetan aurreneko eskolak ireki zituzten, bertako mikeleteen ardurapean. Hauen ekarpena egokia zela ikusirik, herritarrek zera eskatu zuten, honelako beste 14 eskola irekitzea, eskolarik gabe zeuden 448 ikasleentzat. 1927an Kanpazar, Urkarregi, Saturrarán, Otzaurte (Zegama) eta Endarlatzako (Irun) mikeleteen postuetan eskolak zeuden.

20. TAULA: *Aldundiaren laguntza jaso zuten auzo-eskolak, 1928an*

	<i>Herria</i>	<i>Auzoa</i>	<i>Diru-laguntza</i>
1	Antzuola	Uzarraga	100 pezeta
2	Azkoitia	Aizpurutxo	500 pezeta
3	Azpeitia	Orkaizagirre	150 pezeta
4	Azpeitia	Odria	150 pezeta
5	Aia	Altzola	350 pezeta
6	Aia	Urdaneta	300 pezeta
7	Zestoa	Lasao	500 pezeta
8	Ezkio	Santa Luzia	500 pezeta

9	Elgoibar	San Lorenzo	500 pezeta
10	Elgoibar	San Pedro	500 pezeta
11	Getaria	Meaga	100 pezeta
12	Getaria	Azkizu	750 pezeta
13	Legazpi	Telleriarte	500 pezeta
14	Legazpi	Brinkola	750 pezeta
15	Mutriku	Ibiri	200 pezeta
16	Mutriku	Olatz	350 pezeta
17	Mutriku	Astigarribia	250 pezeta
18	Oñati	Uribarri-barrena	250 pezeta
19	Oñati	Uribarri-garaia	200 pezeta
20	Oñati	Olabarrieta	250 pezeta
21	Oñati	Urrexola	250 pezeta
22	Oñati	Narria	250 pezeta
23	Errezil	Ibarbia	300 pezeta
24	Errezil	Erdoizta	300 pezeta
25	Donostia	Herrera	1500 pezeta
26	Zumarraga	Aginagako Martín Deuna	500 pezeta
			DENERA 8.750 pezeta

Auzo-eskola gehienek, legezko arautegia betetzen ez zutenez, Ikuskaritzaren edo agintarien desioen arabera kolokan egoten ziren. 1930ean Azkoitiko alkateak, Juan Jose Alberdi jaunak, Madrilgo Lehen Hezkuntzako Zuzendari Orokorriari eskatu zion Madariaga, Aizpurutxo, Aginaga, Zuzula-alde, Etxosta-mendi, Urrategi, Santa Kutz, Zubazu eta Astarbeko eskolak baimentzeko. Ikuskariak berehala erantzun zion, zera adieraziz:

La Inspección informa favorablemente por la certeza de los hechos aducidos y que la autorización pretendida en nada se opone a las disposiciones vigentes, supuesto que el art. 13 del Estatuto de Magisterio (Real Decreto de 18 de mayo de 1923) y ordena que la supresión de las escuelas, cuya asistencia sea menor de diez alumnos

o no actúen la mayor parte del año, siendo digno de alabanza el deseo del Ayuntamiento de atender por sus propios medios a la instrucción de todos sus administrados.

1930eko urriaren 13ko Errege-dekretuaren arabera, aipaturiko auzo-eskolak onartuak izan ziren. Urteak aurrera, gero eta nabarmenagoa zen auzo-eskolen sare edo antolakuntza hau gáinditu eta hobetu beharra. Ekimen hau ezinbesteko erronka zen Gipuzkoako Aldundiarentzat. Horrela, makina bat aurreproiektu eta saiakeraren ondoren, 1930eko abenduaren 12ko Batzarrean, Hezkuntza Komizioak aurkezturiko **Auzo-eskolen Sorrera, Egituraketa eta Administrazio Proiektua** onartu zuen Aldundiak (*Proyecto de Escuelas Rurales de Guipúzcoa*). Proiektu honek, Bizkaiko Auzo-eskolen garapena erreferentzi harturik, auzo-eskolen antolaketa berri bat proposatzen zuen Gipuzkoan: auzo-eskola probintzialak. Proiektu honek landa-ingurunean eskolaratzea eta alfabetizazioa bultzatzea zuen helburu; garaiako pedagogiak eskatzen zituen egokitasun eta baliabide oinarrizkoekin, eta ahalik eta kostu txikienarekin. Hau aurrera eramateko, bost urteko epean, 100 eskola berri eraikitzea proposatzen zen. Proiektuaren bultzatzaile nagusia, Aldundiko Hezkuntza Komisioa izan zen eta baita SEV-EIko zenbait lankide, horien artean Villalonga jauna eta Julian Elorza azpeitiarra (Elorza, 1911tik 1919ra bitartean, Aldundiko diputatu eta, 1919tik 1924ra bitartean, Aldundiko Lehendakaria izan zen). 1930ean onartutako Gipuzkoako Auzo-eskolen Proiektuak honako ekarpenak zituen :

a.- Eskolen eraikuntza. Hasierako asmoa bost urtean 100 auzo-eskola eraikitzea zen.

b.- Pertsonala. Maisu-maistrak lehiaketa publiko bidez aukeratua izan behar zuen, eta ezinbesteko baldintza hauek bete behar zituen: lehen hezkuntzako maistra titulua izatea eta euskararen gaitasun froga pasatzea. Baldintza hauek betetzen zituztenen artean oposaketa egiten zen. Irakasleei 3.000 pezetako soldata eskaintzen zitzairen.

c.- Ikuskaritza. Aldundiak jarritako Ikuskaritzaz aparte, herrietan ere talde eragileak osatzea proposatzen zen.

d.- Antolakuntza. Ikasleei dagokionez: eskola unitarioak eta bikoi-tzak izango zirela aipatzen zen. Ikasleak onartzeko adina 6-13 urte bitartekoa eta ordutegia, sei ordukoa.

Eskola motak sailkatzerakoan ere, hiru barruti ezberdin kontuan hartzen ziren: nekazal barrutia (zabalena eta ikasle gehien hartzen zituena), industrialia eta itsasertzekoa. Martxan jarri zirenean ez zen nabarmendu banaketa hau, eskola gehienak nekazal barrutian jarri

baitziren (Zumaiako San Migel de Artadi eta Getariako Meaga gaineko eskolak ezik).

e.- Ikasgaiak. Gai hauek aipatzen ziren: Heziketa Moral eta Erlijio-soa; Irakurketa eta Idazketa; Aritmetika eta Geometria; Urbanitatea eta Higienea; Geografia eta Historia; Gaztelera-zko Gramatika. Musikak ere bere lekua zuen, abesti herrikoi eta erlijiosoak abestuz.

h.- Erlijioa. Herriko Erretoreari ahalmena ematen zitzaion eskolako irakaskuntza erlijioso eta morala ikuskatzeko.

Proiektu honek foru-diputatu (gestore) guztien onespena jaso zuen. Landa-inguruneko hezkuntzarako ekarpen izugarria zela nabaria zen: eraikuntza berriak eta bikainak; maisu tituludunak eta euskaldunak –oposaketetako baldintzetan euskararen derrigortasuna ezartzen baitzen–, eta Aldundiaren funtzionarioak. Irakasleriaren eta Ikuskaritzaren kontrola edukiz, eskolaratzea ez ezik beste asmo batzuk ere bazituzten agintariek, proiektu hau plazaratzerakoan. Oposaketetan euskararen derrigorrezko baldintza ezartzeak zera adierazten du: maisu erdal-dunak eta curriculum arrotza ezarriz, bertako ohitura eta tradizioa gainbehera zihoala. Berandu baina... foru-diputatu eta udal-agintari batzuk jabetzen ari ziren arazoaz.

Baina ondorengo urteetan aldaketa politiko nabarmenak eman ziren. 1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika ezarri zen eta Aldundiko agintea ere aldatu egin zen. Dena dela, foru-agintari berriek ez zioten bizkar eman landa-ingurunean eskolak hedatzeko asmoei. Pape-retan hainbat aldiz aipatutakoa martxan jartzeari gogoz eta gogor ekin zioten Batzorde Kudeatzaileko *gestore* berriek.



Azkoitiko Udaletxea



Aldundiak eraikitako auzo-eskola eta ikasleak, Tolosa 1935ean



Aldundiak eraikitako auzo-eskola, Zizurkil 1934an

Azkoitiko Udalera ere iritsi zen Aldundiak bidalitako idatzia, Gipuzkoako landa-auzoetan 100 eskola eraikitzeko asmoen berri emanaz. Azkoitiko Udalak kasu gutxi egin zion eskakizun honi, eta ez zuen proposatu era honetako eskola berririk eraikitzea. Erabaki honen atzean zein arrazoi ote zeuden aztertzerakoan, agian, pentsatu beharko da Azkoitia urte haietan herri oso kontserbadorea izanik, bertako Udalak ez zuela begi onez ikusi errepublikazaleek proposatzen zuten auzo-eskola eredu berri hau, auzo-eskola probintzialak.

Eskola hauekiko bere errezeloak azaldu zituenetako beste bat Jose Ariztimuño, *Aitzol*, izan zen. *Aitzolek* gogoan zuen Bizkaiko Auzo-eskoletan gertatutakoa. Bere iritziz eskola hauek, hasierako helburu abertzaleak bazterrean utzi eta, gaztelera hedatzen ari ziren Bizkaiko landa-inguruetan. Errepublikaren pentsaera liberalaz ere ez zen gehiegi fio (Ariztimuño, J., 1986):

El paso más serio y real en cuestión de enseñanza vasca se dio por la Diputación de Bizkaia, cuando en ella imperaba mayoría nacionalista (1918), con la creación de las escuelas de barriada, dirigidos por el gran renacentista Luis de Eleizalde, cuyos resultados hoy se han malogrado.

Desde la fecha más reciente, la Diputación de Guipúzcoa va estableciendo, también, las escuelas rurales, mas la enseñanza euskeldun que en ellas se da es deficientísima, debida en gran parte a la manifiesta ineptitud de quines están encargados de dirigirlos y orientarlos, ya que desconocen el idioma, vehículo de la enseñanza para los pobres niños de las aldeas.

Hace un par de años se ha decidido el nacionalismo vasco a tomar, con cierto calor, la cuestión de la enseñanza en euskera, fundando el “*Eusko-Ikastola Batza*”, Federación de Escuelas Vascas, que hoy está integrada por unas 15 escuelas primarias y un colegio de Segunda Enseñanza.

Ez dugu ahaztu behar euskalduntasuna, abertzaletasuna eta erlijio katolikoa eskutik zihoazela, gerra aurreko abertzaleen pentsamenduan. Idazle abertzale honek, *El Día* egunkarian idatzitako artikuluan, horrela deskribatzen zuen Sabino Aranaren izaera:

No predicó los postulados de la nacionalidad vasca para hacer de nuestro pueblo una raza independiente solamente, sino para que, alcanzado esto, libre de contagiosas concomitancias de otros pueblos, viviendo su propia vida, llevara a los vascos mediante un Estado católico vasco a un plano superior espiritualismo en el que les fuera

mas hacedero la conquista de la finalidad que Dios indicó a los hombre (...); y, porque “solo por Dios” suscitó Sabino Arana Goiri la nacionalidad vasca y porque “solo por Dios” actúa el Partido que creó el Maestro, por eso el Pueblo Vasco en masas ha confiado a los hombres designados por el PNV la representación de su patriotismo.
(*El Día*, 1933ko apirilaren 25a)

Horrelako pentsamenduak, erlijioari dagokionez behintzat, oso sustraituak zeuden Azkoitian, beraz ez da harritzekoa Udalak auzo-eskola partikularrak mantentzearen aldeko apustua egitea. Gainera, eskola berriak eraikitzeak gastu handia suposatzen zion Udalari. 1930eko maiatzaren 21ean horrela zioen Udalak Hezkuntza Ikuskaritzari egindako idatzi batean:

Hallándose sumamente diseminada la población en las montañas de este termino municipal, (...), y no teniendo caminos fáciles que hagan posible la permanencia de los maestros titulares o nacionales debido al aislamiento en que hallan las diminutas agrupaciones (...) suplica se autorice al Ayuntamiento para establecer en las agrupaciones escuelas primarias mixtas a cargo de este municipio.

Beste aukera, eskola nazionalak irekitzea zen. Kasu horretan Udalaren kargu joan behar zuten eskolak eta maisu-maistren etxeak, eta Azkoitiko Udalak ez zuen behar adina dirurik. Eskola berriak irekitzeko Hezkuntza Ministerioaren laguntzak ezinbestekoak ziren, baina une hartan ematen ziren laguntzak eskola graduatuak egiteko bakarrik ziren.



Aldundiaren auzo-eskola baten inaugurazioa. Aurreneko ilaran, erdian, Josefina Olóriz Ikuskaria

3.3. Azkoitiko eskolen errealitatea

Landa-ingurunetan hezkuntzaren arazoa larria zen, baina herri-gunekoa ere ez zen askoz hobea. 1924ko ekainaren 3an, alfabetizazioaren egoera kaxkarrari aurre egiteko Udalak gai hau suspertzeko osatutako Komisioak zera azpimarratu zuen: gurasoak behartu behar zirela seme-alabak eskolara bidaltzera. Azkoitiko kasua ez zen bakarra, arazo bera zuten Gipuzkoako herri gehientsuenetan. 1924ko ekainaren 10ean, Rikardo Otaño alkate zelarrik, jasotako datuek zera zioten:

21. TAULA: *Eskolatzeko datuak, Azkoitia 1924an*

Kokagunea	Biztanleria	Guztira Neska/ mutilak	Eskolaren izena	Matrikula Neska/ mutilak
Herrigunea	4.012	314/343	-	-
			Miserikordia	222/6
			La Salleko Anaiak	0/181
			Eskola nazionala	0/60
			Eskola nazionala	46/0
			Eskola nazional laguntzailea	0/74
			Silveira Zabalaren eskola partikularra	45/0
Izarraitz-mendi	1.321	108/114	Izarraitzen 3 eskola	59/50
Ormola-mendi	831	103/80	Ormola mendia 4 eskola	52/44
Arrieta-mendi	1.127	100/120	Arrieta mendian 3 eskola	70/47
DENERA	7.012	625/57	-	494/471



Azkoitiko Kristau Dotrinako Anaien ikasleak, 1924an




Azkoitiko Jesusen Bihotzaren ikastetxeko ikasleak eta Jenara Aranbarri

Bailaretako eskolei dagokionez, 10 auzo-eskola zeuden: Izarraitz-mendian, 3 eskola: Madariaga, Illarraga eta Iraolaza-Etxeberri, guztira 109 ikaslerekin; Ormola-mendian, 4 eskola: Torre, Urrategi, Aizpurtxo eta Zubazu, denera 96 ikaslerekin; Arritte-mendian, 3 eskola: Lete, Martitte eta Aginaga, 116 ikaslerekin.

Eskola hauek ez ziren ofizialak, bertako maisu-maistrek ez zuten titulurik, nahiz eta batzuetan eskoletako arduradunak apaiz eskolatuak izan. Herrian zegoen analfabeto kopuruaz Udalak zera zioen, ez zela erraza hau neurtzea baina, batez beste, 500 bat neska-mutil egongo zirela; herriko neska-mutilen %30etik %40ra bitartean. Jose Luis Jaume, Lehen Hezkuntzako Ikuskariaren arabera, 1857ko Legea kon-tuan izanik, hemengo zenbait gunek (Izarraitz-mendi, Ormola-mendi eta Arritte-mendi) ikasle kopuruaren arabera, izan bazuten eskubidea bakoitzak neska eta mutilen eskola nazional bat izateko, baina esku-bideaz aparte dirua behar zen. Urte horretan Azkoitiko Udalak Martirietan (Martitten) eskola nazional berria egiteko hartu-emanak izan zituen Ikuskariarekin. Eskola horrentzako planoak egin ere egin ziren, Elizak lur saila eskaini zuen baina proiektua ez zen bideratu, eta eskola berria 50 urte beranduago eraiki zen.

La Corporación municipal de esta villa, en su afán de combatir el analfabetismo y procurar la cultura e instrucción de sus administrados, proyecta la construcción de una nuevo edificio para Escuela y habitación, de esta villa, a cuyo fin cuenta con la cooperación de sus habitantes que se comprometen a aportar el maderamen necesario y su prestación personal.

Que a ese objeto como punto el más indicado para su emplazamiento, se ha fijado en un terreno erial pegante a la huerta de la casa cural de dicho barrio y de propiedad de la Iglesia que nada produce ni presta utilidad alguna y del que habían de ocuparse, al expresado fin, unos doscientos metros cuadrados, poco mas o menos.



Martirietako Eskola Publiko berriaren aurreproiektua, 1924an

Moyano Legea onartu zenetik, 1857tik, eskolaren derrigortasuna aipatu arren, errealitatea bestelakoa zen: oraindik eskolara joan gabe haur asko gelditzen ziren. Arazoari irtenbidea emateko, eskolara joaten ez ziren haurren gurasoentzat (6-14 urte bitarteko haurren gurasoentzat) zigor gogorrak jartzen hasi ziren, baina ez zirudien zigor hauek eragin nabarmenik izan zutenik.

1925eko ekainaren 12an Gobernuko ordezkariak, Gumersindo Jaunak, analfabeto kopuru izugarria ikusiz, honako agindua igorri zion Azkoitiko Alkate jaunari esanez: maisuek, liburu batean, eskolara agertzen ez ziren ikasleen izenak jaso behar zituztela, seinalatuz faltaren arrazoiak (falta justifikatua zen ikaslearen eta senitartekoen gaixotasuna). Eskolara ez joatea gogor zigortzen zen: 0-10 saiotara faltatuz, 3 pezetako isuna; 10-20 saiotara faltatuz, 5 pezeta; 20-40 saiotara faltatuz 8 pezeta; 40 saiotatik gora faltatuz, 10 pezeta. Isunetan jasotako dirua, merezi zuten neska-mutilen artean banatzeko izaten zen.

1925ean, Urrategi, Aginaga, Madariaga, Aizpurutxo eta Martirietako elizetako apaizek, igandeko mezatan, gurasoei gogoratu zieten

derrigorrezkoa zela haurrak eskolara bidaltzea. Baliabideak nahi adina ez izan arren, Estatuak bere ingeniaritza-soziala garatzerakoan eskolaratzearen ezarpena lehentasunezko helburutzat zuen.

23. TAULA: *Azkoitiko auzo-eskolen egoera, 1926an*

Bailara	Biztanleria	Eskolatik herrigunera Km-etan	Auzo-eskola	Asistentzia neska-mutilak
Santa Kutz	446	1,50	Illarra	27
Zuazola-aldea	228	2,15	Iraolaza-Etxeberri	33
Madariaga	175	6	Madariaga	27
Urrategi	293	2	Urrategi	30
Zubazu	134	2	Zubazu	21
Etxosta-mendi	267	2,70	Torre	42
Aizpurutxo	351	7	Aizpurutxo	33
Kukuerrri	299	3,50	Lete	27
Martitte	403	3	Martitte	30
Aginaga	293	12	Aginaga	18
	2 889			288

Auzo-eskola hauek, gurasoen ordaintzen zutenarekin eta Udalak ematen zituen 2.000 pezetarekin mantentzen ziren. Martitte, Aizpurutxo, Madariaga eta Aginagako auzo-eskolak bertako apaizen edo beraiek jarritako maisu-maistren kargu zeuden. Eguneroko errealitate gordina zera zen, baserrian lan asko eta diru gutxi zegoela. Sarritan neska-mutil gazteak eskolara joan gabe gelditzen ziren gurasoei laguntzen (*itu-lanean*, belar biltzen, anai-arreba gaztetxoak zaintzen...).

Herritik oso gertu zeuden auzoetan ere egon ziren auzo-eskola partikularrak. Hautetako bat Flores baserriko eskola izan zen. Baserri honetara, Floreagako eskolatik oso gertu egon arren, kaleko ikasleak ere joaten ziren. Askorentzat eskola hau kaleko eskoletara joateko sarrera edo osagarri izaten zen. 1930ean baserri honetako eskolara 20 ikasle joaten ziren eta maisua Agustin Oteiza, bertako semea zen.

Maisu hau elbarria zen eta asto gainean ekartzen zuten igandetan mezetara.



Flores baserria

4. II. Errepublikaren eta auzo-eskolen suspertzea (1931-1936)

4.1. *Urduritasuna pentsamolde sozial berrien aurrean. Mendi tontorretan geldiro haizea*

II. Errepublikaren aldarrikapenak, 1931ko apirilaren 14an, askatasun demokratikoen erregimena ekarri zuen. Hala ere, Foru Aldundiak demokratizatzeko hauteskunde prozesurik ez zen egon. 1931n probintziako agintea, Madrilgo Gobernuak aukeratutako koalizio errepublikar-sozialistako ordezkariak, *gestoreek*, osatu zuten. Garai hartan gobernu zentralak uste zuen probintziako hauteskundeak eginez gero Errepublikaren aurkariak mesederako izango zela. 1931 eta 1933 artean, aginte politikoa ezkerreko alderdien esku egon zen, baina hauek 1933ko hauteskundeetan porrot egin ondoren, 1933tik 1936ra bitartean, Foru Aldundia zentro-eskuineko alderdien esku gelditu zen. Hala eta guztiz, hori ez zen oztopo izan Ekonomi-Itunaren aldeko lanean jarraitzeko. 1936ko otsaileko hauteskundeetan, Fronte Popularrak garaipena lortu ondoren, ezkerreko alderdietako ordezkariak hartu zuten berriro agintea, epe motzerako.

II. Errepublikarekin egoera sozio-politikoak zeharo eraldatu zen. Ordura arte isilean pasatzen zena, gero eta gehiago kaleratzen hasi zen. Errepublika aurretik, Gipuzkoako herri askotan, jauntxoek hautaketa egin aurretik Udal ordezkariak akordio bidez adosten zuten, 29. Artikulua zela medio. 1931ko hauteskunde aurretik Azkoitiko Udal karguen banaketa, 16 zinegotzitik honako hau zen: hamar integrista, hiru *jaimista* monarkiko eta hiru nazionalista, hots, denak katolikoak. 1931ko apirilaren 14aren ondoren egoera asko aldatu zen herritarren artean. Zatiketaren isla da apirilaren 19an Azkoitiko Udalean aurkeztu ziren bi mozioak.

Lehena, alderdi tradizionalistarena da, eta horren aurreneko hiru puntu aipatuko ditugu:

Los que suscriben, concejales y vecinos de esta misma villa, conscientes de la intensa trascendencia de estos momentos para la madre patria española y tanta responsabilidad para todos los buenos ciudadanos, con el mayor respeto proponen:

1.- Hacer pública declaración de que somos y seremos, mediante el divino auxilio, católicos, apostólicos, romanos, y manifestar nuestra sumisión respetuosa e incondicional a las enseñanzas de la Santa Madre Iglesia Católica, y a sus legítimos Pastores, el Romano

Pontífice y los obispos unidos a la Sede Apostólica. Que por lo mismo anhelamos y trabajamos por el triunfo del Reinado de Cristo en la tierra, particularmente en nuestra nación española, queriendo que todos nuestros actos, nuestras leyes y costumbres se enderecen a dar gloria a Jesucristo, rey de las naciones, y paz y bienestar a todos los habitantes de nuestra patria.

2.- Manifestamos públicamente nuestro vivísimo afecto a la madre patria española, a la que deseamos toda la mayor grandeza y felicidad, a que tiene derecho, así como una paz y armonía cristianas a todos los que tenemos a gala ser hijos de España.

3.- Manifestar así mismo públicamente nuestro amor y veneración a los Fueros vascongados que nuestros gloriosos antepasados defendieron valientemente de palabra u obra, y declarar con todo solemnidad que queremos la total y absoluta restauración foral en la Vasconia, y particularmente en Guipúzcoa, nuestra querida Guipúzcoa, cuyos fueros y libertades arrebatados injustamente por los gobiernos liberales que tuvimos desgracia de padecer.

Beste mozia Ramon Zubizarreta jaunak azaldu zuen, gutxiengo abertzalearen izenean. Mozioaren lehen puntuaren zati bat aipatuko dugu:

Los concejales que suscriben, en nombre de la minoría nacionalista del Ayuntamiento de esta villa, someten a la confederación del Iltre. Ayuntamiento, los siguientes proyectos de acuerdo:

1.- En este momento histórico en que ha desapareció el régimen destructor de nuestra libertad política como nación ante el hecho de la nueva estructuración del Estado español, la minoría que suscribe, después de afirmar los derechos naturales e históricos que, como tal nación, le corresponden, reclama como primer acto de autodeterminación del País Vasco, la proclamación de la Republica Vasca, confederada con las demás Repúblicas Ibéricas.

Aldaketa sozio-politikoekin batera, hezkuntza berritzeko eta eskolatzea hedatzeko gogo berriak iritsi ziren. Bailaretako eskolen kopurua ugaritu egin zen, eta baita instituzioek ematen zituzten diru laguntzak ere. Aldundiaren laguntzak berarekin ekarri zuen hezkuntza kontrolatu nahia. Honela, Diputazioko Hezkuntza Komisioaren ardurapean zegoen Ikuskaritza taldeak, urtero jarraipena egiteari ekin zion; ekimen hau berria zen auzo-eskoletan. Ikuskaritzak egiten zituen txostenen arabera banatzen zen diru laguntza.

Baina Estatu demokratiko berria, bere oinarriak finkatzen eta bere antolakuntzaz hitz egiten hasia zenean, espainiar indar faxistek 1936ko anaiarteko gerrari hasiera eman zioten. Errepublikak eta demokratikoki aukeratutako gobernu berria, Fronte Popularra, deuseztatu behar zen, jauntxoek eta Elizaren boterea zalantzan jartzen ari baitziren.

Gerra iritsi zenean, leize zulo beltzean amildu ziren makina bat ilusio eta bizitza. Ideologi faxistak, gerraren iturburu, buruzagi berriak sakralizatu egin zituen. 1937ko irailaren 29an, eskuindarrek Franco jenerala *Generalísimo* izendatu zuten; 1938ko urtarrilaren 30ean Estatu Buru; eta gerra irabaztean Espainiako *Caudillo* (1939ko ekainaren 5ean). Francoren diktadurapean, Euskal Herriak errepresio gogorra jasan zuen: nazionalismoa, euskara eta euskal kultura deuseztatu nahi izan zituzten. Euskaldunek ezer gutxi egin ahal izan zuten altxatuen tropak geldiarazteko. Francoren jarraitzaileen ejertzitoak, gizon eta teknologia militar naziek lagunduta, denbora laburrean hartu zuen Euskal Herria. Faxisten *Gurutzadak* gogor zigortu zituen euskaldunak eta errepublikazaleak, eta ez zuen zalantzarik izan hainbat errugabe fusilatu, erbesteratu edo kartzelaratzeko; berauen artean hainbat azkoitiar jeltxide, sindikalista.

Azkoitian Gerrak eta ondorengo errepresioak, *Anai arteko borroka*, ondorio lazarriak utzi zituen. Simon Arambarri eta Iñaki Isasmendiren liburuak garai hartako egoeraren testigantza bikainak dira. 1936an hasitako gerra, amaierarik gabeko liskar bilakatu zen, eta ondorioak gaur arte luzatu.

4.2. Errepublika eta auzo-eskolen suspertzea

1932an Gipuzkoako 66 auzo-eskolek jaso zuten Aldundiaren diru-laguntza. Errepublikak hezkuntzaren alde egin zuen apustu eta testuinguru horretan kokatu beharko genuke Gipuzkoako Auzo-eskolen Proiektuari eman zion bultzada. Garai hartako agintarien asmoa landa-inguruneetan behar adina eskola berri eraikitzea zen, eta horrela aurreneko auzo-eskola probintziala 1933an ireki zen. Eskola berri hauek, ordura arte urte luzez auzoetan egondako auzo-eskolak ordezkatzeko eraiki ziren. Egitasmo hau garatu bitartean, eskola mota biak elkarren osagarri izango ziren. Ondoren etorri ziren urte gatazka-tsua medio, ekimena ez zen garatu nahi bezala.

23. TAULA: *Aldundiak diruz lagundutako auzo-eskolak, 1932an*

	Udalerrria	Auzoa	Arduraduna	Diru-laguntza
1	Antzuola	Uzarraga	Jose Maria Agirre	300 pezeta
2		Herrigunean, Maristak	Marista Anaiak	1500 pezeta
3	Aizarnazabal	Zubialdea	Jesusa Mitxelena	400 pezeta
	Azkoitia	Madariaga	Jose Garmendia	150 pezeta
4	Azkoitia	Aizpurutxo	Joaquin Iturrioz Maristak	400 pezeta
5	Azkoitia	Martitte	Salustiano Etxezarreta	350 pezeta
6	Azpeitia	Orkaizagirre	Antonia Alberdi	150 pezeta
7	Azpeitia	Odria	Justa Iturzaeta	100 pezeta
8	Azpeitia	Elosiaga	Felisa Lucas Cuende	400 pezeta
9	Aia	Altzola	Valentin Maidagan	350 pezeta
10	Aia	Urdaneta	Jose Roteta	300 pezeta
11	Aretxabaleta	Goronaeta	Genaro Unda	600 pezeta
12	Aretxabaleta	Bedoña	Fermín Fernández Arroiabe	600 pezeta
13	Zestoa	Lasao	Justo Elortza Oiartzabal	500 pezeta
14	Zestoa	Iraeta	Carmen Gorriti	250 pezeta
15	Zestoa	Arroa	Isabel Lete	250 pezeta
16	Deba	Elorriaga	Ignacia Aldasoro	750 pezeta
17	Deba	Mardari	Maria Aginagalde	500 pezeta
18	Deba	Abriskua	Jacoba Gorriti	500 pezeta
19	Elgoibar	San Migel	Antonia Ojanguren	500 pezeta
20	Elgoibar	San Lorenzo	Maria Cristina Garcia	750 pezeta
21	Elgoibar	San Pedro	Natalia Arrien	500 pezeta
22	Eskoriatza	Gellao	Luis Alberdi	600 pezeta
23	Getaria	Azkizu	Máxima Ortega	750 pezeta
24	Getaria	Meaga	Maria Agustina Garate	100 pezeta
25	Hernani	Jauregi	Dionisia Isabel Iturrioz	750 pezeta

26	Itsasondo	Urkia	Jose Zubizarreta	500 pezeta
27	Legazpi	Telleriarte	Bernardina Aldasoro	400 pezeta
28	Legazpi	Brinkola	J. Sarriegi	750 pezeta
29	Mutriku	Ibiri	Josefa Maiz	150 pezeta
30	Mutriku	Olatz	Maria Gurrutxaga	400 pezeta
31	Oñati	Uribarri-barrena	Felipe Jausoro Uriarte	250 pezeta
32	Oñati	Uribarri-garaia	Pedro Anduaga	200 pezeta
33	Oñati	Olabarrieta	Jose Julian Enparantza	250 pezeta
34	Errezil	Ibarbia	Elias Lertxundi	500 pezeta
35	Errezil	Erdoizta	Hermenegilda Aldalur	600 pezeta
36	Errezil	Etumeta	Jose Muguruza	600 pezeta
37	Donostia	Aiete	Cecilio Agirre	400 pezeta
38	Donostia	Errekalde	Silveria Morales	750 pezeta
39	Segura	Urtsuaran	Francisco Arsuaga	350 pezeta
40	Tolosa	Urkizu	Feliciano Etxaniz	500 pezeta
41	Usurbil	San Esteban	Gertrudis Urkia	300 pezeta
42	Usurbil	Txikiardi	Pilar Zubia	1000 pezeta
43	Usurbil	Aginaga	Victoria Pagola	300 pezeta
44	Urnieta	Goiburu	Maria Angeles Arrue	500 pezeta
45	Urnieta	Oria	Maria Astrain	750 pezeta
46	Villabona	Fraisoro	Marina Fernandez	1.125 pezeta
47	Zumarraga	Legazpi Fundazioa		1.000 pezeta
48	Zumarraga	Aginagako Martín Deuna	José Luis Arrazola	350 pezeta
49	Zumaia	Oikia		750 pezeta
50	Kanpazar		Mikeleteak.	500 pezeta
51	Urkarregi		Mikeleteak	500 pezeta
52	Otzaurte		Mikeleteak	500 pezeta
53	Urto		Mikeleteak	500 pezeta

	Saturrarán		Mikeleteak Ez dago eskolarik	
	Arama		Ez dago eskolarik	
	Eskoriatza	Zarimuz	Ez dago eskolarik	
	Mutriku	Astigarríbia	Ez dago eskolarik	

Ondorengo eskola hauek ere, 1932ko aurrekontuetan sartu ziren, nahiz eta beraien onarpena 1933ko urtarrilaren 26an egin:

24. TAULA: *Aldundiak diruz lagundutako auzo-eskolak, 1932an*

	Udalerría	Auzoa	Arduraduna	Diru-laguntza
54	Deba	Lastur	Maria Domenecq	750 pezeta
55	Oñati	Narria	Santiago Agirreolea	250 pezeta
56	Oñati	Urrexola	Domingo Arrazola	250 pezeta
57	Mutriku	Mizkia	Maria Aranceta	400 pezeta
58	Zegama	Goiko auzoa	Maria Mora	250 pezeta
59	Eskoriatza	Apozaga	Zacarias Barandiaran	250 pezeta
60	Endarlatza		Mikeleteak.	500 pezeta
			DENERA	2650 pezeta

Azkoitian, Aldundiak suspertutako auzo-eskola probintzial berri-rik irekitzeko asmorik ez zegoenez, irekita zeudenentzako diru laguntzak gehitu egin ziren. 1932an, Aldundiaren eta gurasoen ekarpenaz aparte, Azkoitiko Udalak auzo-eskolentzat 3.000 pezetako diru laguntza eman zuen.

Auzo-eskoletako maisuentzako diru-laguntzak, 2.500 pezeta.
 Eskoletarako materiala erosteko, 150 pezeta.
 Liburuaren Egunerako aleak erosteko, 200 pezeta.
 Etxosta-mendiko eskolaren errenta ordaintzeko, 150 pezeta.

Urte berean, Azkoitiko Udalak herriko eskola nazionalei 5.500 pezeta eman zizkien eta 17.000 pezeta udal-eskolei (eskola unizipalei). Herriguneko eskolei, urtean eta ikasleko, 22 pezeta ematen zien, auzo-eskolei, ordea, 13 pezeta. Eragozpenak eta miseriak gaindituz, auzo-eskolak hedatzen ari ziren.

25. TAULA: *Azkoitiko bailaretan zeuden auzo-eskolak, 1933an*

Auzo-eskolak	Maisu-maistra	Eskola mota	Ikasleak
Madariagako eskola	Juan J. Garmendia	Mistoa	23
Iraolaza-Etxeberri	Maria Lizarralde	Mistoa	15
Santa Kutzeko eskola	Trino de Uria	Mistoa	28
Aizpurutxoko eskola	Joaquin Iturrioz Peña	Mistoa	41
Urazarriko eskola	Eusebia Arregi Osoro	Mistoa	16
Martitteko eskola	Benigno Arrieta Juaristi	Mistoa	36
Aginagako eskola	Jose L. Arrazola	Mistoa	6
Izagirre-Torreko esk.	Clara Etxaniz Beristain	Mistoa	20
Urrategiko eskola	Maria Aranbarri Albizu	Mistoa	20
Zubazuko eskola	Josefa Sudupe	Mistoa	-
		DENERA	221

1993an, Gipuzkoako Aldundiak honako diru-laguntza eman zien Azkoitiko eta Azpeitiko auzo-eskolei:

26. TAULA: *Azkoitiko eta Azpeitiko auzo-eskolak, 1933an*

Udalerría	Auzoa	Arduraduna	Diru-laguntza
Azkoitia	Santa Kutz	Trino de Uria	500 pezeta
Azkoitia	Madariaga	J. Jose Gamendia	150 pezeta
Azkoitia	Aizpurutxo	Joaquin Iturrioz	400 pezeta
Azkoitia	Martitte	Salustiano Etxezarreta	350 pezeta
Azpeitia	Orkaizagirre	Antonia Alberdi	200 pezeta
Azpeitia	Odria	Justa Iturzaeta	150 pezeta
Azpeitia	Elosiaga	Felisa Lucas	400 pezeta

Ondorengo urteetan aldaketa gutxi eman ziren auzo-eskola hauetan. 1933an eta 1934an irekita zeuden eskolei buruz, Iraolaza-Etxeberriko eskola Zuazola-Erraza baserrira pasa zen, bertako maistra Maria Lizarralde zelaririk; Zubazuko eskolan, Maria Sudupe jarri zuten maistra eta Martitten, Ignacio Tellechea. 1935ean, Martitten,

Aginagan eta Iraolaza-Etxeberrin aldaketak eman ziren. Martittek eskolarako, Salustiano Etxezarreta Berasategi izendatu zuten; Aginagara, Jose Larrea Jauregi eta Iraolaza-Etxeberrira, Maria Garate Garate.

Auzo-eskola partikular hauek beti bigarren mailakotzat jo izan dira. Diru laguntza ere justua izaten zuten, baina apurra ere behar-beharrezkoa izango zen bizirauteko. Errepublikara garaietan, eskola batzuek Udal ordezkarien bisita izaten zuten, irakaskuntzaren egoera gainbegiratu nahian. Herriko Alkatea eta Idazkaria joaten ziren, Jose Alberdi Jauna eta Julian de Urrestarazu, eta bide batez ikasleentzat gozokiak eta sariak ematen zituzten. Maisu-maistren instrukzioa ere izaten zuten aztergai, eta bere jokaeratik nabarmendutako maisuei diru saria edo aipamen berezia ematen zitzaien. 1934an, Aizpurutxoko Joaquin Iturriotzek aipamen berezia jaso zuen, Udal ordezkarien aurrean bere ikasleek izan zuten erantzun bikainagatik eta berak erakutsitako arduragatik; Santa-Kutz auzoko maisua, Trino Uria goraiapatua izan zen eta 100 pezetako saria eman zitzaion:

En sesión supletoria celebrada el día 10 del corriente mes y al dar cuenta del resultado de los exámenes en fin del curso de este año en las Escuelas rurales del barrio de la villa, se hizo mención especial de BV., por el adelanto observado en sus alumnos, disponiendo por unanimidad el Ayuntamiento otorgarle una gratificación de CIEN PESETAS en premio a su meritoria labor en pro de la enseñanza de los alumnos encomendados a su cuidado.

1935ean auzotarrek horrela eskatuz, Agarre-Portillos baserrian eskola ematen hasi zen Justa Iturzaeta. Eskola horretara Azkoitiko 27 neska-mutiko joaten ziren eta Azpeitiko 13. Maistra hau, geroxeago azalduko den bezala, aurrez hamalau urtez Azpeitiko Odria bailarako auzo-eskolan aritutakoa zen. 1936an maistra hau Mendizabal baserri-
ra pasa zen.

27. TAULA: *Azkoitiko bailaretako auzo-eskolen egoera, 1936an*

Eskolaren kokapena	Distantzia Herrigunera	Ikasleak	Maisu-maistrak	Maisu titulatuak	Eskolaren egoera
Agarre-basarte baserria	1.400 m.	36	Trino de Uria	Ez	Erdipurdikoa
Iraolaza-Etxeberri baserria	2.150 m.	24	Maria Garate Garate	Ez	Ertaina
<i>Madarixa</i>	5.500 m.	33	Juan J. Garmendia	Ez	Ona
Zubazu baserria	2.010 m.	24	Maria Sudupe Astigarraga	Ez	Ertaina
Urrategi	2.000 m.	25	Maria Aranbarri	Ez	Ertaina
Izagirre-torre baserria	2.070 m.	27	Clara Etxaniz Beristain	Ez	Ertaina
Urazarri baserria	4.150 m.	24	Eusebia Arregi Osoro	Ez	Erdipurdikoa
Aginaga	12.000 m.	15	Jose Larrea Jauregi	Ez	Ona
Aizpurutxo	7.200 m.	45	Joaquin Iturrioz Peña	Ez	Ona
<i>Martite</i>	3.000 m.	40	Benigno Arrieta Juaristi	Ez	Ona
Mendizabal baserria	2.000 m.	40	Justa Iturzaeta	Ez	Ertaina

Eskola hauetako irakasle gehienek gau-eskola ere ematen zuten, eta bertara joaten ziren auzoko gazte eta helduak oinarritzko edukiak ikastera.

4.3. *Herriguneko eskolak eta eskolatzearen garapena*

Herriguneko eskolei dagokionez, lekaimiek eta fraideek zuzentzen zituzten udal-eskolak ziren garrantzitsuenak (ia 1000 ikasle zituzten Miserikordia eta Floreagako eskolen artean). Eskola Nazionalak ikasle gutxien eta diru-laguntza gehien jasotzen zutenak ziren (auzo-eskola partikularrak baino ikasle gutxiago zituzten). Aipatutakoaz

aparte, herrian ere baziren maistra partikularrak, beren etxetan eskola ematen zutenak.

28. TAULA: *Herriguneko eskolak, 1933an*

Eskola	Ezaugarria	Maisu- maistra	Eskola mota	Matrikula
Eskola nazionala 1	Nazionala	Francisco Salegi	Mutilak	43
Eskola nazionala 2	Nazionala	Luis Elejalde Blanco	Neskak	32
Eskola nazionala 1	Nazionala	Rufina Azkue Lizaso	Neskak	33
Eskola nazionala 2	Nazionala	Carmen Querejeta	Haurtzain.	33
Eskola nazionala 3	Nazionala	Rita Gomez Matos		55
Floreagako eskolak	Udal-eskola	Kristau-Dotrinako Anaiak	Mutilak	298
Miserikordiako eskolak	Udal-eskola	Karitateko Lekaiameak	Neskak Haurtzain- degia	228 384
Zabala ikastetxea	Pribatua	Jenara Aranbarri	Neskak	60
Antxieta ikastetxea	Pribatua	Juana Tabares Ruperez	Neskak	30
			denera	1.000



Floreagako La Salle ikastetxeko ikasleak, 1935ean



Jenara Aranbarriren ikasleak, 1934an



Jenara Aranbarriren eskola, Plaza-Berrin

Miserikordiako eskolara, eskola orduetatik at, lanean zebiltzan 18 ikasle joaten ziren (matrikulaturik 36 ikasle zeudelarik), eta Antxieta Ikastexera beste 50 (matrikulaturik 100 ikasle egon arren). 1935ean, herrigunean zeuden eskola ez-nazionalen egoera honako hau zen:

Nesken eskolak eta hartzaindegiak:

San José Ikastetxea, Karitateko lekaimeen ardurapean (Udalaren laguntzarekin). Zuzendaria: Sor Jesús Dorronsoro Zuazola (tituluduna). Irakasleak: Carmen Trabudua Ibañez, Isidora Arteaga Garcés, Micaela Otegui Usarraga, Juana Antonia Iribarren Iriarte, Felisa Celaya Ugarte, Rosalia Martín de Francisco, Rosalía Aoiz Flamariti, Juana Mugica Prieto.



Karitateko lekaimeen eskola

Jesusen Bihotza Ikastetxea (pribatua erlijiosoa). Zuzendaria: Juana Tabarés Ruperez (tituluduna). Irakasle: Carmen Orgorit.

Nesken eskola pribatua. Maistra: Jenara Aranbarri Romarate (tituluduna).

Mutilen eskolak

Ave-Mari Ikastetxea (Manjoniarrak).

Floreagatik Kristau-Dotrinako Anaiak bidali ondoren hauek ekarri zituzten.

Zuzendaria: Alberto Machin Zunzarran. Maisuak: Aureliano Alvarez Barcenilla, Pedro Jimenez Garcia, Jose Moreno Martinez (denak tituludunak).

Kristau-Dotrinako Anaien Ikastetxea.

Bere ekarpen pedagogikoagatik, Kristau-Dotrinako Anaiak nabarmendu behar dira, handia izan baitzen beren lana:

Eskolan 8:00etan edo 8:30etan sartzen ginen. Lehenengo kontua errezoa, ondoren kalkulua izaten zen, hau denek egiten zuten. Beraz oso ondo prestatuta egoten ginen Aritmetikan. Matematikan oso onak ziren. Bikainak, *espezialak*, idazten irakasteko, letra ingelesa ongi irakasten saiatzen ziren. Geografia, Historia eta Dotrina ere bai. Maisuak, Dotrina emateko orduan, eskolan gehien nabarmentzen zen mutilaren laguntza izaten zuen. Dotrina euskaraz ematen zen.


(Pedro Aldalur).

Beste gai guztiak erdaraz izaten ziren eta hau gogor zaintzen zuten. Nahiz eta ikasle gehienak euskaldunak izan, gaztelerak lehentasuna zuen. *Eraztunaren* erabilera ohikoa zen eta ostiralean eskuan zeukanari *baleak* kentzen zitzaizkion. Eguneroko lanetan nota ona izanez gero *puntuak* ematen zituzten, baina zerbait gaizki eginez gero *baleak* kendu. Kristau Dotrinako Anaien ekarpena izugarria izan zen. Hauen eskola leku ezberdinetan kokatuta egon zen: hasieran Eliza aurrean, ondoren Udaletxean, gero Floreagan eta bukatzeko *Añāñi* etxean. Arrazoi politikoak medio herritik kanporatuak izan ziren. Herrian gorrotoa zabaldu zen hauekiko eta bota egin zituzten, abertzaleen aldekoak omen ziren...


Baina garai politiko berriak aldaketak ekarri zituen, bai gizartearen eta baita eskolen inguruan ere. 1934an, Udal Komisio bereziak aztertu egin zuen ea posible ote zen Miserikordiako eta Floreagako eskola municipalak eskola nazional bihurtzea, bertan irakasle laikoak ezarritz. Proposamen honek ez zuen Udal Batzaren onarpenik izan, ikusten denez giro politiko oso nahasia zegoen. Azkenean, Floreagatik, Kristau-Dotrinako Anaiak, *hermanuek* kanporatuak izan ziren, eta hauen ordez Ave-Mariako maisuak, Manjoniarrak, ekarri zituzten. Dena dela hauek ez zuten urte asko iraun eta 1937ko urtarrilean eskola utzi zuten, ezin ziotelako irakaskuntzari behar bezala erantzun. Gerra garaia izan ziren.

Errepublikara garaietan, agintari politikoek eztabaida gogorrak izan zituzten Elizarekin. Hala Azkoitiko auzo-eskoletan dotrina izan zen libururik erabiliena, eta horrekin batera gaztelerazko *Entziklopediak*. Euskarazko liburu batzuk ere erabiltzen ziren, hauen artean *Xabiartxo*, baina hauen erabilera oso murrizta izan zen, *Xabiartxoren* berri Aginagako auzo-eskolan partikularrean jaso dugu. Baserritarrekin

pentsatuz *Nekazaritzako Irakurraldiak* liburua ere atera zuen Aldundiak, baina horren alerik ez dugu aurkitu Azkoitiko eskoletan, bai ordea Gipuzkoako beste zenbait lekutan.




Nekazaritzako Irakurraldia liburua




Nekazaritzako Irakurraldiak liburua

Lopez de Mendizabalek argitaratutako Umearen laguna liburua



Lopez de Mendizabalek, argitaratutako Zenbakiztiya liburua



Pirmin Iturriotzen Lutelesti liburua



*Pirmin Iturriotzen Txomin Irakasle
liburua*

Mende hasieran egiten zen bezala, dotrina irakasteko liburu erabilienak *Astete*, *Jesusekoa* eta *Kristau Ikasbidea* ziren.



Gasteizko Elizbarrutirako Kristau-Ikasbideak



Gasteizko Elizbarrutirako Kristau-Ikasbideak



Miserikordiako ikasleak



Floreagako Kristau Dotrinako Anaiak eta ikasleak

Auzo-eskoletan ikasle denak euskaldunak izan arren, zeuden liburu gehienak gaztelera-azkoak ziren.

Herriguneko eta baserrietako umeek, dudarik gabe gogokoen jolastea izango zuten. Garai hartako jokoan artean honako hauek aipatuko ditugu (Aranbarri Etxaniz, S., 1993):

29. TAULA: *Jokoak*

Itsu- itsuka (zapoka)	Ukitu eta libratzen
Lapurka	Txorro-morruga
Anbo-ato (neskak gehienetan).	Karburuarekin, pote jokoan.
Intxaur jokoan.	Poxpolo kaxa azalen joko
Kromo jokoan	Kanika jokoan
Erremota dantzatzan.	Sokadantzán.
Diabolo jokoan	Tortolos-eka.
Aroa (gehienetan neskak).	Zinta joko (neskak gehienetan).

Jolas hauetaz aparte, Azkoitian tradizio handia izan duten jolas-koplak:

Arriola Marriola / Etxala kamal / Bibia Toria / Trungun Tranga / Plist
 Hasten da / Pike-pike Komendra / Bua- bua Ratapla / Misterda
 Izkillu / Maskillu / Maria lanpiru / kon el lanpiru / Makulun Ttak

Gerra hasi zenean egoera jasanezina bihurtu zen. Gau luzea, gau izar gabea...

5. Gerra eta gerraostea. Gosea etxean, gorrotoa eskolan (1936-1950)

5.1. *Azkoitiko herria okupatua. Minez duzu barrena, negarrez bihotza*

Gerra hasi zenean Gipuzkoako gizarteak Errepublikaren aldeko apustua egin zuen. Gerraren lehen egunean, uztailearen 18an,

Azkoitiko herrian ez zen mugimendu handirik nabarmendu. Ondorengo egunean, igandean, Madariaga auzoan herriko Eusko Alderdi Jeltzaleak, abertzaletasunaren alde antolatutako jaialdia ospatu zuen, eta han zabaldu ziren lehenbiziko albisteak, garai horretan irratia zuteinak oso gutxi baitziren. Uztailearen 20an, horrela idazten zuen *Euzkadi* aldizkariak lehenengo orrian (Aranbarri, S., 1989):

Ante los acontecimientos que se desarrollan en el estado Español y que tan directa y dolorosa repercusión alcanzan sobre Euzkadi y sus destinos, el Partido Nacionalista Vasco declara –salvando todo aquello a que le obliga su ideología que hoy ratifica solemnemente– que planteada la lucha entre la ciudadanía y el fascismo, entre la República y la Monarquía, sus principios le llevan indeclinablemente a caer del lado de la ciudadanía y la Republica, en consonancia con el régimen democrático y republicano, que fue privativo de nuestro pueblo, en sus siglos de libertad. Uztaillak 20. “Alea jacta est”.

Erasoa martxan zegoen, ejertzito okupatzaileak, hobeto armatua eta soldatu gehiagorekin, bi hilabete behar izan zituen ia Gipuzkoa osoa menderatzeko. Irailaren 16an Tolosa hartu zuen, 17an inguruetako mendi gailurrak eta ondorengo egunetan Albiztur, Goiatz, Bidania eta Errezil. 20an goizez, Azpeitira iritsi zen eta eguerdirako Azkoitira. *Lacar* tertzioko erreketek izan ziren herrian sartu zirenak lehenak (Aranbarri, S., 1989).

Igande goizean, amarretatik aurrera, Azkoitia'ko kaleetan inor ezan ikusten. Gu bezelako mutiko batzuek bakarrik...gora ta bera. Batzordeko agintariak, Bizkaia alderuntz iesi joanak zian. Erri barruan azkeneraiño gelditu ziran erri gudariek ere, ezkutatuak ziran. Gure erria, “*tierra de nadie*” deritzan sail oietako bat bezela gelditu zan. Kaleko ixiltasuna eta jenderik ezak erriari giro kezagarri bat ezartzen zion. Baiña eguardia etorri zan. Eguardiko amabiterdiak eta gehiago izango ziran...

Udaletzeko balkoian bandera gorri-hori handi bat zabaldu zuten, kanpandorreko zortzi kanpaiak dilin-dalan hasi ziren; *dun-dun zaharra* eta *dun-dun berria* ez omen ziren berehala isildu. Kalean entzuten zen itxurazko alaitasun eta musikak, besapean ongi gorderik zekartzan indarkeriazko ekintzak eta negarra. Indar okupatzaileek herriko EAJren Batzokiari eraso zioten, barrura indarrez sartu eta bertako oroigarriak eta paperak plaza erdira eraman ondoren, bertan erre zituzten. Eusko

Langille Alkartasunak eta errepublikanoek eta UGTkoek zuten biltokian (Aizkibel kalean, *Atrasko* lehenbiziko bizilekuan) berdin egin zuten. Errepresioa abertzaleen etxe guztietara iritsi zen. *Nafarrak*, sartu ziren egun berean, Madariaga aldean miliziako bat hil zuten. Hau hasiera izan zen, ondorengo urteetan hil zirenen zerrenda luzea da, alde bietan.

Bi hilabete haiek nahikoa izan ziren bazter hauetako jende askoren bizimodua aldatzeko. Nafarroan antolatu eta Afrikatik abiatu zen *enbatak*, gogor astindu zuen Kantabria aldea, sufrimendua eta nahigabea nonahi barreiatuz. Heriotza-zigorrak, errepresioak eta Lege Dekretu inposatzaileek goibelaldi luzean lozorrotuta utzi zituzten paraje hauek. 1937ko ekainaren 23ko Legeak, Gipuzkoa eta Bizkaia Kontzertu Ekonomikorik gabe laga zituen, Errepublikaren zilegitasuna onartzeagatik eta *Causa Nacionalari* traizio egiteagatik.



1941ean Gollwitzer general nazia Loiolan

5.2. *Eskola Berria, ideologia faxistaren ispilu*

Gerra ondorengo errepresioa bortitza izan zen. Hezkuntzari dagokionez, indar militarrek eskolak eta hezkuntza *Mugimendu Nazionalaren* printzipioen arabera antolatzeari ekin zioten. *Eskola Berriaren* lehen eginkizuna ideia ezberdinak berera egokitzea izan zen. Espainiar nazionaltasuna eta Elizaren errebindikazioak bere gain hartzea izango da pentsaera berri honen ikur nagusia. Bere ideologia inposatzeko, aurreneko urratsa, errepublikar hezkuntzarekin zerikusia zuen guztia desegitea izan zen. Ekimen horretarako maisu-maistren jarduera kontrolpean izatea ezinbestekoa zenez, 1936tik aurrera alkateei agindu zitzairen herriko maisu-maistren zaintza eta jarraipena egiteko:

A fin de dar cumplimiento a la Orden de la Presidencia la de Junta Técnica del Estado de 10 de noviembre último, sírvase remitir a esta Delegación de enseñanza, en el plazo lo más breve posible, los informes referentes a la conducta moral, profesional y política del maestro... Asimismo solicitará Vd. Los mismos informes del Sr. Cura Párroco y la Guardia Civil, quienes lo harán por separados. Dado su patriotismo, no duda esta Delegación que cumplimentará lo ordenado con toda solicitud.

VIVA ESPAÑA. San Sebastián 3 de febrero de 1937.

Bi izan ziren zorrotz zigortutako delituak: errepublikar zalea izatea eta espainiar nazionaltasunarekin bat ez etortzea (honekin euskaldunen eta katalanen abertzaletasuna zigortu nahi zen). Gerra azkar amaitu arren ondorioak latzak izan ziren eta errepresio gupidagabea zabaldu zen. Hainbat maisu-maistra euskaldunek beren herritik alde egin behar izan zuten, beste asko beren eskoletatik kanporatuak izan ziren. Gipuzkoako Gobernu Zibiletik zetozen aginduak bete beharra zegoen, bestela heriotza zigorra edo desterrua jasateko arriskua zegoen. Agintari berriek argi azaltzen zuten beraien nahia zirkularretan; horrela zioen, 1936ko irailaren 26an, bidalitako lehenengo zirkularrak:

Gobierno Civil de Guipúzcoa. Delegación Provincial de Instrucción Pública y Bellas Artes. Circular nº 1

Las autoridades representativas y dirigentes del movimiento Salvador de España, vienen dedicando, desde un principio, especialísima atención a los importantísimos problemas de enseñanza y educación y formación de las niñez, base esencial para la reconstrucción de la futura vida de la Patria y germen que ha de hacer fructificar este glorioso movimiento nacional y patriótico, transformando

hasta en sus más hondos cimientos, cuanto hasta aquí ha venido contribuyendo a la degeneración social que hemos padecido (...).

Es absolutamente necesario, según se previene, hacer un minucioso y detenido examen de cuento en la materia se refiere y una labor depuradora del personal docente en todos su diversos grados. Para ello y como complemento de las disposiciones anteriormente citadas se constituye en este Gobierno Civil una Delegación Provincial de Instrucción Pública y Bellas Artes, debidamente asesorada, por las Juntas que más adelante se mencionan (...).

Asimismo en todos los pueblos de esta Provincia habrá de constituirse en el plazo de ocho días, bajo la presidencia de los respectivos alcaldes, una Junta asesora-informativa de la que deberá tomar parte el cura párroco de la localidad y una representación de vecinos del pueblo, de ambos sexos de reconocida solvencia moral, adheridos al movimiento salvador de España.

(...) Así pues, y para facilitar el cumplimentar lo dispuesto en el apartado 6º del al Orden de 19 de agosto próximo pasado, los alcaldes procurarán clasificar sus informes en tres grupos:

- a) Profesores y Maestros cuyos informes sean totalmente desfavorables por su actuación antipatriótica sectaria o perturbadora de las conciencias infantiles
- b) Profesores y Maestros de conductas no bien definidas, pero acreedores de una medida radical, pero indiferentes en cultivar las inteligencias infantiles, de conductas discutibles y merecedoras de algún apercibimiento o sanción más o menos grave.
- c) Profesores y maestros de informes favorables, de deben de ser ratificados en sus cargos (...).

Era honetako aginduek gogor mugatu zuten herrietako jende xumearen jokaera. Aurreneko zirkularrak jarritako bideak ez zuten etenik izan eta honen eraginak urte luzez iraun zuten:

Habiendo impedido las circunstancias anormales en que hasta el día 13 se a desenvuelto la vida ciudadana en esta provincia que los Centros de enseñanza, en todo sus grados, hayan dado comienzo al curso escolar, como estaba dispuesto, regularizados ya todos los servicios, gracias a la valiente y decidida actuación de nuestro Ejército, de acuerdo con las ordenes dictadas a este respecto por la Junta de Defensa Nacional, este Gobierno Civil ha acordado lo siguiente:

3.- En todas las escuelas nacionales y voluntarias queda restablecida la enseñanza de la Doctrina Cristiana, en la misma forma y condiciones de antes de decretarse la supresión el año 1931, colocándose en sus locales el Crucifijo y los emblemas religiosos acostumbrados.

4.- A los ocho días de comienzo del curso escolar los Alcaldes de cada Ayuntamiento de Guipúzcoa, comunicarán a este Gobierno civil, Sección de 1º Enseñanza, el número de escuelas abiertas y el nombre de los maestros que se hallan puesto en su frente.

5.- Asimismo darán cuenta de todas aquellas escuelas que no funcionan y de los maestros que no se hayan presentado, especificando las causas si las supieran.

6.- Dichas autoridades tendrán cuidado de hacerla necesarias distinción entre Escuelas nacionales (o sea las que dependen del Estado), Escuelas voluntarias (las sostenidas por la Diputación o Ayuntamiento), escuelas privadas (las que están a cargo de particulares o Congregaciones religiosas) u escuelas de Patronato (las instituciones benéficas y docentes clasificadas como tales).

El Gobernador Civil. Ramón Sierra Bustamante. 26 de septiembre de 1936.

Lehen egunetako erreprozio bortitzaren ondoren (kartzela, erbeste-teratzea, depurazioa...) *Erregimen Berriaren* antolaketa etorri zen, maisu-maistren heziketa eta berrantolaketari lehentasuna emanaz. Gerra hasi eta berehala, *Junta de Defensa Nacionalak* zabalduetako xedapenak erreferenteak izango dira hezkuntza antolatzerakoan (1936ko irailaren 4ko Agindua, irailaren 13ko Agindua eta irailaren 22ko eta 26ko Aginduak).



Madariagako gazteak prozesioan

Hezkuntza kontrolatzeko, agintari berriek berehala antolatu zituzten hitzaldi, bilera eta batzarrak. Hauen artean aipatzekoa da, 1937ko urtarrilaren 7tik 9ra, Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernu Zibil Orokorrak Donostian antolatu zuen *Asamblea Patriótica Guipuzcoana de Orientación Docente* Jardunaldia. Batzar horretako aurkezpeneko hitzak dira ondorengoak:

Estéril resultaría el cruento sacrificio ofrendado por nuestro valiente Ejército Nacional para liberar la Patria española del ponzoñoso virus que la venía asfixiando, si en estos momentos de reconstrucción no nos cuidásemos meticulosamente en retaguardia de resolver el interesante y urgentísimo problema de la formación de las nuevas generaciones españolas que han de constituir la Patria del mañana.

Debe de ser en la hora de hoy tema preferente de nuestra actuación el contar con un personal docente totalmente identificado con los altos ideales encarnados en este Glorioso Movimiento Salvador de España plenamente capacitado y fervorosa y patrióticamente enardecido en su amor a la Patria que pueda desterrar para siempre de las conciencias infantiles aquellos burdos errores sembrados criminalmente en sus almas por el laicismo y el separatismo. Hay que moldear el alma de los niños en las verdaderas y sanas doctrinas de la Religión Católica y de la moral cristiana e inculcar en sus pechos un ardiente amor a la Patria española y un abnegado espíritu de sacrificio capaz de ofrendarle gustoso con años y desinterés sin límites hasta su propia sangre y su vida si tal sacrificio les fuera exigido.

Gipuzkoako maisu-maistra guztiak, Batzarrean parte hartzera derriortu zituzten. Partaide bakoitzak hitzaldietan jasotakoa, idatziz igorri behar izan zion txostengile bakoitzari. Hizlarien artean, Gipuzkoako goi kargu politiko guztiak presente zirelarik, Josefina Olóriz, Maria Alós, Gregorio Murgia eta Teresa Tuduri nabarmendu ziren. Ez dugu ahaztu behar Eliza eta eskola oso lotuak nahi zituela erregimen berriak.

Ondorengo urteetan hedatu zen ideologiaren ildo nagusiak, 1938ko maiatzaren 5ean, Ikuskaritzak Azkoitira bidalitako BOEko zirkularrean (begira 2. eranskina) isla daiteke. Egoera horretan ez da harritzekoa haur guztiak, beldur handiz, *Cara al Sol* eta antzeko abes-
tiak *prepezi*oz eta arretaz kantatzea:

Cara al sol con la camisa nueva, que tú bordaste en rojo ayer, me hallará la muerte si me lleva, y no te vuelvo a ver.

Formaré junto a mis compañeros, que hacen guardia sobre los luceros,
imposible el ademán, y están presentes en nuestro afán.
Si te dicen que caí, me fui al puesto que tengo allí.
Volverán banderas victoriosas al paso alegre de la paz
y traerán prendidas cinco rosas: las flechas de mi haz.
Volverá a reír la primavera, que por cielo, tierra y mar se espera.
Arriba escuadras a vencer que en España empieza a amanecer.

Horrelakoa zen eskoletara bidaltzen zen *idearioa*. Elizaren goi mailako kargu gehienek, erregimen berriari sostengu sendoa eman zioten. Gasteizko apezpikua Mateo Mujika bere kargutik kendu eta bere ordeztu Javier Lauzirika jarri zuten. Hau honela mintzatu zitzaizkien apaizgaiei, 1937-1938ko ikasturtearen hasieran (Jiménez de Aberasturi, J. C., 1982):

El ideal de Dios, entre nosotros, va íntimamente unido a la idea de España. Nuestra juventud gloriosa, que en los frentes se bate al grito de Viva Cristo Rey, lleva prendidas en su pecho medallas que su madre le entregó, juntamente con un lazo de la bandera española. En nuestra patria, o se hunde España y con ella la Iglesia, o triunfa la Iglesia y con ella España.



Madariagako auzotarrak, 1954an

Egoera politiko berriak aldaketa nabarmenak ekarri zituen. Floreagako eskolaren kargu zeuden Ave-Maria eskoletakoek, eskola emateari utzi egin zioten, zituzten irakasleekin ez zirela iristen argudiatuz. Dena dela, aipatu beharrekoa da Ave-Mariakoak, erlijioso sekularrak izanik, ez zirela izan herritarren artean begi onez ikusiak. Agurtzerakoan horrela idatzi zioten Azkoitiko Alkateari:

El Ave-Maria sólo aspira a hacer Religión y Patria y está dispuesta a proseguir su labor docente en la misma forma, a ver si entre todos conseguimos hacer una España grande basada en los pilares de la Fe tradicional y cristiana de los siglos de la Edad de oro.

(1937ko ekainaren 23a, Pedro Manjón)

Gerra amaitu ondoren, agintariek euskal gizartea kate motzean lotu zuten. Disidentzia eta euskararen erabilera gogor zigortuz eta hezkuntza zorrotz kontrolatuz. Elizako ekitaldiak ere erdaraz egin behar izaten ziren, euskaraz eginez gero apaizak separatistatzat salatuak eta zigortuak izaten zirelako. Hasierako urteak pasa ondoren, eta ikusiz ez zela oso egokia euskaldun fededunei gazteleraz bakarrik zuzentzea, euskaraz eta gazteleraz jarri zituzten elizkizunak. Gerra ondorengo urteetan Dotrina ere erdaraz ematen hasi ziren, baina ikusiz haurrek ez zutelako ezer ulertzen, berriro ere euskaraz emateari ekin zioten.

1936tik eta 1977era bitartean agintekeriaz gobernatutako Estatuak, eskubide indibidual nahiz kolektiboaren ukazioan oinarritutako erregimena, lurralde eredu zentralista... horra Espainiak islatzen zuen irudia. Eta Gipuzkoako Aldundia Estatu zentralista honen morroi zen, Gipuzkoako gizartearen borondatea ordezkatzeko ez zuen instituzioa: jadanik herritarrek erreferentziarako erakundetzat ez zeukatena, aitzindaritzarik ez zeramana eta ongintza eta sustapen jarduera batzuetara bakarrik mugatua zegoena. Diktadurak iraun zuen bitartean Aldundiko kargu politikoak izendatzea ere aginte zentralaren esku egon zen. Hauek izan ziren 1950 arte egon ziren Lehendakariak: Elias Kerejeta Intsausti (1939-1941), Fernando Aranburu Olan (1941-1942), Agustin Brunet Gonzalez (1942-1949).

Gorrotza ez ezik, gosea ere nagusitu zen Azkoitiko kale eta baserrietan. Horrela deskribatu zuen Francisco Maria Iturzaeta Agirre azpeitiar bertsolariak gerra ondorengo egoera, *Gosetea* bertso sortan (Iturrioz, J., 2001):

(1) Daukak hizketako gaya, baina memori nagiya,
halaxe ere somauko nuke aldi bat egiya:

dago asko familiya gosiak galdian iya;
Zeruko Aita, eman zaiguzu jateko ogiya.

(2) Askok nahi degu nagusi, besterik ezin ikusi,
horretatikan sortutzen zaigu aldi bat desgrazi;
pakia jua dan igesi, ekartzen ezin ikasi,
mundu honetan ez dakit nola, biharko dan bizi.

5.3. Errepresioa. Gau iluna, gau izar gabea

Gerra ondoren, ezinikusia, gosea eta diru falta izan ziren gainditu beharreko erronkak. Ondorengo egunetan gauza triste asko ikusi ziren: tiroz hildakoak, atxilotu eta espetxeratuak, herritik kanporatuak, lantegietatik botatakoak. Buruko ilea ondo-ondotik moztutako emakumeak ere izan ziren. Maisu-maistra batzuk zuzenean preso hartu zituzten, beste batzuek alde egin zuten. Herriko kaleetatik *hi etxera!* esanez noiznahi bidaltzen omen zituzten abertzaleak. Behin baino gehiagotan, Salustiano Etxezarreta, *Martitteko maisua*, kaletik etxera bidali zuten; lanik gabe eta gainera umiliatua. 1936ko urriaren 13an, Azkoitiko Udalak bailaretako eskoletako maisu-maistra hauek “*maestros nacionalistas*” zirela adierazi zuen:

Salustiano Etxezarreta Berasategi (40 urtekoa), *Martitteko maisua*.

Maria Aranbarri Albizu (57 urtekoa), Urrategiko maistra.

Polonia Astigarraga Azkoitia (58 urtekoa), Zubazu baserriko maistra.

Eusebia Arregi Osoro (61 urtekoa), Urazarri (Utxerri) baserriko maistra.

Justa Iturzaeta Uburusketa (36 urtekoa), Agarre-Portillos baserriko maistra.

Maisu-maistra hauek eta baserrietako jabeak zigortzeko arrazoi bakarra zera izan zen, uneren batean Eusko Alderdi Jeltzaleari bozka ematea. Arrazoi horregatik Utxerriko eskolari zazpi urtez laguntza ukatu zitzaion. 1944an, Utxerri baserriko Eusebia Arregi Osorok eta bere senar Prudencio Arregi Azpiatzuk, eskola irekitzeko baimena eskatu zioten Udalari; honek eskakizuna onartu ondoren, 1944eko martxoaren 8an egin zen Udal Batzan, urteko 300 pezeta ematea erabaki zuen (aurrez, 1937ko urtarrilaren 29an, eskola ixteko erabakia hartu zuen). Gipuzkoako *Depurazioko* txosten ofizialetan auzo-eskola partikularretako maisu-maistra hauen aipamenik ez da egiten, eskola

ofizialak ez zirelako (1938ko martxoaren 5ean Lehen Hezkuntzako maisu-maistrei zuzenduriko zirkularrak, Estatuko Aldizkari Ofizialeko, 503. zenbakiak, ongi markatzen zuen *depuraziorako* jarraitu beharreko bidea). Eskola hauei espediente ofizialik ez ireki arren, errepresioa ere berdintsu iritsi zitzairen. Gipuzkoako beste herri askotako maisu-maistrek ere, jaso zuten faxisten jazarpena. Beren eskoletatik honako maisu-maistra hauek izan ziren baztertuak (Garmendia Larrañaga, J., 2004):

- Aian, Laurgaingo Ramon Zabaleta, bertako maisu eta apaiza.
Azpeitian, Olatzeko eskolako Teresa Barber katekista nafarra Sevillara desterratua izan zen. Eskola honetako maistra azpeitiarra, Jesusa Aranguren, Azautza baserrikoa, irakaskuntzatik baztertua izan zen.
Aretxabaletan, Goronaeta elizatean zegoen maisu eta apaiza, Genaro Unda.
Elgoibarren, Antonia Ojanguren Migel Deunaren baselizako maistra.
Itsasondon, Urkia baselizako maisu eta apaizak, Jose Zubizarretak, alde egin behar izan zuen. Guardia Zibilak etorri baitzitzizkion bila, abertzalea izateagatik preso hartu nahi izan zuten.
Mutrikun, Concepcion Arantzeta, Ibiri auzoko maistra.
Oiartzunen, Altzibarko auzo-eskolan irakasten zuten Mitxelena ahizpak.
Oñatin, Uribarri baselizako maisu Felipe Jausorok, Lapurdira alde egin behar izan zuen, euskaltzalea zelako (1985ean Oñatiko seme kuttun izendatu zuten). Horrela jartzen du bera irakasle egon zen eskolaren sarreran, Uribarri baselizako paretan: Felipe Jausoro Uriarte. “Hemen bici izan zen 15 urteetan, estola ematen era dotrina irakasten, ohitura zaharren maitale eta defendatzaile, euskal herriaren kezka bizian, euskara-zaletasun sutzuz, gizon eta kristau jator, Oñatiko udalak eta herriak Esker onez”.
- Urnietan, Angela Arrue Goiburu auzo-eskolako maistra.
Zestoan, Iraetako Carmen Gorriti eta Errekaldeko Jacoba Gorriti maistrak.
Zumarragan, Leturiondo baserriko Julia Arana.



Landa-eskola probintziala hutsik

Maisu-maistra hauek baztertzeak arazo eta haserre asko ekarri zuen. Auzo asko maisurik gabe gelditu ziren, baina kexatzea ere debeatuta zegoen. Auzoko maisu-maistrei ez ezik, *kalekoei* ere iritsi zitzaien errepresioa. Jenara Aranbarri Romarateri, *Doña Jenara*, nesken-tzako eskola partikularra zuen maistrari, hasiera batean eskola emateko agiria ukatu zitzaion, abertzaleen alde nabarmen azaldu zelako. Horrela jartzen zuen, 1937ko maiatzaren 20an, Hezkuntza Ikuskariari, Francisco Oflia jaunari, bidalitako idatziak:

Políticamente se ha distinguido o significado como nacionalista vasca, apoyando a dicho partido en todas las elecciones que han tenido lugar en la villa, sin observar nada particular en el colegio de niñas que dirige. (...) Además en la elección de Diputados a Cortes de 16 de febrero de 1936, formado ella parte como Adjunta de la mesa electoral (...) rechazó con su voto, en unión de los demás nacionalistas de la Mesa dos protestas razonadas formulas por el Apoderado del Candidato contrarrevolucionario Don Juan Pablo Lojendio.

Ez dugu ahaztu behar Floreagatik 1934an Salletar Anaiak kanporatuak izan zirela, eta kanporatzeko eman zen argudio bakarra zera izan zela, Udalean zen Alderdi Tradizionalistako agintarien eskariei uko egin

ziotela. Gerra ondoren, eskola denak (udal-eskolak, eskola partikularrak eta eskola nazionalak) soka motzean zeuden kontrolatuak.

Lehen aipatu den bezala, errepresioa baserrietako eskola jabeei ere iritsi zitzaien. Agarre-Portillos baserriko Jose M^a Lizarralde Plazaolari, gela alokatzeagatik, Udalak urtean 75 pezeta ematen zizkion, baina egoera politikoa zela-eta, azken bi urteetan ez zion ezer ordaindu. Alferrikakoa izan zuen ondorengo urtean, 1937ko martxoaren 11n, bere alde Udal-Batzak hartutako erabakia, Ikuskaritzak abertzaleak zigortzeko erabakia hartuta zeukan:

Por su actuación contraria al movimiento salvador de España, como persona destacada por su actividad dentro del Partido Nacionalista-separatista, uno de los integrantes del llamado Frente Popular.

1936an Azkoitiko bailaretan kapilau eta apaiz hauek zeuden: *Martitte* bailaran, Benigno Arrieta; Madariaga bailaran, Juan Areso; Aizpurutxon, Joaquin Iturrioz; Aginagan, Jose Larrea; Santa Kutzen, Jose Joaquin Alberdi; Urrategin, Jose Azkoitia. Madariagako arduradun zen Juan Aresok, herriko beste zenbait apaizek bezala, Azkoititik alde egin behar izan zuen (Aranbarri, S., 1989).

Herriko neska-mutil gazte batzuek gurasoekin alde egin behar izan zuten, beste batzuk atzerrira eraman zituzten. Herrian gelditu zirenak, ideologia berrian hezi eta eskolatuak izan ziren. Horrela tradizionalista alderdiko neska gazteekin *Margaritas* izeneko taldeak osatu ziren, eta tradizionalista sendietako mutikoekin *Pelayoak*. Geroxeago Sección Femenina de la FET y de la JONSek ordezkatu zituen *Margaritas* izeneko taldea; mutilen taldeak, *Pelayoak*, Flechas y Pelayos izen berria jaso zuen. Talde hauek haur eta gazteei ideologia militarista eta faxista ezartzen saiatu ziren.

1937ko urtarrilaren hasierarako hainbat auzo-eskola itxi edo maisu-maistrak baztertzeko agindua bete beharra zegoen. Otsailaren 10ean Azkoitiko Udal agintariak lehenbailehen irakasle berriak izendatzeko erabakia hartu zuten, eta horretarako hutsik zeuden eskolak osatzeko auzotar neska gazteak aukeratu zituzten: Urrategirako, Concha Juaristi Uzin; Otolá-Barreneko eskolarako Maria Arrieta Muruamendiaraz; Martitterako Encarna Aranbarri Etxaniz, eta horrelaxe beste eskoletan.

Gipuzkoan, urte hauetan, auzo-eskola batzuk itxi egin ziren eta beste batzuk diru-laguntzarik gabe gelditu. 1938an hauek izan ziren Aldundiak diruz lagundu zituen auzo-eskola partikularrak.

30. TAULA: *Aldundiak diruz lagundu zituen auzo-eskolak, 1938an*

Udalerria	Auzoa	Arduraduna	Laguntza pezetak	Matrikula ikasleak
Aizarnazabal	Zubialdea	Jesusa Mitxelena	500	70
Antzuola	Usarraga	Jose Maria Agirre	400	18
Aretxabaleta	Goronaeta	Genaro Unda	600	30
	Bedoña	Fermin Fernandez	600	40
Aia	Altzola	Eugenio Núñez Camarero	350	22
	Urdaneta	Jose Roteta	350	28
	Andatza	Maria Pilar Iruretagoiena	250	24
Azkoitia	Aizpurutxo	José Joaquin Iturrioz Peña	450	43
	Madariaga	Juan Jose Garmendia Martija	200	22
	Izagirre-Torre	Clara Etxaniz Beristain	250	30
Azpeitia	Elosiaga	Felisa Lucas Cuende	400	50
	Elosiaga-behea	Dolores Rodríguez	150	40
	Olatz	Angelina Gonzalez (tituluduna)	750	80
Zegama	Garaia	Maria Mora	250	22
Zestoa	Lasao	Justo Elortza Oiartzabal	500	55
Deba	Elorriaga	Ignacio Aldasoro	750	45
	Arbizkoa	Teresa Salegi	500	25
	Lasturko San Nikolas	Eusebia Uranga	750	25
	Itsaspe	Maria Antonia Beristain	700	58
Elgoibar	San Pedro	Maria del Carmen Aguilar	500	35
	San Lorentzo	Maria Cristina García (tituluduna)	1000	70
Eskoriatza	Gellao	Luis Alberdi	600	25

	Apotzaga	Zacarias Barandiaran	250	20
Getaria	Azkizu	Maxima Ortega Abalos	750	40
Hernani	Jauregi	Juan Setien eta Margarita Gonzalez	750	50
	Pagoaga	Dionisia Lizeaga Agirre	300	34
Mutriku	Ibiri	Josefa Maiz	200	26
	Olaz	Maria Gurrutxaga	400	18
Oñati	Uribarri-garaia	Pedro Anduaga	250	42
	Uribarri-barrena	Felix Lizarralde	300	45
	Olabarrieta	Simon Belategi	300	70
	Narria	Gregorio Larrañaga	250	28
Pasaia	Trintxerpe	María Fierro Gonzalez	500	30
Errezil	Erdoitza	Hermenegildo Aldalur Lasa	600	15
	Etumeta	José Francisco Muguruza	600	20
	Arzallus	Clara Uzkudun Eizmendi	600	600
Donostia	Errekalde	Silveria Nogales (tituluduna)	1000	70
	Loiola	Modesta Urdangain	1000	40
Urnieta	Oria	Maria Astrain Monjelos	750	53
	Goiburu	Matilde Arantzistroke	500	50
Usurbil	Aginaga	Victoria Pagola	350	58
	Arratzain	Librada Aranburu	350	20
Zumarraga	Aginagako Martín Deuna	José Luis Arrazola	350	18
Zumaia	Oikia	Angela Zinkunegi (tituluduna)	750	70
		DENERA	21.900	

5.4. *Bailaretako eskoletan España Imperialaren pedagogia*

Frankismoaren hasierako urteetan, agintariak gogor saiatu ziren ideologia berria ezartzen:

- Euskararen erabilera debekatu zuten. Eskolan euskara erabiliz gero, zigorra jasotzeko arriskua zegoen. Kaleko eskoletan eta bailarakoetan eraztun edo *anilloaren (eraztunaren)* erabilera oso hedatuta zegoen (*eraztunarekin* azkena gelditzen zena, *errekreorik* gabe zigortzen zen Martittekoko eskolan).
- Eliza leial aritu zen Erregimen berriarekiko. Auzo-eskoletan, gehienetan, beraiek agintzen zuten zein maistra jarri eta zein kendu. Dena dela, esan beharra dago apaiz denen jokaera ez zela berdina izan. Gerra ondoren ere, eskolaren egitasmo nagusia kristau dotrina buruz ikastea zen.
- Ikasleak inposaketaren biktima isilak ziren. Hauek eskolara, gehienetan, *komunio txikia* egin ondoren joaten ziren; *komunio handiaren* ondoren eskola utzi egiten zuten. Dena dela, esan beharra dago hurrei eskolara egunero eta jarraian joatea gehienetan ezina egiten zitzaizela, baserrian lana izaten zutelako.
- Maisu-maistra eta apaiz askorentzat erregimenaren aldeko abes-
tiak egunero kantatzea derrigorrezko ekimena bihurtu zen. Espainiako sinbologia eta ideologia denen gaineratik errespetatu beharra zegoen. Bandera espainiarra leku nabarmenean jartzen zen.

Eskolan maisu-maistrek, Gobernutik inposatutako legeak bete behar izan zituzten. Ikuskariak bisita egiten zien eskolei eta maisu-maistren jokaerari jarraipen zuzena egiten zien, baita ikasleen asistentziari ere. Eskolak gertutik kontrolatuta zeuden, nahiz eta laguntza aldetik ahaztuta egon.

Ikasleek erabiltzen zituzten liburu eta materialetaz, erreferentzi gisa aipa daiteke, 1949an, Liburuaren Eguna ospatzeko, herriko eskola nazionaleko maisuak, Manuel Peñak, Udalari luzatu zion zerrenda.

32. TAULA: *Liburuaren Eguna ospatzeko eskatu ziren liburu eta materialak*

Aleak	Liburu edo ikasmateriala	Prezioa pezetatan
2	El libro de las maravilla	6,25
2	El libro de las maravillas 2. tomo	6,25
12	Catecismos Luz	3,00
1	Franco (Una vida al servicio de España)	10,00
2	Enciclopedias	6,00
1	Santos españoles	6,25
1	Santas y heroínas	6,75
1	Maria la muy amada (Vida de la Santísima Virgen)	10,00
1	Formación del Espíritu Nacional	10,00
6	Cajas de tiza	2,50
10	Cuadernillos de papel	2,50
200	Cuartillas para dibujo	8,00
6	Tubos tinta en polvo	2,90
6	Gomas de borrar	0,75
6	Cuadradiños	0,50
2	Compases	4,00
1	Caja de plumas	28,00
24	Mangos para plumas	0,50
2	Cajas de pizarrines	5,00
2	Dobledécímetros	1,50
6	Reglas para dibujo	1,50

Ikasleen asistentziari jarraipen zuzena egiten zitzaion. 1945ean, kalifikazioak jartzeko, eredu hau erabiltzen zuten Aizpurutxoko eskolan. Orri hauek ikasle bakoitzari ematen zitzaizkion, ondoren honek senide edo gurasoei eman eta berriro ikasleak maisuari, eskura eta sinaturik entregatu behar izaten zion. Eta errespetu handiz gainera.

33. TAULA: *Kalifikazioak jartzeko eredia*

ESCUELA Y CATEQUESIS. AIZPURUTXO

Clasificación del alumno	
De la sección durante el mes	
Conducta	
Aplicación	
Doctrina	
Lectura	
Escritura	
Aritmética	
Geografía	
Ausencias	
Observaciones	
El Director	
Familiar del alumno	

5.5. Auzo-eskola partikularren agonia luzea

Errepublikaren ekarpen pedagogikoak zapuztu ondoren, irakas-kuntza, berriro ere, XVIII. mende haserako planteamenduetara itzuli zen, absolutismoaren garaietara. 1937-38ko ikasturte hasieran, 1937ko irailaren 8an, Gipuzkoako Instrukzio Publikoko Delegatuak, honako idatzia bidali zuen Azkoitiko eskola guztietara:

Previo acuerdo con el Sr. Cura Párroco será organizada en una o varias Iglesias del pueblo, una misa del Espíritu Santo en la que dicho Sacerdote dirija la palabra a los niños. En las localidades en que aun no haya sido efectuada la ceremonia de reposición del Crucifijo en la Escuela, se procederá por el Sr. Cura a conducirlo en procesionalmente y con asistencia de las Autoridades, será reintegrado a la pared de aquella, procediéndose por el referido sacerdote a explicar el alto significado del acto de reposición y pudiendo esa autoridad pronunciar también algunas palabras (...).

Gerrak eta ideologia berriak mesede gutxi egin zion hezkuntzari. Aldundiak ere, 1940ko ekainaren 14an, penagarritzat jotzen zuen hezkuntzaren egoera bereziki herri euskaldunetan:

El triste cuadro que presentan muchos de esos pueblos, sin escuelas, sin maestros y muchas veces con escuelas y unos señores a los que no se puede llamar maestros, porque por no serlo les expulsaron del

pueblo en que como tales vivían y que al venir a nuestra provincia se encuentran con un ambiente tan distinto que no lo pueden asimilar.

Maestros separados de sus cargos por sus antecedentes políticos, han venido a nuestros pueblos, profundamente religiosos, que hablan un idioma desconocido para quienes no han nacido entre nosotros y muchas veces, desgraciadamente muchísimas veces, han venido a pueblos en donde existe un cura virtuosos, que por haber aceptado el veneno del separatismo, acaso se halle también castigado. Nadie como nosotros sabe lo que esto significa y las consecuencias que esto acarrea.

Azkoitiak auzo handiak zituen, baina hauek oso aparte zeuden herrigunetik. Hauetan zeuden auzo-eskolak diru-laguntzak jaso arren, ez zeuden legalizaturik. Hau gainditu nahian, 1939an, Agustín Irureta Alkateak, eskola nazional mistoak sortzea proposatu zuen, Udalaren laguntza izango zutela adieraziz. Baina proposamen hau aurrera eramateko dirua eta elizaren onespina behar zen, eta oraindik oso gertu zeuden kanoi eta fusilen soinuak. 1940an Azkoitiko bailaretako eskolara ia 300 neska-mutil joaten ziren.

TAULA 33: *Azkoitiko bailaretako eskolak eta maisu-maistrak, 1940an*

Eskola	Maisu-maistra	Mutilak	Nesakak	Denera	Laguntza
Agarre-Portillos	Victoria Plazaola	14	18	32	400 pezeta
Aginaga	Jose Larrea Jauregi, apaiza	10	8	18	500 pezeta
Aizpurutxo	Joaquin Iturrioz Peña, apaiza	18	19	37	500 pezeta
Izagirre Torre	Clara Etxaniz Beristain	16	20	37	400 pezeta
Madariaga	Juan Jose Garmendia	17	18	35	400 pezeta
Martittte	Nieves Zubizarreta	18	20	38	400 pezeta
Urazarri	Eusebia Arregi	15	12	27	350 pezeta
Urkirolei	Serapio Sagarzazu	14	10	24	350 pezeta
Urrategi	Concepcion Juaristi	12	21	33	-

Gipuzkoako Aldundiari, *probintzia traidorea* izateagatik, eskumena kendu zizkioten eta eskuratzeko itxaropenik gabe, bere eragina eta autonomia asko murriztu zen. Aldundiak sortutako 21 auzo-eskola probintzialak, 1938ko Dekretuaren eraginez eskola nazional bihurtu ziren, horrela 1931n hasitako proiektua ia ezerezean gelditu zen. 1940an, saiakera berria egin zuen Aldundiak, berriro ere, auzo-eskola probintzialen proiektua berreskuratzeko, baina berehala konturatu ziren ez zela posible; irakasle euskaldunaren perfila muga gaindiezineko helburua zen agintari berrientzat, falangistentzat. 1941ean, bistan zegoen Aldundiek eta Udalek ezin zutela Auzo-eskola probintzialen Proiektua berreskuratu. Besterik ezean eta bere ekarpena beharrezkoa ikusiz, Diputazioak bailaretako auzo-eskola partikularrei dirulaguntzak eskaintzen jarraitu zuen. Azkoitian, 1942ko ekainaren 6an, 10 auzo-eskoletan, 331 neska-mutil (6 eta 12 urte bitartekoak) zeuden:

34. TAULA: *Azkoitiko auzo-eskolak, 1942an*

Eskolaren kokapena	Eskola-populazioa	Maisu-maistrak	Udalaren dirulaguntzak	Eskola gertuenera distantzia (km-etan)
Madariaga	45	Juan J. Garmendia Martija	1.140 pezeta	3 km
Aizpurutxo	36	Jose Etxabe Egibar, apaiza	820 pezeta	2 km
Aginaga	25	Jose Larrea, apaiza	500 pezeta	5 km
Martitte	48	Nieves Zubizarreta	800 pezeta	5 km
Urazarri	26	Eusebia Arregi Osoro	780 pezeta	5 km
Urrategi	34	Manuela Juaristi Uzin	900 pezeta	2 km
Agarre-Portillos	33	Maria Teresa Plazaola	1.280 pezeta	2,5 km
Izagirre-Torre	30	Clara Etxaniz Beristain	860 pezeta	2 km
Urkiologi	34	Serapio Sagarzazu	1.000 pezeta	2,5 km

Urte berean Eusebia Arregi *Goenatxo* baserrian aritu omen zen (taulan ez da ageri, diru laguntzarik ez zuelako jaso). Urte horretan hauek ziren herrigunean zeuden eskolak:

35. TAULA: *Azkoitiko herriguneko eskolak, 1942an*

Eskolaren izena	Eskola mota	Maisu-maistraren izena
Eskola nazionala 1. gela	Mutilak	Elías Torrecilla Martínez
Eskola nazionala 2. gela	Mutilak	Timoteo Markina Saldise
Eskola nazionala 3. gela	Mutilak	Rafael Márquez Moreno
Eskola nazionala 4. gela	Neskak	Rufina Azkue Lizaso
Eskola nazionala 5. gela	Neskak	Ascensión Alfaro Munárriz
Eskola nazionala 6. gela	Haur-eskola	Maria Yerobi Olaetxea
Miserikordiako ikastetxea	Haur-eskola	Karitateko lekaimeak
Miserikordiako ikastetxea	Neskak Erdi maila	Karitateko lekaimeak
Miserikordiako ikastetxea	Goi-maila	Karitateko lekaimeak
Floreagako eskola graduatu	Mutilak graduatua (4 gela)	Salestarrak
Eskola partikularra	Mutilak	Jenara Aranbarri Romarate
Eskola partikularra	Neskak	Rafael Mendizabal Iturbe

Baina ematen zen diru laguntzarekin denak ez zeuden gustura. Aginaga eta Aizpurutxoko maisuek, biak apaizak, 1946ko martxoaren 9an Azkoitiko Udal Batzari idatzi zioten esanez euren lana neketsua eta gogorra zela, eskola nazional edo munizipaletan adinakoa, baina hauei bezala ez zitzaie diruz laguntzen. Maisu eta apaiz hauen iritziz, beraiek, legez, maisu-maistra nazionalek bezalako tratamendua merezi zuten. Idatzian ohartarazten zuten tratamendu egokiagoa eman ezean eskola utziko zutela, ez baitzeuden horretara behartuak:

- 2.- Que el número de matriculados es de 29 en Aguinaga y 36 en Aizpurucho.
- 3.- Que la dirección de la escuela les supone cinco horas diarias de intenso trabajo, ya que se trata de Escuelas en que no hay uniformidad de secciones, porque cada niño constituye sección aparte, lo que supone que hay que atenderles individualmente.

9.- Que no están dispuestos a que su petición vaya en gravamen de los padres de los alumnos imponiéndoles la obligación de contribuir con mayor cantidad que hasta el presente, ya que por una parte contribuyen por lo menos como todos los demás a sostener las cargas del Municipio y por otra los alumnos de otras Escuelas Municipales tienen enseñanza gratuita.

10.- Que el Estado, según el cap. II art. 25 de la Ley de Julio del pasado año, para los efectos consiguientes:

a) Equipara a los sacerdotes con el personal docente que posee el título profesional de Primera Enseñanza.

b) Que las escuelas parroquiales regentadas por dichos sacerdotes concede una dotación equivalente al sueldo mínimo del Escalafón para cada una de las plazas de maestros, que integran su plantilla.

1947ko azaroaren 24a, Azkoitian maisu-maistra hauek zeuden auzo-eskoletan:

Larrume-handi baserrian, Maria Teresa Eizagirre Epelde.

Aginagan, Segundo Dorronsoro, apaiza.

Madariagan, Juan Jose Garmendia.

Martitten, Julia Zubizarreta Azkoitia.

Urazarri baserrian, Eusebia Arregi Osoro.

Urkiolegi baserrian Serapio Sagarzazu Astigarraga.

Urrategin, Aurora Artetxe Larrañaga.

Aizpurutxon, Eusebia Uranga Larrañaga.

Auzo-eskola askotan gau-eskola ematen zen. Hautzarroan eskoletan irakasten zena funtzionala ez zenez baserrietako neska-mutilei, urte batzuk pasa ondoren, zekiten apurra ere ahaztu egiten zitzairen eta benetan beharra zutenean ohartzen ziren beren hutsuneaz. Gau-eskoletara, irakurtzen eta ikasteko nahia azaltzen zuten gazteak joaten ziren, normalean 14 urtetik gorakoak, baina ez zen harritzekoa ere 11 urtetik gorako ikasleak joatea. Ia bailara guztietan egon ziren gau-eskolak: Martitten, Urrategin, Utxerrin, Aizpurutxon...

5.6. Titulu-gabeko maisu-maistren kanporatzea eta hauen erresistentzia

XX. mende erdialdera, oraindik landa-auzoetako alfabetizazio eta eskolatzea gainditu gabeko arazoa zen. 1948an, Gipuzkoako Aldundiak, 80 auzo-eskolen artean 32.600 pezetako laguntza banatu zuen.

36. TAULA: *Azkoitiko auzo-eskolak, 1948-49ko ikasturtean*

Eskola	Maisu-maistra	Matrikula	Asistentzia
Aizpurutxo	Jose M ^a Badiola	43	35
Aginaga	Segundo Dorronsoro	38	30
Urkidi	Felix Goitia	38	32
Madariaga	Juan Jose Garmendia	15	12
Urrategi	Aurora Artetxe	22	18
Urazarri	Eusebia Arregi	24	20
Larrume-handi	Lurdes Zubizarreta	20	15
Olaso	Manuela Arrizabalaga	32	27
Martittte	Julia Zubizarreta	17	14

1940ko hamarkadan, aldaketak txikiak izan ziren eskola haue-
tan. 1947an Aizpurutxoko eskolan Eusebia Uranga Larrañagak, hil berri
zen Jose Etxabe apaizaren lekua hartu zuen; urte berean Urkiologi
baserriko eskola itxi egin zen. Maisu-maistra gutxi aldatu arren, landa-
inguruneko egoera sozio-ekonomikoa azkar aldatzen ari zen. Ikasle kop-
urua beheraka zihoan (azken 10 urtetan, 100 ikasle gutxiago zeuden).



Urrategiko ikasleak, 1948-1949 urtea

Eta oraindik auzo-eskola hauek ez zeuden lege barruan. 1948ko ekainaren 14an, berriro ere, beharrezko espediente bideratu gabe egoteagatik, 8 auzo-eskola, bi hilabeteko epean, ixteko eskakizuna igorri zuen Lehen Hezkuntzako Zuzendari Orokorrak. Hauek ziren itxi beharreko eskolak: *Martitte*, Agirre-Portillos, Aginaga, Utxerri, Urrategi, Aizpurutxo, Madariaga eta Urkiolegi. Udalari legezkatze espediente martxan lehenbailehen jartzeko eskatu zitzaion (1945eko urriaren 15eko Ministro Aginduak eskatzen zuen eran), bestela eskolak itxiko zituela mehatxatuz. 1948ko uztailearen 10ean Lehen Hezkuntzako Zuzendari Orokorri bidalitako idatzian, Azkoitiko Udalak irmoki erantzun zion, gaineratuz auzo-eskolek legea betetzen zutela, eta iritzi berekoa zela Ikuskaria:

Estas escuelas se hallan en zonas diseminadas y en poblados inferiores a 500 habitantes y, mientras el Estado no provea de Escuelas Nacionales podrían funcionar al amparo del tercer párrafo del artículo 73 de la vigente Ley de Educación Primaria, mediante la aportación de la documentación exigida por la Superioridad y garantizando la solvencia moral, social o política y la aptitud física mínima profesional de los Maestros encargados que las regentan, por la Alcaldía Jefe del Movimiento, Párroco e Inspector Municipal de Sanidad.

Baina bailaretako eskolen eta bertan zeuden maisu-maistra titulu-gabeen egunak bukatzearen zeuden, baserrietako maisu-maistra titulu-gabeak desagertze bidean zeuden:

Sin conocer los nombres de Pestalozzi, o Froebel, estos educadores ocasionales demostraron muchas veces unas condiciones y una vocación excepcionales. Barriadas enteras alejadas de los pueblos y mal atendidas revivieron a su impulso los años difíciles, salvándose, no solo del analfabetismo, sino, aún, muchas veces, de la irreligión. En cualquier destartado granero o desván tuvieron que muchas veces origen la mayoría de las actuales flamantes escuelas rurales. Por poco más del sustento, aquellos hombres hicieron una labor tanto más meritísima por callada y humilde. Con la creación de escuelas sustentadas por maestros titulares en las barriadas más lejanas, han ido desapareciendo los “eskola-maishus” privados.

(Uria, T., *La Voz de España*. 1953ko martxoaren 1a)

1949ko abenduaren 19an, Azkoitiko Udalak Hezkuntza Ministerioari zera eskatu zion, herriko hainbat auzotan eskola nazionalak eraikitzeko:

Seguidamente enterada de las disposiciones vigentes sobre Escuelas rurales, dispone, por unanimidad solicitar de la autoridad competente la creación, en nacionales, de las nueve Mixtas que funcionan en la localidad y que son conocidas por los nombres de Aguinaga, Aizpurucho, Larrume-aundi, Madariga, Martires, Olaso, Urazarri, Urquidi-goicoa y Urrategui, a cuyo fin hace constar que dispone de locales adecuados, habitaciones, para las Maestras y material escolar necesario.

Bistan zegoen auzo-eskola partikularrak azkenetan zeudela eta eskola nazionalak aro berri bati hasiera ematera zihoazela. 1948an Larrume-handi baserriko eskola, Eskola Nazional bihurtu zen Espainiako Aldizkari Ofizialaren arabera, eta horrekin batera besteak. 1949an, Azkoitian ireki behar ziren eskola nazional berriak legez-tatzeko, ordezkari hauek bildu ziren (1949ko urriaren 10ean, Aizpurrutxoko eskola nazionala martxan jartzeko Udaletxean eginiko bilera): Probintziako Ikuskaria, Francisco Avila Ferrer; Alkatea, Roque Aranbarri; herriko medikua, Joaquin Arzuaga Uzin eta Udal Arkitektoa. Eskola nazionaleri onespina emateko beharrezkoa izaten zen:

- Herriko Alkatearen baimena, Udalaren kargu baitzeuden garbiketara, berogailua, mantenua eta argiztapena.
- Osagilearen txostena, adieraziz osasun eta higie baldintzak betetzen zitzutela.
- Arkitektoaren idatzia, eraikinak segurtasun baldintzak betetzen zituela azalduz.
- Hezkuntzako Ikuskariaren iritzia, honek berretsi behar zuen eraikuntzak baldintza pedagogiko egokiak zituela eskola zerbitzuak emateko, eta Udalak emandako material eta altzariak egokiak zirela.

Eskola hauetarako maisu-maistra nazionalak Lehen Hezkuntzako Komisio Probintzialak aukeratzen zituen. Herriko ordezkariak eraikinaren egoera aztertu ondoren, onespina ematen zuten, zegokion baserri edo lokalean, eskola nazionala jartzeko. 1949a urte esanguratsua izan zen Azkoitiko bailaretako eskolentzat, maisu-maistra titulu-gabeak kendu eta maistra nazionalak jarri baitzitezuten. Azkoitian emandako urratsa, auzo-eskola partikular guztiak nazional bihurtzea, eredugarri izan zen probintzia osorako, eta horrela onartu zuen behin baino gehiagotan Ikuskaritzak.

Dena dela, aldaketak egiterakoan eztabaida sortu zen hainbat eskoletan. Urkidi-goikoa baserrira, Laxaora, maistra nazionala iritsi zenean, bertan zegoen maisuak adierazi zion ez zuela alde egingo, esanez gainera, Debako Alkatearen baimena zuela bertako eskola zuzentzeko. Laxaoko maisuak, maistra nazionalaren esanetan liskarra sortu ondoren, bertan zeuden liburuak hartu eta alde egin omen zuen (horrela dio behintzat Maria Angeles Garciak, 1949ko azaroaren 17an Azkoitiko Alkateari zuzendutako idatzian). Baina Maria Angeles Garcia maistraren keak ez ziren hor bukatu eta Debako Udalera deitu ondoren, honela idatzi zion Ikuskaritzari:

... un Oficial de dicho Ayuntamiento, el cual confirmando dicho proyecto vino a manifestar que dicha Corporación Municipal podía haber otorgado la oportuna autorización al efecto. A pesar de que se le dijo que en manera alguna podía autorizar la Alcaldía, ni el Ayuntamiento, Escuela alguna clandestina, como la proyectada, parece que hoy ha comenzado a funcionar la escuela de referencia Dios proteja a España y guarde a VD. muchos años. 19 noviembre 1949.

(Según nos comunican hoy ha comenzado a dar clases en el caserío Sacaviaga de Deva el maestro intruso con asistencia de varios niños de aquellas inmediaciones).

Ikusten denez, Laxaotik Sakabixa baserrira joan zen maisua. 1950ean Udalak salaketa jaso zuen Ikuskaritzatik, ohartaraziz, Azkoitiko barrutian irekita zeudela hainbat auzo-eskola kontrolatu gabeak. Hauek ziren eskola *klandestinoak* :

Kataolatza-azpiko baserri-eskola. Eskola honetan Josefa Sol maistrak ematen zituen klaseak.

Zukiazu (Zukuzu) baserriko eskola. Bertako maisua Manuel Hernández Bretón zelarik.

Arrieta-Muno baserriko eskola. Hemen Maria Narbaiza Urangak ematen zuen eskola.

Igara eta Miramonte (Montte) baserrietako eskolak. Hauetan, txandakatuz, Josefa Egiuren Torres maistra egoten zen.

Eskola hauek ez ziren Ikuskariaren gogoko eta, 1950eko otsailaren 18an, Azkoitiko Alkateari adierazi zitzaion eskola hauek itxi egin behar zituela:

Estando esos barrios debidamente atendidos por Maestras nacionales es intolerable la existencia de dichos “curanderos de la ense-

ñianza^o. Caso de negarse los referidos señores a cumplimentar esta orden se dará cuenta al Excmo. Sr. Gobernador Civil de la provincia para que se les apliquen las sanciones que crea en justicia, como ya se ha hecho con el Sr. Félix Goitia que sigue ejerciendo la enseñanza en el caserío Sacaviaga de Deva.

Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ere, Saenz Tejadak, izan zuen auzo-eskola hauen berri: *se me da cuenta de la situación producida por las clases clandestinas a las que se dedican en los caseríos Cataolaza-Azpicoa y Zuquiazu*. Eta zuzenean agindu zion Azkoitiko Udalarri legez kanpoko auzo-eskola partikular hauek ixteko. Aginduaren berri izan arren, eskola hauetako maisuek ez zioten kasurik egin. Hilabete batzuk beranduago Kataolatza-azpiko maistra eta Zukiazuko (Zukuzuko) maisuak salatuak izan ziren eta Azkoitiko Alkateak, Roque Aranbarrik, Ikuskaritzari eskatu zion beharrezko neurriak hartzeko. Eskola eta gizartea aldatzen zihozazen, baina ez uste bezain azkar. 1949an Gipuzkoan, auzo-eskola partikular ugari zeuden, 79 guztira (begira 4. eranskina).



Azpeitiko Olatz basilizako eskola



Azpeitiko Olatz baselizako ikasleak, 1953an

6. Eskola nazionalak bailaretan. Baserritarren hiritartzea (1950-1977)

6.1. Bigarren Modernizazioa Gipuzkoan

1940tik 1975era bitartean, Gipuzkoan bigarren modernizazioa garatu zen. Aldaketaz beteriko urte hauetan, populazioaren hedapena eta garapen industrial nabarmenduko genituzke, bereziki 1955etik 1965era.

38. TAULA: *Urola Erdialdeko populazioaren hazkuntza*

Udalerria	Biztanleria 1940ean	Biztanleria 1975ean	Biztanleriaren hazkuntza konparatiboa	Biztanleriaren hazkuntza %-etan
Azkoitia	7.632	10.839	3.207	42,02
Azpeitia	8.024	12.171	4.147	51,68
Aizarnazabal	458	542	84	18,37
Zestoa	3,106	4.012	906	29.17
Errezil	1.364	888	-476	-34,90
Bidegoian	941	614	-327	-34,75

Hirietan populazioa ugaltzen zihoan heinean, landa-ingurune-takoa jaisten ari zen. Industriaren bultzadaren aurrean, lehen sektorea indarra galtzen ari zen, sektore hau %23tik %10era jaitsi zen 1940tik 1975era bitartean (Rodríguez Ranz, J. A., 2000). Oraindik baserrietan bizi zen populazioa handia izan arren, beherako joera nabarmena zeukan. Honakoa zen Azkoitiko populazioaren banaketa 1966-67ko ikasturtean (Aguirre Elustondo, J.A. ,1969):

Azkoitiko landa-inguruneko populazioa:

Arrieta-mendi, 1.061 biztanle.

Izarraitz-mendi, 862 biztanle.

Ormola-mendi, 1.001 biztanle.

Herriguneko populazioa: 5.463 biztanle.

Azkoitiko populazioa, denera: 8.387 biztanle.

Aldaketa honen arrazoiak horrela argudiatzen zituen, 1954an, Jose Ramon Fernandezek, Gipuzkoako katastroko Zerbitzu Buruak :

El caserío no produce más que lo necesario para vivir el casero. A la vez, éste se ve mejor pagado por la industria. Su nivel de vida es bajísimo, falto de cultura y de higiene, aunque a la vez sea depositario de las virtudes tradicionales. (*La Voz de España*, 1954ko maiatzaren 18a).

1971n eginiko ikerketan, argudio hauek ematen ziren baserritarrek baserria utzi eta kalera jaisteko joera arrazoitzeko (Lekuona Berasategi, A., 1973):

%33ak baserritarren adina.

%19ak lurren jabetza eskuz aldatu zelako.

%13ak gazteek ez zutelako jarraitu nahi.

%6ak irabazirik ez zuelako ematen.

%6ak irabazirik ez zuelako ematen.

%6ak irabazirik ez zuelako ematen.

%1ak ez du arrazoitzen.

I. Eizmendik, *Basarri* bertsolariak, horrela deskribatzen zuen garai hartako baserritarren bizimodua:

Ainbat urteko lanaren kargaz bizkar danak makurtuta,

baserrietan ainbeste daude penetan eziñ lertuta.

Ikusirikan beren buruak zor handipean sartuta,

kale aldera datoz igesi beren trajeak artuta.

Mendian bizi ezin direnak sallean datoz kalera,
askok ez dute neurtzen ondo onek dakarren galera.
Laguntza pixkat ezpadijoa nekazarien artera,
baserri danak ustuta daude emendik hogeï urtera.
(*Zeruko Argia*, 30 zb, 113. 1956ko uztailaren 30a)



Madariagako gazte eta helduak prozesioan, 1954an

Egoera hau gaintzeko ezinbestekoa zen komunikabideak garatzea, herritik aparte zeuden baserrietara bide berriak egitea, eta baserriarren lanari zuen balioa errekonozitzea. Ondorengo urteetan urrats batzuk eman ziren, bide berriak egiteko egitasmoak bideratu (*Plan de Caminos Vecinales Económicos*) eta bere emaitzak onuragarriak izan arren, nabarmen gelditu zen hau ez zela nahikoa. Hirietan garapen industrialak, lantegiak, fabrikak zeuden, hots, dirua; baserrietan, ordea, lana eta pobrezia. Jadanik gizarte hiritarra nagusi zen, garai berrien hasiera zen (Gabarain Ormazabal, J. M., 1983).

6.2. Bailaretako eskola nazionala egoera kaxkarrean

1949an, eskolatzea eta alfabetizazioa gaintu gabeko arazoa zela ikusirik, Gipuzkoako Udalek Estatuarekin elkarlanari kementsu ekin

zioten, landa-inguruetan eskola nazionalak irekitzeko konbenioak sinatuz. Azkoitiko bailaretara etorri ziren aurreneko maistra nazionalak hauek izan ziren:

Olasoko Eskola Nazionala: Pilar Ramis.

Aginagako eskola Nazionala: Isabel Ibarreta.

Aizpurutxoko Eskola Nazionala: Maria Pilar Taboada eta 1950ean Gloria Uranga.

Madariagako Eskola Nazionala: Filomena Gonzalez.

Urrategiko Eskola Nazionala: Milagros Azurmendi.

Martirietako Eskola Nazionala: Maria Esther Arbizu.

Urazarriko Eskola Nazionala: Maria Victoria Sanchotena.

Astarbe-goikoa Eskola Nazionala: Josefa Nieto Urizar.

Urkidi-goikoa Eskola Nazionala: Maria Josefa Mitxelena.

Lanpostu berriaren usainera, maisu-maistra ugari zuzendu ziren Udalera, gehienak erdaldunak, informazioa eskatuz. Batzuei horrela erantzun zitzairen:

... de las nueve, la de Aizpurucho es la mejor situada, porque tiene estación de Ferrocarril del Urola para desplazarse hacia Zumarraga y hacia esta localidad, de la que dista unos 7 kilómetros, tiene además teléfono; la de Madariaga con teléfono también, tiene auto de línea de esta villa a Elgoibar que pasa a unos 20 minutos de la Escuela; la de Mártires, con teléfono también, a unos tres cuartos de hora a pié desde la calle; la de Aginaga, también con teléfono, pero que desde Zumarraga dista aproximadamente una hora. Las demás carecen de teléfono y no reúnen tan buenas condiciones.

Auzo-eskola nazionaletako lan-postuen berri jakin ondoren, kanpoko maisu-maistrak herriko parrokoarengana ere zuzentzen ziren informazio eske. 1958ko ekainaren 3an, Juliana Blazquez maistrak herriko parrokoari idatzi ondoren, horrela erantzun zion Azkoitiko Udalak:

Debo significarle que la escuela a que a Vd. Se refiere se llama MIRAMONTE, que tiene de matrícula de 20 a 25. Es un caserío y la maestra reside en el mismo siendo desde luego muy buena la familia que reside en la citada casa. En concepto de Casa-habitación, se percibe 75 pesetas, que abona el estado. Hay un camino vecinal y la carretera se encuentra a medio hora, habiendo unos 4 kilómetros al apeadero o estación de Aizpurutxo, un barrio de Azkoitia. La iglesia más cercana tiene a media hora, a donde acuden también los moradores de la citada casería.

Baina eskolen egoera ez zen maistra hauek uste bezalako; oraindik leku gehienetan eskola baserrietan egokitutako geletan ematen zen. Pentsa nolakoa izango zen egoera beste auzo-eskola ez-ofizialetan. Ondorengo urteetan, eskola nazional berriak ireki eta maistra titulu-dunak jarri arren, egoera gutxi aldatu zen. 1950ean arazoari irtenbidea eman nahian, Olasoko auzotarrek Udalari eskatu zioten Hezkuntza Ministeriotik ematen ziren 60.000 pezetako diru laguntza lortzeko, egin beharreko tramiteak aurreratzeko. Auzotarrak prest zeuden Ministerioak emandako diru laguntzatik kostu errealerara zegoen diferentziaren ekarpena egiteko. Eskola honek bere gorabeherak izan zituen eta, 1953an, itxita egon zen Ikuskaritzaren aginduz, oinarritzko arauak ez zituelako betetzen. Baldintzak bete ondoren, berehala ireki zen. Baina Olasoko auzotarrak eskola berria egiteko asmoarekin jarraitu zuten eta eskola berria egiteko esku lana eskaintzeaz gain, Irizar arkitektoak eginiko Proiektua ordaintzeko, diru ekarpena egin zuten. Handik gutxira eskola berria errealitatea izan zen.

Urte horietan Azkoitiko bailaretako beste eskola nazionalen egoera are okerragoa zen. Horrela idatzi zion Aldundiari, 1956ko irailaren 10ean, Azkoitiko Udalak:

Sobre las ocho escuelas que funcionan en malos locales, algunas de ellas en el desván de un caserío, se ha iniciado el expediente para su inclusión en el Plan de la Junta provincial de Construcciones Escolares. Pero al parecer esta Junta cuenta con muy escasos medios por lo que la dilación de las construcciones es inevitable.

Eskola eraikin berriak egiteko, auzoan Eliza izatea lehentasunezko baldintza jartzen zuen Udalak. Aginaga, Aizpurutxo, Madariaga, Martitte eta Urrategiko auzoek betetzen zuten baldintza hori. Baina Larrumehaundi, Urazarri eta Urkidi-goikoa baserrietan zeuden eskola nazionalak ez. Hauenzat Estatuak ematen zuen diru-laguntza eskatzea nahikoa zela zioen Udalak. 1958ko Konbenioaren arabera, Ministerioak eskola eraikinaren lur saila eta kostuaren erdia ordaintzeko konpromisoa hartzen zuen, eta Aldundiak beste erdiarena. Ondorengo urteetan instituzioen elkarlanak bere fruitua eman zuten eta eskola nazional berriek, urte luzez iraun zuten baserrietako auzo-eskola partikularrak, ordezkatu zituzten.

1950 eta 1960ko hamarkadetan eskola nazional berriak eraiki eta inauguratu ziren auzoetan (Olaso, Urrategi, Kuku-herri...). 1954an Martirietako auzotarrek, bertako ikasleak 45etik gora zirela esanez,

eskola berria eta maistrarentzat etxea eraikitzeko eskatu zioten Udalari. Horretarako Estatuak ematen zituen diru laguntzak bideratzeko gestioak egitea ezinbesteko ikusten zuten (60.000 pezeta eskolarako eta 40.000 pezeta maistraren etxearentzat). Hau bideratzeko, Martittek auzotarrak konprometitzen ziren behar zen lur saila, eskulana, materiala eta diru kopuru bat jartzera.

**EXCMA. DIPUTACION
PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

ANUNCIO DE SUBASTA

En el "B. G. de la Provincia", correspondiente al día 24 del corriente mes de octubre, se inserta el anuncio de subasta para adjudicar la construcción de una escuela rural, de tipo mixto, con vivienda para el maestro, en el barrio de Urrategui, del término municipal de Aizcolitia, con el tipo base de TRESIENTAS MIL OCHOCIENTAS TREINTA Y NUEVE PESETAS Y SESENTA Y DOS CENTIMOS (300.839,62 pesetas), admitiéndose proposiciones hasta las trece horas del día 17 de noviembre próximo, inclusive, con sujeción al proyecto y pliego de condiciones que se hallan de manifiesto al público en la Secretaría de la Corporación.

San Sebastián, 26 de octubre de 1956.

El presidente,
"JOSE MARIA CABALIERO Y ARZUAGA.

PROYECTO

de

Escuela mixta y vivienda para el Maestro, en el Barrio de Ormola-Mendi, Urrategui.

PLANO DE SITUACION
ESCALA 1:500

ARQUITECTO - D. JOAQUIN YRIZAR BARNOYA.

Urrategiko Eskola Nazionalaren proiektua

1962an ospatu zen Aizpurutxoko Eskola Nazionalaren inaugurazio ekitaldia. Ondoren, 1964an, eraiki zen Kuku-Herri bailarako eskola nazionala:

Acerca de los actos a celebrar el próximo domingo día 20 con motivo del XXVIII Aniversario de la Liberación de la Villa y simultánea inauguración de la Escuela, carretera y frontón en el Barrio de Cucuerri. El Sr. Alcalde da cuenta de las invitaciones que han sido cursadas y haberse gestionado el tren especial a Iraeta como en años anteriores. Se determina el orden de los actos a celebrar,

comenzando a las 10 de la mañana en Iraeta con la Misa y Responso tradicionales; a las 11 ½ tendrá lugar la inauguración de la carretera al barrio de Cucu-erri y seguidamente, la de la Escuela y frontón en el mismo. A las 2 se celebrará la comida de hermandad organizada por el Circulo del Movimiento, a la que han sido invitadas las Autoridades asistentes. El Ayuntamiento se hará cargo del importe de los cubiertos de la representación municipal e invitados.

(Azkoitiko Udal Batzaren bilera bereziaren akta, 1964ko irailaren 17a)

1965ean, Urrategiko eskola inauguratu zen egun berean, bedein-katu ziren tren-geltoki aurrean egindako etxebizitzak, garai hartan luxuzko etxebizitzak. Eta ekitaldiari zegokion bukaera emateko, agintariak Plaza Berri elkartera joan ziren bazkaltzera eta arratsean idi-probak ikustera, herriko frontoira.

Eskolatze prozesua indartsu zihoan garatzen eta honen onurak ikusiz, hainbat baserritarrek, Udalarari eskatu zioten beren auzoetan eskola berriak eraikitzeko, benetan eskolaren premia larrian zeudelako. Honen berri 1965eko azaroaren 12ko Udal Batzorde iraunkorrean eman zen:

D. Esteban Alberdi, actualmente vecino de Elgoibar, en nombre de varios caseríos del barrio de Madariaga (Zuquiazu, Aldazabal, Coroategui, Olanar, Cigorruga, Katuin, etc.) expone que el problema escolar a que tienen planteado debido a que los niños han de desplazarse unos cuatro kilómetros de distancia para acudir a la Escuela de Madariaga. Para evitar esto sugería la posibilidad de crear una escuela particular con un maestro a cargo de los vecinos, haciendo constar que ya antes lo hubo en el caserío.

6.3. Liburu berriak, pentsamolde zaharkitua

Auzo-eskola nazionalak irekitzearekin batera, hauek hornitzen joan ziren. 1949an, eskola nazionalak ezarri zirenean, beharrezkoa zen eskolan *Erregimen Berriaren* ikur nagusiak bistan izatea: Espainiako bandera, gurutzeta, Ama Birjinaren irudia... Urazarri baserriko eskola nazionalera bertaratu zen lehen maistra nazionalak, Victoria Sancho-tenak, horrela hasten zuen eskakizunen zerrenda: *Un crucifijo, Un cuadro del Generalísimo, Una bandera nacional...* Ikur hauek ezinbestekoak ziren eskola ireki nahi bazen, eta jarraian aipatzen zen beharrezkoa zen

material pedagogikoa (1949ko ekainaren 20ko Aginduan azaltzen zen bezala):

- 1 Reloj de pared
- 1 Mesa escritorio para el maestro
- 1 Escribanía, carpeta, regla y timbre
- 1 Armario-vitrina para el material
- 4 Pizarras murales grandes
- 1 Colección de medidas métricas
- 1 Cinta métrica de 15 metros
- 1 Cinta m. de modista
- 1 Caja de cuerpos geométricos
- 1 Termómetro
- 1 Brújula
- 1 Colección de mapas murales modernos
- 1 Mapa de la provincia
- 1 Esfera terrestre y 1 Diccionario
- 1 Regla, escuadra, cartabón, compás y semicírculo graduado

39. TAULA: *Martitteko Eskola Nazionalean zegoen materiala, 1954an*

1 Crucifijo	7 Nosotros
1 Cuadro de la Inmaculada	3 Pequeños
1 Cuadro del Corazón de Jesús	1 Cuestionario de Enseñanza P:
1 Cuadro de Franco	8 Cartillas
1 Cuadro de S. Juan Bautista	2 Fábulas y Leyendas
1 Mapa de Guipúzcoa	6 Enciclopedias Álvarez 1º Grado.
1 mapa de España	1 Enciclopedias Álvarez 2º Grado.
1 Planisferio	1 Enciclopedias Álvarez 3º G.
1 Mesa Escritorio	1 Mapa Mundo
1 Silla.	1 Marcelino pan y vino
9 Pupitres	1 Enciclopedias Dalmau
1 Bandera Española	1 Caminos españoles
2 Mesas multipersonales	1 Alborada
1 Estufa	1 Un regalo de Dios
1 Cuño, sello de la escuela	1 Cuadernos visita de inspección
1 Registro	1 Programas de Enseñanza P.
1 Enciclopedia Hernando	1 Nacional Sindicalismo
1 Ingerencias y Ejercicios	10 Lecturas Agropecuarias
1 Mapa de España político	Cartillas de escolaridad
1 Carpeta	1 El mes de María
1 Escribanía	1 Llama de Amos Obra P. Manjón

1 Diccionario	1 Vázquez de Mella
1 Aritmética	1 Guía de Artesano
7 Enciclopedias prácticas	1 Consigna
5 Ingenuidades	1 Armario
7 Lecturas	

Auzo-eskola nazionaletan eta herriguneko eskoletan, pedagogia ildo beretik joaten zen. 1949an, herriguneko eskola nazionalako zuzendariak, honako testu liburuak eskatu zizkion Udalari:

El libro de las maravillas, Catecismos Luz, Franco, Una vida al servicio de España, Enciclopedias, Santos Españoles, Santos y Heroínas, Registro escolar, Maria, la muy Amada, Vida de la Santísima Virgen, Formación del Espíritu Nacional.

Horrelako liburu eta material berria, poliki-poliki iritsiz zihuan auzo-eskoletara, baina dena gaztelerazkoa.

39. TAULA: *Urrategiko Eskola Nazional berrirako eskatu zen materiala, 1965ean*

Cuadro del Caudillo	1 Catecismo explicado con ejemplos
Cuadro de la Inmaculada	1 El Mes de mayor en la escuela
Escribanía de oficina con carpeta	30 Catecismos de 1er grado
Cesto-papelera	1 Esfera terrestre
Regla, cartabón y compás para encerado	1 Colección de mapas murales (España físico, político y Mundial)
Cajas de tiza blanca	24 Mi Libro de Español (Edit. Cefiso- Barcelona) 1er Tomo
Cajas de tizas de colores	24 Cuentos juegos y poesías – Aurora medina
½ Kg. de cuartillas blancas	24 Cartel- Adolfo Maillo
1 regla de escritorio	24 Hemos visto al Señor-Serraño de Haro
2 Bolígrafos	9 Cuentos clásicos – Ed. Hernando
8 Carpetas (4 en folio y 4 en cuarto)	24 El Mundo de las Cosas – Dalmau
1 Frasco de goma para pegar	24 El mundo de los animales
1 Registro de matricula y asistencia	20 Gomas de borrar
4 Cuadernos de cartón de 50 páginas	1 Timbre de mesa
1 Diccionario de la lengua	40 Cuadernos
24 Ana y Pepe- Paraninfo	
24 Ideas y palabras – Maillo (Rivadeneira)	
1 lecciones de cosas (4 Tomos de Seix barral)	


40. TAULA: *Olasoko eskolan erabiltzen zituzten liburuak, 1967an*

Ikasturte	Liburuaren titulua	Argitaletxea	Argitaletxearen helbidea
1go kurtsoa	Victoria	Ferma	Barcelona
	Diploma	Santillana	Madrid
	Lenguaje	Miñon	Valladolid
	El Mundo de los Números	Anaya	Salamanca
	Luz	Afrodasio Aguado	Madrid
	Para empezar	Delegación Nacional de Juventudes	Madrid
2. kurtsoa	Cuentos para Leer y Escribir	Anaya	Salamanca
	Unidades didácticas	Nuevas Técnicas Educativas	Madrid
	Lenguaje	Miñon	Valladolid
	Matemáticas	Nuevas Técnicas Educativas	Madrid
	Luz	Afrodasio Aguado	Madrid
	Para Empezar	Delegación Nacional de Juventudes	Madrid
3. kurtsoa	Historietas para leer y escribir	Anaya	Salamanca
	Jesucristo Nuestro Maestro	Teide	Barcelona
	Unidades didácticas	Nuevas Técnicas Educativas	Madrid
	El Mundo de las palabras	Anaya	Salamanca
	El Mundo de los números	Anaya	Salamanca
	Primer Camino	Anaya	Salamanca
	Practicas y Ejercicios escolares	Teide	Barcelona
4. kurtsoa	Matemáticas	Teide	Barcelona
	La Aventura del Lenguaje	Magisterio Español	Madrid
	Practicas y Ejercicios escolares	Teide	Barcelona
	Primer camino	Delegación Nacional de Juventudes	Madrid

Auzo-eskola nazionaletan erabili behar ziren liburuak, aurrenik, Udalera iristen ziren. Handik, maisu bakoitzak berari izendatutakoak hartzen zituen. Neska eta mutilek liburu berdinak erabiltzen zituzten; aldaketa bakarra zera izaten zen, neskek *Delegación Nacional de Juventudes* argitaletzeko liburuaren orde, Sección Femeninako *Formación del Espíritu Nacional* liburua erabiltzen zutela. Ikusten den bezala, Azkoitiko bailaretara eskola nazionalak etortzearekin batera material pedagogikoa ugaritu egin zen. *Dotrina txikiaren* eta Catonaren garaiak atzean gelditzen ari ziren.



Enciclopedia Alvarez



Cálculo Moderno

SUMA

TABLA DE SUMAR

1 y 0, 1	8 y 0, 3	5 y 0, 5	7 y 0, 7	9 y 0, 9
1 y 1, 2	8 y 1, 4	5 y 1, 6	7 y 1, 8	9 y 1, 10
1 y 2, 3	8 y 2, 5	5 y 2, 7	7 y 2, 9	9 y 2, 11
1 y 3, 4	8 y 3, 6	5 y 3, 8	7 y 3, 10	9 y 3, 12
1 y 4, 5	8 y 4, 7	5 y 4, 9	7 y 4, 11	9 y 4, 13
1 y 5, 6	8 y 5, 8	5 y 5, 10	7 y 5, 12	9 y 5, 14
1 y 6, 7	8 y 6, 9	5 y 6, 11	7 y 6, 13	9 y 6, 15
1 y 7, 8	8 y 7, 10	5 y 7, 12	7 y 7, 14	9 y 7, 16
1 y 8, 9	8 y 8, 11	5 y 8, 13	7 y 8, 15	9 y 8, 17
1 y 9, 10	8 y 9, 12	5 y 9, 14	7 y 9, 16	9 y 9, 18
2 y 0, 2	4 y 0, 4	6 y 0, 6	8 y 0, 8	10 y 0, 10
2 y 1, 3	4 y 1, 5	6 y 1, 7	8 y 1, 9	10 y 1, 11
2 y 2, 4	4 y 2, 6	6 y 2, 8	8 y 2, 10	10 y 2, 12
2 y 3, 5	4 y 3, 7	6 y 3, 9	8 y 3, 11	10 y 3, 13
2 y 4, 6	4 y 4, 8	6 y 4, 10	8 y 4, 12	10 y 4, 14
2 y 5, 7	4 y 5, 9	6 y 5, 11	8 y 5, 13	10 y 5, 15
2 y 6, 8	4 y 6, 10	6 y 6, 12	8 y 6, 14	10 y 6, 16
2 y 7, 9	4 y 7, 11	6 y 7, 13	8 y 7, 15	10 y 7, 17
2 y 8, 10	4 y 8, 12	6 y 8, 14	8 y 8, 16	10 y 8, 18
2 y 9, 11	4 y 9, 13	6 y 9, 15	8 y 9, 17	10 y 9, 19

1. Sumar los números 132 y 654.

Sumandos	132	Decimos:	2 y 4, 6.
	654		3 y 5, 8.
	786		1 y 6, 7.

Cálculo Moderno. Sumar

MULTIPLICACION

TABLA DE MULTIPLICAR

1 por 0, 0	3 por 0, 0	5 por 0, 0	7 por 0, 0	9 por 0, 0
1 por 1, 1	3 por 1, 3	5 por 1, 5	7 por 1, 7	9 por 1, 9
1 por 2, 2	3 por 2, 6	5 por 2, 10	7 por 2, 14	9 por 2, 18
1 por 3, 3	3 por 3, 9	5 por 3, 15	7 por 3, 21	9 por 3, 27
1 por 4, 4	3 por 4, 12	5 por 4, 20	7 por 4, 28	9 por 4, 36
1 por 5, 5	3 por 5, 15	5 por 5, 25	7 por 5, 35	9 por 5, 45
1 por 6, 6	3 por 6, 18	5 por 6, 30	7 por 6, 42	9 por 6, 54
1 por 7, 7	3 por 7, 21	5 por 7, 35	7 por 7, 49	9 por 7, 83
1 por 8, 8	3 por 8, 24	5 por 8, 40	7 por 8, 56	9 por 8, 72
1 por 9, 9	3 por 9, 27	5 por 9, 45	7 por 9, 63	9 por 9, 81
2 por 0, 0	4 por 0, 0	6 por 0, 0	8 por 0, 0	10 por 0, 0
2 por 1, 2	4 por 1, 4	6 por 1, 6	8 por 1, 8	10 por 1, 10
2 por 2, 4	4 por 2, 8	6 por 2, 12	8 por 2, 16	10 por 2, 20
2 por 3, 6	4 por 3, 12	6 por 3, 18	8 por 3, 24	10 por 3, 30
2 por 4, 8	4 por 4, 16	6 por 4, 24	8 por 4, 32	10 por 4, 40
2 por 5, 10	4 por 5, 20	6 por 5, 30	8 por 5, 40	10 por 5, 50
2 por 6, 12	4 por 6, 24	6 por 6, 36	8 por 6, 48	10 por 6, 60
2 por 7, 14	4 por 7, 28	6 por 7, 42	8 por 7, 56	10 por 7, 70
2 por 8, 16	4 por 8, 32	6 por 8, 48	8 por 8, 64	10 por 8, 80
2 por 9, 18	4 por 9, 36	6 por 9, 54	8 por 9, 72	10 por 9, 90

1. Multiplicar 472 por 3.

Multiplicando	472	3 por 2, 6.
Multiplicador	3	3 por 7, 21; pongo 1 y llevo 2.
Producto	1416	3 por 4, 12; y 2 que llevo, 14

2. Multiplicar 617 por 0'58.


617	617 por 3 da 1851; por 5, 3085, que escribo un lugar más hacia la izquierda.
× 0'53	Sumo los dos productos parciales, y del total separo 3 cifras decimales, es decir, tantas como tienen los dos factores en junto.
1851	
3085	
32701	

Cálculo Moderno. Multiplicar

Baina liburu guztiak gazteleraz idatzitakoak ziren, eta hauek ulergaitzak egiten zitzaizkien baserrietako neska-mutilei. *Dotrina* zen euskarazko liburu bakarra.



*Gasteizko Elizbarrutiaren
Kristau-Dotriña, azala*



*Gasteizko Elizbarrutiaren
Kristau-Dotriña, sarrera*



Kristau Ikasbidea bertsotan. N. Etxaniz, 1950

Gaztelera indartsu ari zen sartzen eskola nazionalen bitartez, nahiz eta ikasleek ia tutik ez ulertu. Beraz ez da harritzekoa garai hartako ikasketaz galdetuta, horrela erantzutea gure aiton-amonek: *Orduan dena erderaz ematen zen. Euskaldun puru-puruak ginenez, 7 urterekin hasi eta 14 urte arte segitu arren, ezerren aztarrenik ez genuen jasotzen eta ezer ez ikasi; firmie emateko justu-justu.*



Urrategiko ikasleen komunioa

Herriguneko eskoletan irakaskuntza auzo-eskoletan baino garatuago zegoen, baliabide eta erraztasun gehiago zuten. Segidan azaltzen dugu garai hartako idatzi bat, ikasle batek, zinea ikusi ondoren, Alkateari egin zion eskutitza. Zinea ikustea pentsaezina zen auzo-eskoletako ikasleentzat. Baina, orain arte ez bezala, herritik kanpora irteerak egiten hasiak ziren.

Escuela de niñas
 Decetia s. de Noviembre de 1952

Alkateari
 Sr. Alcalde de Decetia

Muy Sr. mio:
 Quiero dar a Usted las gracias porque el Ayuntamiento nos pagó una el cine. Y una una película muy bonita que se llama Bambi, Bambi. con él y sus amigos simpáticos, tenía muchos amigos de cine. Podemos ir a saltar, a patear, a hablar. Yo ya sé correr y ya sé saltar pero me falta aprender a escribir.

Yo me gusta que los casados vuelvan a la madre de Bambi. El padre quedó solo y triste en el bosque. El Ayuntamiento no solo muy bueno sino también muy bonito. Muchas gracias

Miquel Angel
 7 años

Alkateari ikasle batek egindako idatzia, 1952an



Madarixako gazteak ibilaldian

Eskolatzea garatzen zihoan, eta baita ikasleen kontrola ere. 1957ko otsailaren 4an, Gobernadore Zibilak Lehen Hezkuntzako Udal Bartzarrari luzatu zizkion gomendioak horren isla dira:

Gobierno Civil de la Provincia de Guipúzcoa. Presidencia del Consejo Provincial de Educación.

Las Juntas Municipales de Enseñanza señalamos a continuación las distintas actividades que pueden “y deben” realizar respecto a las escuelas, maestros y Niños, en cada Municipio, a saber:

Vigilar por que todos los niños que hayan cumplido los seis años reciban la enseñanza Primaria en escuelas nacionales o Colegios privados DEBIDAMENTE AUTORIZADOS y estén en posesión de su correspondiente Cartilla de escolaridad, poniendo en conocimiento inmediato de la Inspección de enseñanza Primaria si en la localidad existen escuelas clandestinas.

Vigilar con escrupulosidad y conciencia que se inculque en los niños los principios del Glorioso Movimiento Nacional y que se practique diariamente el acto de izar y arriar con las normas que se han señalado, la gloriosa Bandera nacional y las del Movimiento en todas las Escuelas, durante las horas de clase, proveyendo de ellas y de su instalación a las que no las posean.

6.4. Maisu-maistra nazionalak mendian. Señoritak bakardadean

Aurrera pausoak eman arren, auzo-eskola nazionalen egoera pedagogikoak larria izaten jarraitzen zuen, eta maistra etorri berriak erabat kexatzen ziren material faltaz. Baldintza higienikoak eskasak ziren; mahaia, aulkiak, armairuak eta berogailua ia eskola gehienetan falta. Eskolak hain egoera eskasean izanik ez zen harritzekoa ikasleen asistentzia murrizta izatea, eta maisu-maistren aldatetak etengabeak. Eskoleraikinak eta irakasleen egoera hobetu beharra zegoen eta horretarako, diruz gutxienez, ezinbestekoa zen maisu-maistrek egiten zuten lan eskerge aitortzea. 1954an Falange Española Tradicionalista y de las JONSeko eta SME (Servicio Español de Magisterio) arduradunak horrela laburtzen zuen maisu maistren egoera hau (dokumentuaren helburua instituzioei diru laguntza eskatzea zen):

Con gran sentido de equidad y de justicia distributiva, nuestra vigente Ley de Educación Primaria dice que “la sociedad ha de establecer impulsar y vigorizar la enseñanza y las Instituciones educati-

vas, así como proteger y defender en sus derechos al niño y a sus educadores”. Una de las colaboraciones, valiosísima por cierto, es el empuje que nuestro jefe provincial del Movimiento Sr. Garicano Goñi, y la Excma. Diputación, por mediación de su AYUDA A LOS MUNICIPIOS GUIPUZCOANOS el primero y la segunda, que V. E. preside con tanto cariño y eficacia, por medio del Concierto establecido con el Estado por el D. 2-3-1951 (B. O. del 16) han dado a las contriciones escolares.

Pero como ha dicho Ruiz Jiménez, el actual Ministro de Educación nacional, en su discurso ante la Cámara con motivo de la aprobación de la Ley de Enseñanza Media, “sería muy simplista y hasta injusto pensar que todo se reduce a un problema de construcciones materiales. En la enseñanza lo importante, lo esencial, es el Maestro y los medios pedagógicos a su alcance”. Y añadió, “Nuestros Maestros tienen que sentirse asistidos por el Estado y la Sociedad, y es obligación de todos que acabe el desequilibrio económico en que viven”. Este desequilibrio es francamente inquietante, sueldos que oscilan entre los 22 y 40 pesetas. Diarias, con predominio de los primeros, colocan al magisterio muy por debajo de la mayoría de nuestros más humildes trabajadores manuales.

La educación es principalísima misión de nuestro Movimiento nacional, pero no exclusiva del Estado (el cual por su volumen nunca podrá atenderla debidamente)...

Por Dios, España y su Revolución nacional-Sindicalista.

El Jefe Provincial del S. E. M.

Ekimen hauek eragina izan zuten eta, 1954ko martxoaren 25ean, Aldundiak maistra nazionalek egiten zuten lana baloratu eta diru sariak ematea proposatu zuen. Institutuzio probintzialak, diru laguntzak jasotzeko, baldintza batzuk zehaztu zituen: eskolaren kokapena, ikasle kopurua eta matrikula, eskolaren egoera eta maisuarentzat etxebizitza izatea, maisu-maistrak eskolan zeraman denbora. Euskararen erabilera ere kontutan hartzen zen:

6. Si posee el suficiente conocimiento del vascuence para poder practicar el bilingüismo con los niños que lleguen a la escuela conociendo solamente la lengua materna o vernácula.

Euskara aipatzeak ere, eztabaida sortu zuen. 1954ko apirilaren 9an Gipuzkoako Aldundiko Hezkuntza, Kirol eta Turismo Komisioko Lehendakariari, horrela zuzendu zitzaizkion Rufino Mendiola –Hezkuntza Nazionaleko arduraduna Gipuzkoan– eta Francisco Davila –*Servicio Español de Magisterioko* burua–:

7.- Cabe- y es muy comprensible- que surja en el seno de esa Comisión la proposición de considerar como merito puntuable el conocimiento por el Maestro del vascuence, además del Castellano. Interesa a esta Jefatura exponer en esto su experiencia y la opinión de muchos maestros rurales consultados. Para facilitar el aprendizaje del castellano a los niños que acuden a la escuela conociendo solo el vascuence, es mejor que desde un principio, se le hable única y exclusivamente en la lengua que han de aprender. Póngase un niños en Francia, en Rusia o en Alemania, y a los dos meses se entenderá maravillosamente con los naturales de estos países, lo que no sucedería con un adulto. El campesino guipuzcoano, con esa clarividencia práctica con que Dios le ha dotado, así lo reconoce, como he podido comprobar reiteradamente, al recibir y oír comisiones y padres de familia que pedían que para que sus hijos aprendieran el castellano se les enviase a un Maestro castellano. Aparte de esta razón pedagógica que responde a la manera de ser de los niños y a ese don maravilloso de captación de una nueva lengua desconocida, temo que esa preferencia pudiera ocasionar cierto descontento en excelentes maestros de otras provincias españolas a quienes por su edad, por su trabajo no les fuera posible aprender el vascuence. Sí hay que reconocer, en cambio, la ventaja y conveniencia de que el maestro conozca el vascuence para entenderse y ahondar más en el espíritu de los padres y convecinos, influyendo más fácil y más notablemente en la educación de todos ellos.

1954ko ekainaren 26an, Aldundiak diru-sariak jasotzeko egingdako deialdian Azkoitiko maistra hauek hartu zuten parte:

Maria Felisa Garmendia Ulibarrena. Urkidi-goikoa eskola nazionalekoa.

Damiana Bidaurreta Gerediaga, Urrategi eskola nazionalekoa. Magdalena Balzola Peso, Olaso eskola nazionalekoa.

Maria Pilar Barrenetxea, Aginaga eskola nazionalekoa.

Basilisa Reguero Bereziartua, Urazarri eskola nazionalekoa.

Maria Jesus Arrizubieta Etxeberria, Martirieta eskola nazionalekoa.

1955ean, Urkidi-goikoa eskolara bakarrik 2 ikasle joan ziren, eta honek zer pentsa eman behar izan zien garaiko arduradunei, kontuan izanik urte batzuk lehenago 30 ikasle baino gehiago joaten zirela eskola horretara. Urkidi-goikoa baserriko ikasleak ondoko beste eskoletara joaten hasi ziren, eta bertako maistra Martitte bailarako eskolara pasa

zen Miramonteko (Montte) eskolara. Martitten ikasle kopurua handia zenez, (46ko matrikula eta beste 20 gehiago eskolako adinarekin, baina eskolara joan ezin zutenak nora joan ez zutelako) bigarren eskola bat jarri zuten *Montte* baserrian.

Eskola hauetako maisu-maistren egoera eta heziketa oso oinarrizkoa zen. Irakaskuntza baserriko geletan ematen zuten, eta materialaren faltan, edozein aukera zen ona ikasteko. Horrela deskribatzen du bere egoera Maria Victoria Sanchotena, Utxerriko maistrak:

La clase la daba en una habitación del caserío. Cuando nacían las vacas íbamos al campo a verlas, y cuando nacía un corderito, lo mismo. En el caserío cada vaca tenía su nombre.

En esta escuela se les enseñaba declamar poesías en euskara y a cantar. El material lo daba el Estado y la pensión la pagaban entre los padres.

Respecto al método de enseñanza tenía bastante dificultad, se impartía la enseñanza en castellano y muchos no entendían porque todos eran euskaldunes (¡claro como iban a ser allá!). Hacíamos la programación, teniendo en cuenta las enciclopedias que teníamos, era obligatorio. El programa lo adaptaba al entorno.

El problema del idioma era preocupante, yo a veces no les entendía y eso me preocupaba. La maestra anterior sabía muy bien el euskara, pero no lo hablaba, eso tampoco está bien.

Los padres se preocupaban mucho y había una gran disciplina.

Baina sarritan maistra hauek ere bakarrik sentitzen ziren.

Las maestras nacionales pasábamos mucha soledad. Así la maestra de la escuela de Madariaga, que estaba frente a nuestro barrio, se comunicaba con nosotros, sacando una sábana. Echábamos de menos el ambiente urbano. La escuela estaba a dos horas de camino del pueblo. El primer día me trajeron un burro para subir al caserío.

Egoera penagarri hau ikusiz, maisu-maistra askok, hilabete batzuk pasa eta berehala alde egiten zuten. Martittek maistrak honela esaten omen zuten: “hau bizimodua, goizean jaiki eta eskolara, iluntzea etorri eta lotara. Hemen nola bizi!” Maistra honek ez zuen asko iraun, urrian etorri eta Gabonetako oporretara joan eta ez omen zen gehiago itzuli. Eskola hauetara etortzen ziren maistrei buruz esan beharra dago, baserri hauetako egoera ikusi ondoren askok berehala eskatzen zutela lekuz aldatzea. 1955eko azaroaren 7an, Lehen Hezkuntzako Ikuskariak Pedro Uria Alkateari bidalitako idatzian, horrela deskribatzen zuten maistra nazionalen egoera:

Señoritas, por lo regular, acostumbradas a comodidades de higiene y de bienestar que allí brillan por su ausencia. Pero todo se puede sufrir con espíritu de caridad y de resignación, pensando que uno atiende la cultura y educación de modestos españoles que no debemos ni podemos abandonar por alejados que estén y por deficientes que sean. La maestra se ve precisado a soportar una soledad (solo los pequeños entienden el castellano) y unas condiciones higiénicas y de alimentación horrorosas. La escuela no tiene estufa (inservible), carece de material y sobre todo NO TIENE RETRETE.

Baserri hauetako familiei buruz, ia maisu-maistra guztiek ondo hitz egiten zuten:

El caserío Lasao tiene unos habitantes encantadores por su bondad y por su espíritu religioso y su moralidad.

Maisu-maistra nazionalak, gehienetan, ongi ikusiak izan ziren landa-inguruetan, eta errespetuz tratatuak. Dena dela salbuespenak beti izaten dira. 1956an, Aizpurutxoko auzotarrak gogor kexatu zitzaizkion, bai Udalari eta baita Ikuskariari ere, esanez ez zutela bertan ikusi nahi hara bidalitako maistra. Ezinikusi hau honako arrazoietan oinarritzen zen:

Explicaciones de inspiración erótica ante toda la clase. Detalla las funciones reproductoras de las especies animales, tomando pié de las eventuales observaciones de los niños y relacionándolas expresamente con el matrimonio de las personas. Recomendó que los niños y las niñas no durmieran en la misma cama. Prácticamente prescinde por objeto de la enseñanza del catecismo. Nunca explica la doctrina cristiana. Todo ello ante la clase en pleno, donde asisten niños y niñas de seis y siete años.

Arrazoi honegatik ikasleen gurasoek erabaki zuten, urte horretan, beren seme-alabak Aizpurutxoko eskolara ez bidaltzea. Kontuan izan behar dugu, gehienetan, maisu-maistra hauek erdaldunak eta bertakoen pentsaera desberdinekoak zirela, horregatik batzuk ez ziren izan ongi ikusiak.

Ekarpen nabarmenen artean aipatu behar da maistra nazional hauek eskola-ziurtagiria ematen zutela, eta horrek asko laguntzen zuen lana aurkitzerakoan; orain arte auzo-eskoletan ezagutzen ez zen prestigiodun agiria zen. Agiri hauek maistraren eta Ikuskariaren sinadura zuten, eta bertan jartzen zuen ateratako kalifikazioa eta eskolan igarotako urteak. 1951n, Urkidi-goikoa Eskola Nazionaleko Maria Zayda

Fernandez maistrak, Teresa Zulaika Iruretari emandakoa agiriak horrela jartzen zuen:

Izen-abizenak, M^a Teresa Zulaika Irureta; Jatorria, Deba; Adina, 12 urte; Igarotako urteak, 5; Nota, Bikain; Agiriaren data, 1951ko azaroaren 5a.

Eskola hauetako maisu-maistra batzuk, eskola emateaz gain auzoa suspertzeko hainbat ekintza ere egin zituzten. Aginagako eskolan egon zen Pilar Barrenetxea, auzorako onuragarriak ziren hainbat proposamen aurrera eramaten saiatu zen, hauen artean *Danok Bat* zentralaren ondoan geralekua, *Apeaderoa*, jartzea. Maistra honek, 1953ko azaroaren 4an honako idatzia igorri zion Udalari:

Los vecinos de este Barrio desean que hagan una instancia al jefe del Movimiento de F.C. Urola para que pongan un apeadero a la altura de la Central Eléctrica "Danok Bat" aprovechando la circunstancia de que el tren pasa por allí mismo y consideran absurdo el tener que ir a pie hasta Zumarraga para tomar el tren cuando desean ir a Azkoitia. Desearía pedirle que si conoce al Sr. Jefe del Movimiento de dicho Ferrocarril, llamado D. Alejandro Echeverria tuviese a bien hablar de este asunto.

6.5. Baserrietako neska-mutilak eskolara bideratu ezinik

Eskolara ez joatea zigortuta egon arren, Azkoitiko neska-mutil asko oraindik eskolara joan gabe gelditzen ziren. Hau bideratu nahian, neurri asko hartu ziren; horren eredu da 1952ko irailaren 7an azaldu-tako Dekretua. Dekretu horrek zera zioen:

- 1.- Todos los niños comprendidos entre los seis y catorce años inclusive, tienen la obligación inexcusable de estar matriculados en sus respectivas Escuelas o Colegios, antes del 1 de octubre.
- 3.- Todos los padres de los niños que resultaren no inscritos en algún colegio o escuela, serán requeridos para hacerlo en un plazo perentorio y los que no lo hicieran, serán multados de una a diez pesetas por cada día que dejaren de transcurrir entre el requerimiento y la matricula. En casos de especial desobediencia a lo dispuesto les será aplicado el artículo 584 del Código Penal.
- 4.- Esta Junta municipal enviara mensualmente al Gobierno Civil y a la Delegación Provincial de Trabajo, la relación nominal de los niños que hayan cometido 10 faltas (bien entendido que cada día

escolar completo son dos faltas) para que impongan las sanciones que dignen:

Si el número de faltas llega a diez, les será reducido el 50% de lo que le pertenezca percibir por puntos de ayuda familiar. Si el número de faltas es de 10 a 20, será sancionado con el 75% de dicha ayuda y con la privación total si para de 20.

La falta de un mes completo, además de la supresión del plus, llevará aparejada la pérdida de las vacaciones retribuidas y del 25% de las pagas extraordinarias.

El importe de las multas que por este concepto hubiere, quedará a beneficio de los demás productores.

5.- Los analfabetos comprendidos entre los 14 y 21 años, quedan igualmente obligados a matricularse en la escuela nocturna de adultos, con las mismas prevenciones que para los niños que se establecen en los artículos anteriores hasta que logren obtener el Certificado de estudios Primarios.

6.- Los aprendices analfabetos contratados a partir de los 10 de junio del corriente años, tendrán empleo con carácter provisional durante el término máximo de dos años. Durante este plazo deberán asistir a las clases nocturnas, hasta obtener el certificado. D no hacerlo, perderán su empleo a partir de esa fecha.

7.- Cuando en la Empresa haya analfabetos, queda obligada a organizar clases para ellos, que estarán a cargo de maestros, hasta que obtengan todos el Certificado.

8.- Cuando se trata de aprendices que posean cultura primaria diferente, la Empresa vendrá obligada a permitirles la asistencia a clases especiales que se procurará organizar fuera de las horas de trabajo y de no ser posible dentro de la jornada laboral, dándoles una hora de permiso diario durante tres meses al año. De no existir clase especial organizada en la localidad, serán las empresas mismas las que tienen la obligación de organizarlas y sostenerlas.

11.- Se recuerda también a las empresas, la obligación de exigir a todos los aprendices el Certificado de Estudios Primarios, ya que serán ellos mismos los responsables ante la inspección de trabajo y que en lo sucesivo no les será admitido ningún contrato de aprendizaje, si no se hallan en posesión del mismo.

Baina errealtatea zera zen, eskola eredu horrek ez zituela asebetetzen baserriarren gogo eta beharrak. Eta zigorraren bideak, ez zuen emaitza onik ematen. 1956an Olasoko bi auzotarrei, beren seme-alabak hilabete batean hamar egun baino gehiagotan eskolara joan ez zirelako, hamarna pezetako zigorra jarri zien Udalak.

Landa-ingurunean alfabetizazioa suspertu nahian, Hezkuntza Ministerioak sarritan ahazten zuen herriguneko eta baserrietako baldintzak ez zirela berdinak. Batzuek eskolak bebarru aurrean zituzten, besteek 3 edo 4 kilometrotara, eta bidezidorretatik joan behar izaten zuten. Auzo batzuetan, ikasleek ibilaldi luzeak egin behar izaten zituztenez, eskolatzeko-erantzukizua proposatu zuten. 1957an Aginagako eskolara goizez bakarrik joaten ziren, bederatzietatik ordu-bietara; horrela eginez eskolarako ibilbidea bi aldiz egitea saihesten zuten eta hau egokiago zen urrutitik zetozen haurrentzat.

Nahiz eta oro har landa-inguruneako eskoletako ikasle kopurua jaisten joan, oraindik zenbait bailaretako eskoletan ikasle asko matriculatu ziren. Aizpurutzokoko eskola nazionalean ikasle kopurua handia zelako, eskolaren bikoizketa eman zen; neska-mutilen eskola egotetik neskontzat eskola bat eta mutilentzat beste bat egotera pasa zen. 1958an Urrategiko Eskola Nazionalean 38 ikasle zeuden.

41. TAULA: *Urrategiko Eskola Nazionalean zeuden ikasleak, 1958an*

Baserria	Ikasle kopurua	
	Mutilak	Mutilak
Oñatibia	2	2
Urrategi	4	
Azalgorreta	1	
Zabaleta-azpikoa	1	
Malmadi		3
Kortatxo	3	1
Urruzuluz (Javier Juaristi)		1
Urruzuluz (Eugenio Zubizarreta)	1	1
Ubegieta-goena	1	1
Ubegieta-haundi	1	
Ubegietatxo		1
Eguzkitza	1	1
Errasti (Crispin Astigarraga)	2	
Errasti (Manuel Alberdi)	1	1
Oianguren-azpikoa (Jose Azpiazu)	1	3
Oianguren-azpikoa (Pedro Juaristi)	1	1
Oianguren-goikoa	1	1
GUZTIRA	21	17

Ikasle asko matrikulatuta egon arren, eskolara sarritan faltatzen ziren. 1958an, Urrategiko maistra nazionalak, baseliza aurrean, bando bat jarri zuen esanez eskolara derrigorrez joan behar zela. Bailarako hainbat baserriarri (Malmadi, Uzin-goikoa, Errasti –Krispin Astigarraga–, Oianguren-azpikoa –Jose Azpiazu–, Kortatxo, Errasti –Manuel Alberdi– eta Oianguren-azpikoa –Pedro Juaristi–) 25 pezetako zigorra jarri zitzaien, eta ohartarazi, horrela jarraituz gero isunaren diru kopurua igo egingo zitzaie. Arazoak jarraitu egin zuen eta ondorengo egunetan 77 pezetako, 250 pezetako eta 500 pezetako isunak iritsi zitzaizkien hainbat baserriarri.

42. TAULA: *Azkoitiko auzo-eskola nazionalak, 1958an*

Bailarak/eskolak	Biztanle-zentzua	Zentsua. 6-12 urteko mutilak/neskak	Eskolaren jabegoa
ARRIETA MENDI Martitte Montte Aginaga Larrume-handi	1.077	14-6 11-13 14- 8 12-16	Parrokiarena Partikularra Parrokiarena Partikularra
IZARRAITZ Olaso Madariaga	1.055	- 12-14 16-20	- Parrokiarena
ORMOLA MENDI Aizpurutxo Urrategi Urazarri	252	15-9 13-17 9-11	Parrokiarena Parrokiarena Partikularra

1959ko irailaren 18an, Maria Angeles Izuzkizak, Aizpurutxoko maistra nazionalak, honela idatzi zioen Irakaskuntzako Udal Batzordeari:

Debido al elevado número de niños que se hallan en edad escolar y no habiendo local suficiente para admitirlos, de no encontrarse otra solución mas favorable con la mayor urgencia posible de acuerdo con la Inspección, desde el próximo día 21 se dará la clase en dos turnos de 35 alumnos en cada uno y dos horas y media de duración, quedando así admitidos todos lo niños comprendidos entre los seis y los doce años de edad.

Ikasleek eskolara joan behar zutela agintzea eta eskatzea oso erraza zen, baina hezkuntza arduradun asko ez ziren ohartzen, ez zuten kontuan hartzen, non zeuden kokatuak ikasleen baserriak:

Kortatxo baserria, eskola gertuena Urrategikoa; distantzia 2 kilometro biderik gabe.

Aldazabal baserria, hauentzat eskola gertuena Madariagakoa; distantzia 5 kilometro bidetik.


Sukiazu baserria, eskola gertuena Madariagakoa; bidera distantzia km 1, bidetik eskolara oraindik beste 4 km.

Koroategi baserria, eskola gertuena Madariagakoa; bidera distantzia km 1, bidetik eskolara beste 5 km.

Katuin baserria, eskola gertuena Madariagakoa; distantzia 5,5 kilometro bidetik.

Arrospide baserria, eskola gertuena Madariagakoa; distantzia 5 kilometro biderik gabe.

Zelai-luze baserria, eskola gertuena Madariagakoa; distantzia 5 kilometro biderik gabe.



Zelai-luze baserriko Frantziska Egaña, Madarixan

Eta horrela beste baserri asko. Eskola berriak eraikitzeak ez zuen lortu baserrietako seme-alabak eskolara erakartzea, eta hauei isuna jar-tzeak ere ez zuen arazoa konpondu. 1967ko ekainaren 23an, Izarraitz bailarako baserritar askok 500 pezetako isuna jaso zuten, beren seme-alabak ez zituztelako bailarako eskolara bidaltzen. Pezetarik ez zuen baserritarrentzat pentsa nolako kolpea izango zen, Udaletik neurri horretako isuna jasotzea. Idatzian, gainera, honako ohartarazpena egit-en zitzaien:

Deberá hacer efectivo dicho importe en este Ayuntamiento en el plazo de ocho días, significándole que en otro caso, se seguirá la vía de apremio a través del juzgado, con recargos y costas. A propio tiempo se le ordena que proceda al envío de todos sus hijos en edad escolar a las clases desde el recibo de la presente, ya que de lo contrario esta alcaldía deberá dar parte al Excmo. Sr. Gobernador Civil de la Provincia.

1967an, Azkoitiko Udalak Lehen Mailako Irakaskuntzako Ikuskariaren izenean, idatzia bidali zien hainbat baserritari esanez BOEan, eskolara sarritan huts egiten zuten haurrentzat, urruti bizi zirelako joaten ez zirenentzat-eta, Eskola-Etxeetara (Escuelas Hogar) bidaltzeko diru laguntzak zeudela. Pentsa zer eskaintzen zitzaien, 6-14 urte bitarteko baserrietako seme-alaba gazteei, erbesteko eskola arrotzetara joatea, barneko-ikasle gisa.

6.6. *Baserritarra halabeharrez hiritartzen*

1960ko otsailaren 27an, honako hau zen Azkoitiko ikasleen esko-latzea eta eskolen zentsua:

44. TAULA: *Azkoitiko eskolak, 1960an*

Eskola	6-12 arteko adina	12tik-14 bitarteko adina
Haurren Eskola Graduatua	116	15
Eskola unitarioa mutilak, zk. 1	58	-
Eskola unitarioa neskek, zk. 1	22	18
San Jose Kolegioa, Erruki-etxean	225	75
San Jose Kolegioa, Floreagan	120	40

Herriguneko ikasleak, denera	541	148
Madariagako neska-mutilen eskola	20	-
Martitteko neska-mutilen eskola	24	6
Aginagako neska-mutilen eskola	25	5
Urrategiko neska-mutilen eskola	28	4
Aizpurutxoko neska-mutilen eskola	80	10
Olasoko neska-mutilen eskola	12	4
<i>Montteko</i> neska-mutilen eskola	14	4
<i>Utxerriko</i> neska-mutilen eskola	18	4
Astarbeko neska-mutilen eskola	23	2
Auzo-eskoletako ikasleak, denera	244	39
Ikasleak denera	785	185

Ikusten denez, 1960an, 12 urtetik gorako haur gutxi joaten ziren eskolara. Arratsean gau-eskola ematen zen eskola nazional batzuetan; horrela zioen Maria Victoria Sanchotena, Utxerriko maistrak, ikasle hauetaz:

Los que subían a las clases nocturnas eran los que iban a ir a la mili. Casi todos los alumnos eran muy inteligentes, y con ganas de aprender.

Baserrietako seme-alabentzat hemen bukatzen zen ikasketa zikloa. Bakar batzuk, erlijiosoen ikastetxetara joaten ziren.



Floreagako eskola, 1960an

1968ko abenduaren 12an, hauek ziren Azkoitiko herrigunean zeuden eskolak:

Eskola Nazionalak.

Mutilen eskolak 8 gradu eta 316 ikasle. Nesken eskolak 4 gradu eta 148 ikasle. Haur-eskolan 160 ikasle zeuden, hiru geletan.

San Jose Ikastetxea.

Haur-eskolak 104 ikasle, bi geletan. Lehen Hezkuntza 354 ikasle, zazpi geletan.

Floreaga Ikastetxea.

Eskola hau Merzedarioen (PP. Mercedarios) kargu zeuden. 261 mutil, 5 geletan.

Urolako Mankomunitatea.

72 ikasle, leku ezberdinetan banatuak, hauetatik 13 haurreskolakoak.

Beste 400 ikasle beste eskola batzuetan banatuak zeuden, batxilergoa eta lanbide-heziketa ikasten.



San Jose ikastetxeko Sor Encarnación eta bere ikasleak, 1963an



Floreaga ikastetxeko P. Jose Antonioren ikasleak, 1967an

Bailaretako eskolen egoera bestelakoa zen, eta ikasle kopurua etengabe jaisten ari zen: Madariagan, 15 ikasle; Martittin, 33; Urrategin, 20; Kuku-Herrin, 10; Aizpurutxon, 43; Olason, 12 eta Aginagan, 7. Eskola nazional berriak eraiki arren, ikasle kopurua behera joan zen, eta eskolak hustu egin ziren (Montte eta Utxerriko eskola nazionalak jadanik hertsirik zeuden). Bide berriek, lantegiek, *fabrikek*, sortzen zituzten igurikimenak... aldaketa ekartzen ari ziren.

6.7. Bailaretako eskola nazionalen azken egunak

Bere garaian eskolarentzat eraikin berriak egitea urrats handia izan zen, baina hala eta guztiz eskola nazional hauen ibilbide motza izan zen. Egoera soziokulturala eta ekonomikoa azkar aldatzen ari zen, eta hirigunea baserriari aurre hartzen ari zen. Bailaretara bide berriak eraikitzeak, leku batetik besterako joan-etorria erraztu egiten zuen, batez ere baserritik herrirako ibilbidea. 1964ko irailaren 25ean, Udal Batzorde iraunkorrek honako proposamena egin zuen:

A continuación expone el Sr. Alcalde la cuestión planteada en la Escuela mixta de Ormolamendi-Urazarri relativa a la conveniencia

de su supresión y establecimiento del servicio de transporte escolar a las escuelas del casco de la villa. Se trata de una escuela de unos catorce alumnos y que se encuentra deficientemente instalada en un caserío por carecer de edificio escolar propiamente escolar; dista cinco kilómetros del casco de la villa y goza de comunicación directa como consecuencia de la construcción de la carretera del barrio de Elosua, que fue inaugurada el pasado año. Dada las posibilidades que ofrece dicho medio de comunicación a los padres de los alumnos estiman conveniente que estos acudan a los centros escolares del casco de la villa y es así que ya desde el comienzo del presente curso han comenzado a hacerlo, consideradas las ventajas de la enseñanza graduada. Pero ello plantea la necesidad de establecer un servicio de transporte escolar, lo que llevaría consigo la supresión de la escuela, cual es el deseo de los padres de los alumnos.

Se acuerda por unanimidad elevar solicitud al Ilmo. Sr. Inspector de Primera Enseñanza para establecimiento de un servicio de transporte escolar con la siguiente supresión de la escuela mixta de Ormolamendi-Urazarri.

1970. hamarkada hasieran, honakoa zen Azkoitiko auzo-eskola nazionaletan matrikulatutako ikasle kopurua:

44 TAULA: *Auzo-eskola nazionaletan matrikulatutako ikasleak*

Eskola	Matrikula 1970ean	Matrikula 1972an
Madariaga	15	7
Martitte	34	25
Urrategi	19	18
Kuku-herri (Larrume-haundi)	10	7
Aizpurutxo	43	33 (18+15)
Olaso	12	-
Aginaga	7	12

1970ean auzo-eskola nazionalen ikasle kopurua 140koa zen, bi urte geroago 102koa, beherakada nabarmena zen. 1971ean, honakoa zen auzo-eskola nazionaletan zegoen ikasle kopurua, adinaren arabera sailkatuta:

45. TAULA: *Auzo-eskola nazionaletako ikasle kopurua, 1971ean*

Auzo-eskola	4-5 urte	6-9 urte	10-13 urte
Martitte	4	14	11
Madariaga	-	6	4
Olaso	-	9	7
Aizpurutxo, mutilak	3	10	8
Aizpurutxo, neskek	1	7	8
Kuku-herri	-	4	6
Urrategi	-	8	11
Aginaga	-	6	7

1971ko otsailean, Azkoitian, herrigunean, eskola hauek zeuden:

46. TAULA: *Azkoitiko herriguneko eskolak, 1971n*

Eskola	Gelak
Miserikordiako eskola	10
Miserikordiako haur-eskola eta nesken eskola	3
Merzedarioak (Padres Mercedarios)	8
Lanbide Heziketarako Eskola (mutilak)	5
Ikastola	3
Eskola nazionala	9

Herriguneko eskolak garatzen ari ziren, eta nahiz eta oraindik landa-inguruneko eskola nazionaletan 8 gela irekita izan, eskola haue-tan ikasle kopurua azkar ari zen jaisten. Udalak garbi ikusten zuen etorkizuneko joera bailaretako eskolak ixtea zela. 1975ean Kuku-Herri-ko Eskola Nazionala 5 ikaslerekin gelditu zen eta Aizpurutxoko eskola, unitarioa izatetik mistoa izatera pasa zen. 1977ko martxoaren 21eko Ministro Aginduak (BOE, apirilaren 12koa), auzo-eskola nazional hauen ezabaketaren berri eman zuen: Aizpurutxo, Arrieta-mendi (Martitte), Izarraitz (Olaso), Larrume-haundi eta Urrategi. Apirilaren 29an itxi ziren Azkoitiko bailaretako azken auzo-eskola nazionalak. Hauek izan ziren eskola hauetan egondako azken maistra nazionalak.

Martitten: Concepción Ponce Sánchez.
Olason: Luisa Baz Gonzalez- M^a Dolores Romero.
Urrategin: Constanca Puente Villafaña.
Aizpurutxon: Agustina Martín de la Fuente.

Eskola hauetako ikasleak Altamirako Eskola Nazionalera bideratu ziren (honek OHO-EGBko 28 unitate eta 6 eskolaurreko unitate zituen). Bailaretako ikasleak herrigunera jaitsi zirenez, kaleko eskolak prestatu beharra zegoen. Baserrietako ikasleentzat garraioa jarri zen eta herrira itzuli-mitzulika hasi beharra izan zuten, lehen baino kilometro gehiago eginez. Eskola doan izan arren, autobusa ordaintzeko baserri-tarrek Urolako Mankomunitateko bazkide egin zituzten, kuota ordaindu behar ondoren. Bazkaltzeko ere egoera ez zen izaten askoz hobe, eskolako jantokian gelditu behar izaten baitzuten. Ikusten denez, kaleko eskolako aurreneko urteak ez ziren izaten goxoak baserrietako ikasleentzat.

Ikusi dugunez, gizarte berria etengabe aldatzen joan da eta honekin batera hezkuntza eta eskola. XXI. mendeko talaiatik ikus dezakegu nola gelditu diren bidean hainbat proiektu eta ekimen: XIX. mende bukaeran Udalek eta baserri-tarrek irekitako auzo-eskola partikularrak; 1918tik aurrera Aldundiak proposatutako berrikuntza pedagogikoa eta euskarazko liburu berrien ekarpena; 1932an Gipuzkoako Aldundiak martxan jarri zuen Auzo-eskola probintzialen proiektua eta beste hainbat une goxo.

Ikasketa laburrak garai hartakoak,
luzeen jota ere, hiru urtekoak.
Baina ahazten zailak; beraz, betikoak.
Gerora kontatzeko, dotore askoak,
non-nahi balio du han ikasitakoak.

(Zendoia, N., *El Diario Vasco*, "Mandioko eskolak" 2003ko irailaren 30a)

Baina zelaietan dena ez da belar gozoa izaten, dena ez da pagotxa. *Barrabasa, uztaue, munitie...* eta zulo beltzak nahi baino gehiago azaltzen dira eta gure historian, sarriegi. Ahaztu ezina dugu XIX. mendeko gerren eragina, goseteak, 1936ko Gerra eta ondorengo errepresioa eta faxistek inposaturiko irakaskuntza. Gure historian nabarmentzekoa da, baita, hainbat sasi-intelektualen jokaera; harrokeriaz esaten zutenean euskara *rudem et barbaram linguam, cultum abhorrentem* zela,

barbaroa eta kultura lanetarako gaitu gabea zela gure hizkuntza. Azalean sufritu zuten herriguneko euskaldunek eta baserritarrek jokaera horren ondorioak. Baina atzo eta gaur bizitzak aurrera darrai.

II. ATALA

AZKOITIKO BAILARETAKO ESKOLAK

XX. mende hasieran Azkoitiko populazioaren erdia herrigunean bizi zen eta beste erdia baserrietan. Herrigunean eskola mota ugari zeuden: partikularrak, munizipalak, erlijiosoak, publikoak edo nazionalak; bailaretan, ordea, baserrietan barreiatuak auzo-eskola partikularrak. Eskola hauen eta bertako ikasle eta maisu-maistren aipamena izango da ondorengo orrietan azalduko duguna. Ez dugu ahaztu behar, Azkoitiko baserri askok bere historiaren uneren batean, eskola funtzioa bete izan duela eta hauen berri oso gutxi dugu.

1906ko maiatzaren 20an Azkoitiko Udalak esaten zuenez, hiru multzo nagusitan banatzen ziren Azkoitiko landa-lurrak:

En el arreglo escolar se dice que existen en esta villa tres barrios llamados Arrietamendi, Izarraitz y Ormolamendi, pero no es así por cuanto por barrio debe de entenderse una de las partes en que se dividen los pueblos grandes, arrabales y aldeas pequeñas inmediatas al pueblo. Lo que aquí existe son tres montes que llevan esos nombres, donde se hallan enclavados caseríos muy distantes el uno del otro...

Hecha esta advertencia, debe de decirse que por causa de la configuración del terreno es de todo punto imposible formar los centros escolares en la forma fijada en el arreglo porque no hay ningún punto céntrico a donde podrían acudir 20 niños por lo escabroso del terreno y las cuestas tan pronunciadas y muy difíciles de salvarlas por los niños y el resultado inmediato sería que los maestros no tendrían asistencia en sus escuelas y se aburrirían viviendo en estos vericuetos

tan elevados. Por salvar los inconvenientes apuntados y con el fin de atender en la forma más apropiada y conveniente a la instrucción primaria, este ayuntamiento después de un maduro estudio tiene establecidas nueve o diez escuelas, según las necesidades de los puntos que subvenciona a personas instruidas y aptas para el fin que se persigue.

Banaketa eta errealtate horretatik abiatzen da segidan egiten den deskribapena.

1. Martirieta (Martitte) bailara



Martitte, Etxosta-menditik

Martitte bailarak, Oleta mendirako igarobide menditsua markatzen du eta Urolako goi erretenera eta Oriako ibarrera igarobide da. Bailarari nortasuna ematen dion sinboloa Emeterio eta Zeledonio Santu-Martiriei eskainitako basiliza da. Urtetan zehar ezagutu izan da bertako basiliza, San Medel edo Zendoiako San Medel deituraz, lehen aipamena 1496koa delarik.



Martirietako Emeterio eta Zeledonio Santu-Martiriak

1.1. Zendoia baserriko eskola



Zendoia baserria

Martitteko eskolei buruzko lehen aipamenak Zendoia baserrian egon zen eskolarenak dira, 1895eko eta 1902ko datuak. Baserri hone-tan, oraindik, eskola egon zen gelari *eskolategia* deitzen diote. Mende hasieran Francisco Oianburu jauna aritu zen baserri honetako eskolan eta Azkoitiko Udalari igorritako idatzietan, horrela deskribatzen zuen garai hartako eskolaren eta hezkuntzaren egoera:

Que siendo poco concurrida esta Escuela en proporción a los niños y niñas que hay en este barrio, por el motivo que no mandan hasta los nueve o diez años por que dicen los caseros que no pueden mandar por no tener recursos para atender al pago de dos o más criaturas que podían asistir a la Escuela que pudiendo mandarles desde la edad de siete u ocho años quedan privados de la instrucción que podían adquirir y no como está pasando aquí que mandan un año y un año y medio antes de que tiene que comulgar y para eso el año de doce meses lo convierten en ocho o nueve meses y en ese tiempo piensen que pueden ponerse al corriente eso es imposible, aunque procuro hacerlo que puedo en la penosa tarea de la instrucción que por cierto es bien difícil entre esta gente pues hay niños y niñas que ni persignan ni nada y luego viene el tiempo de comulgar y resulta que como es natural que no está bien preparada el niño en la Doctrina y en otras cosas, aunque sean las principales que sin remedio necesitan para salvarse ya que los padres se molestan muy poco en mandar a la escuela ni enseñar en casa y ahí viene la ignorancia en muchas cosas buenas que deben de saber los niños, y que aprenderían si mandasen desde los siete u ocho años hasta comulgar aunque no sea mas porque bien sabe Dios que estoy deseando de enseñar y es una lástima que no aprovechen la grande ocasión que tienen y para evitar los males que la ignorancia de la juventud se originan y para más estimularlos a la escuela he trabajado mucho pero por más que me he molestado de una manera u otra ha sido inútil ya que sacan el pretexto de que no tiene para pagar.

Así aumentando el sueldo el Ayuntamiento y rebajando las retri-buciones al casero, se podría animar a esta gente para mandar más pronto, y además hay algunos que tienen dos o tres niños para la escuela y no mandan más que a uno a la vez, y para eso como antes he dicho un año o año y medio antes de la comunión y en ese tiempo es imposible dar la instrucción que es debida que buena falta les hace, lo que parece increíble en esta provincia que debía de estar mas lucida en la instrucción aunque ya comprendo que no es culpa del Ayun-tamiento, antes también no es este Barrio el que menos sueldo tiene, pero como achacan que no pueden pagar, es mi deseo aumentar

cuanto crea conveniente y en proporción a lo que aumenten, rebajar al casero para que no tenga pretexto.

Y no crea que solo deseo aspirar a más sueldo, aunque no es gran cosa lo que da esto, y gracias a las buenas condiciones que tiene cedidas el Sr. Don Manuel Arocena sino que deseo el bien del pueblo y mas lucida instrucción y al mismo tiempo aprovecho la ocasión ahora que no hay maestra en Cooerri; es decir creo que se dedica una mujer a enseñar lo poco que sabe pero como quiere que tiene que dedicarse a la labranza no es posible que instruya como es debido, que sin dedicarse a otras faenas dan bastante que hacer los niños en la Escuela, si se puede incluir la Barriada de Cooerri a esta Barriada que muchos de ellos tienen tan cerca o más que algunos de aquí y de ese modo se podría hacer algo más.

Dokumentu berean bailarako baserrien zerrenda eta gurasoek beren seme-alabak eskolara ez bidaltzeko ematen zituzten argudioak azaltzen dira:

Kortaberri, 3 haur, 7-10 urte bitartekoak, baina ez dituzte eskolara bidaltzen urruti dagoen aitzakiaz.

Aittube-ondo, haur bat 9 urtekoa baina ez dute bidaltzen, eskola urruti dagoelako.

Aittube, nagusiaren etxean 8-10 urte bitarteko bi haur, baina bakarra bidaltzen dute.

Aittube, Eusebiorenean, 7-10 urte bitarteko bi haur, baina bat joaten da.

Aittube, Juan Marirenean, 7-9 urte bitarteko bi haur, oraindik ez dute inor bidaltzen, baina bat bidaltzeko asmoa dute.

Etxagorri, bi haur dituzte, batek eskolarako adina izan arren ez dute bidaltzen.

Etxeberri, bi haur daude baina bakarra joaten da.

Otsolarre, 7-9 urte bitarteko bi haur, baina bakarra joaten da.

Epelde-goikoa, 7-9 urte bitarteko bi haur, baina bakarra joaten da eta bera urte erdian.

Epelde-azpikoa, Jose Marirenean, 7-9 urte bitarteko bi haur, baina bakarra joaten da eta bera gutxitan.

Epelde-azpikoa, Luisarenean, 8-10 urte bitarteko bi haur, baina bakarra joaten da eta noizbehinka.

Epelde-azpikoa, Bernardorenean, 9 urteko haur bat; urte betean joan zen eta ikusi zutenez aurreratua zegoela eta oraindik komunio ezin zuenez egin bidaltzeari utzi zioten.

Arritte, 7-10 urte bitarteko 3 haur, baina bakarra bidaltzen dute, txandakatuz.

Agirre-zabal, 7 urteko haur bat, baina ez da eskolara joaten.

Isueta, 9-10 urte bitarteko haur bat, baina ez dute bidaltzen gehiegi ikasiko ote duen kezka.

Urteagaberi, 7-9 urte bitarteko bi, baina ez dute bat bera ere bidaltzen, ez ordaintzearren. Etxean dotrina irakasten diote, komuniorako prestatzeko.

Agirreberri, 7-9 urte bitarteko bi haur daude, baina ez dira joaten aipatutako arrazoiaz.

Agirre-zahar, 9 urteko haur bat, baina ez da joaten eskolara, ez ordaintzearren.

Urteaga, 7-8 urte bitarteko bi haur, ez dituzte bidaltzen esaten dutenez, ikasteko denborarik ez dutelako. Gainera ezin dute ordaindu 7-8 urterekin hasi eta 10 urte pasa arte, orduan egiten baitute komunioa.

Zendoia, bi haur daude baina bakarra joaten da eta bera noizbehinka.

Benta, 9 urteko haur bat, eta eskolara joaten da.

Kostabe, 7-9 urte bitarteko bi haur, baina ez dituzte eskolara bidaltzen, ezin dutelako ordaindu; komunioa egin baino urte bat lehenago bidaliko dutela diote.

Susteta-erdikoa, 7-9 urte bitarteko 4 haur daude; zaharrena neguan bidaliko dutela diote, komulgatzeko adina hurbiltzen ari zaio eta ez diote etxean dotrinarik irakasten.

Udalak ez zuen onartu maisuaren eskakizuna eta honek Martittek eskola utzi egin zuen.

Que no habiendo accedido a los deseos que manifesté en mi petición de aumentar el sueldo sin duda por no creer conveniente el Excmo. Ayuntamiento, me veo en la necesidad de hacer otra petición y es que no siendo posible continuar en esta Escuela por falta de asistencia, y a instancias de algunos y por lo que yo mismo he visto, estoy dispuesto a bajar y poner una Escuela particular, y para eso deseo que el Excmo. Ayuntamiento, si estima conveniente, me algo de sueldo ó aunque sea me ceda el local para la escuela.

Yo por mi parte estoy dispuesto a trabajar cuanto pueda en la penosa tarea de la Instrucción y con siete años de practica en este barrio y antes otros tantos o más en mi pueblo, la experiencia me hace suponer soy capaz de desempeñar, aunque es bastante delicado ese cargo y aunque no tengo grandes estudios, pero con la ayuda de Dios y la buena voluntad que tengo procuraré cumplir lo mejor que puedo lo prometido, no dudando que El Excmo. Ayuntamiento hará cuanto esté de su parte en el bien del pueblo y mío y le agradeceré mucho se digne contestar si aprueba o no para saber a que atenerse.

Francisco Oianburu Azkoitira jaitsi zen eta lan ugari egin zuen, gaur arte iraun duen Jasokunde Kooperatibako idazkaria ere izan zen. Berarenak dira, 1927ko azaroaren 30ean, Batzarrean irakurritako bertsoak (testuaren hasieran zera esaten da: “Emen jarri ditugu bertzo berriak. Ezpadira ere oso egokiak barkatu gaziki badaude jarriak ez generalako gu bertzolariak”:

(8) Batzuek esaten dute ¿Gorde zertarako? Atzetik datozenak erraz kantatzeko.

Alperrik da bada nik ez orretarako, egin dezatela berak beren bu-ruentzako.

(10) Semaikoka pesetia egiten da, pesetaka berris pillia biltzen da. Denboras bendora gertuas juatenda, ta bear danerako ondo etorriko da.

(11) Azko irabazi ta gehiago kastatu, ez ba zeon buruak horrela engañatu.

Gerorako egin zagun ondo begiratu, beztela izango zeñek kontu artu.

(13) Azpeitian bai an ikusi degu, egia esateko inbidia eman digu. ¿Emen gutxiago izan bear al degu? Es batere zañetan odolik badegu.

(17) Alkarrekin ondo konpondu bear degu, Gure Jaungoikoak ala agintzen digu.

Agindutakoa guk egiten badegu, betiko zoriona berak emango digu.

A.M.D.G.

Zendoia baserrian egon zen ondorengo maisua Salustiano Etxezarreta izan zen. Honek ere irakaskuntzatik diru askorik ez zuen ko-bratzen eta bertako baserriarrentzat orduka lan egiten zuen (patata ateratzen ...). Salustiano Etxezarreta, beste maisu-maistra guztiak bezala, auzotarrek aukeratutako maisua zen. Martitten hilabete batzuk pasa ondoren, honek ere, Udalari diru laguntza eskatu zion:

Salustiano Echezarreta, soltero de veintiséis años de edad natu-ral y vecino de Ezquioga a S.S. saluda y respetuosamente expone:

Que enterado de la vacante de maestro existente de enseñanza primaria en el barrio de los Santos. Mártires de Azcoitia solicitado por una Comisión de vecinos del citado barrio, estoy desempeñan-do a modo de prueba el cargo de maestro de Mártires desde el 12 de Septiembre último y siendo conformes todos los vecinos en que se maestro efectivo de dicha barriada y arreglo al reparto que a gusto de ellos les cobraré de honorario, mensualmente y creyéndome con aptitud suficiente para desempeñar dicho cargo.

A S.S. suplica se digne nombrarme maestro de la barrida de los Santos Mártires con la asignación quede parte del Ayuntamiento de su cargo han venido disfrutando quienes han regentado dicha escuela.
Azcoitia 5 de octubre de 1927.

1927an, Zendoiako maisuak 225 pezetako laguntza jaso arren, 100 pezetako igoera eskatu zion Udalari, esanez 34 ikasle zituela eta gurasoek, ikasle bakoitzeko eta hilean, 2 pezeta ordaintzen zutela; eskaera onartua izan zen. 1929an, Aldundiko Ikuskariak eginiko txostenaren arabera, eskolara 40 neska-mutil joaten ziren; urte horretan Udalaren ekarpena 225 pezetakoa izan zen. 1932an, Aldundiko Ikuskariak zera zioen eskola honetaz:

La instrucción primaria es bastante buena dentro de lo rudimentaria que se da, pues el que actúa de maestro, no parece poseer una instrucción esmerada. Se dice esto porque en los escritos vistos en el tablero escritos en castellano por el mismo maestro había bastantes faltas de ortografía. La enseñanza se da en vascuence, con libro en castellano.

Ikuskariak adierazten zuen bere txostenean diruz lagundu behar zitzaiola eskola honi. Ordutegia, 9etatik 11½etara eta 1½etatik 4etara izaten zela eta klasea euskaraz ematen zutela. Gehien erabiltzen ziren liburuak, *Jesusekoa* eta *Catona* ziren; gaztelerako Dotrina ere erabiltzen zen. Eskolari 8 urterekin ekiten zitzaion, *komunio-txikia* egiterakoan, eta 12 urterekin laga egiten zen, *komunio-handia* egin ondoren. Neskak eta mutilak batera egoten ziren. Heziketari dagokionez, garaiko pedagogiaren ildotik, azpimarratu behar da zigor fisikoa sarri erabiltzen zela. Maisua herrena zen eta gogor fama zeukan, “honekin berko ikixi”. Zigortzeko, “belauniko eta artale gainean” jartzen zituen ikasleak. Maisu honek, 1934ko azaroaren 5ean, Udalera bidalitako idatzi batean, zera zioen: irakaskuntzan ez zuela behar adina dirurik irabazten, eta laguntzarik jaso ezean lana utzi beharrean aurkituko zela. Aipatu beharrekoa da eskola ematetik aparte hau ere abarketak egiten ere aritzen zela:

Después de pasar siete años en serbicio (sic) de enseñanza quiero manifestar que estoy sin trabajo, (...) para coser plantillas de alpargatas, hasta el año 1933 traía de los talleres de la calle, y luego, empecé a mi cuenta hacer y a vender yo mismo, para ver si sacaba algo, y viendo que no hago nada más que ganas cincuenta céntimos diarias, de modo que el Ayuntamiento me subvenciona con 325

pesetas anuales y la Diputación con otros 350; y cada alumno con 2 ptas. mensuales, entre todo viendo que me queda un jornal reducido, le ruego aber (sic) por favor me aumenta la subvención aunque sea con cien pesetas al año.

Udalak erantzun zion esanez bere egoera ekonomikoa eskasa zela eta, oraingoz, ez ziola diru laguntza gehituko. 1934an eskola honetako maisu titular azaltzen da Benigno Arrieta Juaristi, *Don Benino Ixurkoa*, eta ondorengo urtean Ignacio Telletxea. Eskolaren titularitatea bi apaiz hauen izenean egon arren Salustianok jarraitzen zuen eskola ematen. 1936ko gerra etorri zenean Salustiano Etxezarreta Martittek eskolatik bidali egin zuten, abertzaleen aldeko jarrera izateagatik.

1.2. Mendizabal baserriko eskola



Mendizabal baserria

Mendizabal baserrian egon zen eskolaren berri, Jose Ignacio Aranak ematen du, berak idatzi zuen *egunarian* (egunerokoan). Patxi Altunaren lanari esker argitaratu den *Aita Aranaren Egunkarian*, igande-eskolei buruz azalpen interesgarriak ematen ditu, baita baserri honetan egon zen igande-eskolari buruzkoak ere. Izenak esaten duen bezala, eskola igandeetan izaten zen. Ondorengo testua Patxi Altunak Aranaren *egunariatik* ateratakoa da (Altuna, P., 2000):

“Martiriak” deritzan tokian, Loiolatik ordubate pasa, ermita ederra dago, Zeledonio eta Emeterio santuei eskainia. Mendizabal deritzan baserria 200 metro goraxeago dago, Loiolan aspaldiko ohitura zuten gazteek, “kanpo-eguna” zioten ibilaldi pasa, Martirietara joatea. “Dotrina eta Igande eskola” irakurtzen dugu 1885eko martxoaren 8an. San Jose eguna hurbil da. Bezperan egiten dira zenbait prestakuntza: “Mendizabalera Anaia Zabalarekin. San Joseren iduri bedeintzaker. “Igande-eskola ganbaran ipintzea. San Joseren iduria ez ezik igande-eskola ere ganbaran.(...) Clararen igande-eskolan Mendizabalen hitzalditxo. Clara Etxaniz de Oliva, gero urte askotan Aranaren oso lagun izango dena, bai lekaime sartuta gero ere.

Igandetako-eskolak, eskolarik ez zegoen tokian kristau-heziketa bultzatzeko era bat zen. Jesuitek, Aita Aranaren gidaritzapean, Martitte eta Kuku-Herri bailaran ireki zituzten igandeko-eskolak.

1.3. Amunsategi (Amustei) baserriko eskola



Amustei baserria

Baserri horretako eskolan hiru ahizpek irakasten zuten (Isabel Zubizarreta, Maria eta beste batek), beraien artean txandatuz. Baserri honetatik gertu bizi zirenak 5 urterekin hasten ziren eskolara, eta urrunago bizi zirenak sei urterekin. Nahiz eta adin desberdina izan, denak batera egoten ziren, zaharragoak atzean eta gaztetxoagoak aurrean. Ez zuten bakarka edo binakako mahairik, mahai handi batzuk baizik. Bi liburu erabiltzen zituzten gehienetan: *Jesusekoa* eta *Catona* (irakurketa liburua). Eskolan euskaraz mintzatzen zen, inork ez baitzekien gazteleraz. Heziketaren oinarria dotrina zen, eta apaiza joaten zen dotrina galdetzera.


Eskola honetako ordutegia goizez 9etatik 12etara eta arratsaldean, 2etatik 4etara izaten zen. Ikasleak, baserrian lana zegoenean, eta hau sarritan izaten zen, ez ziren joaten. Eskola 6 erreal ordaintzen zen. Zigorrei buruz, eskola honetan 3 motatako hurritz egurrak egoten ziren, ikasle bakoitzaren adinari egokituak. Komunio handia egindakoan, 12 urte betetzen zituztenean, eta dirua izanez gero, kaleko eskoletara bidaltzen zituzten; baina gehienetan mutilak baserrian laguntzen gelditzen ziren, eta neskak neskame joaten ziren.

*1.4. Martitteko apaiz-etxe*ko eskola



Martitteko baseliza eta eskola

Bailara honetan eskola berria egiteko asmoak mende hasierakoak dira. Aldundiak eskola berria egiteko proiektua egin ondoren, Udalak 1925eko azaroaren 26an onartu zuen proposamena, baina arrazoi ekonomikoak medio proiektu hau ez zen aurrera eraman.



Martitteen eskolen proiektua

1936an, eskola Zendoia baserritik apaiz-etxera pasa zen, ermitari itsatsirik zegoen gela batera. Irakaslea eta heziketa ere aldatu egin ziren: beste auzoetan bezala, *Cara al Sol* eta bandera gorri-horia nagusitu ziren Martitte aldean. Gerra garaian, klasean zeuden bitartean, ikasleek beldurrez entzuten omen zuten hegazkinen burrunba; Elgetako fronte militarra zihozten, *Intxortara*.

Salustiano maisua bidali ondoren, herriko agintariek maistra berria jarri zuten. Encarna Aranbarri Etxaniz, 17 urteko azkoitiar gazteak, eskola honetarako plaza eskatu eta lortu zuen —gaztea zelako maistra honek gurasoen baimena ere azaldu behar izan zuen—. Eskolak ematen hasi zenean, Gipuzkoako Aldundiari laguntza eskatu zion, esanez *Martitteen* eskolari gerra ondoren diru-laguntzak moztu egin zitzaizkiola. Aldundiko informeeetan nabarmen azaltzen da Salustiano maisuaren jarrera ez zutelako oso gogoko frankistek: “... *que por su conducta política anterior al Glorioso Movimiento Salvador de España, fue destituido.*” Encarna Aranbarri Zendoian eta Txibilter (Gibraltar) baserrian

apopilo egon zen, eta bide batez bertako seme-alabeei ere zerbait erakusten zien. Maistra honek Martittekoko eskolan urtebete iraun zuen.

1938an, Encarna Aranbarriren ondoren Nieves Zubizarreta, 19 urteko auzoko gaztea, jarri zuten maistra. Honen ondoren bere ahizpak, Maria eta Julia, egon ziren. Maistra hauek eskola titulu gabeak izanik, oinarrizko eragiketak erakusten zituzten. Institutuzioetatik jasozten zuten diru laguntza murrizta zen. Ondorengo urteetan Aldundiaren laguntzak mantendu egin ziren:

47. TAULA: *Aldundiaren laguntzak, Martittekoko eskolari*

Urtea	Aldundiaren laguntza	Maisu-maistrak
1936	350 pezeta	Salustiano Etxezarreta
1937	350 pezeta	Encarnacion Aranbarri Etxaniz
1949, 1943	400-350 pezeta	Nieves Zubizarreta
1944, 1945	350 pezeta	Maria Zubizarreta Azkoitia
1946,1947,1948, 1949	350 pezeta	Julia Zubizarreta Azkoitia

1945ean, Julia Zubizarreta maistra zelarik, ikasle hauek joaten ziren Martittekoko eskolara.

48. TAULA: *Martittekoko eskolara joaten ziren ikasleak, 1945ean*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen-abizenak eta adina
Korta	Jose M ^a (11), Ignacio (9) eta Agustin Soraluze Bastarrika(8)
Montte	Balentin (12), Juanita (9) eta Rosario Sudupe Epelde
Epelde	Maria Teresa Zubizarreta Alkorta (8)
Epelde	Jesus Epelde Soraluze (11)
Epelde	Manuela Epelde Sudupe (10)
Epelde	Pedro Garmendia Alkorta (10)
Arritte	Maria Pilar Aranbarri Balentziaga (12)
Arritte	Maria Mendiola Begiristain (11)
Irizarri	Martin Osinalde Arrizabalaga (8)

Urteaga-berri	Jose (10), Manuela (12) eta Maria Gabilondo Iturralde (8)
Gibraltar	Ramon (12) eta Josefina Iturralde Arrieta (10)
Urteagatxo	Ramon (10) eta Clarita Larrañaga
Amunsategi	Javier (11) eta Angeles Aramendi Aranbarri (9)
Zendoia	Rafael Zubizarreta Soraluze (7)
Kortaberri	Jose M ^a (10) eta Jesusa Etxaniz Aramendi (9)

49. TAULA: *Martitteko eskolara joaten ziren ikasleen adina, 1945ean*

Ikasleen adina (urteak)	7	8	9	10	11	12	13	
Ikasle kopurua	2	5	3	5	5	4	1	Denera 25

Eskola honetan aritu ziren, baita: D. Benigno apaiza, *Izkurrenekue*, bere iloba D. Jesus Maria, eta D. Jesus apaiza. Apaiz hauek neguan hiru hilabetetan bailarako mutil gazteei gau-eskola ematen zieten, (12 urtetik gorakoentzat, oinarrizko lau erregela, irakurketa eta idazketa).

Erregimen berriak bere ideologia eta pentsamoldea ezartzeari zorrotz ekin zion eta urte luzez, euskara eta abertzaletasunaren aurkako gurutzadari ekin zion. Eskolako zigorreri buruz esan behar da Martitteko auzo-eskola partikular honetan *eraztuna* erabiltzen zela, baina ez bakarrik euskara erabiltzen zuena zigortzeko, jarrera bihurria izaten zutenei neurria hartzeko ere bai. Berriketan eta jolasean zegoenari pasatzen zioten ikasleek *eraztuna*, horrela beraien artean kontrola ezarri. Klasea bukatzen zenean *eraztuna* zuen ikaslea zigortuta lagatzen zuen maistrak, jolas denborarik gabe. Eraztuna ez ezik, *medaila* ere erabiltzen zen zigortzeko; honek, alde batetik Ama Birjina zuen eta bestetik, Jesusen Bihotza. Eskola aurrealdean, Udalak jarritako euskarri batean, bandera gorri-horia egoten zen zintzilikatuta. Eskolako altzarietako dagokionez mahai handiak egoten ziren, eta hauek azpian, bi aldeetatik, kajoiak izaten zituzten, bakoitzak bere trasteak jasotzeko.

Gerra ondoren eskolan dena gazteleraz ematen hasi ziren. Dotrina erdaraz ezartzen saiatu ziren, baina ez zuen arrakastarik izan, auzotarrek ez baitzuten ulertzen. 1949ko abuztuaren 5ean, Julia Zubizarretak eskola utzi eta Azpeitira joan zen. Ondoren etorri ziren maistra nazionalak. Urte hauetan baserrietan lan ugari eta janari gutxi zegoen:

Ikasleok eskolara bazkaria eramaten genuen: arrautza batekin eginiko tortilla eta ogi apurra pixkak nahastuta, *añaditzeko*, eta *gaimien* ontza erdi bat txokolate baguenen, gustura. Tortilla hotza jaten genuen, janaria berotzeko ere ez genuen ezer eta honekin pasatzen genuen eguna. Kanpoko bankuan janariren bat lagatzen baguenen bertako txerriak jaten zuen.

(Eladia Garmendia)



Martitako eskolako Julia Zubizarretaren ikasleak, 1949an

Ezkerretik hasita Jabier Aramendi, *Amustegikoa*; Ramon Iturralde, *Txibilterrekoa*; Joxe Gabilondo. *Urtia-berriko* Martin Osinalde *Ixerrikoa*; Ramon Larrañaga *Urtiatxokoa*; Rafael Zubizarreta, *Zendoiakoa*, eta Julia maistra. Beheko iladan, Juanita Sudupe, *Montekoa*; Maria Teresa Azkoitia *Urtiakoa*; Teresa Zubizarreta *Epelde-goikoa*; Antonia Zubizarreta, *Zendoiakoa*; Rosario Sudupe *Monttekoa*; Maria Zubizarreta, *Epelde-goikoa*; Maria Gabilondo, *Urtiaberrikoa*; Ana Mari Larrañaga, *Urtiatxokoa*.

1.5. Martitteko Eskola Nazionala

Eskola honetara etorri zen lehen maistra nazionala, Maria Esther Arbizu nafarra izan zen, 1949an. Maistra hau Zendoia baserrian egoten zen apopilo. Herria urruti zegoenez, bere irtenbide eta ibilbide bakarra eskolatik baserrira eta baserritik eskolara joatea zen, eta horrela esaten omen zuten: “Hau komeria: ohetik jaiki eta eskolara, eta eskolatik ohera!”. Maria Estherren ondoren maistra hauek egon ziren:

1950ean Carmen Redondo Urzelai.

1951n, Manuela Arrizabalaga (epe motzerako eta alkateak proposatuta).

1951n, M. Jesús Arrizubieta, zaldibitarra eta euskalduna.

1956an, Catalina Llamazares, Valladolideko alaba.

1957an, M^a Socorro Villamar.

1960an, Julia Diez Arias eta M^a Teresa Lara Fernández.

1961n, Dolores Coello.

1954ko ekainaren 8an, horrela deskribatzen zuten Maria Jesus Arrizubieta Etxeberriak Martitteko eskola:

Mi escuela de Arrietamendi-Martires, se halla a una distancia del casco del pueblo de 5 kilómetros y a 4 kilómetros del punto más próximo de la carretera. Está unido al casco únicamente por camino carretil, muy difícil de transitar por la gran diferencia de altitud. Las condiciones higiénicas del local-escuela son sumamente deficientes, por su insuficiente capacidad e iluminación, mala ventilación y piso deteriorado. Las condiciones pedagógicas son también deficientes. No funciona Mutualidad, ni el Coto Escolar.

Estoy prestando mis servicios en esta escuela desde el 21 de marzo de 1951, o sea 3 años y tres meses. Hablo y escribo el vascuence.

1960an, eskola honetan egon zen M^a Teresa Lara Fernandez. Maistra honek horrela kontatzen ditu bere ibilerak:

1960ko abenduaren 6an hartu nuen postu hau. Bertan denbora gutxi iraun nuen, 1961eko ekainean, kurtsoa bukatutakoan, eskola utzi egin bainuen. Urte horretan Miramonteko Eskola Nazionalan, Montte baserrian, maistrarik ez zegoenez, Martitteko eskolara 40 bat ikasle joaten ziren.

Azkoitira iritsi nintzenez, Martitteko bidea egiten ari ziren eta lehen egunean D. Esteban Abarisketa apaizaren laguntzarekin igo nintzen eskolara. Honekin batera herriko maisu nazionala, Nanclares

Jauna zihoan, –honek Martittek eskolara azaldu nintzela berretsi egin behar baitzuen–. Mendizabal baserrian bizitzen egon nintzen, garai hartan oraindik baserri honetan garia ereiten zen.

1965ean eskola berria eraiki zen. Eraikin berrian egondako mais-tren artean honako hauek nabarmenduko ditugu:

1970ean, Asunción Muñoz Cid.

1975ean, Pili Poncel Sánchez eta Concepción Poncel Sánchez.
Maistra hauek izan ziren azkenak, 1977an itxi egin baitzen.



Martittek Eskola Nazional berria

1965ean, auzoko gazteentzat lokalen bat egitea proposatu zuen Esteban Abarisketa, *Martin-zaharreneko* apaizak. Bidea eta eskola berria eginak zeudenez, orain gazteentzat lokala prestatu beharra zegoen, eta horretarako leku egokia lehen eskola zaharra egondakoa zen; frontoia berritzeko diru laguntza ere eskatu zen. Bailarako bizitza pizten ari zen.

Martitteko frontoia



Martitteko maisu-maistra nazional gehienek eskola honetan gau-
eskola eman zuten, garai hartan kaleko zenbait lantegitan, lanean
hasteko eskolatze-agiria eskatzen baitzuten. Martirietako Eskola Na-
zionala 1977an itxi ondoren, bertako ikasleak herriguneko eskoletara
bideratu ziren.

1.6. Miramonte (Montte) baserriko eskola

Montte baserriko eskola Martitte goialdeko haurrak (Epelde,
Korta, Otsolarre... baserrietako seme-alabak) eskolatzeko ireki zen.



Montte baserria

Baserri honetako eskolan, hasieran, maistra titulu-gabeak eta herrikoak egon ziren, gero tituludunak. *Korta* baserriko Arantxa Soralezek dioenez, titulu gabeen artean *Maitxo* maistra azkoitiarra aipa genezake, eskola utzi eta gero kaleko *Alameda* tabernan aritutakoa. 1950ean Josefa Egiguren Torres egon zen Montteko eskolan eta baserri honetatik Igaran (*Ian*) baserrira pasa zen. Maistra honi hezkuntza arduradunek eskola ematea debekatu egin zioten legez kanpo zegoe-lako; 1950eko otsailaren 14an, *escuela clandestina* eta *curandero de la enseñanza* deitu zion Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskariak.

1.7. Miramonte (Montte) baserriko eskola nazionala

1955ean, Udalak erabaki zuen Urkidi-goikoan zegoen eskola nazionala *Monterra* pasatzea, bere izen ofiziala Escuela mixta de Arrieta-mendi nº 2 (Miramonte) zelarik. Eskola horretan egondako maisu-maistren artean hauek aipatuko ditugu:

1957an, M^a Jesús Madoz, zaldibitarra, eta M^a Pilar Caballer.

1958an, Julián Blázquez eta Covadonga Fernández.

1960an, M^a Mariezkurrena Mondegia.

1961ean, M^a Concepción Heras, Rosario Zabaleta eta Angela Gonzalez.

Urte hauetan bandera nazionala orain Jesusen Bihotza dagoen lekuan egoten zen. Monterra etortzen ziren maistrek denbora gutxi irauten zuten, gehienek alde egiten zuten, herritik oso urruti zegoe-lako. Orduko maistren iritziz, zerrendetan zegoen txarrena omen zen. Monteko Elena Sudupek dioenez, Montteko eskolak, alboan komuna zuen ikasleentzako, eta baita maistrarentzako gela txiki bat ere. Eskolan arbel handi bat eta mapak zeuden, ikasleen mahaiak bikoak ziren. Maistrak oinarrizko edukiak erakusten zituen: kaligrafia, oinarrizko lau eragiketak ...

1.8. Arritte-Muno baserriko eskola

1950ean, baserri honetan eskola egon zen, behe solairuko gelan *Arritte* aldera. Bertako maistra, Maria Narbaiza Uranga, D. Quintin Iturralde apaizaren ekimenez jarri zuten, beharrezkoa ikusten baitzuen maistra euskaldun bat auzoan, gazteei dotrina erakusteko. Gobernu



Arrite-Muno baserria

Zibilak eta hezkuntza agintariek eskola hau itxi nahi izan zuten, legez kanpoko eskola zelako. Bertako maistrari klaseak ematea debekatu egin zioten.

1.9. Korta baserriko eskola



Korta baserria

1940tik 1950era bitartean Korta baserrian eskola egon zen. Hasieran maistra beso-mantxu bat aritu omen zen, Burgoskoa, eta honek eskola gazteleraz ematen zuen. Hau etorri zenean gela txukun bat prestatu zioten baserrikoek. Maistra honek gau-eskola ere ematen zuen Igaran (Ian) eta Montte baserrian. Ondoren Manolita Arrizabalaga, *Biurrinekoa*, ere egon zen eskola ematen, Zuzula bailarako eskolara joan aurretik. Ikasleek *Cartillak* erabiltzen zituzten eta bertako idazmahaiak bikoak ziren, Udalak emandakoak. Manolita Arrizabalagak gau-eskolak ere eman zituen.

1.10.- Igaran (Ian) baserriko eskola



Igaran baserria

Josefa Egiguren, Montten egoten zen maistra, Iango baserri honetara ere etortzen zen eskolan irakastera. 1950ean Gobernadore Zibilak eskola hau eta Monttekoa ixteko eskatu zuen, *escuelas clandestinas* zirela argudiatuz.

2. Kuku-Herri (Astarbe) bailara



Astarbe bailara, Larrume-handitik

2.1. Lizartza baserriko eskola

Ez dakigu noiz ireki zen lehenengo aldiz baserri honetako eskola, baina Udal dokumentuetan agertzen denez 1895ean bertako maisua hil ondoren eskola itxi egin zen.

2.2. Astarbe-Etxeberri (Astarbe-berri) baserriko eskola

1901eko martxoaren 3an Antonia Etxezarreta Arruabarrena horrela zuzendu zitzaion Azkoitiko Udalari:

Antonia Echezarreta Arruabarrena, casada y del caserío Astarbe eche-berri, jurisdicción de esta villa, a V. S: con el debido respeto expone: Que en la actualidad carece la barriada de maestra de enseñanza de primeras letras y teniendo la que suscribe el beneplácito verbal de todos los del barrio, A. V. S. suplica autorice a la recurrente para dar la enseñanza a los niños de referido barrio, mediante la gratificación que al efecto tiene señalada esa ilustre corporación.

1902an Azkoitiko Udalak galdeketa bat egin zuen gurasoen artean, ea egokia ote zen bertan ematen zen heziketa. Astarbeko eskola 1906an itxi egin zen, behar adina ikaslerik ez zuelako. Hilabete geroxeago, berriro ireki egin zuten, *Sagastienekoan*, auzokoak horrela eskatuta. 1922an, Antonia Etxezarreta Arruabarrena hil ondoren, berriro eskola itxi egin zen.



Astarbe-berri baserria

30 urte beranduago, baserri honetan ere egon ziren auzora etorri ziren maistra nazionalak; garai hartan maisu-maistra batzuk lotara *Arritte* baserrira ere joaten ziren.

2.3. Astarbeko Etxe-txikiko eskola

Mende hasieran, oraindik bide egokirik ez zegoenez, ume asko eskolara joan gabe gelditzen zen. Bide berriak egitea baserritarren kargu egoten zen, eta hau zama astunegia zen. Baina arazoari irtenbidea eman beharra zegoen, eta ahal zen lekuan auzo-eskola partikularrak irekitzen ziren. 1910etik aurrera Astarbeko *Etxe-txiki* deitzen dioten

bordan ere egon zen bailarako eskola (etxetxo honen aztarnak Arrite eta Astarbe-goikoa baserrien tartean, orain intxaurren handi bat erorita dagoen lekuan, ikus daitezke). Astarbeko *Etxe-txiki* eskolan maisu *Hanka-motza* egon zen, maisu hau bizkaitarra omen zen.

Astarbeko eskolan egon zen Rafael Bildosola Gorrotxategi. Honek, 1928an, Udalarari idatzi zion, esanez bailarako 26 neska-mutiletatik, eskolara 19 etortzen zirela, gehienak noizbehinka. Azpimarratzen zuen hauekin ezin zela lanik egin, jarraipenik ez zutelako. Diru sarrera ere eskasa zenez, maisuak 1928ko urtarrilaren 20an Udalarari bidalitako idatzian esaten zuen erabakiren bat hartu beharra zegoela, bestela eskola itxi egin beharko zuela. Hara joaten ziren 17 ikasleek, bakoitzak 3,5 pezeta ordaintzen zuen hilean, beraz, guztira 59,5 pezeta. Kopuru honi Udalak ematen zizkion hileko 25 pezeta gehitu behar zaio, guztira 84,5 pezeta. Eskolaren egoera ona eta ikasleen aurrerapenak ikusiz, Udalak 300 pezetako diru laguntza eman zion, baina azkenean eskola itxi egin zen, behar adina ikasle joaten ez zelako. 1929ko otsailaren 19an eskola berriro ireki zen, Josefa Casteig maistra egon zelarik.

2.4. Lete baserriko eskola

1922an, Antonia Etxezarreta Arruabarrena hil ondoren, Santiago Aranbarririk eta beste zenbait auzotarrek Udalarari eskatu zioten Leten eskola jartzeko eta Maria Josefa Soraluzeri 100 pezetako diru-laguntza ematea. Udalak laguntza ematea erabaki zuen. Maistra honen ondoren, beste maisu bat ere egon omen zen (baserri hau mugan egon arren, Azpeitiko barrutian dago).



Lete baserria

Gerra ondoren, Lete eta inguruko baserrietako haurrak Loiolako *Errementeri* baserrira, Maria maistrarena joaten ziren.



Lete eta Letetxo baserriak

2.5. Mendizabal-Astarbe baserriko eskola

Gerra ondoren *Pepita* izeneko maistra egon zen baserri honetan. Mandioan ematen zuen eskola. Baserri honetatik Izarre baserrira joan zen.



*Mendizabal-Astarbe
baserria*

2.6. *Agarre-Portillos (Agirre-Portillos) baserriko eskola*



Agarre-Portillos baserria

XIX. mende bukaerakoak dira baserri honetako eskolaren aurreneko aipamenak. 1895ean, auzotarrek eskola irekitzeko baimena eskatu zioten Udalari; eskakizunak hasieran ez zuen erantzun onik jaso:

“... acordó contestarles que son muy pocos los niños de esa barriada y que los que habitan en la parte alta pueden concurrir a la escuela de Mártires y los de abajo a la calle.”

Egun batzuk geroxeago, Udalak erabaki zuen eskolari laguntza ematea. Zenbat iraun zuen eskolak, ez dakigu; ondorengo berriak 1930eko hamarkadakoak dira:

Ikasle gehienak 7 urte arte egoten ziren, *komunio txikia* egin arte, eta gero lanera, hots, baserriko lanak egitera. *Komunio handia* 11 urterekin egiten zen, baina baserritar gutxi egoten ziren eskolan 11 urte bete arte. Eskolan dotrina zen irakurgai garrantzitsuena. (Luis Epelde)

1935ean Aldundiko Ikuskariak eginiko bisitan Justa Iturtzaeta azaltzen da eskolako arduradun. Maistra hau, eskola honetara pasa

aurretik Azpeitiko Odria auzoan egon zen. Honi buruz Aldundiko Ikuskariak idatzi zuen txostenak zera zioen:

Maistra honek eskakizuna azaroan bidali du, beraz berandu xamar bisita egiteko. Oso berandu hasi da martxan diru laguntza jasotzeko. Ezagutzen dutenek esaten dute, hezkuntzara eskaintzen den gela, Errekaldekoa (Zestoa) baino egoera hobean dagoela. Errekaldekoari diru laguntza ukatu zaio gelaren egoera aldatzen ez duen bitartean.

Urte horretan, Azkoitiko Udalak Justa Iturzaetari 200 pezetako diru-laguntza ematea erabaki zuen, baldin eta Azpeitikoak 100 pezeta ematen bazituen. Eskola horretara Azkoitiko 27 eta Azpeitiko 13 neska-mutiko joaten ziren. Justa Iturzaeta, eskola honetara etorri aurretik, hamalau urtez Azpeitiko Odria auzoan aritutakoa zen. 1936ko apirilaren 20an, Udalak egindako eskolen zerrendan Justa Iturzaeta azaltzen da eskolako arduradun eta bere ikasle kopurua, 40koa; eskolaren egoeraz esaten da erdi mailakoa dela. Gerra etorri zenean maistra *nazionalista* bezala salatua izan zen eta eskolatik kanporatua. Agirre-Portilloseko familiari ere iritsi zitzaion zigorra eta eskola edukitzeagatik jasotzen zuten errenta ukatu zitzaion.

Gerra ondoren, 1936tik 1940ra, auzoko ikasleak Martittek eskolara joan ziren. 1941ean, berriro ere, Agirre-Portilloren eskola jarri zuten. Aurreneko maistrak Victoria Plazaola Bastarrika eta bere ahizpa Teresa Plazaola (1941-1943) izan ziren. Bi ahizpa hauek Azkoitiko San Martin auzokoak ziren, eta Estefani emagin ezagunaren alabak (Bittori Plazaola eta Axun Plazaola). Maistra hauek Dotrina eta oinarrizko edukiak irakasten zituzten, letrak irakurtzeko *Cartilla* erabiltzen zuten. Maistra hauen formazioari buruz esan Jesus y Maria kolegioan, *Artxamendiko* eskolan, ikasitakoak zirela. Maistra hauek euskaldunak izan arren, eskola gazteleraz ematera behartuak izan ziren: euskara eskolan debekatua zegoen, euskarazko errezoak ere bai. Dotrina irakastera Loiolatik jesuitak etortzen ziren. Maistra gazte hauek eskolara oinez joaten ziren (eskola herritik 3 kilometrorra zegoen) eta bazkaria etxetik prestatuta eramaten zuten. Aldundiak diruz laguntzen zituen eta auzotarrek ere zerbait ordaintzen zuten.

50. TAULA: *Aldundiaren diru-laguntzak, Kuku-herriko eskolari 1940-1947*

Urtea	Aldundiaren laguntza	Maisu-maistrak
1940	400 pezeta	Victoria Plazaola Bastarrika
1942	400 pezeta	Maria Teresa Plazaola Bastarrika
1943, 1944	350 pezeta	Flora Alberdi Arbide
1946, 1947	400 pezeta; 350 pezeta	Maria Teresa Izagirre Epelde

1945eko azaroaren 25ean, Maria Teresa Izagirre maistrarekin egon ziren ikasleak hauek izan ziren.

51. TAULA: *Maria Teresa Izagirre maistrarekin egondako ikasleak*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen-abizenak eta adina
Agarre-Portillos	Maria (10), Antonio (11), F. Javier (12) eta Joaquin Lizarralde Azpiazu (8)
Larrume	Isabel (10), Teresa (8), Juana (7) eta Pilar Larrañaga Iparragirre (5)
Arrieta	M ^a Cruz (10) eta Luis Epelde Elorza (6)
Mendizabal	Jose Antonio Pastoriza Gacho (8) eta Jose M ^a Larrañaga Larrañaga (5)
Astarbe	Milagros Olabe Gurrutxaga (8); Prudencio (10) eta Jose Larrañaga (11)
Mendizabal	Luis (8), Ignacio (6) eta M ^a Pilar Etxaniz Larrañaga (5)
Letetxo	Josefa Larrañaga Gabilondo (10)
Mandiolatza	Jose (11), Manuel (10) eta Juan Urbietta Iraeta.

52. TAULA: *Maria Teresa Izagirre maistrarekin egondako ikasleen adina*

Ikasleen adina	5	6	7	8	9	10	11	12	Denera
Ikasle kopurua	3	2	1	4	-	5	3	1	19



Maria Teresa Plazaola, Agarre-Portilloseko maistra ikasleekin

Garai hartan baserrian lan ugari egin behar izaten zen, eta eskolara joateko denbora gutxi egoten zen. Behin koxkortu ondoren, haurrak itu-lanean, egur mozten... helduen antzera hasten ziren. Eta libre zeudenean *eskolataien* jostatzea nahiago izaten zuten eskolako lanak egitea baino. 1947an Agarre-Portilloseko eskola Larrume-handira pasa zen eta 1949an, eskola berriro Agarre-Portillosera.

2.7. Izagirre-Astarbe (Izarre) baserriko eskola

Baserri honetan, gerra ondoren, eskola egon zen. Bertako maistra euskalduna zen, baina zerbait irakasten zuen gazteleraz (senarra portugesa omen zuen). Baserriaren lehenengo solairuan egon zen eskola, eta klasea mahai handi baten inguruan ematen omen zuen. Eskolak urte gutxi iraun zuen.



Izagirre-Astarbe (Izarre) baserria

2.8.-Larrume-handi baserriko eskola

Agarre-Portillos baserritik Larrume-handira pasa zen eskola, hemen ere familia handia baitzegoen. Maria Teresa Izagirre Epelde egon zen maistra 1948-1949 bitartean eta urte horretan, ezkondu ondoren, eskola laga zuen. Ondoren Maria Lurdes Zubizarreta Artetxe egon zen. Maistra hauei Aldundiak 350 pezetako laguntza ematen zien. Urte luzez bailara horretara Loiola aldeko baserrietako haurrak etorri izan ziren (*Mandiolatza...*). Jesuitak ere etortzen ziren, bereziki dotri-na erakustera, katekesia egitera, eta maistrei laguntzera.



*Larrume-handi
baserria*

2.9. Astarbe-goikoa baserriko eskola



Astarbe-goikoa baserria

Baserrri honetan, 1949an, jarri zuten bailarako aurreneko Eskola Nazionala eta bertara joan zen maistra Josefa Nieto Urizar izan zen. 1949ko otsailaren 10ean, Udal Komisioak eskola hau onartu egin zuen.

2.10. Astarpe-azpikoa baserriko eskola nazionala

Astarpe-azpikoa baserriko eskola, Pedro Unanueren etxean, *Errezilenean*, egon zen, mandio aldean kokatua. Garai hartan, Pedro Unanuek eskola jartzeko baimena Udalari eskatu omen zion, eta honek erantzun berak gela prestatzen bazuen, baimena emango ziola. Horrela hasi zen martxan baserrri honetako eskola. Ondoren bailaran eliza irekitzen saiatu omen zen, baina hau ez zegoen bere esku.



*Astarbe-azpikoa baserri zaharra, eskola eskuinean zegoen,
baranda dagoen lekuan*

Eskola honetan aritu zen 1951n, Maria de la Vega San Idelfonso Mijancos (*Begutxi*). Maistra honek auzotarren artean harrena ona izan zuen. Euskaraz pixka bat egiten zuen, baina eskola gaztelaraz ematen zuen. 1954an, M^a Patrocinio Gezala egon zen. Baserri honetako eskolaren egoerari buruz zera zioen, 1955eko urriaren 5ean, M^a Patrocinio Gezalak:

La escuela del barrio de Larrume, que actualmente regento, está completamente llena de goteras y los días de lluvia es casi imposible permanecer en ella, pues cae el agua en varios sitios, encontrándose la escuela encharcada.

Udalari egoera hau konpontzeko idatzi ondoren, pentsa beharko da zerbait hobetuko zela. Baserri hauetara jesuita gazteak etortzen ziren dotrina irakastera, astero hiru jesuita gazte etortzen ziren. Ondorengo urteetan maistra hauek egon ziren:

1956an, Josefa Centeno Barrio.

1959an, Encarnación Salinas.

1960an, M^a Teresa Herrera Cubillos.

1961ean M^a Ángeles Maeztu Lasa.

Eskola honetan egon zen Milagros Manterola auzotar gaztea ere, Izarre baserrikoa, Josefa Centeno ordezkatzten hau oposaketak prestatzen aritu zenean.



Astarbe-azpikoa baserria

2.11. Astarbeko Eskola Nazional berria

Bailara honetako eskola nazional berria 1964an inauguratu zuten. Aldundiaren laguntza 64.945,17 pezetakoa izan zen eta bi zatitan ordaindu zuten (1962an, 35.000 pezeta, lanak egiten ari zirela, eta 29.945,17 lanak bukatu zirenean, likidazio gisa, 1963ko maiatzean). Eskolarekin batera ere inauguratu ziren, ofizialki, frontoia eta auzorako bidea.

Eskola nazionala aurretik zegoenez, Ikuskaritzak erabaki zuten ez zuela altzaririk emango. Azkoitiko Udalak bere kargu hartu zuten altzari berrien eta behar ziren oinarrizko material pedagogikoen ekarpena:

5 mesas planas de dos plazas, para niños de siete a nueve años, a 77 ptas. unidad.

5 mesas planas de dos plazas, para niños de nueve a once años, a 801 ptas. unidad.

5 mesas planas de dos plazas, para niños de once a trece años, a 827 ptas. unidad.

1 mesa para profesor de 3 cajones, a 766 ptas.

1 sillón para profesor, a 292ptas.

1 armario librería construido en madera y hierro 170x35x90, a 940 ptas.

1 silla de visita, a 235 ptas.

TOTAL 14.248 ptas.

Material de Editorial escuela española S.A., 657 ptas.
Material de Hijos de Santiago Rodríguez, 470 ptas.
Material de Dalmau Carles Pla, S.A., 673,60 ptas.
Material de Editorial Magisterio Español S.A., 2.182,50 ptas.
TOTAL 4.073,80 ptas.

Maistra hauek ere egon ziren Astarbeko Eskola Nazional berrian:

1966-71 bitartean, Felisa Novoa Fernandez.
1972an, Horminda Baños Baños.
1972-74 bitartean, Begoña Diaz.
1974-75 bitartean, M^a Carmen Otero Villoria.



Astarbeko Eskola Nazional berria

1972tik 1974ra bitartean Begoña Diaz Zabala egon zen, 21 urteko maistra gaztea. Urte hauek berrikuntza pedagogiko eta erreformaren urteak izan arren erreforma hitza ere handiegia egiten zitzairen baserri hauetako ikasleei. Oinarrizko edukiak eta gaztelera zerbait ikastea nahikoa zen, eta eskolan jarraitu nahi zuenak kaleko eskolara joan behar izaten zuen. 1975ean 5 ikaslerekin gelditu zen eskola, handik gutxira itxi beharra izan zuen. Ofizialki, eskola hau 1977an itxi zen eta Estatuko Aldizkari Ofizialak martxoaren 22an eman zuen honen berri.

*Astarbeko Eskola Nazionala
eta auzoko frontoia*



3. Aginaga bailara

Auzo honetan XVI. mendean, orain eliza dagoen lekuan, ermitatxo bat zegoen. Gero, XVIII. mende hasieran, Aita Kaputxinoen Lagundiaren eliza izatera iritsi zena. Handik hurbil fraide-etxe bat ere eraiki zen eta fraideak alde egitean Zumarragako elizaren menpe gelditu zen bailarako eliza.



Aginaga


3.1. Aginagako Martin Deunaren elizako eskola

Aginagako eskola, elizaren alboan zegoen. Hemengo eskolaren aurreneko berriak 1890ekoak ditugu, eta aurkitutako dokumentuetan adierazten da Jose Francisco Sangronizek Azkoitiko Udalarik laguntza eskatu ziola eta honek 100 pezetako diru-laguntza eman. 1917an, Estanislao Elorza jauna egon zen eta honek eskolarako materiala erosteko, Azkoitiko Udalarik diru-laguntza eskatu zion. Erantzunik ez dugunez aurkitu eskakizun honetaz, pentsatu beharko da zerbait jaso zuela, eta ez urte horretan bakarrik, baita ondorengoetan ere. 1923tik aurrera Aldundia diru-laguntzak banatzen hasi zen, eta hau berri ona izan zen eskola txikientzat.



Aginagako eskola, aurreneko solairuan zegoen, ezker aldean eskailerak igota

1927ko uztailaren 17an, Jose Luis Arrazola, bertako apaiz eta maisuak, Aldundiari diru laguntza eskatu zion eta, 1928tik aurrera, urteko 500 pezetako laguntza jaso zuen. 1929an eginiko txosten batean, Aldundiko Ikuskariak zera zioen: eskola honek 15 laguneko matrikula zuela; bertan gehien erabiltzen ziren testu liburuak *Xabiertxo*, *Umearen Laguna*, *Doctrina* eta *Cuadernos de Aritmética* zirela; eta lokala egokia eta garbia zela.



Xabiertxo liburuaren azala

XABIERTXO

Emen ageri dan mutiltxo au Xabiertxo da.

- Egun on, amaitxo. Egun on, aita.
- Egun on, Xabiertxo.



Jekitzerakoan egun onak eman bear dira. Aita eta ama asko maite ditu Xabiertxo'k.

Xabiertxo oso ona da. Bere areba Iziartxo'k asko maite du.

Seme ona gurasoen poza izaten da. Ilme onak ez dira beñere alkafen artean asatetzen.

Jainkoak ez du nai ifiori kalte egiterik.

Guziok anayak gera ta guziok alkar maite izatea nai du Jainkoak.

IZIARTXO

Emen afean daukazuten au Iziartxo da.

Bere anai Xabiertxo'k bezela, jeki ta bereala Jainkoari eskerak emateko, *Aita gurea* eta *Agur Maria* esango ditu.

Oeratzean ere beñ egiten du otol.

Lo dagoanean zaindu dezala eskatzen dio Jainkoari.

Eta etxeko guziaz osasuna eman dezayela.

Iziartxo oso biotz onekoa da. Ixila, zintzoa ta garbia. Bere gurasoak asko maite dute. Bere amari etxea txukuntzen ere laguntzen dio.

Ez du beñere gezurrik esaten. Ez da beñere gezurrik esan bear.



Xabiertxo liburuaren barruko orriak

Errepublikara garaietan, bertako maisua Jose Luis Arrazola apaiza zelarik, Aldundiko Ikuskariak ia urtero bisitatu zuten eskola. Urte hauetan azpimarratzekoa da Azkoitiko Udalak 200 pezeta eman zizkiola eskolari urteko, eta Zumarragako Udalak 60 pezeta; familiek pezeta bat ordaintzen zuten hilean eta idazten zekitenek 1,25 pezeta. 1932ko ekainaren 20an, Aldundiko Ikuskariak eginiko txostenean zera adierazten zuten eskola honetaz:

Matricula: 8 niños. Asistencia: casi total. Se hallan necesitados de material y les vendría bien media docena de mesas bipersonales. El local se encuentra anejo a la Iglesia. La enseñanza se hace en vascuence por ignorar en absoluto el castellano y en cuento aprenden algo se van. Acuden niños de Azcoitia y Zumarraga. Los niños pagan 1 peseta al mes, pero no les cobra generalmente cuando no les da por pagar. En aquellos contornos no hay más que niños por ahora. Se esfuerza en retenerles más tiempo, con toda clase de procedimientos persuasivos, regalos, etc., pero no pude conseguir nada en este particular. Se encuentra esta escuela a 3 kilómetros de Zumarraga, en la carretera a Azcoitia y a una mediadora de monte a partir de la carretera, por un camino carretil.

Gerra ondoren, diru laguntzak gutxitu arren, Aldundiak urteko 350 pezetako laguntza ematen jarraitu zuen. Gerra ondoren hiru apaiz egon ziren, hasieran D. Jose Larrea (1944an), ondoren D. Jose Luis Arrazola (1945ean) eta azkena D. Segundo Dorronsoro. 1945ean hauek ziren Aginagako eskolara joaten ziren ikasleak.

54. TAULA: *Aginagako eskolara joaten ziren ikasleak, 1945ean*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen-abizenak eta adina
Zumakorta	Gregoria (13), Pedro (11), Maria (9) eta Nicolasa Legorburu Alberdi (6) Jose M ^a (9) eta Jesusa Plazola Lete (7)
Errepelde (Etxe-txiki)	Justina Jauregi Lizarralde (13)
Martiamuno	Victoriano (13), Agustina (11) eta Jazinto Plazaola Alkorta (6)
Aratz- Erreka	Martin Kerejeta (12) –Ikasle hau Azpeitiko Aratz-erreka auzokoa zen, eta Urresti izeneko baserrian zegoen–.

Urdanbieta	Juana (12), Josefa (11), Andres (9) eta José Aramendi Alberdi (5)
Muxika	Martzelina (12), Gabina (10), Engracia (8), Juan (6) eta Nieves Alberdi Legorburu (4)
Abendaño	Juan (10), eta Jenara Toledo Badiola (9) Ignacio Aberrieta (7) Maria Rita Plazaola Zinkunegi (4) Juan Maria Plazaola Zinkunegi (8)
Ixerrenkoa	Julian (9) eta Klaudio Zabala Epelde (7)
Urruzti	Mercedes Zabaleta Goitia (7)
Okorro	Juan Bergara (7)
Aginaga-barrena	Maria Pilar (6) eta Rufina Aranguren Plazaola (4)

54. TAULA: *Aginagako ikasleen adina eta kopurua, 1945ean*

Ikasleen adina	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	Denera
Ikasle kopurua	3	1	4	5	3	5	2	3	3	3	32



Aginagako ikasleak

Maisu partikular hauen lana maistra nazionalak etorri zirenean bukatu zen.

3.2. Aginagako Eskola Nazionala



Aginagako Martin Donearen Eliza

Bailara honetara etorri zen lehen maistra nazionala, 1949an, Isabel Ibarreta Iñiguez Martinez de Heredia izan zen. Isabel Ibarreta *Muxika* baserrian egoten zen apopilo, bertan Beristain sakristaua baitzegoen. Ondorengo urteetan M^a Pilar Barrenetxea etorri zen, eta maistra honek Aginagako eskola honi behar adinako kasurik ez ziztaiolako egiten, hainbat kexa zuzendu zizkion Azkoitiko Udalari:

¿Tendré que seguir creyendo que las otras escuelas son mejor atendidas que esta? ¿Estaré condenada a pedir y molestar continuamente al Ayuntamiento para que luego surtan a otros sitios con el material para aquí destinado? Eso además para que luego digan que la “famosa maestra” de Aguinaga debe de tener bigote y perilla... (...) Hace años que los niños añoran la estufa pues por estas alturas aprieta el frío cuando llueve. No digamos nada de la mesa armario y silla que llevamos un año esperando. Agradeceré se acuerde un poco de este barrio en que se estima a Vd. muchísimo.

Maistraren eskakizunek erantzunik ez zuten jaso eta eskolaren egoerak larria izaten jarraitu zuen. Berogailua ez izatea ez zen eskola honen arazo bakarra, argia pizteko ere bonbillari itzuliak emanaz piztu eta itzali behar izaten zen, etengailuak ez baitzuen egiten. Lehen aipatu den bezala maistra honek, auzotarrekin batera, ekimen asko bultzatu zituen, hauen artean *Danak Bat* zentralaren ondoan geralekua, *apeaderoa*, jartzekoa. Azkoitiko gunetik, ia 23 kilometrorra zegoen eskola. 1954ko ekainaren 15ean, horrela deskribatzen du Maria Pilar Barrenetxeak Aginagako eskola nazionala eta bere esperientzia:

La escuela de Aguinaga se halla a una distancia de 10 kilómetros del casco de Azcoitia y a una distancia de 3 kilómetros de la carretera y del ferrocarril. Las condiciones higiénicas del local-escuela son malas. No tiene la suficiente capacidad, ni luz, ni ventilación para la matricula de la escuela. Sus condiciones pedagógicas son también sumamente defectuosas. No tiene casa habitación para la vivienda de la maestra. No funciona la Mutualidad, ni el Coto escolar. Mi permanencia en la escuela ha sido de tres años. También es de tres años el tiempo que he ejercido en la provincia. Entiendo un poco el vascuence.

Pilar Barrenetxearen ondoren maistra hauek egon ziren:

1954an, Josefa Álvarez González eta Agustina Morantes González.

1955ean, M^a Carmen Asenjo Gurpegi.

1959an, Araceli Asenjo Gurpegi.

1960an, Julia Esteban Carceo.

1961ean, Margarita Aranguren Plazaola (gazte hau auzotarra zen eta maistra nazionalak falta zirenean ordezkatzekak egiten zituen) eta Agripina Garrote Fernández.

1959an, Araceli Asenjo maistra zegoelarik, eskola honetako gura-soek erabaki zuten eskolaren ordutegia goizez bakarrik jartzea, 9etatik 2etara jarraian. Ikasleei oso luzea eta gogorra egiten zitzairen, beren etxeetatik eskolara zegoen ibilbidea egunero 2 aldiz egitea. Urteak pasa arren, oraindik, maistra nazional hauek eraikin zaharrean jarraitzen zuten, baldintza desegokietan:

60 hamarkadan eskola honetan 60 ikasletik gora zegoen. Asenjo ahizpak maistra zeudelarik kanpotik etorritako ikasle asko egon ziren, txabola ugari egin ziren Aginaga behe aldean: Zamora, Extremadura... aldetik etorritako haurrez bere zen tren-geltoki aldean.

Harrigarri zen hemengo gazteentzat ikustea, kanpotik etorritako eta pobrezian bizi ziren haur hauek nola jaten zuten tomatea gordinik (ez pentsa hemengoak oparotasunean bizi zirela, baina...). Etorkin hauen gurasoak Faustino Orbegozoren fabrikan egiten zuten lan, 10-12 ordu sartzen zituzten, eta horrela atera zuten dirua. Garai hartako baserriarrentzat oraindik kostatzen egiten zitzaizkien, ulertezina zen, baserriak eta lur sailak utzi eta fabrikara joatea. Maistrak hasieran Muxika baserrian egoten ziren, baina azken aldera auzoko Tabernan egoten ziren.

(Jazinto Plazaola eta Patxi Plazaola).

1964an, Udalak eta Aldundiak Aginagan eskola berria eraikitzea proposatu zuten. Eskola berri honek neska-mutilentzat ikasgela bakarra izango zuen eta maisu-maistrarentzat etxebizitza. Eraikuntza aurre-proiektua (ER-35 eredukoa) Joaquin Irizar arkitektoak egin zuen, bere kostua 382.947,00 pezetakoa zen. Azkoitiko Udala 200.000 pezetako diru laguntza emateko prest agertu zen.



Aginagako Eskola Nazional berria

Eskola berriaren egondako maistra batzuk hauek izan ziren: 1965ean, Elena Poyo Martínez; 1966an, Elena Cuadrado eta 1970ean, Horminda Baños.

Nabarmentzekoa da emigrazioa dela-eta Zumarragak urte hartan hazkunde demografiko handia izan zuela, eta honek eragin zuzena izan zuen eskola honen garapenean: 1951ko abenduan, 3.598 biztanle zituen; 1961ko abenduan, 7.151; 1971ko abenduan, 12.215. Aginagako eskola, 1973ko otsailaren 8an itxi egin zuten. Beste aukerarik ezean, bertako ikasleek Zumarragara jaitsi beharra izan zuten.

4. Aizpurutxo



Aizpurutxorako bidea, Etxosta menditik

Urolako haranari gaina hartzen diolarik, Azkoititik Zumarraga eta Urretxurantz doan errepide inguruan biltzen da Aizpurutxoko bailara. Ibaian zehar azaltzen diren gune hidroelektrikoak aspaldiko errota hidrauliko eta burdinolen ondorenak dira.

4.1. Ula (Ule) baserriko eskola



Ule baserria

Ule-handikoenean egon zen eskolaren lehen datuak XIX. mende bukaerakoak ditugu. Hemen maisu bizar-gorri bat egon omen zen. Hau oso gogorra omen zen, makilarekin gogoz astintzen omen zituen ikasle gazteak: ikasle bat baino gehiagok galtzak errefortzuekin jartzeko eskatzen omen zuen etxean, maisuak ipurdiko beroak ematen zituelako. Maisu bizar-gorri hau noiz egon zen ez dakigu, zehatz.

1900ean Aitubeondo eta Ule baserrietako familia buruak kexatu egin omen ziren beraien bailarako maistrari Udalak ez ziolako ezer ordaintzen. Auzotarrek zioten gurasoak pozik zeudela eta zerbait ordaindu behar zitziola maistra honi. Baina Udal Batza ez zen iritzi berekoa, honen isla dira Arozena zinegotziaren hitzak:

Se dio lectura a un escrito que suscriben José Manuel Elua y Valentín Badiola, habitantes de las caserías de Aitubeondo y Ula respectivamente, manifestando que les ha causado extrañeza la suspensión de pago del semestre vencido a la maestra del barrio, porque los padres de los niños que van a la escuela están satisfechos de lo bien que desempeña su cargo la maestra.

El señor Arocena expuso que según noticias suyas, no deben de estar acordes todos los de la barriada y que en su concepto, lo que debe de averiguarse es primero si todos ellos están unánimes en el particular a que en el escrito se alude, y que en caso afirmativo no debe de haber inconveniente en abonarles la gratificación por la instrucción al igual que hace en los demás, y abundando el Ayuntamiento en el mismo parecer, comisionó a don José M^a Izaguirre para que averiguara si era verdad la conformidad de todos los de la barriada.

Udalak, Izaguirre jaunaren bitartez inspeksio lanak egin ondoren, baieztatu zuen auzotarrak pozik zeudela bailarako maistrarekin.

4.2. Ibitete (Patrongua) baserriko eskola



Ibitete (Patrongua) baserria

1900eko abuztuaren 8an, auzotarren ekimenez, Ibitete baserrian, Patrongua edo Beheko-benta izenez ezagunagoa den lekuan, eskola ireki zuten; Ule, Etxasaga-Korta, Bolintxo eta inguruko baserrietako umeentzat hau zelako lekurik egokiena. Ibiteteko alaba, Josefa Goenaga, izendatu zuten maistra, baina erabaki honekin denak ez zeuden oso gustura. 1900eko apirilaren 15ean, Jose Manuel Mendizabal eta Jose Letek, Errazu eta Ule baserrikoek, zenbait auzotarren izenean horrela idatzi zioten Udalari:

Que hasta hace poco, la escuela para la instrucción de dicha barriada ha estado instalada en uno de los puntos o caseríos más céntricos de la misma, mas ahora sin que los suscriptores sepan la causa, se ha trasladado dicha escuela a la venta de Ibetete y según se han enterado, sin ninguna autorización. Este punto para la mayoría de la barriada se hace muy abajo y lejos.

1901ean eskola lekuz aldatzea eskatu zuten auzotarrek, baina agintarien aldetik esan zitzairen, lehenik behintzat, maistrari galdetu behar zitzaiola nahi zuen edo ez, eta ondoren ordainketa ziurtatu behar zitzaiola eskola martxan hasten zen unetik. 1901eko urtarrilaren 18an, auzotarrak kexatu egin ziren, zalantzan jarriz hau ote zen lekurik egokiena:

Además a juicio de los recurrentes no es muy a propósito el que dicha escuela se instale donde tienen paradas los carreteros y ambulantes que transitan por aquella carretera, porque a veces ocurre que los jóvenes oigan y vean cosas que no les convengan; por lo cual suplica que dicha escuela sea instalada Ula o Aitube.

Eskola honetan Josefa Goenagak oinarrizko kontzeptuak eta dotrina irakasten zuen; maistra hau bertako alaba zen. Klaseak euskaraz izaten ziren, auzoan inork ez baitzekien erdaraz. Maistrak berak ere, irakurtzen ongi jakin arren, juxtu samar omen zekien idazten. Honi laguntzen Teresa Goenaga egoten zen, bere iloba; honek eskola gehiagoko zeukan, Zumarragan ikasia baitzen. Eskola honi buruz, horrela diote baserri horretakoek:

Gure ama hemengo eskolan ibili zen. Hala ere, kontatzen zuen nola Ule-handikonean maisu bizar-gorri bat egon zen. Uleko maisua euskalduna izango zen, hemen besterik ez omen zen egiten. Uletik eskola Ibitetera pasa zen eta hemendik Aizpurutxoko Elizara. Ibiteteko eskola oraingo eraikinaren ondoan, *pegante*, zegoen, baina 1953ko uholdeak aurretik eraman zuen.

(Manuel Zuazolazigorraga)

4.3. Aizpurutxoko Agustin Donearen elizako eskola



Aizpurutxoko Eliza eta eskola

Agustin Donearen Elizaren sorrerako lehen urratsa 1904ko apirilaren 24an eman zen, auzotarrek udalbatzan eliza bat egiteko diru laguntza eskatu zutenean. 1905eko abenduaren 28an inauguratu zuten, oraindik bukatu gabe zegoela. Elizarekin batera eskola emateko erabiliko zen lekua ere prestatu zuten. San Agustin izeneko ermita zahararren inguruan eraiki zuten eliza. Haserako eraikina txikiagoa zen, eta 50 urte geroago gehitu zitzaion gaur egungo kanpandorra.

Maistra nazionalak etorri arte, ia gehienetan, apaizak izan ziren eskola honen arduradun. 1906ko otsailaren 17an, Jose Manuel Mendizabal eta Jose Larrañagak, Erratzu eta Muntegieta baserrikoek, eta Erri-etxeta auzotarren izenean zera eskatu zioten Udalari:

Al marcharse el que hacia de maestro con la queja de ser cortos los medios de subsistencia que contaba la Escuela de este Barrio se pensó en Dña. Josefa Goenaga que valía para dar a las niñas la precisa instrucción de Catecismo o doctrina cristiana y lectura y que ha desempeñado bien su cargo, mediante el pago que acostumbraban

las casas por cada niño y las setenta pesetas anuales de retribución que entregaba el Ayuntamiento.

Cuando a fuerza de sacrificios y protección de varios bienhechores ha construido nueva Iglesia y casa consiguiendo estancia permanente de capellán D. Ignacio Aramburu para poder mantener más firme su permanencia dotando con ello de buena escuela al Barrio han tomado el acuerdo de poner a cargo de este señor la enseñanza sin dudar que merecerá la aprobación de Vd. pues era mucha la necesidad que los habitantes de este barrio sentían del complemento de la instrucción y resultaría gran beneficio no solo para hijos del Barrio, que también para otros de más allá que quisieran ganar. Además de ser más completa la enseñanza tendrá la ventaja de no haber falta de maestro en la escuela pues suplirá el Señor padre en los ratos que al Señor Vicario deberes de su Ministerio obliguen a dejar.

Eliza egiterakoan, hasieran 20 familia baino gehiago izan arren, azkenean kopurua jaitsi egin zen. Proiektu hau aurrera eramateko familia bakoitzak diru kopurua, materiala eta esku lana jarri zuen bere aldetik (Eliza egiten egon ziren bitartean, astero familia bakoitzetik lagun bat joaten zen egun osoz lanera). 1906an, Ignacio Aramburu kapilauaren ardurapean, bailarako 18 neska-mutilekin hasi zen eskola berria. Kontutan izan behar da Altube, Aitubeondo... eta beste hainbat baserrietako haurrak, eskola hau ireki aurretik, Martittekoko eskolara joaten zirela. Hauek izan ziren Aizpurutxoko, *Aizburuchoko*, aurreneko ikasleak:

Goiko-Benta baserriko Iñigo Oruesagasti eta Felisa Oruesagasti.

Altziber baserriko Maria eta Agustina Erratzu.

Erratzu baserriko Esteban Mendizabal, Luis Larrañaga eta Juana Larrañaga.

Ule baserriko Martin Barriola eta Luis Lete.

Aitube baserriko Bernardo Soraluze.

Ule baserriko Josepa Antonia Epelde.

Artetxe baserriko Manuel Sudupe.

Muntegieta baserriko Luisa Larrañaga.

Bazterrino baserriko Antonia Irizar eta Ramon Ibarguren.

Ondamendi baserriko Felix Agerrezabal.

Aitubeondo baserriko Maria Elua

Eskola berriak arbel handi bat zuen, eta mahai berriak, bi pertsonentzakoak, tinteroarentzat zulo eta guzti, ikasleen gozamenerako.

Ondorengo urteetan maisu lanetan Jose Antonio Arratibel apaiza egon zen. 1923ko ekainaren 19an, Udalak eskolari urteko 300 pezeta emateko erabakia hartu zuen eta hau oso pozik hartu zuen bertako maisuak:

El exponente, agradecido se ofrece incondicionalmente a ayudar a tan distinguido y benemérito Ayuntamiento, en la consecución de su fin primario y fundamental, que es el progreso intelectual y moral de sus habitantes y a fin de que las gestiones todas de esa Ilustre Corporación, en orden al bien publico tengan buen resultado y feliz acogida en el divino acatamiento, eleva al Dador de todos los bienes, al Dispensador de todas las Gracias y Bendiciones, sus humildes oraciones este su incondicional y humilde servidor y capellán.

1924ko abuztuaren 24an, eskolako arduraduna, Joaquin Peña apaiza, Udalarari zuzendu zitzaion esanez 40 neska-mutili eskola eroso emateko ez zuela beharrezko materialik, azpimarratuz mahai batzuk eta aulkiak behar-beharrezkoak zituela. 1928an Aldundiak 500 pezetako diru laguntza eman zion eskolari. Aldundiko Ikuskariak horrela deskribatu zuen eskola hau:

Eskolan 35 haur daude matrikulatuta, baina asistentzia zertxobait bajuagoa da. Orduetgia 9etatik 11etara eta 2etatik 4etara da. Gela egoera onean dago. Eskolako materiala urria eta eskasa da. Erabiltzen diren liburuen artean aipatu beharrezkoak dira Fleury-ren *Libro de Lectura*, *El Catón de los niños* eta *Aritmética*.

Urte horretan Azkoitiko Udalak 400 pezetako diru laguntza eman zion eskolari eta familiek, haur bakoitzeko eta hileko, 0,5 pezeta (ziurrenik denek ez zuten berdin ordainduko). 1929tik 1940ra Joaquin Iturrioz apaiza egon zen maisu (eskolan, klase garaian, famatuak ziren berak erretzen zituen *Porras* puruak). Maisu honi urteko 400 pezeta ematen zizkion Aldundiak eta Udalak beste 400 pezeta; haurren familiek materiala eta eskolako gastuak ordaintzen zituzten. 1932an honela deskribatzen zuen bertako egoera Aldundiko Hezkuntza Ikuskariak:

Gela egoera onean dago. Aldundiak emandako mahaiaik erabiltzen ditu. Instrukzioa probetxuarekin ematen da, lehen mailako instrukziorako plan osoa du. Orduetgia 9etatik 11etara eta 1½etatik 4etara da Maisua harriturik dago bere diru laguntza murritzu egin zitzaielako, eta arrazoirik ez zaiolako argitu.

Gerra ondoren Joaquin Iturriozek eskola utzi egin zuen eta, 1943tik 1946ra, Jose Etxabe Egibar apaiza egon zen. Honen ondoren,

1946tik 1950era, Gloria Uranga Larrañaga eta Jose Maria Badiola Lizarralde egon ziren.

55. TAULA: *Aldundiaren laguntza Aizpurutxo maisu-maistrei, 1937-1949*

Maisu-maistra	Urtea	Laguntza
Joaquin Iturrioz Peña	1936, 1937	450 pezeta
Joaquin Iturrioz Peña	1940	500 pezeta
Jose Etxabe Egibar	1942, 1944, 1945	500 pezeta
Gloria Uranga	1946	500 pezeta
Jose Maria Badiola Lizarralde	1947, 1948, 1949	400 pezeta

1945eko azaroaren 26an, Jose Etxabe apaiza maisu zelarik, hauek ziren eskolara joaten ziren ikasleak.

56 TAULA: *Aizpurutxoko ikasleak, 1954an*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen-abizenak eta adina
Ule	Manuel Lete Larrañaga (12)
Ule	Maria Badiola Larrañaga (10)
Ule	Agustin Lete Sudupe (8)
Ule	Dolores (13) eta Jesus Epelde Lete (11)
Erratzu	Graciana (13), Julia (11), Martin (9) eta Javier Larrañaga Urrestarazu (8)
Azketa	Felix (12), Prudencia (10) eta M ^a Begoña Agirrezabal Seguro (8)
Aittube-nagusi	Jose Soraluze (8)
Aittube-ondo	Maria (13), Santiago (11) eta Luis Etxaniz Juaristi (8)
Etxebeltza	Maria Luisa (9) eta Elvira Etxaniz Elduaien (7)
Azpiazu	Irene (12), Sabino (9) eta M ^a Beatriz Zendoia Orbea (8)
Azpiazu	M ^a Luisa (12), Adan, (10) Judit (7) eta Ignacio Larrañaga Plazaola (6)
Pikuneta	Pedro (12) eta Sebastian Alberdi Gurrutxaga (9)
Gudamendi	Tomas (13), Jose (7), Justino (10), M ^a Nieves (9) eta Julian Agirrezabal Alberdi (7)
Bastarrina	Margarita (12) eta Isabel Irizar (9)
Ursalto	Josefa Beitia Larrañaga (9) eta Jose Uribe (13)

57 TAULA: *Aizpurutxoko ikasleen adina eta kopurua, 1954an*

Ikasleen adina	6	7	8	9	10	11	12	Denera
Ikasle kopurua	2	4	6	7	4	3	5	31

*Aizpurutxoko
Kongregazioko taldea,
1944an*



Errepublika garaian gau-eskola Batzokian ematen zen, Andres Aramendiren gidaritzapean. Gerra ondoren, Elizaren ondoan zegoen gelan, Leon Bernaola Agirrezabal auzotar gazteak jarraitu zuen gau-eskolako klaseak ematen. Honekin ikasi zituzten oinarrizko edukiak Aizpurutxoko ikasle gehienek, garai hartan maistra nazionalek erdaraz erakusten zuten eta hauei ez zieten askorik ulertzen. Leon Bernaola maisua, Irunen *papar-txuriekin*, Dotrina Kristauko Anaiekin, ikasketak egindako zen.



Leon Bernaola Agirrezabal



*Aizpurutxoko taberna gainean, Batzokia egon zen etxe honetan,
gau-eskola ere irakasten zen*

4.4. Aizpurutxoko Eskola Nazionala

1949an ireki zen eskola nazionala, eta bertako lehen maistra Maria Pilar Taboada hernaniarra izan zen. Eskola honetan, maistra hauek ere egon ziren: 1950ean, Maria Gloria Uranga eta 1958an, Angeles Izuzkitza, Lazkaoko alaba eta euskalduna baina, egoerak horrela behartzen zuenez, klaseak gazteleraz ematen zituen. 1954an, eskola honetan gau-eskola ematen hasi ziren.

Hasieran, Elizbarrutiak eskainitako gela batean egon zen eskola, eta hau txikiegia geratu zenez, eskola nazional berria egitea proposatu zuten auzotarrek. 1956an egin zuen Irizar arkitektoak aurreneko proiektua, eta honi ordaintzeko auzotarrek 6.000 pezeta jarri zituzten. Proiektuarentzat, ondorengo auzotar bakoitzak 400 pezeta jarri zituen:

Gregorio Lizarralde, José M^a Sudupe, Jose M^a Astigarraga Altuna, Jose M^a Astigarraga Juaristi, Jose Manuel Arrieta, Francisco Aizpuru, Nicolas Albizuri, Ignacio Arregi Garate, Juan M^a Oteiza, Pedro Garate Garate, Jose Ig. Astigarraga Zabala, Ascensio Lizarralde Garate, Juan Bautista Elorza Esnal, Benito Garate Egaña, Jose Ramon Altuna Jauregi.

Azkenean proiektua Ramon Martiarena Laskurainek egin zuen eta aurrekontua 554.619,75 pezetakoa izan arren, kostu erreala 747.611,64 pezetakoa izan zen. Estatuak ordaindu ez zuena (aurrekontuaren %50a ordaintzen zuen) Aldundiaren bizkar joan zen eta falta zen zatia auzotarren eta Azkoitiko Udalaren kargu gelditu zen. Aurrekontua uste baino gehiago igo zelako, Zumarragako Udalak 40.000 pezeta eman zituen eta Bergarakoak 10.000 pezeta. Aizpurutxoko eskola berriak bi ikasgela zituen, eta bi etxebizitza irakasleentzat.



Aizpurutxoko Eskola Nazional berria

Aizpurutxoko eskola berriari Hezkuntza Ministerioak, beste eskolei bezala, honako materiala eskaini zion: 10 mahai bi pertsonentzakoak, irakasleentzako mahaia, armairua eta arbela. Kontuan izanik eskolak 2 gela zituela, Azkoitiko Udalak eskola honentzat honako materiala eman zuen: 30 mahai bi pertsonentzakoak, armairua, irakasleentzako mahaia, arbela eta material pedagogikoa. Eskolarako behar ziren mahaiaik Udalak Gasteizko Apellániz lantegitik erosi zituen:

10 mesas-banco bipersonales, a 790 pesetas unidad.

20 mesas-banco bipersonales, a 820 pesetas unidad.

Eskola berrituaren inaugurazioa 1962ko irailaren 20an egin zen. 1965ean neska eta mutilentzat eskola bereiztu zuten; neskekin Angeles Izuzkitza jarri zuten eta mutilekin Jose Luis Valin Latas, maisu galiziar hau urte luzez egon zen mutilen eskolaren arduradun. Honekin batera, ondorengo urteetan, maistra hauek egon ziren: 1968an, Sagrario Pajares; 1970ean, Agustina Martin de la Fuente; 1971ean, Hilaria Barrios Cardenal. Ez zuen urte asko iraun eskola berriak, 1977ko apirilaren 29an itxi egin zuten eta ikasleak Azkoitira bideratu. Azken maistra nazionala Agustina Martin de la Fuente izan zen.



Aizpurutxoko Eskola Nazionala, berritua

5. Etxosta-Mendi



Etxosta-mendi, Martittetik hartuta

5.1. Zeledertxo (Zelertxo) baserriko eskola

Zelertxoko auzo-eskola partikularra herriko zaharrenetakoa dugu. 1870ean Joaquin Iturbe hasi zen eskola ematen eta ia 40 urte egon zen, horrela zioen behintzat bere alaba Francisca Iturbek, 1908ko urtarrilaren 1ean, Udalari diru laguntza eskatu zionean.

La que suscribe vecina de esta villa y domiciliada en la calle Aizquibel 15, huérfana de Joaquin Iturbe que durante 38 años desempeño el cargo de maestro de Celercho, con la mayor sumisión y respeto (...) creía que le correspondía percibir lo que el Ayuntamiento le tenía asignado, esto es treinta y cinco pesetas. La que suscribe no quiere renunciar a dicha cantidad si le corresponde en derecho; pero sí, si no le pertenece.

Eskakizun honen erantzunik ez dugu aurkitu. Eskola honetako zuzeneko datuak 1891koak ditugu, urte horretan Joaquin Iturbek Udalari diru laguntza eskaera egin baitzion.



Zelertxo baserria

5.2. Maltzeta-Etxetxo baserriko eskola

Baserri honetako eskolaren aurreneko berriak XX. mende hasierakoak ditugu. 1912ko irailaren 14an Lorenzo Lete maisuak jasotzen zuen dirua gutxi zela-eta (50 pezeta jasotzen zituen), Etxosta-mendiko auzotarrek idatzia bidali zioten Udalari. Idatzian zera zioten: maisu hau nahi zutela kristau dotrina irakasteko eta ematen zitzaiona gutxi zenez maisua mantentzeko, karitatez, diru laguntza handiagoa emateko. Aste horretan, Azkoitiko Alkateak, Juan Jose Alberdik, Maltzeta-Etxetxoko eskolaren arazoari berri jakin zuen, baina ez dakigu zer erabaki hartu zuten. Gaur egun baserria erorita dago.

5.3. Urazarri (Utxerri) baserriko eskola

Hau da Etxosta-mendiko auzo-eskola ezagunena. Eskola emateko erabiltzen zen gela ganadutegi gainean zegoen. Gerra aurrean Eusebia Arregi Osoro egon zen maistra eskola honetan. Eusebia Arregi, jaiotzez Uzin baserriko alaba, hasieran Aginatxo baserrian egon zen eskola ematen, gero baserri honetatik Elgoibarreko Kaskante baserriera pasa zen eta gero, bere gizonarekin batera, *Utxerrira* etorri zen. Eskola ematen hasi zenean, Azkoitiko Udalak urteko 150 pezeta eman zion.



Utxerri baserria, eskola ezkerreko eraikinean zegoen

Eusebia hasi zenean eskola gutxi behar zen. Eskola ematen hasi zenean ez zegoen ezta argirik ere: *ganadua gobernatzea, azpiak kentzea, ukuiluak garbitzea ...* egun argiz egin behar izaten ziren, bestela iluntzean karburuekin ibili beharra zegoen, eta hau ez zen eroso. *Makar-zaharrak* jarri zuen argi-indarra, argi-saltoa, bitartean baserri honetan ez zen argirik egon. Bailara honetan bide egokirik ere ez zegoen, bidea dena lokatzaz beteta egoten zen; kalera joaten ordubete pasa kostatzen zen eta igotzen gehiago.

(Joxe Mugerza)

Eskola honetan Eusebia maistrak, lehenik *Dotrina* erakusten zuen. Ondoren *Sumar multiplicar* eta *restar* eta hau ondo ikasiz gero nahikoa zen. Orduan bizimodua oso ezberdina zen, familiak handiak ziren eta gazteak *gari jotzera, itulanera...* joaten ziren. Baserrian, gerra ondoren, *tripa betetzeak* ere lan handia ematen zuen, gosea zen nagusi. Baserritarrentzat lana zen zegoen *erregalu* bakarra, eskolara joatea luxua zen. Utxerriko eskola etxe zaharrean egoten zen (1947an etxea berritu zen). Eskolan ez zegoen arbelik, baina bai mahaiak bi pertsonentzakoak, bere tintero zuloekin. Eskolan 20 bat haur egoten ziren, eta harremana zuten bai Elosu eta baita Urrategiko eskolekin ere. Hasieran ohitura zen Elosuko Elizara joatea, ondoren Urrategira joaten hasi ziren, eta neska-mutilek han egiten zuten komunioa. *Dotrina* beti euskaraz ematen zen, eskolan denek euskaraz hitz egiten baitzuten. Eskolara goizeko 9etatik 12etara joaten ziren eta baita ere arratsaldez. Eskola baserriari itsatsia zegoen eta komun partikularra zuen.

Eusebiren biloba, Joxe Mugerzak dioen bezala, ez dugu ahaztu behar garai hartan, *pentsamendua ere bekatu zela*.



Utxerriko baserria

Gerra ondoren, hauteskundeetan abertzaleei bozka eman zielako, maistra hau salatua izan zen. Bere ordeztan bere alaba Toribia hasi zen eskola ematen, baina Aldundiaren diru laguntzarik gabe.



Toribia maistra (Eusebia maistra-zaharraren alaba)

1944an, Eusebiak berriro ekin zion Utxerrin eskola emateari. 1940tik 1948ra bitartean eskolari urteko 350 pezetako diru laguntza eman zion Aldundiak.

Garai hartako eskoletan dotrina bakarrik ikasten zen. Ondoren *Jesusekoa* (liburu txiki bat) eta *Catona*. Eskolan 2-3 urte pasatzen genuen, baina dotrina buruz ikastetik eta sinatetik aparte ezer gutxi ikasi genuen. Dotrina ikastera, komunioa egin baino bi-hiru aste lehenago, Urrategira joaten ginen arratsaldero. *Utxerriko* lehen maistra Eusebi Arregi izan zen, *Utxerriko amama*, eta honek ezin zue-nean, bere alabekin, Toribi edo Klaudiarekin, egoten ginen. Eskola berria egitea ere pentsatu zuten, *Egizabaltxo* eta *Korteta* artean, lekua markatu ere egin zuten, baina azkenean ez zuten ezer egin.
(Joxe Luis Epelde eta Joxe Joakin Epelde)

58. TAULA: *Utxerrira joaten ziren ikasleak, 1945ean*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen-abizenak eta adina
Urazarri	Claudia (10) eta Pedro Mugerza Arregi (7) M ^a Carmen Galarza Arregi (6)
Otolaburu	Rufino (11) eta Joakin Aldalur Juaristi (9)
Otola-barrena Otola-torre	Roman Arrieta Zabala (6) Miren (11), M ^a Aranzazu (9) eta M ^a Lurdes Etxaniz Elorza (8)
Androndegi	Carmen (11), Antonio (9) eta Maria Oiartzabal Juaristi (7)
Etxosta	Lucia (11), Tomas (9), Concesión (7) eta Casimiro Alberdi Larrañaga (6)
Eizabal	Maria (11), Manuel (9) eta Mariano Etxaniz Barrenetxea (7)
Eizabaltxo	Jesusa (9) eta Jose Aranbarri Badiola (7)

59. TAULA: *Utxerrira joaten ziren ikasleen adina eta kopurua, 1945ean*

Ikasleen adina	6	7	8	9	10	11	12	13	Denera
Ikasle kopurua	6	4	1	6	1	5	-	1	24

5.4. Urazarri (Utxerri) baserriko Eskola Nazionala

1949an, *Utxerrin* maistra nazionalak jarri zituzten. Etxeko mais-traren ordezt, kanpokoak eta erdaldunak hasi ziren etortzen. *Utxerriko* Eskola Nazionala baserriko gela batean zegoen, eta bertara etorri zen lehen maistra nazionala, Maria Victoria Sanchotena izan zen. Ondoren, maistra asko aldatu ziren:

1951n, Teresa Mozo Artola, Anoetakoa.

1952an, Basilia Reguero Bereziartua.

1954an, M^a Pilar Rodríguez Bajatierra eta Jose Antonio Uria (hau Agarre-Basarteko Trino de Uria maisuaren semea zen eta, maistra nazionala ordezkatu zuen).

1955ean, M^a Jesús Álvarez Uranga.

1956an, Florentina Álvarez.

1957an, M^a Jesús Álvarez Uranga.

1958an, Lucia Rioja Zuazo, Julia Blanca Larrieta, Irene González Ruiz.

1960an, M^a Rosario Muguruza Zanguitu.

1962an, Maria Angeles Maeztu Lara.

1964an, M^a del Coro Munduate.

Hasierako maistra nazionalak etorri zirenean, ikasleak etsaminatzera Urrategiko Eskola Nazionalera joaten ziren. Han herriko agintarien aurrean frogatuta pasa ondoren *Txorik*, herriko *merixuen* inspektoreak, denentzat gozokiak banatzen zituen.

1954ko ekainaren 4an horrela deskribatzen zuen Basilisa Reguero Bereziartuak *Utxerriko* eskolaren egoera:

La situación geográfica de dichas escuela es: hay que recorrer 3 Km. de carretera, que pueden recorrerse a tren algunas veces, y 1 hora y cuarto de camino por monte sin carretera alguna. El local destinado a escuela reúne buenas condiciones higiénicas, aunque no es el centro geográfico del lugar, encontrándose caseríos alejados de la misma. No existe vivienda para el maestro. En esta escuela no se lleva Mutualidad ni existe Coto escolar. La Mutualidad es parroquial.

No he ejercido en ningún otro sitio de la provincia. El tiempo de permanencia en esta escuela es desde el 18 de octubre de 1952. Entiendo un poco el vascuence.

Urte horretan Utxerrin eskola ematen Jose Antonio Uria egon zen. Honek 21 urte zituen maisu egon zenean eta eskolara 24 bat haur

joaten omen ziren. Erabiltzen zituen liburuak *Entziklopediak* ziren eta ikasle bakoitzak bere liburua ekartzen zuen. Maisua kalean bizi zenez, egunero, gutxienez ordubeteko ibilaldia egin behar izaten zuen. Gau-eskola ere eman izan zen eskola honetan, dena dela hau maisu-maistraren arabera izaten zen. 1964an, Udalak eskola honetako ikasleak herriguneko eskoletara bideratzeko lehen saiakera egin zuen. Horren adierazgarri da, eskola itxi aurretik, 1964ko urriaren 3an, Udalak Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzari bidalitako idatzia, bertan esaten du bailarak bide berria egina duela eta herriguneko eskola graduatuetara bidaltzea dela aukera egokiena:

Se trata de una escuela de unos catorce alumnos que se encuentra deficientemente instalada en un caserío, que por carecer de edificio propiamente escolar; dista de unos cinco kilómetros del casco de la villa (...) los padres de los alumnos estiman conveniente que estos acudan a los centros escolares del casco de la villa, y es que ya desde el comienzo del presente curso han comenzado a hacerlo, consideradas las ventajas de la enseñanza graduada. Por ello plantea la necesidad de establecer un servicio de transporte escolar, lo que llevaría consigo la supresión de la escuela, cual es el deseo de los padres de los alumnos.

Eraikin berria egin gabe zegoenez, Hezkuntza Ministerioak ez zeukan interesik eskola hau mantentzeko, eta berehala itxi zen. Auzoko haurrak kaleko eskoletara eramateko autobus zerbitzua jarri zuten. Ikasleak Azkoitiko Eskola Nazionalera bideratzen ziren, zerbitzu hobeak zituelako (jangela, garraioa ...).

5.5. Goenagatxo (Goenatxo) baserriko eskola

Utxerriko eskola itxi ondoren, auzotarrek Goenatxo baserrian eskola irekitzea eskatu zuten, eta ireki behar zen eskolarako, 1937ko otsailaren 4an, Maria Arrieta Muruamendiaraz proposatu zuten; maistra hau, geroxeago, Otola-Barrena baserrian egon zen eskola ematen. 1942ko otsailaren 14an, Azkoitiko eskolen zerrendan Eusebi Arregi, Utxerriko maistra, azaltzen da Goenatxoko maistra bezala, baina auzotarrak ez dira gogoratzen, beraz, ezin dugu ziurtatu baserri honetan egon ote zen eskolarik.



Goenatxo baserria

5.6. Otolá-barrena baserriko eskola



Otolá-barrena baserria

1940an, eskola honetan, bertako alaba zen Maria Arrieta Muruamendiaraz egon zen maistra. Maistra honen aita auzoko-alkate izan zen.

5.7. Korteta baserriko eskola



Korteta baserria

1953an eta uda garaian, Maria Dolores Iriondo egon zen baserri honetan eskola ematen. Ikasleak goizez joaten ziren eskola honetara eta hauei kultura orokorra ematen zien. Eskola honetatik, maistra hau Zeler baserrira pasa zen.

5.8. Zeleder (Zeler) baserriko eskola



Zeler baserria

Kortetan egon ondoren, Maria Dolores Iriondo, baserri honetara pasa zen. Auzoko gazteei denetik irakasten zien. Liburuak erdarazkoak ziren, baina euskaraz esplikatzen zuen. Eskolara, baserri bertako umeak eta baita ere auzokoak joaten ziren. Maistra hau, eskola honetatik Olasoko eskolara pasa zen.

6. Elosu bailara



Elosuko Eliza

6.1. Elosuko apaiz-etxeko eskola



Elosuko eskola eta Eliza

Manuel Orbea dugu auzo honetan ezagutzen dugun maisu zaharrena. 1899ko abenduaren 13an horrela zuzendu zitzaion Bergarako Udalari:

Manuel de Orbea de esta vecindad a V. S. respetuosamente expone que tiene abierta escuela de ambos sexos en el barrio de Elosua hace muchos años y ruega a V. S. se sirva a concederle la gratificación que se da a los de clase.

Bergarako Udalak, 1899ko abenduaren 21ean egindako bilkuran erabaki zuen 35 pezetako soldata ematea (eta eskola honetako maisuari batera, San Kristobal, San Prudentzio, Goimendi, Santiago eta Martirietako maisuei ere laguntza eman zien). 1901eko abenduaren 20an, Manuel Orbeak eskutitza bidali zuen Bergarako Udalera, zera esanez:

La superficie total que ocupa el local de esta escuela en su largura tiene once metros y sesenta y cinco centímetros lineales. En la anchura tiene tres metros. Y está construida con dos ventanas. Los alumnos que concurren a la misma son:

Niños: Nicodemes Unanue (10 años), Andres Muruamendiaraz (8 años), Jose Agustin Sudupe (9 años), Valentina Mendizábal (9 años), Claudio Lete (9 años), Pedro Manuel Gabilondo (9 años), Paulino

Igartua (9 años), Policarpo Muruamendiaraz (9 años), Pedro Jose Gabilondo (9 años).

Niñas: Eleuteria Alberdi (10 años), Maria Josefa Larrañaga (9 años), Dolores Larrañaga (9 años) y Ambrosia (8 años).



Elosuko eskola

1926an, Udalak 200 pezetako diru laguntza eman zion eskola honi. Gerra ondoren Claudio Orbea Lete, Manuelen semea, hasi zen eskola ematen; honek sakristau eta auzoko-alkate lanak ere egin zituen.



Claudio Orbea, Elosuko maisua

1940tik 1945era bitartean, Gipuzkoako Aldundiak urteko 440 pezetako laguntza eman zion.

Eskola honetan *Astete* liburua irakasten zen, eta buruz ikasten zuten osoa. Testamentu Zaharreko kontakizunak ere euskaraz irakasten ziren (Xabier Zubizarreta).

1944an Claudio Orbeak, auzoko-alkate izanik, eskola berria egiteko proiektua azaldu zion Bergara eta Azkoitiko Udalei. Eskola berriaren aurrekontua 43.222,30 pezetakoa zen. Eskola berria egiteko arrazoiaren artean, honako hauek azaltzen zituen:

- Auzoa 40 baserri eta familiaz osatua zegoela.
- Elosu herritik oso urruti eta leku menditsuan zegoenez, haurrek ezinezkoa zutela herriko eskoletara jaistea.
- Auzoko eskolaketaren arazoa. Hau aspaldidanik ahaztuta zegoen hezkuntza instituzioen aldetik.

Begarako Udalak eskuzabal erantzun zion, eraikuntzarako beharrezkoak ziren materialak eskainiz. Azkoitikoak, ordea, esan zion Udalek ahalmenik ez zutela eraikinik egiteko –Aldundiak eta Estatuak bereganatuak baitzituen– eta horregatik, laguntza ematekotan, beste auzo-eskolentzat zegoen eskola-materialetik zerbait eskainiko ziola. Dena dela auzotarrek proiektuari eutsi egin zioten. Eta 1944an eskola berria eta frontoia inauguratu zituzten (frontoia 1944ko abuztuaren 20 inauguratu zuten, Begarako *Txara* eta Unamuno eta Azkoitiko Leonardo eta Atano III.aren arteko partidarekin):

Eskola berria, maisu-maistrarentzako gela eta frontoia auzoko biztanleek eskatuta egin zituzten. Garai hartako delineaatzaileak, Jorge Artetek, prestatu zien egitasmoa eta 70.000 pezetako aurrekontua izan zuen guztira. Eraikuntza lanak Jose Maria Azkoitia (arotzeria), Javier Uzin (igeltserotza) eta Juan Beobideri (iturgintza) agindu zizkieten. Aurrekontuko gastuak honela banatu zituzten: 29 elosuarrek edo etxeko buruk 57.571, 95 pezeta jarri zituzten, Begarako Udalak 7.902 pezeta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak 5.000, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.482 eta Azkoitiko Udalak 1.000. Guztira 72.955, 95 pezeta.

(Vicuña Agirre, J. L., 2003)



Elosuko Kongregazioko taldea, 1946an

6.2. Elosuko Udal-eskola eta Eskola Nazionala

Udal-eskola berria eraiki arren, hau hornitu beharra zegoen eta horretarako dirua falta zen. 1949an Tomas Larrañaga Kerejetak, Etxesakorta baserrikoak Azkoitiko Udalarari idatzi zion esanez eskola honen egoera kaxkarra zela, ez zegoela behar adina mahai eta eserleku, bertako 8 haur mahairik gabe gelditu zirela; eskakizunari Udalak berehala baietza eman zion.

Eskola honetan, Claudio Orbea maisuaren ondoren, Mari Kruz Amezaga eta Mercedes Amezaga ahizpak egon ziren. Ondoren Irene izeneko maistra bat ere egon zen. Jarraian egon ziren maistra nazionalek erdaraz ematen zuten eskola; eta eskolak erdaraz zirenez ikasleek jardun egiten zuten, baina ikasi oso gutxi.



Elosuko udal-eskola

Maistra nazionalen artean Magdalena Vera nabarmendu behar da. Maistra hau 45 ikasle izatera iritsi omen zen eta hamar urtez aritu zen eskola honetan. Honek lotura estua izan omen zuen ikasleen gurasoekin, askotan baserriz baserri joaten baitzen. 1958an Mari Luz Gonzalez egon zen, honek grina biziz irakasten omen zuen *Formación del Espíritu Nacional* gaia. Honen ondoren Arantzazu Ormazabal egon zen, maistra hau motorrez etortzen zen Zumarragatik eta Elosun eman zituen 10 urteetan harreman estua izan zuen ikasle eta gurasoekin. Maistra hau, 1965eko azaroaren 11n, eskolako egoera penagarria azaldu ondoren, horrela zuzendu zitzaion Bergarako Udalarari:

Los caseros están conformes en cambiar la leña por dinero, para con él comprar el gas. Lo que necesitamos son dos estufas y tres bombonas. Dos porque el local es grande y con una no se calentaría. Sé que depende de usted el que las tengamos o no, así que por favor D. Luis, sea en esta ocasión espléndido con el barrio de ELOSUA que tan olvidado lo tienen.

Urte horretan, beren jarrera egokiagatik, Elosuko maistrak honako ikasle hauek nabarmendu zituen: Jesus M^a Igartua Oruesagasti, Milagros Oruesagasti Gurrutxaga eta Eva M^a Elduaien Egino. 1961ean, Arantzazu Ormaetxea maistrak zioenez, eskola honetan 36

ikasle zeuden. Maistra honek, 1963an, honako materiala eskatu zion Bergarako Udalari:

12 mahai, banaka erabiltzeko

Konketa 1

4 bonbona

4 mapa: Espainiako mapa fisikoa eta politikoa; Europako mapa fisikoa eta politikoa

12 liburu *Inventiones e inventores*, Ezequiel Solana-Escuela Española argitaletxekoa

10 liburu *Don Quijote de la Mancha*, Nicolas Gonzalezek egokitua-Escuela Española argitaletxekoa

10 liburu *Lecturas de Oro*, Ezequiel Solana argitaletxekoak

Elosuko azken maistra Julia Gonzalez izan zen eta 1971ean, haur denak leku berean biltzeko politikaren ondorioz, eskola nazional berria hustu egin zuten. 1971n, Elosuko Eskola Nazionalaren zereginak amaitu egin ziren eta aurrerantzean bailarako baserrietako haurrek herrira jaitsi behar izan zuten.

7. Urrategi bailara



Ormolamendi bailara, erdialdean Urrategiko basiliza

Kurutzeta mendipean kokatutako gunee menditsua dugu Urrategi, mendi-komunikabideetan toki estrategikoa. Bailara honetako gunee kuttunena Urrategiko Amaren Elizatxoa da, Sortze Garbiari eskainia. Eliza 1617an Frantzisko Lopez Irarragakoak sortu zuen, eta 1950ean Urrategiko *Gure Amaren* irudia, koroatua izan zenean, *Azkoitiko Zaindari* izendatu zen.



Urrategiko Gure Amaren irudia

7.1. Kondekkoa (Izer-konde) baserriko eskola

1868an, Maria Martina Brit-ek azaltzen du urte batzuk lehenago bere gizona zenak, Jose Lino Gurrutxagak, eskola ematen zuela *Condecua* etxean eta, Udalak horrela eskatuz, hiriko eskolara jaitsi zela; eskola honen beste berririk ez dugu izan:

Mi finado marido Gurruchaga, hallándose en la casa llamada Condecua de esa villa, con escuela abierta y con sus discípulos fue suplicado por el Ayuntamiento para que regresara a la villa con sus discípulos con el objeto de hacerse cargo de ella...



Kondekoa (Izer-konde) baserria

7.2. Egurbide-ola baserriko eskola

1892an, Egurbide-ola gunean eskola bat martxan jarri nahi izan zuten auzokoek, eta horretarako Santiago Orbegozo eta auzotar batzuek apirilaren 4an idatzia bidali zioten Azkoitiko Udalari, eskola martxan jartzeko diru laguntza eskatuz. Baina ez dakigu martxan jarri ote zuten (uste dugu, jartzekotan, gaur egun Egurbide-torre deitzen den baserrian jarriko zutela).



Egurbide-torre baserria

7.3. Izagirre-Torre (Torre-behekoa) baserriko eskola



Eskuineko eraikuntza txikian, Izagirre-Torre baserriko eskola

Eskola honen aurreneko datuak 1910ekoak ditugu. 1919an Clara Etxanizek, *Clara Altamira* izenez ere ezaguna zen maistrak, Udolari laguntza eskatu zion, esanez beharrezkoa zuela diru-laguntza Etxosta, Ormola eta Arrieta baserrietako ikasleei eskola emateko. 1926an, Torre-beheko baserriko eskolara 40 ikasle baino gehiago joaten ziren, eta Udalak eta gurasoek ematen zuten diruarekin mantentzen zen. 1919ko abenduaren 11an Clara Etxanizek Udolari bidalitako idatzian “*Colegio del Sagrado Corazón de Jesús*” bezala aipatzen du bere eskola.

1934an, Aldundiko Ikuskaritzak egindako txostenak honela deskribatzen zuen Clara Etxanizek zuzentzen zuen eskola hau:

La Instrucción es buena, dentro de lo rudimentario. La que hace de maestra es bastante anciana, pero tiene aún energías y se preocupa de enseñar lo que ella sabe. Lleva más de veinte años al frente de la escuelita. Los niños pagan 1.50 pesetas al mes. El local lo paga el Ayuntamiento y está decentemente aseadito junto al caserío.

Ikasleen asistentzia ona zen. Bataz beste 20 ikasle joaten ziren eskolara, baina bisitako unean 10 haur bakarrik zeudela zioen Ikuskarriak, auzotar ia guztiak elgorria pasatu zutelako. Maistra eskolatua zen,

ilustratua arlo batzuetan. Liburu erabilienak *Catona* eta *Jesusen Lehena* ziren. Ikasleek ia egun guztia dotrina ikasten pasatzen zuten. Instrukzioa euskaraz ematen zuen, gazteleraz pixka bat ere jarduten zutelarik. Maistrak egunean pezeta bat ateratzen zuen, diru sarrera denak kontuan izanik. Horrela deskribatzen dute eskola gertutik ezagutu zutenek:

Eskola korta bateko lehen solairuan zegoen. Kanpoko eskailera bidez sartzen zen bertaran, eta eskailera horien lehen atsedenean *komuna* egoten zen. Gelan ongi argiturik eta aireztaturik zegoen, baina berogailurik ez zuen. Etxosta-mendi eta Ormola mendiko 7-12 urte bitarteko neska-mutilak joaten ziren eskola honetara. Mutilak eskola honetatik, *kaleko* Kristau Dotrinako Anaien Eskolara zuzentzen ziren. Gelan ikasleentzat 2 mahai luze zeuden eta honi zegozkion bankuak, *pupitrerik* (idazmahairik) ez zegoen. Arbela asko erabiltzen zuten. Mutilek abarkak eta brusa erabiltzen zuten, eta bigarren komunioa egin ondoren, (12 urte geroztik) txapela.

Eskola goizez, 9etatik 11etara, eta arratsaldez, 2etatik 4½etara, izaten zen. Ostegun arratsaldeetan ez zen eskolarik egoten. Lau eragiketak irakasten zituen (batuketa, kenketa, biderketak eta zatiketak). Kurtso bukaeran galdeketak egiten zituzten Udal agintariak, eta pastelak oparitu. Hiru Udal ordezkari etortzen ziren, eta ikasle bakoitzari 2 pastel ematen zizkioten. Hilaren lehenengo ostiraletan, arratsaldeetan, Altzibarko Elizara mezetara joaten ziren, D. Primitivok ematen zuen meza entzutera.

Baserrietan txerria hiltzen zenean, eskolan bertako seme-alabak izanez gero, andereñoarentzat 2 odolki gordetzeko ohitura zegoen... (Joxe Mari Mendizabal eta Joxe Mari Arrieta)

1939an, Udalak eskola honi eskaintzen zion diru laguntza, urteko 250 pezetatik 350ra igo zuen. 1939an maistra honek horrela laburtzen zuen bere egoera:

Clara Echaniz y Beristain, vecina de Azkoitia habitante de la calle de Santa Clara nº 15, expongo respetuosamente que como me hallo con un pequeño sueldo de esta villa para educación y enseñanza de la doctrina cristiana en el barrio de Ormola y Echaustemendi en el caserío de Izaguirre-Torre, llevo cincuenta y tres años de servicio y nunca me ha llegado a 1,50 el jornal diario a hora 1 peseta y el viaje lejos. Suplica que se me conceda algo de aumento por estar la vida más cara y tener que venir a media legua con 80 años. Esta gracia espero de religiosidad de J.V.S. cuya vida guarde Dios muchos años. Azcoitia 27 de julio de 1939.

1941ean, Clara Etxanizek Udalarari bidali zion idatzian zera zioen: 82 urte beteak zituela eta 54 urte zeramatzala irakaskuntzan, bere lana Kristau Dotrina eta irakaskuntza irakastea izan zela Ormola eta Etxosta mendiko ikasleei, eta kontuan izanik bizimodu motza gelditzen zitzaiola, 500 pezetako diru laguntza gustura hartuko lukeela. Eskola hau 1943an itxi zen.

7.4. Olarantxo baserriko eskola

Ormola-mendiko Lorenzo Garate maisua hil zenean, 1915ean, auzotarrek, otsailaren 18an, Olarantxo baserrian eskola zabaldu zuten. Bertako maisuari Udalak 50 pezeta eman zizkion.

7.5. Olan baserriko eskola



Olan baserria

Gerra ondoren Luzia Alberdi, bertako alaba, jarri zuten eskolako arduradun. Oinarrizko edukiak eta dotrina irakasten zituen. Lehenik *Dotrina txikia* eta gero *Dotrina handia* ikasten zuten, dena buruz, eta ondoren *Jesusekoa*. Esku-lanak ere ugari egiten zituzten, bereziki neskek. Mutilek *paloak* (marrak zuzen ematen), ikasten zuten bitartean, neskek puntua egiten ikasten zuten. Mahaiak bi pertsonentzakoak ziren, tintero eta guzti, arbel handi bat ere bai. 17 bat haur joaten ziren baserri honetako eskolara.



Luzia Alberdi, Olan baserriko maistra

7.6. Zubazu (Zuutzuko) baserriko eskola

Gerra aurretik garrantzi handiko eskola izan zen. 1926koak ditugu eskola honen lehen datuak, urte horretan eskolara 21 ikasle joan ziren. 1935ean Maria Sudupe Astigarraga egon zen eskola ematen eta 24 ikasle izatera iritsi zen. Ikasleak mahai handi baten inguruan egoten ziren eta honako lanak egiten zituzten: *Manuscrito*a kopia, dotrina ikasi, irakurri, idatzi eta oinarrizko kalkulua. 1936an, Polonia Astigarraga Azkoitia, bertako senidea eta maistra, baserri honetako eskolatik baztertua izan zen nazionalisten aldeko jokaera izan zuelako akusaziopean, maistra honek 58 urte zituen zigortu zutenean.

7.7. Koroategi (Koatei) baserriko eskola

Baserri honetako gurasoek bertako seme-alabentzat maistra bat ekarri zuten. Hiru urtetan egon zen Jesusa Garralde bertako haurrei

eskola irakasten. Urte haietan kalean gosea zegoen eta hau izaten zen kasu gehienetan kaleko jende gaztea baserrietara joateko arrazoia. Maistra astelehen eguerdian etortzen zen baserrira, eta berriro larunbat eguerdian Eibarrera itzultzen zen.



Koategi baserria

7.8. Zukiazu (Zukuzu) baserriko eskola

Zukuzu baserrian 1940ko hamarkadaren erdialdean eskola ireki zuten. Eskola honetan Manuel Hernández Bretón, maisu tituluduna eta Azkoitiko eskola nazionaletan ordezkatze lanak egindakoa, egon zen. Lanik gabe gelditu zenean, baserri honetan hasi zen eskola ematen eta 8 bat urte egon zen bertan oinarrizko edukiak irakasten, bai txikientzat eta baita 14 eta 18 urte bitarteko gazteentzat ere. Gazteei gau-eskola ematen zien eta irakurtzen eta idazten irakatsi ere bai. Gau-eskola negu partean ematen zen, udaran baserrietan lana egoten baitzen.

Gobernadore Zibilak eskola honi eta beste batzuei (Kataolatza-azpikoa, Arrieta-Muno, Igara eta Monte baserrietan zeuden eskolei) lege-kanpoko eskolak, *escuelas clandestinas* deitu zien, eta hauek ixteko agindu zorrotzak eman. Gobernadore Zibilak uste baitzuen landa-inguruetan ireki nahi ziren eskola nazional berrien garapena moteldu egingo zutela.



Zukuzu baserria

7.9. Irizar-Etxetxo (Izer-Etxetxo) baserriko eskola



Izer-etxetxoko eskola ezkerreko eraikinean zegoen

XX. mende hasieran Maria Aranbarri egon zen eskolan irakasten: dotrina, irakurketa eta idazketa ziren bere irakaskuntzaren oinarria. Bertako ikasleak, mahai handi baten inguruan egoten ziren. Gerra

aurretik hau izan zen bailarako eskola garrantzitsuena. 1937an eskola itxi egin zuten, eta bere ordeztu Urrategiko elizatzoxan zegoen gela batean jarri zuten eskola.

7.10. Urrategiko Andra Mariaren baselizako eskola

Urrategiko Amaren baseliza da gune honetako eraikuntzarik adierazgarriena, ate gainean dagoen idazkiaren arabera 1617an eginikoa da.



Urrategiko baseliza eta bertako eskola

Urrategiko eskolaren lehenengo datuak 1902ko irailaren 11koak ditugu eta Urrategiko eskola soilik aipatzen denez, hasierako eskolaren kokapena ez dago konfirmatua, agian elizatzoxo gainekoa izango zen. Urte horretan, auzotarrek Udalaren baimenik gabe ireki zuten eskola, eta obrak egin ondoren Udalarari diru laguntza eskatu zioten, ez baitziztaien iristen dena ordaintzeko:

Suplico los vecinos de Barrio de *Uratei* a los Sres como había gran *nesesidad* (sic) este barrio de un maestro a enseñar escuela a los niños y *icimos*(sic) sitio de colocar los niños y los gastos han subido (...) además falta todavía bancos y bastidores de ventanas (...).

Baina Udal agintarien eskola baimenik gabe egitea ez zuten oso begi onez ikusi. Elizatxo honetan egondako eskolaren ondorengo berriak 1936koak ditugu, Izar-etxetxoko eskola itxi ondoren hemen ireki baitzen. Hasieran egon ziren maistrak, Izer-etxetxoko eskolan ikasitakoak izan ziren. 1936an Maria Aranbarri egon zen, 25 ikasle zituelarik; ondorengo urteetan aritu ziren Concepcion Juaristi Uzin (1944), Manuela Juaristi (1945-1946) eta Aurora Artetxe Larrañaga (1947-1949). Udalak ikasleko pezeta bateko diru laguntza eta eskolarako behar zuten materiala ematen zien maistra hauei. Hau oraindik gutxitxo izanik, Aldundiak urteko 350 pezetako diru laguntza ere ematen zien.



Urrategiko eskola zaharra elizaren lehenengo solairuan zegoen

Eguneko irakaskuntza emateaz gain, azpimarratu behar negu garaian, astean bi-hiru aldiz eta arratseko 7etatik 9etara helduentzako instrukzioa irakasten zutela. Gau-eskoletara 16-20 urte inguruko gazteak joaten ziren, bereziki irakurtzen eta idazten ikastera –gaztetan ikasitakoa ahaztuta zuten, ikasitakoa ez zutelako landu eta erabili,

analfabeto funtzionalak ziren gehienak—. Gazte hauentzat arazo larria izaten zen irakurtzen eta idazten ez jakitea, hauetako askok soldaduska egitera Euskal Herritik urrutira joan behar izaten baitzuten eta karta idaztea izaten baitzen familiarekin harremanak izateko era bakarra.

Kontxa Juaristik, Urrategin maistra egondakoak, honela laburtzen ditu garai hartako kontuak:

Eliza gainean zegoen eskola. Lehenago Izer-etxetxo baserrian egon zen, baina gero eskola Urrategira pasa zen. Nik Izer-etxetxoko eskolan ikasi nuen letzen eta idazten. Gerra ondoren herriko agintariek esan zidaten eskola emateko, inor ez zegoela eta maistra jarri ezker beraiek ordainduko zidatela. Ikasleei irakurtzen eta idazten erakusten zen zitzaien eta pezeta bat kobratzen zitzaien hileko.

60. TAULA: *Urrategiko eskolara joaten ziren ikasleak, 1945ean*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen-abizenak eta adina
Eguzkitza	Luzia Mendizabal Larrañaga (8)
Olantxo	Begoña (11) eta M ^a Aranzazu Alberdi Gabilondo (9).
Ormola	Jose M ^a (10) eta Isidro Astigarraga Larrañaga (6)
Uruzula	M ^a Teresa Juaristi Mendizabal (6)
Malmadi	Matxin (10), Luis (9), Francisco (8) eta Victor Alberdi Lizarralde (6)
Oianguren-azpikoa	Francisca (9), M ^a Jesus (9) eta Fermin Juaristi Aranbarri (7)
Ubieta-goena	Jose M ^a (8) eta Lucia Alberdi Sudupe (6)
Oñatibia	M ^a Teresa (7) eta Nieves Alberdi Uria (5).
Irizar-etxetxo	Andres Badiola Egaña (8)
Errazti	Antonio Zubizarreta Larrañaga (8)
Uzin	Roberto Arregi (8)
Uzin-goikoa	Carmen Ibarmia Urzelai (9)

61. TAULA: *Urrategiko ikasleak eta adina, 1954an*

Ikasleen adina (urteak)	5	6	7	8	9	10	11	
Ikasle kopurua	1	4	2	6	5	2	1	Denera 21

1947ko abuztuaren 26an, Aurora Artetxek eskatu zuen maistra postua eta berari eskaini zitzaion. Maistra hau 1949ra arte egon zen, eta horrela deskribatzen dizkigu garai hartako gorabeherak:

Azkoitiko herrigunean, Jenara Aranbarrik zeukan eskolan ikasi nituen oinarrizko edukiak, *Plaza Berrin*. Ikasitako pixkarekin hasi nintzen irakasten Urrategiko eskolan. Eskola goiz eta arratsaldez izaten zen 9etatik 12etara, eta 3etatik 5etara. Gelan arbel handi zegoen, erabiltzen ziren liburuak ia denak gaztelerazkoak ziren. *Guia del Artesano* erabiltzen zen eta handik diktatua egiten zen. Euskaraz *Kristau-Ikasbidea* lantzen genuen eta *Jesusekoa*, hau gaztetxoekin. Santa Genobebaren bizitza ere erdaraz irakurtzen zen.

Francoren garaian euskara erabiltzen zuenari, ia eskola denetan bezala, *anilloa* jartzen zitzaion, eta gero zigortua izaten zen: maistrek ere ez genekien gaztelera, eta *eraztuna* erabili behar! Maistra lana eginez irabazten zen dirua, gazteontzat bereziki, asko izaten zen. Amak esaten zidan: ni baino gehiago irabazten den! Maistra nazionalak ekarri zituztenean eskola utzi beharra izan nuen. Eskola hone-tan bukatu nuenean, *Larraskanda* baserrian eskola ematen hasteko aukera, izan nuen, baina utzi egin nuen, oso urruti zegoelako.

(Aurora Artetxe)



Aurora Artetxe eta Urrategiko eskolako ikasleak, 1949an

Azken iladan: *Utuzko* M^a Kruz, *Oinatibiko* M^a Axun, *Zabaletako* Bixenta, *Uzin-Arretzeko* Ageda, *Kortatzoko* Milagros eta *Azalgorretako* Kontxita. Tente: Aurora Artetxe, maistra, *Kortatzoko* M^a Angeles, *Utuzko* Tere eta M^a Angeles ahizpak, *Errastiko* M^a Luisa, *Uitexoko* Xalome, *Oinatibiko* Tomasa, *Uitexoko* Emili, *Olango* M^a Angeles, *Oinatibiko* Nieves eta *Uitte-Goeneko* Luzia. Eserita: *Malmaiko* Bittor, Miel eta Jesus anaiak; *Maltzetako* Elias; *Uitte-Goenako* Patxi eta Jose Luis anaiak; *Oinetibiko* Fermin eta *Errekaldeko* Ixidro eta Axen anaiak. Lurrean eserita: *Urrategiko* Luis Mari, Joxe eta Alberto anaiak.

7.11. *Urrategiko Eskola Nazionala*



Ezkerretara basiliza eta eskuinean Eskola Nazionala

1949an etorri zen bailara honetara aurreneko maistra nazionala, Milagros Azurmendi, ondoren maistra asko aldatu ziren. Hauetako batzuk aipatuko ditugu:

1951n, M^a Angeles Esnaola Bidaurreta (honek egun gutxi iraun zuen).

1952an, Damiana Bidaurreta.

1955ean, Julia Vega eta Florentina Fernandez.

1956an, Martina Etxetxipia Cruz.

1958an, Josefa Pabola Rendin eta ondorengo urteetan M^a Jesus Muñoa eta-Saturnina González.

1960an, Maria Luisa Barace Imizkoa

1963an, M^a Angeles Maeztu.

Maistra hauek gazteleraz irakasten zuten, auzoko neska-mutil gazteei eta gurasoei ulergaitza egiten zitzaien hizkuntzan. 1954ko ekainaren 26an horrela deskribatzen du Damiana Bidaurreta Gerediagak eskola:

La escuela se encuentra en el barrio de Ormolamendi, a 3 Km. del casco de Azkoitia y recoge a los niños de 20 caseríos diseminados en dicho monte. Tiene una ermita, donde los domingos y días festivos un sacerdote de la Parroquia celebra la santa Misa. Recientemente ha sido inaugurada una carretera que une al pueblo. Carece de línea de transporte, habiéndose de salvar a pié la distancia que le separa del pueblo. La escuela carece de condiciones higiénicas y pedagógicas, puesto que al ser creada el año 1949, fue instalada provisionalmente en la cocina aneja a la ermita de la Virgen, en la que continúa. No tiene retrete ni agua. El local es muy reducido y con un techo muy bajo; tiene capacidad para veinte niños, pero siendo numerosos los niños en edad escolar se ve obligada a admitir hasta cuarenta y cinco. No tiene vivienda para la Maestra, viéndose precisada a alojarse en el único caserío próximo a la escuela. Hay proyecto de construcción de una nueva escuela. En la escuela no funciona la Mutualidad escolar, pero se halla en su implantación. Tampoco hay Coto escolar.

Todos los servicios docentes las ha desempeñado en esta provincia y siempre en medios rurales: Beizama, Alquiza, Alegria de Ichaso y Oyarzun. Son en total 33 años de servicio. Por ser natural y residente en Gipuzkoa, habla correctamente el vascuence.

1956an eman ziren Urrategiko Eskola Nazionala eraikitzeke lehenengo urratsak, urte horretan onartu baitzuen Aldundiak Udalak bidalitako proiektua. Proposatzen zen eskola ER-35 ereduakoa zen, eskola bakarra neska-mutilentzat eta maisu-maistrarentzat etxebizitzarekin. Proiektua Joaquin Irizar arkitektoak egin zuen, azkoitiarra eta une horretan Gipuzkoako Hezkuntza Ministerio Nazionalako Arkitekto Delekatua. Aurreneko aurrekontua 283.580,23 pezetakoa izan zen, eta eskola eraikitzeke Udalak lur-saila eta kostuaren % 27,50 ordaindu behar zuen.



Urrategiko Eskola Nazional berria

Urrategiko eskolaren aurrekontuan, 1956ko otsailaren 28an, honako atalak nabarmentzen ziren:

Hondeaketa eta hargintza	70.575,00 pezeta
Hormigoï armatu.	55.100,00 pezeta
Igeltserotza	87.600,00 pezeta
Iturgintza	9.585,00 pezeta
Arotzeria	26.695,00 pezeta
Argi- eta elektrizitate-gauzak	2.740,00 pezeta
Kristaleria.	1.737,00 pezeta
Pintura	5.322,00 pezeta
BATURA	259.344,50 pezeta
Proiektuaren zerbitzu-sariak	7.131,97 pezeta
Zuzendaritzaren zerbitzu-sariak	10.697,97 pezeta
Aparejadorearen zerbitzu-sariak	6.405,80 pezeta
KOSTU OSOA	283.580,23 pezeta

Baina enkantea ez zen erraza izan, hiru aldiz atera zuten eta bitan hartzailerik gabe gelditu zen. Azkenean eraiki zen eskola 344.867,02 pezeta kostatu zen. Eskola-altzariak Gasteizeko Apellaniz lantegitik ekarri zituzten, eskolarako material pedagogikoa Donostiako Ramos liburu-dentatik. Liburu-denda horretatik, 6.602,50 pezeta ordaindu-ta, honako materiala ekarri zen:

62. TAULA: *Ramos liburu-dendatik ekarritako materiala*

1 Cuadro de la Inmaculada, a 13 pesetas	1 El Mes de mayo en la escuela,
1 Cuadro del Caudillo, a 110 pesetas	1 Álbum para punto de cruz y frances a 110 pesetas
1 Escribanía de oficina con carpeta 65x103, a 168 pesetas	1 Puntillas de ganchillo
1 Cesto para papeles, a 80 pesetas	10 Ardilla Teide (5 de 1º y 5 de 2º, a 450 pesetas
1 Regla, cartabón y compás encerado 22,50x30x60, a 112,5 pesetas	10 Cánteme A, (de Medina), a 350 pesetas
1 Esfera terrestre, a 350 pesetas	10 Cuentos y Poesías, a 250 pesetas
1 Colección de mapas (12 mapas) a 2400 pesetas	10 Cartel Maillo, a 250 pesetas
1 Colección de cuerpos geométricos a 265 pesetas	6 Ama Dalmau, a 390 pesetas
1 Regla escritorio y 6 escolares 40x6 a 64 pesetas	6 Aventurasde Juan José (Medina), 192 pesetas
1 Frasco de goma para pegar	6 El mundo de las cosas (Dalmau), a 198 pesetas
1 Tijeras	6 El mundo de los animales (Rojas), a 240 pesetas
1 Timbre de mesa	6 El hombre, a 240 pesetas
8 Carpetas a 14 y a 10, a 96 pesetas	1 La mujer y su hogar, a 35 pesetas
1 El catecismo explicado Lorente, a 50 pesetas	

1965eko urriaren 30ean inauguratu zen bailara honetako eskola berria. Egun berean inauguratu ziren herrirako urak biltzeko obrak, eta 36 etxe berri. Ospakizun hauetara herri-erakundeetako ordezkari eta agintariak gonbidatuak izan ziren:

Hacia las once y cuarto llegó la comitiva al barrio de Urrátegui para la inauguración de la Escuela. Directamente acudieron desde San Sebastián a dicho lugar el Secretario de la Junta de Construcciones escolares, D. Aurelio Villa, el Inspector Provincial de Primera Enseñanza, D. José Sánchez, el Arquitecto provincial de Primera Enseñanza y el Arquitecto D. Joaquín de Irizar. También estuvieron presentes el Alcalde del barrio D. José Elorza, el cura

encargado D. Jesús María Echezarreta y la Sra. Maestra. Hizo la bendición del Párroco D. José María Galarraga. Se ofreció un aperitivo en el Bar del Barrio.

Beste hainbat jauntxo eta ordezkari politiko ere izan ziren ekitaldian: Diputazioko Presidentea, herriko Alkatea, herriko Parrokoa, Azpeitiko Postuko Guardia Zibil tenientea, eta herriko beste hainbat jauntxo. Maistra nazionalekin gauza asko aldatu ziren, horrela 1963an Urrategi eta Olason zeuden maistrak, beraien ikasleekin Hendaiara joan ziren egun pasa, Udalak emandako diru laguntzarekin. Eskola honetan aritutako maistren artean, hauek aipatuko ditugu: 1966an Blanca Saint Gerons; 1969an Irene Gonzalez Ruiz; 1969an Constantina Puente Villafaña. Urrategiko Eskola Nazionala, 1977ko apirilaren 29an itxi zen eta Constantina Puente izan zen azken maistra.

Constantina Puente Villafañak honela deskribatzen du Urrategiko eskolan igarotako garaiak:

Eskola honetan liburu erabilienak Alvarez argitaletxeokoak ziren; Santillana argitaletxeo liburuak ere bazeuden, baina egokiena Alvarez erabiltzea zen, marrazki ugari zitenez, ulerkorra zen. Bailara honetako hurrek gaztelaraz ez zekiten, eta arazoak edo zalantzak genituenean Hezkuntza Ikuskariari galdetzen genizkion, Javier Crespori, hau zen gure erreferentzi bakarra. Baserrietako seme-alaba gutxi batzuk, eskola-graduatu titulua jason zuten, diploma hau ateratzeko gaztelera jakitea beharrezkoa izaten zen eta askorentzat hizkuntza arazo gaindiezina zen.

Oposaketak egiterakoan, eskola hutsik ez lagatze arren, ordezkatzea egiteko auzotar gazteak hartu nituen, ordezkoa bidaltzekotan bi-hiru hilabete tardatzen baitzuten. Oposaketak atera ondoren Urrexola eta Urrategiko eskolen artean aukeratu behar izan nuen. Urrexolara joateko 125 eskailera igo behar zirela esan zidaten eta Urrategiko eskolak etxea zuela, baina ez argi eta ez urik –eskolan argia egon bazegoen, baina baserritarrak esne jaisten hasten zirenean argiak indarra galtzen zuen–.

1977ko apirilean eskola itxi egin zuten, eta maiatzean hasieran bertako ikasleak eta maistra herriko eskola nazionalera jaitsi ginen. Aldaketak azken momentuan, eta isilpean, izan ziren. Altamirako Zuzendariari eta Udal ordezkariari bakarrik eman zioten aldaketaren berri, baina maistrei ez; azken unera arte inork ez zuen jakin noiz egingo zen aldaketa. Eskola ixtea une garratza izan zen; gure herriko bailaretan ez zen arazo berezirik sortu, baina bai beste herrietan.

Herrigunean, Azkoitiko Eskola Nazionala hiru lekutan zegoen banatua: *Landakanda* aldean, *Sansebastin* aldean eta *Altamiran*.

Garai hartan irakasleen artean *El Magisterio Español y Escuela Española* aldizkariak ziren irakurrienak. Azken honek langileen eskubideei buruz informazioa ematen zuen, han azaltzen zizkiguten irakasleen eskubideak.

8. Zuazola (Zuzula) bailara

Izarraitz magalean dugu Zuzula edo Olaso auzoa, honek mendebaldera begira Elgoibarrera doan errepideak zeharkatzen duen ibarra-rekin bat egiten du. Bailara honetako eraikuntzen artean hainbat etxe gailentzen dira: Iraola-torre, Erdi Aroko dorretxea izan zitekeena, Zuazola-Torre bezalaxe, baita Olazabal, Aizpuru eta Mokoroaga-Haundi baserriak ere.



Izarraitz mendia eta Azkoitiko herria, Martitte aldetik

8.1. Iraolaza-Etxeberri baserriko eskola

1898an, Iraolaza-Etxeberri baserrian (orain leku horretan txabola zahar bat dago, huntz artean) egon zen garai bateko bailarako eskola. Aldalur Parroko Jaunaren eskakizunari erantzunez ireki omen zuen Maria Lizarralde eskola; honek esan omen zion Udalaren aldetik laguntzaren bat jasoko zuela. Baina Udalaren aldetik laguntzarik jasozten ez zuenez agindutako diru laguntza eskatzera ausartu zen. Maistra hau, 1906an, oraindik ezer jaso gabe zegoen.

1933an auzotarrek, Ascensio Lizarralde buru zelarik, Maria Garate Garate proposatu zuten Iraolaza-Etxeberri baserriko eskolarako. 1933ko urriaren 8an, eskola honek 24 ikasle eduki zituen eta Udalak 150 pezetako diru laguntza eman zion.

8.2. Zuazola-Arratza baserria

1934an Maria Lizarralde Iraolaza-Etxeberriko eskola utzi eta baserri honetan hasi zen eskolak ematen.



Zuazola-arratza baserria. Aita Pasionistak Jauna baserrietara eramaten

8.3. Aginatxo baserriko eskola



Aginatxo baserria, Txintxilo gainean

Eskola honi buruz ere informazio gutxi dugu, jakin badakigu 1914an eskola honi Udalak 50 pezetako diru laguntza eman ziola, bertan hamar ikasletik gora baitzeuden. Eskola honetako ikaslea izan zen Mariano Juaristi, Atano III. pilotari txapelduna. Hemen egon zen maistra Eusebia Arregi Osoro, gero *Utxerri* baserrian egon zena.

8.4. Urkiolegi baserriko eskola



Urkiolegi baserria, eskola lehen solairuan zegoen

Hasiera batean eskola honetan *Aginatxo* baserrian egondako Eusebi maistra aritu zen. Gerra ondoren Serapio Sagarzazu (1940-1947) jarri zuten maisu. Serapio Sagarzazu, Juan Jose Garmendiarekin batera, Madrilan egondakoa zen. 1942an, eskola baserri horretan izateagatik, Udalak 90 pezetako errenta ordaintzen zion Asentsio Lizarralderi, eskola zuten beste baserri askorekin egiten zuen bezala. Udalak errenta ordaintzeaz gain, eskolako materiala ere ematen zien. 1942an, Urkiolegiko eskolarako, litro bat tinta, 20 koaderno eta klarion kaxa bat eman zituen. Aldundiak Urkiolegiko maisuari, urteko 350 pezeta ematen zizkion.

1945eko azaroaren 30ean, Serapio Sagarzazu Astigarraga maisu zelarik, ikasle hauek ziren eskola honetara joaten zirenak.

63. TAULA: *Urkiolegiko ikasleak, 1954an*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen abizenak
Zuzula-Canova (Kanunekoa)	Ignacio, Angela eta Martin Arregi Astigarraga
Bieta	Begoña, Margarita eta Clara Astigarraga Arregi
Iraolaza- Torre	Jose M ^a , Ignacio eta Jose Luis Astigarraga Lizarralde
Larregi	Teresa, Maria eta Jesus Artetxe Astigarraga
Zuzula	Antonio Albizu Astigarraga
Olaso	Maria Carmen Sudupe Urbietta
Kalparsoro	Jose eta Manuela Oteiza Azpitarte
Urkiolegi	Ignacia, Agustin, Ascencio, Carlos eta Victor Lizarralde Arrieta.

Serapio Sagarzazu maisu eskolatua zen, eta herriko hainbat ilustraturekin batera hezkuntza proiektu interesgarri batean parte hartu zuen. Proiektu honen xedea Azkoitian Bigarren Hezkuntzako eskola bat eratzea zen, *Zalduntxoan Akademia*. Proiektu honen atzean hainbat pertsonaia ilustratu zeuden: Del Valle Lertxundi, D. Benigno *Ixkurre*, apaiza, D. Jose Otaño, gero herriko alkatea izango zena, eta Trino de Uria. 1948ko otsailaren 10ean, Serapio Sagarzazuk Urkiolegiko eskola utzi egin zuen eta eskola *Olaso* baserriara pasa zen. Urkiolegiko eskola utzi ondoren, Serapio Sagarzazu eskola partikularrak ematen hasi zen herrigunean:

Su aula está en el típico patio de la casa “Kiruri”, en donde los niños se sientan sobre la paja. El viejo Serapio, encarnado en un largo balconaje de madera, perora sobre Historia o Geografía, ante el pequeño auditorio. Algo tiene esta estampa que recuerda el color de las viejas escuelas rabínicas o bíblicas. Aquí, Serapio educa a los niños con la experiencia lejana de sus días madrileños, de donde una razón sentimental le trasplantara a Azcoitia.

El buen D. Domingo visita la escuela algunas veces. El esclarecido sacerdote tiene que forzar mucho los hondos bolsillo de su sotana, para dar con los cacahuets precisos para premiar la sapiencia religiosa de los alumnos de Serapio, el buen maestro

(Uria, T., *La Voz de España*, 1953ko martxoaren 1a).

8.5. *Olaso baserriko eskola*



Olaso baserria

1948an, Urkiolegi baserriko eskola itxi zenean, bertako ikasleak Olasoko eskolara pasatu ziren, gertu baitzegoen. Hemengo maistra Manuela Arrizabalaga Elorza, *Manolita Biurrinenekoa* zen. Maistra honek euskaraz irakasten zuen, dotrina eta oinarritzko lau eragiketa. *Manolitak* klase partikularrak ere ematen zituen, bazkal aurretik gazte-txoentzat, 12etatik aurrera eta ilunabarrean gau-eskola, lanean zebiltzan

gazteentzat. Maistra honi Aldundiak 400 pezetako laguntza ematen zion 1948ko otsailaren 10ean.

Maistra nazionala etorri zenean, 1949an, *Manolitak* eskola hau utzi eta kalean, *Baztarrikalden*, Atano VII tabernaren gainean, jarri zuen eskola partikularra eta han aritu zen, gazte eta haurrei eskola partikularrak ematen, arrakasta handiarekin. Maistra honek oinarritzko kultura, kontabilitatea eta mekanografia ematen zituen.



Manuela Arrizabalaga maistra

8.6. Olasoko Eskola Nazionala

Maistra nazional berriak etorri zirenean ikasleentzat arazoak ugaritu egin ziren. Auzoko neska-mutilek euskara besterik ez zekiten eta ez zioten maistrari ezer ulertzen. Gazteleraz irakastea euskara baztertze eta desprestigiatzeko era bat izan zen.

Ez zuten euskaraz hitz egiten uzten. Inork ez zekien *arrastoriken* nola zen *erderie* eta erdaraz erakusten zuten, *euskerie* ederki asko *bajatu* zuten. (Martin Arregi)

Pilar Ramis izan zen eskola honetako lehenengo maistra nazionala. Dirudienez ez omen zen oso euskaldun zalea, bailarakoak oraindik gogoratzen dute nola esan omen zien euskarazko dotrinarik ez irakurtzeko: *!Ese catecismo es del demonio!* Olasoko jolas lekuan ikasleren bati euskaraz entzunez gero, zuzenean eskolara bidaltzen omen zuen zigortuta. Euskaraz norbait zuzentzen bazitzaion azkar askorik esaten omen zuen: *!Hablame en cristiano!* Gerra aspaldi bukatu arren,

frankismoaren ideologia indartsu zegoen eta ez zuen begi onez ikusten ez euskara eta ezta euskal kultura ere. Oraindik eskola guztietan derri-gorrezkoa zen *Cara al Sol* abestea. Eskolako zereginari buruz, gorago esan den bezala, irakurtzen, idazten eta lau eragiketak egiten erakusten zuten; zatikizko zenbakiak, *quebradoak*, ere lantzen zituzten.

1951n, Magdalena Balzola etorri zen. Honek 11 urtetik beherakoei ez zien kobratzen, eta adin hau pasatzen zutenek otarraka egur eman behar izaten zioten. Gau-eskola ere irakatsi zuen maistra honek, neguan eta egunero 8etatik 10etara. Gau-eskolara auzoko 6-8 gazte joaten ziren, eta denetik irakasten zen: irakurketa, idazketa, matematika...

Garai hartan euskaraz eginez gero zigortu egiten zuten. Segun eta nolakoa zen ikasleen portaera, puntuak kendu egiten ziren; euskaraz hitz egiteagatik ere puntuak kendu, eta eskolan azkeneko lekuan jarri arazten zuten.

Hilean behin, *Religion* ematera, D. Domingo etortzen zen. Galderak asmatzen zituenari konfiteak ematen zizkion. Hilean lehenengo ostiralean ikasle denak mezetara jaisten ziren. Lehenbizi denak eskolara eta gero kaleko elizara (eta karamelu potoloa oparitu ere bail).

Lehen ostegun arratsaldean jai izaten zen, baina gero hau larunbat arratsaldera pasa zen, maistrak Donostiara joan behar izaten zuelako. Olaso eta *Laxao* baserri-eskoletako ikasleak etsaminatzera *Madarixara* joaten ziren urtean behin. Hara Ikuskaria etortzen zen eta, segun eta nola egiten ziren frogak, sariak ematen zituen. Garai hartan eskolan aurreratuta zeudenei Azkoitiko herriari buruzko liburua ere oparitzen zioten –Azkoitiko Historiari buruzko liburu bat oparitzen omen zuten, azal zuriko eta barrua koleretakoa, bertan Baldako etxea, herriko pertsonaiak, jauregiak ... zituelarik– (Luzia Lizarralde).

1954ko ekainaren 28an, horrela deskribatu zuen Magdalena Balzola Pesok Olasoko Eskola Nazionala:

Mi escuela, mixta, está establecida en el barrio de Izarraitz a la que se llega, desde Azkoitia, casco, yendo Kilómetro y medio por carretera y dos kilómetros, a pié, por camino carretil. Hasta ahora, daba clase en un cuarto habilitado del caserío Olaso. Pero desde el 8 de enero último, tengo escuela nueva, edificada por los vecinos con la ayuda del estado. Es un barrio sin Iglesia, ni teléfono ni agua. En mi escuela funciona la Mutualidad escolar, iniciada por mí. Sé poco vascuence, pero lo bastante para entender y hacerme entender.

Llevo en esta escuela, en propiedad, desde del 24-11-51, hasta el momento actual, esto es, tres años y tres meses. Antes, fui maestra interina en Beasain desde el 4-V-49, al día de 31-VIII-49.

Auzoko gazteak, Magdalena Balzolaren gau-eskolan ikasitakoarekin aurkezten ziren herriguneko eskola nazionalan egiten ziren etsaminetara, eta eskola-graduatua, *Certificado de Estudios Primarios*, ikasle bat baino gehiagok lortu zuen. Agiri hau eskuratzea oso garrantzitsua zen gero lan duina izateko.



Olasoko Eskola Nazionala



Olasoko Eskola Nazionala. Eliza bezala ere erabilia izan zen

Eskola berria auzotarren ekimenez egin zen. Baserritarrek eskola eraikitzeko behar zen esku lana eta diru kopurua eman zituzten, bakoitzak 400 pezeta eta denen artean 6.000 pezeta. Eskola honek maistrarentzat etxea ere bazuen, hau pribilegioa zen garai hartan.

1955ean, maistra nazionala falta zela eta, Madariagako apaizak, Juan Martin Zurriarainek, eskaturik Maria Dolores Iriondo jarri zuten maistra zen eskola honetan (Maria Dolores Iriondori, Juanita *Barokoaren* bitartez etorri omen zitzaion abisua) eta urte batzuetan oso gustura aritu omen zen eskola honetan. 10-15 ikasle etortzen omen ziren eskolara.



*Maria Dolores
Iriondo eta dotrinako
ikasleak*

Olasoko Eskola nazionalan egon ziren maistrak hauek izan ziren:

- 1958an, Elena González.
- 1966an, Montserrat Martínez Ramos.
- 1967an, Feli Gonzalez.
- 1970ean Erundina Lopez.
- 1971ean, Horminda Baños.
- 1973an, Serafina González Mayo.
- 1976an, Luisa Baz González.
- 1977an, Maria Dolores Romero.

Zein urtetan egon ziren zehatz ez dakigun arren, aipatutakoaz aparte, eskola honetan beste maistra hauek ere egon ziren: Jacinta Velasco, Maria Teresa Biurrun San Martin, Albizuri... Maistra asko aldatzen zen eskola honetan.

Eskola hauetan gehien erabiltzen zen liburua Alvarezen *Enciclopedia* zen, lehen eta bigarren graduak. Maistra hauek gau-eskola ere irakatsi zuten. Lehen aipatu bezala, gaztelera ez menderatzea eragozpen handia izan zen auzoko neska-mutilentzat, maisu-maistraren azalpenak ulertu nahi eta ezin.



D. Esteban Lizarralde Aramendiri egindako omenaldia,
1970eko abuztuaren 30a

1977an itxi zen Olasoko Eskola Nazionala eta bertako ikasleak herriguneko eskola nazionalera, eskolara, bideratu ziren. Eskola kendu zutenean bizia galdu zuen auzoak.

9.-Madariaga bailara



Madariaga bailara

Madariaga bailara Deba eta Urolako ibarren artean dago, eta Izarraitzerako eta kostarako derrigorrezko igarobidea da. Eliza San Isidroren zaindaritzapean egina dago, eremu honek duen landarako emanaren adierazgarri. Elizate honen sorrera 1817an dugu, Izarraitz aldeko nekazariak eginiko eskaera baten ondorioz, 1824an eraiki zen. Bailarak baditu hainbat baserri interesgarri, hala nola Aldazabal, XVII. mendean geroztik dokumentaturik dagoen oinetxea, eta Ondarroa. Lasturrerantz doan aipaturiko bideak *Marikutz* zeharkatzen du, gune honetan berezko aintzira baten aztarnei eusten zaie, inguruan bi historiaurreko tumulu baitaude, Mari-Kutz I eta II.

9.1. Madariagako Isidro Donearen basilizako eskola



Madariagako Isidro Donearen eliza eta eskola

Bailara honetako aurreneko auzo-eskola partikularren erreferentzia 1887koa dugu. Eskola Elizaren ondoan omen zegoen, Emeterio Kortabitarteren ardurapean eta Udalak urteko 50 pezetako laguntza ematen omen zion. Honen ondoren, maisu hauek egon ziren: 1891n, Agustin Unanueri Udalak 125 pezeta ematen zizkion urteko; maisu honen ondoren Jose Maria Lete Arrizabalaga eta Francisco Oianburu ere egon ziren. 1911n, Juan Jose Garmendia Martija jarri zuten maisu eta sakristau, eta honek 40 urte baino gehiago iraun zuen Madariagan, maistra nazionalak etorri arte. Horrela deskribatzen du Beristainek maisu honen bizitza:

Madarixako Benta-berriko bailarako baserrian jaioa, 1882ko otsailak 26n. 12 urterekin Jesuita etxera joan zen pixka bat ikastearren eta 17 urterekin Madrilerera joan zen eta Marc Crohon eta Jaravaren etxera eta han ezagutu zuen Azkoitiko Mekoleta handiko Crispina eta berarekin ezkondu eta 23 urterekin Azkoitira etorri zen. 1906an Madarixako sakristau eta maisu bezala eskatu zuen bailara osoak eta han izan zuen bere bizitza. Ez zuen maisu titulurik, baina jakintsua eta oso saiaturia zen. Sakristau bezala, fina, leiala, puntuala. Hamaika bederatzizurren egina S. Isidrori, S. Blasi eta S. Antoniori. Zer esanik

ez errogatibetan. Igandero meza abestu ohi zuan latinez. 1962an hil zen.

(Beristain, J. M., 1970)

1931n auzoko apaizak zera zioen: nahiz eta ordura arte bera azaldu eskola horretako titular, hau aldatu beharra zegoela. Titularitatea Juan Jose Garmendiaren izenean jarri zuen, *Marixako maisuaren* izenean; honek bazeramatzan 25 urte bertako maisu izaten. 1932an, Udalak 225 pezeta eman zizkion *Marixako maisuari*, Aldundiak 150 pezeta eta familiek ikasleko eta hilean 1,75 pezeta. Gelaren ondoan astotegia zegoen, eta hemendik sartzen zen argia. Eskolan maisu berak egokitutako liburuak erabiltzen ziren.

Urte horretan eskola berri tu egin zen eta Aldundiko Hezkuntza Komisioko Ikuskaritzak eginiko txostenean zera zioen eskola horretaz:

Eskola elizaren lokaletan dago eta egoera onean, bai aireztapen bai lekuagatik. Komunak egoera txarrean daude, baina asmoa dute berritzeko eta horretarako auzotarrek Azkoitiko Udalaren laguntza ekonomikoa nahi dute. Auzotarrek eskatzen dute ahal duguna egiteko Udalaren aurrean. Materialari buruz, Aldundiak bidalitako mahaiak daude, auzo horretan Arratibel jauna Telefonikako Txostengile egon zenean igorritakoak. Jaun honek adierazi omen zion maisuari urteko 500 edo 700 pezeta emango zitzaizkiola. Eskola honetan ematen den instrukzioa erabat oinarrizkoa eta euskaraz da. Ordutegia 9etatik 11etara da eta arratsalde ordu bietatik lauetara.

Gerra garaian beldur asko pasa zuten bailaran, auzo nazionalista zelako. Bertako parrokoak errepresioaren beldurrez alde egin zuen. Juan Jose Garmendia urte luzez sakristau eta organo-jole lanak egiten egon zen Madariagako elizan (makina bat aldiz kexatu omen ziren auzoko neska mutil gazteak Angeluseko kanpaia orduz lehen jotzen zuelako, horrela festari bukaera orduz lehen eman ez).

Madarixako maisuak denetik egiten zuen: irakasle, sakristau... bailarako dokumentu denak bere eskutik pasatzen ziren. Inguruetak o lehen irratia Izarre baserrian egon zen eta maisua egunean 2-3 aldiz joaten zen albistegiak, *parteak*, entzutera, baserritarrek ez baitzuten gazteleraz ulertzen.



Prozesioa eta atzean, kriseiluarekin, Madarixako maisua

1945eko azaroaren 28an, Juan Jose Garmendia maisu zelaririk, hauek ziren Madariagako eskolara joaten ziren ikasleak.

64. TAULA: *Madariagako ikasleak, 1945ean*

Baserriaren izena	Ikaslearen izen abizenak. Adina
Apaiz etxean	Cruz (11), Felicitas (8) eta Angel Astigarraga Garmendia (6)
Kurutzeta	Maria (9), Martin Arriola Arriola (12)
Azkarate	Maria (10) eta Maria Pilar Eginu Uzin (7)
Aldazabal	Ines Sasiain Etxaniz (9)
Arrozpide	Simon (11) eta Eldia Uranga Etxebarria (7)
Luberiaga	Felix Aranbarri Agirre (9)
Madariaga	Javier (9) eta Ramona Aranbarri Etxaniz (11) Dominga (13), Maria Carmen (11) eta Maria Pilar Aranbarri Azpiazu (8)
Aittola Zahar	Jose Izagirre Urain (10)
Kortatxo	Pedro Salegi Oñederra (11)
Madariaga-azpikoa	Maria Isabel Azpiazu Azpiazu (11)

65. TAULA: *Madariagako ikasleen adina eta kopura, 1954an*

Ikasleen adina	6	7	8	9	10	11	12	13	
Ikasle kopurua	1	2	2	4	2	6	1	1	Denera 18

1949an, maistra nazionalek etorri behar zutela eta, *Marixako maisuak* Udalari adierazi zion kargutik kendu egin zutela, eta kontuan izanez 1911tik eskola horretako maisua izan zela, gogo onez hartuko zuela Udalak eskaini zezakeen diru laguntza. Maisu honi buruz, hil eta handik 40 urtera, zabal eta sakon idatzi du Ignacio Ramirezek. Idatzi horretatik zati batzuk atera ditugu:

La situación económica y la escasez de mano de obra para la explotación de los campos, forzó a la familia a abandonar el caserío y reanudar su vida en el ambiente obrero industrial de Azkoitia. Pero está economía precaria de la familia Garmendia llegó a alindar con miseria, cuando un accidente trágico le llevó a mejor vida al único sostén de la familia. Este acontecimiento imprevisible sacudió violentamente el rumbo de la familia. De una familia de seis hermanos, dos hijas santificaron su vida en el convento y uno de los varones ingresó como hermano en la Compañía de Jesús.

Respecto a Juan José su madre consiguió que ingresara como *morroí* en un centro de jesuitas, “*para que pudiera aprender un poco mas de lo que yo le puedo enseñar*”. Así después de vivir en Madrid, en 1906 Juan José se casa en Azkoitia y es solicitado para desempeñar el cargo de sacristán y maestro en el barrio de Madariaga.

Para él, el ser maestro no era una profesión, sino un verdadero ministerio sagrado. Debido a esta conciencia de responsabilidad y a la entrega de su vida, ganó los corazones de sus alumnos. Juan José, el *maisú*, redactaba los contratos que se verificaban en aquellos entornos. Escribía las cartas de compromiso de sus convecinos. Era el que explicaba los documentos oficiales que llegaban. Daba la versión exacta de las noticias de prensa y de la radio. Nadie en el barrio dominaba el castellano, única lengua en la que se expresaban todos los medios de comunicación. Por ser el “patriarca” rezaba el rosario ante el cadáver, cuando la muerte se cernía sobre algún miembro de Madariaga.

(*El Diario Vasco*, “*Maisu y sacristán de Madariaga*” 2002ko abuztuaren 13a).



Juan Jose Garmendia, Marixako maisua



Madariagako Kongregaziokoak, 1951n



*Madarixako
ikasleak, maisua eta
apaizak
Saturrarango hon-
dartzan, 1953an*

9.2. Madariagako Eskola Nazionala

1949an etorri zen aurreneko maistra nazionala eskola honetara, Filomena Gonzalez. Ondorengo urteetan maistra asko aldatu ziren:

- 1951n, M^a Concepción Gil eta Isabel Olano Segurola.
- 1955ean, Manuela Vázquez eta Purificación Pardo Calvo.
- 1956an, Rosario Erro Gorostieta.
- 1957an, Pilar Domínguez Fernández.
- 1963an, M^a Pilar Olascoaga Ezkurra.
- 1964-1969 bitartean, Teresa Lara Fernández.
- 1970ean, Felisa Loyola Eguia.
- 1972an, Aurora Garijo Caballo.

1958an eskola honetan 36 ikasle zeuden matrikulatorik (6-12 urte bitarteko, 16 mutil eta 20 neska); 1960an 20 ikasle eta 1970ean 15 ikasle. Bi urte geroago kopurua 7ra jaitsi zen, horrela eskolak ez zuen askoz gehiago iraun.

Maistra erdaldunak etorri zirenean erdara erabat ematen hasi ziren. Maistra erdaldunek *Madarixa-berrian* lo egiten zuten, *Juanmari-enean* (D. Ignacio Ramirez).



Prozesioa Madariagan, 1954an



Misioen bukaera, Madariaga bailaran

1965ean, Teresa Lara Fernández etorri zen eskola honetara, baina 1969an, trasladoen lehiaketan sartu ondoren, herriguneko eskola nazionalera joan zen. Maistra honek kontatzen du ikasleek nolako zailtasunak zituzten eskola *pittin* bat ikasteko, inork ez baitzekien gaztele-raz. Berak euskaraz egiten omen zien, zekien mailan, dotrina ere euskaraz irakatsiz, baina Ikuskaritzak euskaraz hitz bakar bat aipatzea ere ez omen zuen gogoko. 1965ean, kurtso bukaerako bisitan Ikuskariak ikasleei egin zien galdera bakarra zera izan zen: Sakramentuak erdaraz azaltzeko. Pentsa nolako larritasuna pasako zuten, bai ikasleek eta baita maistrak ere.



*Madariagako eskola
eta frontoia*

9.3. Kataolatza-azpiko baserriko eskola

Baserrri honetan, 1950ean, Josefa Sol andereñoa aritu zen, baina denbora gutxian. Maistra hau Elgoibarkoa zen eta erdaraz erakusten zuen, gau-eskola ere ematen zuen. Lehen azaldu den bezala Gipuzkoako Gobernadore Zibilak eskola honi *escuela clandestina* deitu zion, eta Hezkuntza arduradunak baserrietako eskoletako maistra hauei, *Curanderas de la enseñanza*. Eskola denbora gutxi egon zen irekita, ixteko agindua etorri zelako.

9.4. Urkidi-goikoa (Laxao) baserriko eskola



Laxao baserria

Gerra ondoren, Urkidi-goikoa baserrian Felix Goitia maisu oñatiarra egon zen. Bere lana taxuzkoa zelako, 1948an, Azkoitiko Udalak 300 pezeta eman zizkion eta 1949an, Aldundiak 400 pezetako laguntza eman zion. Garai hartan matrikula 28 haurrekoa zen, 15 Azkoitikoak eta 13 Debakoak.

9.5. *Urkidi-goikoa (Laxao) baserriko Eskola Nazionala*

1949tik aurrera Urkidi-goikoa baserrira maistra nazionalak etorri ziren. Aurrena Maria Ángeles García izan zen eta eskola honetara iritsi zenean, bertan zegoen maisu titulu-gabeak, Felix Goitiak, irteteko asmorik ez eta berarekin zenbait iskanbila izan zituen. Eskola honek ia beste 6 urte iraun arren, egoera desegokian eutsi zion, gora-behera askorekin.

Aipatutako maistratz gain, hauek ere egon ziren Urkidi-goikoa Eskola Nazionalean: 1949an, Maria Josefa Mitxelena; 1951ean, Zaida Fernández Andrés eta ondoren Pilar Espalduce Caballer eta 1953an, Felisa Garmendia Ulibarrena. 1954ko ekainaren 26an, horrela deskribatzen du Felisa Garmendiak Laxao baserriko eskola hau, eta bere irakaskuntzako historia:

La escuela dista del casco del pueblo diez kilómetros y las líneas de comunicación le dejan a cuatro kilómetros siendo uno y medio por carretera y dos y medio a campo través, tardando en el recorrido una hora y hallándose la estación más cercana a catorce kilómetros. El local escuela es deficientísimo, muy reducido, de 5 metros de largo por 3 metros de ancho y dos metros y medio de altura, sin ningún material pedagógico. Y la casa de la maestra es una habitación en el caserío de Urkidi-goikoa. No funciona Mutualidad ni Coto.

Felisa Garmendia ejerció en Elgueta desde el 15 de septiembre de 1952, ininterrumpidamente hasta el 31 de Agosto de 1953. Regenta la escuela de Urkidi-goikoa desde el 25 de noviembre de 1953. Tiene conocimiento del vascuence por haber nacido y vivido siempre en tierra vasca.

1955ean Ikuskariak zioen eskolara Laxao baserriko² ikasle joaten zirela eta bere egoera penagarria zela, komun propiorik ez zeukan. 1955-56 ikasturtean eta Pilar Espalduce maistra zegoelarik, honakoa zen eskolaren matrikula:

Maria Concepcion Uranga Aldabaldetrecu, 13 urtekoa eta Lasao baserrikoa.

M^a Angeles Arrizabalaga, 13 urte eta Ondarroa baserrikoa.

Milagros Zuloaga Uranga, 9 urte eta Zabaleta (Deba) baserrikoa.

Jose M^a Uranga Aldabaldetrecu, 10 urte eta Laxao baserrikoa.

1955eko azaroaren 7an, horrela idatzi zion Ikuskariak Azkoitiko Alkateari:

Sr. Don Pedro Alberdi Urias:

No comprendo la desbandada de alumnos que encontré en Urquidi-goikoa ¿Será por culpa de la última Maestra interina? Si así es, debían de haberme informado para que yo pusiera remedio, pues antes la matrícula de ese lugar fue de unos 30 alumnos, Tanto por el Estado como la Inspección y las maestras propietarias hacen un gran esfuerzo para atender a los pequeños de aquellos caseríos. Puede suponer lo pesado que me resulta visitar a esa escuela mixta, y más a las Maestras que deben atenderla, señoritas, por regular, acostumbradas a comodidades de higiene y de bienestar que allí brillan por su ausencia. Pero todo se puede sufrir con espíritu de caridad y de resignación, pensando que uno atiende a la cultura y educación de modestos españoles que no debemos ni podemos abandonar por alejados que estén y por deficientes que sus medios económicos de vida. El caserío Lasao tiene unos habitantes encantadores por su bondad y por su espíritu religioso y de moralidad, pero nada más. De ahí la Maestra se ve precisada a soportar una soledad (solo los pequeños entienden el castellano) y unas condiciones higiénicas y de alimentación que le horrorizarían su las conociera. Aparte la escuela tiene estufa sin tubos (inservible por lo tanto) carece de material y sobre todo NO TIENE RETRETES, motivo este más que sobrado para proceder a la clausura de la misma. Una visita sería para ese Ayuntamiento muy aleccionadora.

1956an, maistra Miramonte (*Montte*) baserrira pasa zuten, otsailaren 2an. Maisu-maistrek eskola hauetan denbora gutxi irauten zuten, herrigunetik oso urruti zeudelako, eta eskolaren egoera desagokia. Urte horretan Debako Udalak, *Zabaleta* baserrian, eskola berria irekitzeko baimena eman zuten.

9.6. Aittola-zahar baserriko eskola

Baserri honetan ere egon zen eskola. 1904ko irailaren 4an, Azkoitiko Alkateak jakinarazi zuen Jose Maria Oñederra, *Aittolako maisua*, gaixorik zegoela, inongo ondasunik gabe eta bakarti, beraz Azkoitiko Udalak erabaki zuela maisu hau herriko erruki etxean denboraldi baterako hartzea. 1953an, horrela deskribatu zuen Trino de Uriak *Aittolako maisua*:



Aittol-zahar baserria

El maestro de “Aittola” figurará como uno de los tipos más celebres de Azkoitia del XIX. “Aittola maishua”, porque enseñaba en el barrio de Aittola, en el Izarraitz. Nadie supo el verdadero nombre de este pintoresco personaje.

Gran arlotte y de extrañas veleidades, cualquier día daba asueto a los niños y bajaba al pueblo con su sempiterno humor chocarrero. Bastaba la presencia del hombre del extremo arrabal, y parecía que se conmocionara todo el pueblo. Los chiquillos corrían a dar la noticia a los grupos de alpargateros de las distintas calles, que cosían encorro, discutiendo bagatelas y coreando cantares carlistas.

Con un cortejo de arrapiezos, aparecía el viejo maestro de Aittola por las calles. Bardo impenitente, traía en labios –en buen vascuence– la última tonadilla sobre cualquiera de las comadres que salían a los balcones. Su voz aguda, pero bien timbrada rimaba con pericia de autentico bersolari los chismes del pueblo. “Hoy traigo algún txanpon y, me afeitaré” gritaba al viejo Thanta, acariciando las blancas barbillas. Disputaba con loa alpargateros y bebía, jugándose los vasos a cara o cruz con los amadeos de plata,... Luego a al anochecer, vuelta a la casería de Aittola, y a dar clases por una temporada más. ¿Porqué no? ¡Qué caramba! Sabía hacerlo muy bien.

(Trino de Uria, *La Voz de España*, 1953ko martxoaren 1a)

Urte batzuk geroxeago, 1950. hamarkadan, Aittola-zahar baserrian Maria *Madarixakoa* eta *Xerapio* aritu ziren, neska-mutilei erakutsiz dotrina eta beraiek zekizkiten oinarrizko edukiak.



Ezkerrean Aittolako Maria, erdian Madarixako Maria Aranbarri, eskuinekoa Madarixako maisua, 1953an

9.7. Sakabixa baserriko eskola

Urkidi-goikoa baserritik kanporatua izan ondoren, Felix Goitia maisu oñatiarra aritu zen baserri honetan.



Sakabixa baserria

9.8. Zelai-luze baserriko eskola.



Zelai-luze baserria

1958an, Maria Dolores Iriondo maistra egon zen baserri honetan. Honek bailarakoei eskola partikularra ematen zien, Madariaga oso urruti zegoelako. Eskolan *Cultura Generala*, dotrina, irakurtzen, idazten eta josten ere erakusten omen zuen, gela handi batean. 10-15 ikasle joaten ziren eskolara: bertako semeak, Aittolakoak, Zabaleta-koak, Aittola-berrikoak ... etortzen ziren. Gurasoek zerbait ordaintzen zuten, urte bukaeran Debako Udalak 400 pezeta ematen zituen. Eskolaren ordutegia 9etatik 12etara eta 3etatik 5etara izaten zen.

9.9. Katuin baserriko eskola.

Aldazabal baserritik behera zegoen baserri honetara ere joaten omen zen Maria Aranbarri, *Madarixako Maria*, Dotrina eta *orazioak* irakastera.

10. Santa Kutz bailara



Izarraitz mendiaren magalean, eskuin aldera Santa Kutz bailara

Santa Kutz bailarak Izarraizko hegietan zehar goratzen hasten diren baserriak biltzen ditu. Haranaga eta Illarraza baserriak jadanik 1410eko agiritan aipaturik ageri dira, Gipuzkoan dauden mota honetako eraikuntzarik zaharrenetarikoen artean. Santa Kutz bailaran ere egin ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. 1470ean Gaztelako Enrike IV.ak zedula baten bidez jakinarazi zuenez, Basarte baserrian leku egokirik ez eta, Batzarrak Santa Kutz elizan edo Olatz ermitan egiteko baimena eman zuen. Horrela ospatu ziren beraietan Batzar Bereziak 1700era bitartean.

*Basarteko Gurutze
Donearen
lekaimetxea*



Santa Kutzeko Gipuzkoako Batzar bereziaren oroigarria

10.1. Kamiñokua (Kamiño) baserriko eskola

Kamiño baserriko eskolaren aurreneko berria 1895ekoa dugu. Baserri honetan Clara Etxaniz de Oliva egon omen zen maistra. Badirudi Clara Etxaniz de Oliva, Kuku-herrin egon ondoren pasa zela Izarraitz bailarako Kamino baserrira. Maistra hau Jose Ignacio Arana, Aita Aranaren, lagun handia izan zen eta Kaminoko eskolara etorri aurretik harremanak izan zituen Loiola bailarako hainbat eskoletako maistrekin (Altuna, P., 2000).

1898ko irailaren 10ean, Izarraitz azpiko Pikoaga eta Aranaga baserriko Tomas Aldalur eta José Arrieta jaunek, zera eskatu zioten Udalari:

Que de acuerdo con los demás vecinos de la barriada han acordado establecer una Escuela particular a fin de que los jóvenes puedan aprender la doctrina Cristiana ya a leer el libro de misa y para cumplir con los preceptos de nuestra Santa religión cuando lleguen a su edad y como no llegan los cuartos para pagar al maestro, por lo que: Suplican a V.S. que para establecer la escuela de que se trata, abone la cantidad que bien tenga conforme lo hace con los demás barrios.

1899an, Juan Maria Iturbe ere azaltzen da Santa Kutz bailarako maisu bezala.



Kamiño baserria, eskuinean, orain belardia dagoen lekuan zegoen

10.2. Illarraga (Illarra) baserriko eskola



*Illarraga baserria, eskola
lehenengo solairuan zegoen*

1926an, baserri honetako eskola aurreneko solairuan zegoen eta bertara 26 ikasle joaten ziren. 1927an, auzotarrek Udalarari diru laguntza eskatu zioten maistrarentzat. Illarragako maistrak dotrina irakasten zuen eta baita erdarazko olerkiak ere. Eskola honetan egondako maistren artean bat Utxerriko maistra omen zen, baina bere izenik ez dugu ezagutzen.

Udalak, lokala uztearen truke, 90 pezeta ematen zizkion baserriko jabeari. Eskola bere baserrian izateagatik, etxeko bost seme-alabek ez zuen ordaintzen (beste gurasoek maisuari bost pezeta ordaintzen zioten seme-alaba bakoitzeko). Urtean behin, eskolara joaten ziren haurren gurasoek, egun osoa pasatzen zuten Illarragako baserrikoei belar biltze lanetan laguntzen; laguntzen ez zuten gurasoek ezin izaten zuten seme-alabarik eskola honetara bidali. Eskola baserriko lehen solairuan zegoen, eta maistrak zintzo portatzen ez ziren ikasleak korridorera,

pasillora, ateratzen zituen; ikasleak han egoten omen ziren zigortuta, banku luze batean eserita. 1929an Illarraga baserriko eskola Agarre-Basarte baserrira pasa zen.



Santa Kutz bailarako Laja baserriko familia

10.3. Agirre-Basarte (Agarre-Basarte) baserriko eskola

1929ko irailaren lehen egunetik, Illarragako eskola Agirre-Basarte baserrira aldatu zen, *Barkileroaren* etxera (Agarreko baserritar hau izan zen aurrena Azkoitira gari-mozteko makina ekarri zuena, garai hartan tresna hau aurrerapen handia zen). Eskola honetako maisu Trino Uria jarri zuten eta honek Udalarari laguntza eskatu ondoren, Udalak, 1930ean, horrela erantzun zion:

Egiten duen merituzko lanagatik eskola honen zuzendaritzapean, urteko 200 pezetako igoera egingo zaio, konfiantza izanik ondorengo urteetan ere animu berekin egingo duela lan, hezkuntzaren eta haurren irakaskuntzaren alde.



Agirre-Basarte baserria

Eskola honetan maisuak, bataz beste, hilean 64,5 pezeta irabazten zituen. 1933an Aldundiko Hezkuntza Batzordeko Ikuskariak horrela deskribatzen zuen *Agirre-Basarte* baserriko eskola:

Lokala Udalak ordaintzen du eta baserri eder batean kokatua dago; eskola goiko solairuan dago eta zerbait utzita dago garbitasunari dagokionez, beste geletatik teladun egurrezko bastidoreekin banaturik baitago. Arbelak eta mapak bidaltzea komenigarria da. Instrukzioari gogobetekoa da eta haurrek Gramatika, Irakurketa, Geografia, Aritmetika eta idazketako azterketa osoa egiten dute. Bertako maisua instrukzioaz asko kezkatzen da, eta auzunean oso gustura daude berarekin. Udalak ere antzeko iritzia du eta era horretako eskoletan dagoen maisu onenetakoa dela dio.

1932tik 1936ra, Aldundiak urteko 500 pezetako diru laguntza eman zion eta Udalak urteko 350 pezetakoa. Ikasleen familiek ere zerbait ordaintzen zuten. Eskola ongi ikusita zegoen eta bere irakaskuntza maila onekoa zen.



Trino de Uria

1934an, Hezkuntza Komisiokoak adierazi zion maisuari Udalarari adierazteko lokal horretan obraren bat egitea beharrezkoa zela, leku horretan egiten ari zen lanak merezi zuelako.

Le decimos al maestro que se dirija al Ayuntamiento a fin de que se decida a hacer algún gasto en aquel local para ponerlo en condiciones pues se lo merece la labor que aquel maestro realiza. Remitirles el material con urgencia, puesto que carece de todo. Sobre todo silabarios y algunos textos.

Ikasturtea amaitzean, herriko agintariak aurrean zirelarik, eskolako haurrei azterketa egiteko ohitura zegoen. 1934ko abuztuaren 30ean, Udalak 100 pezetako saria eman zion maisu honi bere lana aitortuz. Udaleko ordezkariak eskola hau urtero bisitatzen zuten eta beste eskola batzuekin egiten zuten bezalaxe, ikasleen artean goxoki eta sariak banatzen zituzten.

Trino de Uriari buruz esan behar da pertsona jakituna zela. Horrela deskribatzen digu Trino de Uria, bere seme Juan Ignacio Uriak:

Nació en Azkoitia de casa de los señores de Uria de Zarimuz y de la línea azkoitiana de la que vienen los Escribanos Reales del Corregimiento. Uria, así como el Coronel Isidro de Uria Galín y del bibliófilo Martín de Uria de cuyos libros y papeles le vendrá la afición a la Historia. Siendo también pariente suyo el famoso vascófilo Aizkibel y otros “unos letrados y otros iletrados” que hacían el fondo de sus contradicciones y del arraigo profundo a la tierra donde siempre

soñará ejercer de baserritarra un día por las laderas del Izarraitz. Llegó a ser Primer Cronista de Honor de Azkoitia y con una calle a su nombre, como Julio de Urkijo su pariente. Ordenador del archivo y creador de la Segunda parte del mismo, hoy perdido, con D-Benigno y Jose Maria Hurtado de Mendoza.

Trino de Uria fue miembro destacado de la RSBAP y miembro fundador con otros amigos de la *Academia Errante*. Estudió Derecho, sin terminar y fue Juez de Azkoitia. Era una personalidad muy compleja, vagabundo a lo *barojiano* con una etapa de su vida algo aventurera y marginal a su casa, en la que fue devoto de Bakunin a la moda de entonces. Dedicó la traducción del *Cantar de los Cantares* a su mujer. Dedicó casi toda su vida a sus investigaciones, escritos de Historia y Archivos. Es curioso señalar la existencia de una canción suya con letra en euskara publicada por primera vez en una revista árabe. Trino de Uria, en su patrimonio, era poseedor en su casa de una biblioteca importante y un archivo familiar de Notas.


Bere ekarpena nabaria izan zen RSBAPen eta baita Azkoitian sortu nahi izan zuen *Academia Errante* proiektuan. Intsausti Jauregiari buruz hainbat lan idatzi zituen, baina Azkoitiani buruzko Historia, bukatu gabe gelditu zitzaion. Kulturari erabat eskainita egon zen eta beste lan askoren artean euskarara itzuli zuen *El Cantar de los Cantares*, Renan-en edizioa, eta baita Omar Kayan, XI. mendeko pertsiar poetaren *Rubayat* eta *Bibliako Kantarik ederrena*.

Trino de Uriak, Peñafloredaren ideiei jarraituz, *Azkoitiko Zalduntxoan Akademi berria* sortu nahi izan zuen. Proiektu honen Eskolanagusia Balda Jauregian jarri nahi zuen, eguneko eta gaueko-
eskolekin. Euskara, Euskal Herriko historia, kultura eta dantzak erakustez gain, Akademi horretan honako gaiak ere irakatsi nahi ziren: matematika, komertzio eta lur-lanak, hizkuntzak, artea, musika, pintura eta antzerkia. Proiektu hau aurrera eramateko La Salleko maisuak, eskola publikokoak eta baita ere baserri-eskoletan zeuden maisuen elkarlana proposatzen zuen. Basarte baserriko esperientziak eragin handia izan zuen ideia honetan, baina ezin izan zuen nahi bezala bideratu, Azkoitiko elizgizonen eta agintari batzuek ez zuten onartu ekimena. Juan Ignacio Uriak *Azkoitiko Zalduntxoan Akademi berriari* buruz egindako deskribapenean zera dio:

Trino de Uria creó la Academia “*Azkoitiko Zalduntxoan Akademi berria*”, a que añadió un proyecto pedagógico de Escuelas de Niños y de Escuelas Rurales y Nocturnas. Este proyecto no fue apoyado por

el Ayuntamiento de Azkoitia, en especial por el Sr. Urrestazazu. Entre los fundadores de esta academia, con Trino de Uria a la cabeza, estaban Ricardo Otaño, Jose Otaño, I. Irizar y Joaquin de Mendiábal- Conde de Peñafloreda-, entre otros.

Esta Academia a la que aportó todo lo que pudo con clases y otras organizaciones en la que, metía a los suyos y a los que podía, fue siempre el gran sueño de Uria, en una aventura pedagógica que no tienen nada que ver con el contexto general de las escuelas al uso. En el proyecto inicial de la Academia sobre las escuelas Rurales figuraban clases de Historia del País y de euskara. En un tablado desmontable, hecho por el carpintero local *Aldako*, se hacían pequeñas representaciones teatrales, temas todos odiados por el Secretario del Ayuntamiento de Azkoitia y parte del clero. Para financiar el proyecto se recurrió a exiguas subvenciones aportadas por adherentes y al dinero dado para pagar clases. La no realización de obras en la propia escuela de “Agarre-Basarte” que pretendía ser la escuela tipo del proyecto explica muchas cosas.



Azkoitiko Zalduntxoeren Akademi berria egitasmoaren horma-irudia

Gerra ondoren *Basarteko* eskola itxi egin zen eta bailaran ez zen besterik ireki. Ikasleak kaleko eskolara joaten hasi ziren eta Trino de Uria eskola partikularrak bere etxean ematen hasi zen, Kale Nagusia 104an.

Azkoitiko mugetatik, bidezidorretatik, itzulia egin dugu: Martittetik abiatu eta Santa Kutzen bukatu. Makina bat baseliza eta baserri bisitatuz, Loiola aldetik abiatu eta Loiola aldean bukatu. Antzinako Erregimenarekin hasi eta modernotasunean bukatu. Ibilaldia aberatsa izan da, gehienetan gogorra. Atzera begiratuz ez dugu ahaztu behar giro hertsian itotako herria izan dela Azkoitia; Elizak eta jauntxoek kate motxean lotu izan dute luzaro gure herriko gizartea. Karlismoa, nazionalismoa, frankismoa, industrializazioa... Modernotasunaren aldaketak poliki-poliki jasan ditu. Ideologia, pentsamolde, ikuspegi ezberdinak baina beti Elizaren itzalpean. Horrelakoxea izan da orain arteko gizartea eta hezkuntza, Azkoitian eta Euskal Herriko herri txikietan.




Loiolako basilika


ERANSKINAK

1go eranskina

Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat-Principios de lectura para los niños de Euskal Herria



Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat



Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat

zu, dira, dute, paré, pilla, Poza, pena, chira, maya, musu, mocha, mechá, miña, nora, nago, nere, lachá, licá, lela, lurra, lotu, sala, sóca, sulla, setá, tapa, tira, tella, zalla, zura, cerra, meta.

BIGARREN IRACURTZA.

Alaba, etorri, odola, icara, usaya, batela, berotu, buzo- ca, biguña, bogatu, cabitu, copeta, que darra, euhara, fe- dea, famatu, dirutu, dezuna, dutela, gañera, guizona, go- zoro, guchitu, guesala, laba- na, lo yola, lenago, limoya, lu- zatu, jaquiña, jo catu? giratu, malelá, mirua, motela, mela- rra, muturra, papera, picha-

rra, pujatu, podatu, pelota, navarra, negarra, ninia, sala- tu, soroa, sugora, segatu, ta- patu, tipula, tenaza, tufoa, to patu, za bala, cicela, cece- na, zocona, zumarra, chata- rra, chepecha, chocona, chu- patu, chimicha, picherra.

IRUGARREN IRACURTZA.

Arranda, a pirilla, legamia, megopea, ichasoa, egutera, letaguña, catilla, lurricara, belarria, gorrotoa, ollagorra, egabera, guerecia, ugazama, becoquia, zora billa, betazala, arazo ya, galeperra, errose- la, izoquia, araquina, borre- roa, salechea, erretená, gara- garrá, marrubia.

Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscaltzerriko aurretzat

Berotasuna, beticoera, gara- garrilla, aosapaya, usacumea, amabisaba, arateguia, bi- dechigorra, beguio querra, ba- sacatua, lepachocoa, corapi- lloa, humequeria, cequidora- tu, biribillatu, burrucaria, pe- cataria, pecatuduna, jayete- rria, jayetechea, chilibitua, picozoroa, erregutua, pelota- ria.

LAUGARREN IRACURTZA.

Isuri, orise, sagua, gaisoa, ala se, au se, guiza soa, orrise, arise, gaisotasuna, hurase, onise, gosotasuna, mošala, Polita, aita, muticoa, mai- tea, aitoa, ditugu, maítatu,

SEIGARREN IRACURTZA.


Arbola erbia ordia urlia es- cua ostoa astoa ustua alde- alboa aldean alboan ilcea el- tzea iltzea ondo aanciña an- che indarra eztera ozpiña on- cia ondatu aspilla ardaya es- tutu ascatu escatu aztua ur- tea astea erdia erbia.

Ordua oztua esteá ospela is- tarra urdaya orbela ezpatá ustelaldu arquiteerlea esquilla aldedana amparatu escalua uztarria escaratza osticoa alcatea azpiratu on- tasuna ondoratu ingurua an- ciñcoa eztaquigu usbetatu ez- cutatu.

Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscaltzerriko aurretzat

2. eranskina

1938ko maiatzaren 5ean, Hezkuntza Ikuskaritzak Azkoitira bidalitako zirkularra



*Ikuskaritzak Azkoitira bidalitako
zirkularra, 1938an*

El Inspector Jefe de 1.ª Enseñanza de Guipúzcoa. Saluda al Sr. Alcalde de Azcoitia y tiene mucho gusto en remitirle el adjunto folleto

Josefina Olóriz Arcelus, aprovecha gustosa esta ocasión para expresar a Vd. el testimonio de su consideración más distinguida.
San Sebastián 5 de mayo de 1938

Inspección de Primera Enseñanza de Guipúzcoa

El *Boletín Oficial del Estado*, número 503, correspondiente al 8 del actual, consigna la siguiente: CIRCULAR

“Ministerio de Educación Nacional.- Jefatura del Servicio Nacional de Primera Enseñanza.

Circular a la Inspección de Primera Enseñanza en Maestros Nacionales, Municipales y Privados de la España Nacional.

La gloriosa gesta del pueblo español, a las órdenes de nuestro invicto Caudillo, ha hecho posible que España recobre su manera de ser, lográndolo a fuerza de sacrificios dolorosos de sus hijos. En contribución gloriosa, con derroche espléndido de ofrendas y heroísmos

sin tacha ni medida, todos aportan cuanto tienen, es la voluntad firme de un pueblo con siglos de historia genial y creadora que no se resigna a desaparecer.

La Escuela, forjadora de las futuras generaciones, fervorosamente fundida con este épico movimiento de resurrección patriótica, ha de marcar su rumbo categórico hacia las glorias futuras, preparando a nuestra infancia por derroteros nacionales. Nuestra hermosísima Historia, nuestra tradición excelsa, proyectadas en lo futuro, han de formar la fina urdimbre del ambiente escolar, cobijando amorosamente el espíritu de los niños españoles.

Al Maestro se le encomienda esta obra trascendental. España le entrega sus hijos para formarlos en el amor a Dios y a su Patria. De ahí la gloria y la estrecha responsabilidad del Magisterio nacional.

Con el fin de dar orientación fija y uniforme a todos los Maestros de España, la Jefatura del Servicio Nacional de Primer Enseñanza, por mandato expreso y recogiendo las indicaciones del Exmo. Sr. Ministro de Educación Nacional, publica, para su más exacto cumplimiento, las siguientes instrucciones:

Educación religiosa

La Junta de Defensa Nacional restableció la enseñanza religiosa en las Escuelas nacionales, por su Orden número 186. Ansiosamente pedía esta reforma la España Nacional. Imperiosamente lo exigían las necesidades educativas de la infancia española.

Este establecimiento no quiere decir tan sólo que el Maestro se limite a dedicar una o varias sesiones semanales a la enseñanza del Catecismo e Historia Sagrada. Esto es indispensable; pero de mucha mayor necesidad ha de ser lograr que el ambiente escolar esté en su totalidad influído y dirigido por la doctrina del Crucificado.

El restablecimiento del Crucifijo en las Escuelas, con tanta solemnidad celebrado en todos los pueblos de las regiones reconquistadas por nuestro glorioso Ejército, no significa tan solo que a la España laica del Régimen Soviético sustituya nominalmente el catolicismo de la Escuela nacional. Es preciso que en las lecturas comentadas, en la enseñanza de las ciencias, de la Historia, de la Geografía, se aproveche cualquier tema para deducir consecuencias morales y religiosas. La enseñanza de la Religión tiene que formar niños cristianos, con ideas claras, con normas concretas para el presente y para sus futuras actuaciones ciudadanas. No ha de dirigirse tan sólo al sentimiento, sino también al carácter y a la voluntad. Consecuencia de este ambiente religioso que ha de envolver la educación y la escuela, ha de ser la asistencia obligatoria, en corporación, de todos los niños y Maestros de las Escuelas nacionales, en los días de precepto,

a la misa parroquial, fijada a hora conveniente, de acuerdo con la autoridad eclesiástica. El Santo Evangelio será leído con frecuencia e ineludiblemente, todos los sábados, explicando la Dominica del día siguiente. La doctrina social de la Iglesia, contenida en las Encíclicas *Rerum Novarum* y *Quadragesimo Anno*, ha de servir para inculcar en los niños la idea del amor y confraternidad social, hasta hacer desaparecer el ciego odio materialista, disolvente de toda civilización y cultura.

Educación patriótica

Se acabó el desdén para nuestra Historia. Terminó la agresión traidora para todo lo español. Nuestra infancia ha de querer a su Patria ardorosa y entrañablemente y para ello es preciso conocerla en sus días de gloria, para exaltarla, y en sus páginas de sufrimiento, para quererla con inefable cariño de hijos dispuestos en todo momento a repetir, como lo estamos demostrando, las grandes empresas civilizadoras de nuestra España Imperial. Una Escuela donde no se aprende a amar a España no tiene razón de existir. Hay que suprimirla. La Patria se está forjando ahora en el duro y penoso yunque de los hondos sacrificios comunes, dando al mundo maravillosos ejemplos de hazañas inmortales. Por eso, sus hijos la amamos como nunca. El Maestro debe aprovechar la gloria y el sufrimiento de estos momentos para sembrar, con caracteres indelebles en las almas infantiles, ambiciones y anhelos preclaros.

Como, en la enseñanza de la Religión, también pedimos un ambiente total para la enseñanza de la Historia, como medio de cultivar el patriotismo y, una y otra, estrechamente unidas. Así fue en el pasado, así es el presente, en que se están tejiendo las glorias nacionales bajo estas dos banderas, que son, en realidad, una sola.

Cantos populares e himnos patrióticos han de ser entonados Por los niños en todas las sesiones de la Escuela; biografías, lecturas de periódicos, comentarios de hechos actuales que lo merezcan por su importancia nacional, serán escogidos para su estudio. Programas, Escuela y Maestro, han de sentir España en todo momento.

Educación cívica

El niño de hoy siente la impaciencia de la ciudadanía, que le llama imperiosamente y quiere actuar con entusiasmo a través de toda clase de organizaciones juveniles. Abra el Maestro paso libre a estos impulsos encauzándolos para siempre; junto a los derechos vayan siempre muy unidos los graves deberes y los sacrificios que siempre por la Patria han de imponerse. Que el niño perciba siempre que la vida es milicia, o sea, sacrificio, disciplina, lucha y austeridad.

Quede desterrado de las luchas Sociales el terror, y que una clara hermandad reine entre todos los españoles. Estas ideas, en las zonas campesinas, debe el Maestro extenderlas a los padres aprovechando para ello una de las sesiones de clase de adultos, si las hay, o en caso contrario, ábrase la Escuela una noche Y, en actos sencillos, exáltese el Movimiento Nacional, sus ideales y aspiraciones, exponiéndoles temas sociales, agrícolas etc., que conquisten en un ambiente de fraternidad cristiana el alma de nuestros labriegos.

El acto de izar y arriar los días lectivos la enseña de la Patria, en todas las Escuelas nacionales, municipales y privadas mientras se canta por los niños el Himno Nacional, ha de ser obligatorio, dándosele toda la emoción necesaria. La bandera ondeará también en la Escuela los días festivos y domingos. Y como símbolo supremo de nuestra España, el Retrato de nuestro invicto Caudillo presidirá en todas las Escuelas la educación de los futuros ciudadanos.

Siguiendo las anteriores indicaciones, en los cuadernos de trabajo de los niños quedará diariamente un ejercicio escrito ilustrado, de un tema religioso, patriótico o cívico.

En las Escuelas de niñas brillará la feminidad más rotunda, procurando las Maestras, con labores y enseñanzas apropiadas al hogar, dar carácter a sus Escuelas, tendiendo a una contribución práctica en favor de nuestro Glorioso Ejército.

Educación física

Hasta tanto que un Estatuto especial regule la educación física nacional, se considera indispensable intensificar la educación física en la Escuela. Pero es preciso advertir que la educación física no es el deporte que, sin empleo científico apropiado, hasta después de la pubertad, resulta casi siempre pernicioso, ni es tampoco el desarrollo del músculo con aparatos. Tómese como base, constantemente, los juegos infantiles de la localidad, ennobleciéndolos y restaurándolos. En vez del exotismo en los juegos, busquemos en ellos las puras corrientes nacionales: los juegos de pelota, los bolos, la comba, el marro, etc., etc., tan españoles, deben utilizarse, lo mismo que los de imitación, corros, marchas cantadas, carreras, saltos, etc. Que jueguen los niños en los recreos; pero siempre bajo la cuidadosa dirección del Maestro.

La gimnasia rítmica, en lo posible, ha de establecerse en todas las Escuelas, y los jueves deben aprovecharse para organizar paseos escolares en que junto a la belleza de la Creación se busque el fortalecimiento corporal de la infancia española.

Confiadamente espera la Jefatura del Servicio Nacional de Primera Enseñanza que las Instrucciones contenidas en esta circular,

han de ser interpretadas y cumplidas fielmente. La Sociedad entera espera que el Magisterio, de misión tan sublime, que anhela sobre toda ponderación servir a España juntando en estrecho culto a Dios y a la Patria, será un esforzado cooperador de las glorias nacionales. España es un gran pueblo y ha de serlo más en lo futuro porque todos estamos dispuestos a lograrlo. Que esto lo sientan los niños en cada momento y se dispongan a conseguirlo.

Austeridad, esfuerzo, sacrificio y entusiasmo sin límites son las notas más definidas de este glorioso Movimiento Nacional. Imprimidlas con amor en vuestras Escuelas porque ésta es, aunque sin brillo aparente, vuestra misión augusta. España os lo pide y en vosotros confía para el logro completo de los ideales que alborean en su espléndido amanecer.

Vitoria, 5 de Marzo de 1938. II Año Triunfal.

El jefe del Servicio Nacional de Primera Enseñanza, *Romualdo de Toledo*

La Inspección de Primera Enseñanza de Guipúzcoa encarece al Magisterio todo, el celoso cumplimiento de cuanto se dispone en la Circular que antecede, esperando de todos los Maestros oficiales y privados, la más fiel interpretación de las Instrucciones que en la misma se consignan, segura de que sabrán poner a contribución el mejor espíritu de Servicio exigido por la índole de las mismas.

Cuantas consultas o aclaraciones estimen necesario formular los Maestros para la más exacta observancia de las disposiciones anteriores, serán atendidas por esta Inspección con el más cordial interés, siendo viva aspiración suya, que esta importantísima Circular alcance en la vida escolar de Guipúzcoa, por el esfuerzo de todos, la plena eficacia de su trascendental contenido.


San Sebastián y Marzo de 1938. II Año Triunfal.

3. eranskina

Doctrina Cristiana, aita Gaspar Astetek erdaraz konpondua eta Juan de Irazustak euskaratua



Doctrina Cristiana, Astete, Juan de Irazustak euskaratua



Doctrina Cristiana

Becoquian libratzea-gatic pensamentu gaiztoetatic, aoan libratzea-gatic itz gaiztoetatic, bularretan libratzea-gatic obra ta deseo gaiztoetatic; eguin bada bereala esaten dezula onela:

Gurutze Santuaren señaileagatic † gure etsayetatic † libra gaitzatu gure Jauna eta Jaungoicoa †.—Aitarean, ta Semearen ta Espiritu Santuaren icenean † Amen Jesus.

Pater Nosterra.

Aita gurea, Ceruetan zandena santificatua izan bedi zure icena, betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatea, nola cernan ala lurtean.

Eman iguzu gure eguneroco oguia ta barca guizquigutzu gure

zorrac guc gure zordunai barca-tzen diegun becela, eta ez gaitzatzula utzi tentacioan erortzen, baicican libratu gaitzatu gaitzetic. Amen.

Ave Maria.

Abe Maria, gracias betea, Jaunda zurequin, bedeincatua cerade zu andre guztien artean, eta bedeincatua da zure zabeleco frutua. Jesus.

Santa Maria, Jaungoicoaren Ama, erregutu ezazu gu pecatarioc-gatic, orain eta gure eriotzaco orduan. Amen Jesus.

Credoa.

Nic sinisten det Jaungoico Aita guztiz poderoso, Ceruaren eta lur-raren Criadoreagan, eta aren Semebacar Jesu-Cristo gure Jau-nagan, ceña concebitu zan Espi-

Doctrina Cristiana

ritu Santuaren obrax eta birtutez, jayo zan Maria Birginagandic, padecitu zuan Poncio Pilatosen aguintearen azpian, izandu zan crucificatua, illa eta enterratua. Jechi zan infernetara piztu zan illen artetic irugueren egunean. Igo zan ceruetara, an dago eseriric Jaungoico Aita guciz poderosoaren alde escuitic. Andic etorrico da biciac ta ilac juzgatzera. Nic sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Ama Santa Catolica, Santuen comunioa, pecatuen barcacia, araguiaren resurreccioa eta bicitza seculacoa. Amen.

Salbea.

Jaungoicoac salba zaitzala. Erreguina misericordiaren Ama, bicitza, dulzura ta esperanza gurea Jaungoicoac salba zaitzala. Zure deyez gaude Ebaren ume deste-

rratuac. Zugana gaude suspirioz, sentimentuz eta negarrez, negarrezco lecu onetan. Ea bada, gure abogada, itzuli itzatu gugana zure begui misericordioso oyec, ta destierro onetatic irtetzen gneradenean eracutsi eguiguzu Jesus, zure sabeleco frutu bedeincatua. ¡O Clementisima! ¡O piadosa! ¡O Misericordiosa! ¡O dulce Birgina Maria! Erregutu ezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama Santa mereci dezagun alcantzatzeta Jesu-Cristoren promesac, Amen.

Jaungoicoaren legueco mandamentuac dirade amar.

Ienengo irurac pertencitzen zaizca Jaungoicoaren onrari, eta beste zazpirac progimoarea probechuari.

Doctrina Cristiana

Lenengoa, Jaungoicoa amatzea gauza guztien gañean.

Bigarrena, juramentu alferric ez eguita.

Irugarrena, jai egunac santificatzea.

Laugarrena, Aita eta Ama onratzea.

Bestgarrena, inor ez iltzea.

Seigarrena, lujuriaco pecaturic ez eguita.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, testimonio falsoric ez jasotzea, eta guezurric, ez esatea.

Bederatzigarrena, progimoaren emazteric ez deseatzea.

Amargarrena, besteren gauzaric ez deseatzea.

Amar mandamentu oyc enceratzen dirade bitan: serbitzea eta amatzea Jaungoicoa gauza gucien gañean ta progimoa gure buruac becela.



Articulu fedecoac dirade
amalau.

Lenengo zazpirac perteneitzen zaizca dibinidadeari, eta beste zazpirac gure Jaun Jesu-Cristo Jaungoico eta guizon eguiazcoaren Umanidade Santuari.

Dibinidadeari perteneitzen zaizcanac dirade oec.

Lenengoa, sinistea Jaungoico guciz poderoso batarategan.

Bigarrena, sinistea Aita dala.

Doctrina Cristiana

Irugarrena, sinistea Semea dala.

Laugarrena, sinistea Espiritu Santua dala.

Bostgarrena, sinistea Criadore dala.

Seigarrena, sinistea Salbadore dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorificadore dala.

Umanidade santuari perteneitzen zaizcanac dirade oec.

Lenengoa, sinistea Jesu-Cristo gure Jauna guizona dan partetic concebitu zala Espiritu Santuaren obrax.

Bigarrena, sinistea jayo zala Santa Maria Birginagandic, Señora zu zala Birgina Cristo jayo baño len, jayotzean eta jayo ezquero.

Irugarrena, sinistea errecibitu

cituala eriotza ta pasioa gu peccatariac salbatzea-gatic.

Laugarrena, sinistea jechi zala infernietara, eta aren etorrera Santuari ichodoten ceuden anima justuac libratu cituala.

Bostgarrena, sinistea resucitatu zala illen artetic irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igo zala ceruetara eta dagoala escritic, Jaungoico Aita guciz poderosoaren alde escutic.

Zazpigarrena, sinistea etorric dala bicia, eta illac juzgatzerax; au da onai ematera gloria, ceren aren mandan entuac gorde cituen, eta gaiztoai pena; seculacoa, ceren gorde ez cituen.

Doctrina Cristiana



DOCTRINA CRISTIANAREN

DECLARACIOA

GALDETZEN ETA ERANTZUTEN DALA.

- Galdetzen det: Cerade cristaba?
 Erantzuten det: Bai Jauna, Jaungoicoaren graciaz.
 G. Cristabaren icen ori norgandic izan cenduan?
 E. Cristo gure Jauna gandic.

- G. Cer esan nai du Cristabac?
 E. Cristoren guizona.
 G. Cer aditzen dezu Cristoren guizona-gatic?
 E. Cristoren fedea duan guizona, cefa errecibitu zuan batayatzean ta dagoan ofrecituric aren serbicio santura.
 G. Cer da Cristabaren senalea?
 E. Gurutze Santua.
 G. Cergatic?
 E. Cergatic dan Cristo crucificatuaren figura, bada gurutzean redimitu guinducen.
 G. Cembat modutan eguiten du Cristabac senale au?
 E. Bitan.
 G. Cein dirade?
 E. Cinatzea ta santiguatzea.
 G. Cer gauza da cinatzea?
 E. Iru gurutze eguita escuico escuaren aurreneco, beatzarequin: lenengoa, becoquian; bigarrena, aoan; irugarrena, bu-

4. eranskina

1949an Gipuzkoako Aldundiaren diru-laguntza jaso zuten auzo-eskolak

66. TAULA: *Gipuzkoako Aldundiaren diru-laguntza jaso zuten auzo-eskolak, 1949an*

	Udalerria	Auzoa	Arduradun	Laguntza
1	Aizarnazabal	Zubialdea	Jesusa Mitxelena Etxaniz	350 pezeta
2	Albiztur	Santa Marina	Juan Peñagarikano Arteaga (apaiza)	500 pezeta
3	Aretxabaleta	Goronaeta	Bonifacio Arenazaga	600 pezeta
4	Aretxabaleta	Bedoña	Fermín Fernández de Arroiabe (apaiza)	600 pezeta
5	Andoain	Mixerikordia	Sor Eustasia Santos	600 pezeta
6	Antzuola	Usarraga	Jose Maria Agirre Antia	500 pezeta
7	Ataun	Lizarrusti	Eskolako arduraduna	850 pezeta
8	Aia	Andatza	Soledad Gauna	300 pezeta
9	Aia	Andatza	Isabel Olano Segurola	300 pezeta
10	Aia	Andatza	Pilar Iruretagoiena Lertxundi	300 pezeta
11	Aia	Telleria	Josefa Teofila Tolosa Beldarrain	300 pezeta
12	Aia	Laurgain	Ramón Zabaleta Arakama (apaiza)	600 pezeta
13	Aia	Altzola	Juan Iruretagoiena (apaiza)-	600 pezeta
14	Aia	Urdaneta	Daniel Ustoia Mariaez- kurrena (apaiza)	600 pezeta
15	Aia	Elkano	Carmen Peñagarikano Olaizola	300 pezeta
16	Azkoitia	Urrategi	Aurora Artetxe Larrañaga	350 pezeta
17	Azkoitia	Madariaga	Juan José Garmendia Martija	400 pezeta
18	Azkoitia	Aizpurutxo	Jose Maria Badiola Lizarralde	400 pezeta

19	Azkoitia	Martitte	Julia Zubizarreta Azkoitia	400 pezeta
20	Azkoitia	Aginaga	Segundo Dorronsoro	400 pezeta
21	Azkoitia	Olaso	Manuel Arrizabalaga Elorza	400 pezeta
22	Azkoitia	Larrume- haundi	Maria Lourdes Zubizarreta Arteche	400 pezeta
23	Azkoitia	Urazarri	Eusebia Arregi Osoro	400 pezeta
24	Azkoitia	Urkidi-Goikoa	Felix Goitia Orueta	400 pezeta
25	Azpeitia	Izarraitz-Olatz	Eugenia Etxepare Otxoteko	400 pezeta
26	Azpeitia	Izarraitz-Eslavas	MªLuisa Oráa	350 pezeta
27	Azpeitia	Loiola	Maria Uranga Barrena	400 pezeta
28	Azpeitia	Odria-Barrenola	Maria Luisa Larrañaga	400 pezeta
29	Azpeitia	Odria-Bentatxo	Maria A. Zendoia Agirre	350 pezeta
30	Azpeitia	Oñatz	Jesús Gárate	400 pezeta
31	Azpeitia	Elosiaga-goia	José Francisco Aizpuru Aizpuru	400 pezeta
32	Azpeitia	Aratz-Erreka	Felisa Korta Amiano	400 pezeta
33	Azpeitia	Loiarte	Trinidad Arratibel	350 pezeta
34	Azpeitia	Urrestilla	Josefa Barrena	400 pezeta
35	Azpeitia	Olatz	Maria de Valenzuela	350 pezeta
36	Azpeitia	Loiola	Ignacio Arantzadi	500 pezeta
37	Beasain	Garin	Florencio Portu Etxebeste	500 pezeta
38	Zegama	San Pedro Goia	Maria Mora	400 pezeta
39	Zestoa	Arroa	Jacoba Gorriti Olaizola	500 pezeta
40	Zestoa	Arroa-behea	Maria del Carmen Gorriti	500 pezeta
41	Zestoa	Lasao	Karitateko Lekameak S. Ana	500 pezeta
42	Zestoa	Arroa-erreka	Maria Eizagirre Zubimendi	350 pezeta
43	Zestoa	Iraeta	Margarita Uria	400 pezeta
44	Zestoa	Endoia	Natividad Aragon Solana	400 pezeta
45	Deba	Lasturko San Nikolas	Rosario Folgado	400 pezeta
46	Deba	Mardari	Maria Carmen Yeregi Yeregi	400 pezeta

47	Deba	Elorriaga	Conchita Azpeitia Unanue	400 pezeta
48	Deba	Lastur-goia	Maria Florencia Alkorta Egaña	400 pezeta
49	Deba	Arbizkoa	Felix Goitia	400 pezeta
50	Eskoriatza	Apotzaga	Anastasio Otaduy (apaiza)	500 pezeta
51	Eskoriatza	Mazmela	Juan José Iriondo (apaiza)	500 pezeta
52	Getaria	Azkizu	Maria Eizagirre Eizagirre	350 pezeta
53	Hernani	Pagoaga	Dionisia Lizeaga Agirre	400 pezeta
54	Hernani	Jauregi	Maria Angeles Loiarde Escudero	350 pezeta
55	Hernani	Lasarte	Angela Delgado Perez de Lezeta	350 pezeta
56	Arrasate	Santa Ageda	Maria Isabel Iturbe	500 pezeta
57	Arrasate	Musakola	Maria Urbana Juldain Laspiur	500 pezeta
58	Mutriku	Astigarribia	Benedicta Ulazia Mugerza	400 pezeta
59	Oñati	Urrexola	Ciriaco Arriaran . Txintxureta	500 pezeta
60	Oñati	Olabarrieta	Felix Igartua Ugarte	400 pezeta
61	Oñati	Uribarri-garaia	Alberto Elorza Telleria	400 pezeta
62	Oñati	Zañartu	Antonia Iribarren (lekamea)	400 pezeta
63	Oñati	Berezaio	M ^a Angeles Goñi San Roman	400 pezeta
64	Oñati	Uribarri-barrena	Saturnina Murga Ocio	400 pezeta
65	Oñati	Arantzazu	José J. Lasa (fraidea)	600 pezeta
66	Oiartzun	Ugaldetxo	Luisa Berrondo Oiartzabal (partikularra)	400 pezeta
67	Oiartzun	Altzibar	Monica Salaberria	400 pezeta
68	Errezil	Ibarbia	Antonia Sorozabal Echeverria	450 pezeta
69	Errezil	Erdoizta	Hermenegildo Aldalur Lasa	450 pezeta
70	Errezil	Etumeta	José Francisco Muguruza	450 pezeta

71	San Sebastián	Aiete	Eustaquio Iriarte Urdinarain (apaiza)	600 pezeta
72	Tolosa	Urkizu	Antonio Ugartemendia	500 pezeta
73	Tolosa	Aldaba	Jesús Irazusta Aranburu	600 pezeta
74	Urnieta	Goiburu	Josefa Campos Matín	500 pezeta
75	Urnieta	Oria	María Angeles Ugalde	450 pezeta
76	Usurbil	San Esteban	Librada Aranburu Lertxundi	400 pezeta
77	Usurbil	Arburu	Victoria Pagola Camino	400 pezeta
78	Bergara	San Juan	Leonardo Sarasola Otaegi	500 pezeta
79	Zumaia	Oikia	Angela Zinkunegi	500 pezeta
			DENERA	34.800 pezeta

ITURRI DOKUMENTALAK, BIBLIOGRAFIA ETA ARGAZKIAK

1. Udal eta Aldundiaren Artxiboak

Azkoitiko Udal Artxiboa (AUA)

- Signatura 1290, kodea 271. Urteak 1843-1900. Gaia: Gutuneria
Signatura 1291, kodea 271. Urteak 1901-1932. Gaia: Gutuneria
Signatura 1292, kodea 271. Urteak 1933-1954. Gaia: Gutuneria
Signatura 1292, kodea 273
Signatura 1293, kodea 271. Urteak 1955-1970. Gaia: Gutuneria
Signatura 1294, kodea 271. Urteak 1971-1987. Gaia: Gutuneria
Signatura 1296, kodea 273. Urteak 1877. Gaia: Aktak.
Signatura 1297, kodea 271. Urteak 1925-1955. Gaia: Eskolen
Eraikuntza.
Signatura 1298, kodea 2102. Urteak 1905-1956. Gaia: Gutuneria
Signatura 1665
Signatura 1666. Alfabetizazioa.
Signatura 1681
Signatura 1690
Signatura 1714. Ikastolaren Sorrera
Signatura 1715
Signatura 1920, k-271

Bergarako Udal Artxiboa

BUA C/0844 D.

BUA Sekzioa B, Negoziatua 10, Serie IX, kaxa 95, Urtea 1884-1923

Oiartzungo Udal Artxiboa

Sekzioa B, Negoziatua 4, Instrukzio Publikoa, 9. liburua, Akta liburua
1912-1938.

Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GAO, Tolosa

JD IT 102

JD IT 784

JD S 1127

JD IT 1229

JD IT 1230

JD IT 1233a

JD S 1292

JD IT 1455

JD IT 1456

JD IT 1457

JD IT 1460

JD IT 1874

JD ADI 8,1

2. Hemeroteka

El Día

La Constancia

El País Vasco

El Pueblo Vasco

La Voz de España,

El Diario Vasco

Zeruko Argia

3. Bibliografia

- AGUIRRE ELUSTONDO, J.A. GAUR (1969): *Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros*. J. A. Aguirre Elustondo San Sebastián.
- AIZPURU, M (1990): *Eta tiro beltzari. Abertzaletasuna eta Jauntxokeria Bermeon (1899-1914)*. UEU, Bilbo.
- (2000): *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. EHU-UPV Argitalpen Zerbitzuak, Bilbao.
- ALTUNA, P.(2000): *Aita Aranaren Egunaria*. Euskaltzaindia, Bilbo, 165-171. Igandeko eskolak (1883-1887).
- ARANBARRI ETXANIZ, S. (1989): *Anai arteko borroka Azkoitian 1936.1939*. Egile-editore Aranbarri S, Azkoitia
- (1993): *Azkoiti, Gure Kirol dantza eta jolasak*. Azkoitiko Udala, Azkoitia.
- ARANBARRI, I. (1982): *Urolaldeko bertso zaharrak*. Inprimatzaile Oriabe, Tolosa.
- (1999): *Gure Mendea, Ehun urte Euskal Kulturaren*. Argia, Lasarte-Oria (Gipuzkoa),
- ARANBARRI, I.; OTAMENDI, J.L. (2005): *Loiolarik ez balitz*. Uztarria Kultur Koordinadora, Azpeitia.
- ARIZTIMUÑOS, J., AITZOL (1986): *La democracia en Euzkadi: Luchas de idiomas en Euzkadi y en Europa*. Erein, San Sebastián.
- ARRIETA, L. eta BARANDIARAN, M. (2003): *Diputación y modernización. Gipuzkoa 1940-1975*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- BERISTAIN, J. M. (1970): *Pequeña historia de un pueblo noble y leal, Azkoitia*. C. A. M. de San Sebastián. San Sebastián.
- BOURDIEU, P. – PASSERON, J. C. (1970): *La reproduction*. Minuit, Paris.
- BREULLY, J. (1990): *Nacionalismo y Estado*. Ediciones Palomares-Corredor S.A., Barcelona.

- BUJANDA, J. (1991): *Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal Pedagogo aurreerakoia: Agustín Pascual Iturriaga*. UEU, Bilbo.
- CILLAN APALATEGUI, A. (1975). *Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-1936)* San Sebastián.
- COSANO, J. (1920): *El analfabetismo en España*. Datos del Censo de Población General de España, Madrid.
- DÁVILA BALSERA, P. y EIZAGIRRE SAGARDIA, A. “Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria” in ESCOLANO, A. (dir.) (1992): *Leer y escribir en España. Doscientos años de alfabetización*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid.
- EGUREN, J. M. (1876): *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Vitoria.
- ELIAS ODRIÓZOLA, I. (1997): *Azpeitia historiar zehar*. Azpeitiko Udala, Azpeitia. ELIAS ODRIÓZOLA, I. (1999). *Azkoitia historian zehar*. Azkoitiko Udala, Azkoitia.
- ECHEGARAY, B (1935): “Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco”: in *Lucha de Idiomas en Euzkadi*. Euskalzaleak, Donostia.
- FERNANDEZ, I. (1994): *Oroimenaren Hitza. Ikastolaren historia 1960-1975*. Udako Euskal Unibertsitatea-UEU, Bilbo.
- GARATE, J. (1976): *Fontes Linguae Vasconum*. 24 alea, VIII. urtea, Institución Príncipe de Viana-Nafarroako Diputazio Forala, Iruñea.
- GARCIA DE CORTAZAR, F.: “La Iglesia vasca: del carlismo al nacionalismo (1870-1936)” in JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. (1982): *Estudios de Historia contemporánea del País Vasco*. Aramburu, San Sebastián.
- GARMENDIA, G. (2003): *Jasokunde Kooperatiba oroitzuz*. Jasokunde Koop., Azkoitia.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, J. (2004): *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los Ayuntamientos*. UPV-EHU, Bilbao, Doktorego Tesia
- HOBBSAWN, E. J. (1991): *Naciones y nacionalismos desde 1780*. Crítica, Barcelona
- HUMBOLDT, W. “Diario de viaje vasco, 1801”. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XIII. Tomoa.

- HUTCHINSON, J. (1987): *The dynamics of Cultural Nationalism. The Gaelic Revival and the Creation of the Irish Nation State*, London, Allen & Unwin.
- ISASMENDI, I. (2000): *Nire denboraldiko ibilerak*. Azkoitiko Udala, Azkoitia.
- ITURRIOZ, J. (2001): *Urolaldea Bertsolari*. Ikasberri Ikastola, Azpeitia.
- JAUREGI, I. (1990): *Azkoitiko berrehun eta ...baserri*. Azkoitiko Ikastola, Azkoitia.
- LASA, Juan Ignacio (1968): *Sobre la enseñanza en el País Vasco*. Auñamendi, San Sebastián.
- LUENGO TEIXIDOR, F. (1990): *Crecimiento económico y cambio social en Guipúzcoa 1917-1923*. UPV-EHU-UPV, Bilbao.
- MADOZ, P. (1991): *Diccionario Geográfico- Estadístico – Histórico de España sus posesiones de Ultramar (Madrid 1845-1850)*. Gipuzkoako Aldundia, Donostia.
- MALAXECHEVERRIA, J. (1926): *La Compañía de Jesus por la instrucción del Pueblo vasco s. XVII-XVIII*. Capitulo VII. Fundación Azcoitia. Ed. Impr. y Lib. San Ignacio, San Sebastián.
- NÚÑEZ, L. (1977): *Opresión y defensa del euskara*. Txertoa, San Sebastián
- ORUETA, J. (1919): *Impresiones de la vida provincial en Guipúzcoa*. San Sebastián.
- PESET, J. L.; GARMA, S.; PEREZ GARZON, J. S. (1978): *Ciencias y enseñanza en la revolución burguesa*. Siglo XXI de España Editores, Madrid.
- ROCKER, R. (1977): *Nacionalismo y cultura*. La Piqueta, Madrid.
- TORREALDAI, J. M. (1998): *El Libro Negro del Euskera*. Ttartalo, Donostia, 16.
- TUÑÓN DE LARA (1985): *Hª de España, Tomo VIII: Revolución Burguesas, Oligarquía y Constitucionalismo, 1834-1923*. Labor, Madrid.
- VICUÑA AGUIRRE, J. L. (2003): *Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu*. Bergarako Udala, Bergara.
- ZABALA, A. (1970): *Azkoitia'ko zenbait bertsolari*. Sendoa-Auspoa, Donostia.

ZABALETA IMAZ, I. (1977): *Euskal nazionalismoa eta bezkuntza (1895-1923)*. Bilbao, UPV-EHU, Doktorego Tesia.

4. Argazkien jabetza

Azkoitiko Udala eta Udal Artxiboa

Leturiondo jauregia

Gaztandarren jauregia

Iribe dorrea, Irizartarren etxea

Txurruka-enea

Azkoitiko eskoletako irakaslearen mahai

Azkoitiko eskoletako ikasleen mahai eta aulkiak

Ostinal Santuko Azkoitia, 1925ean

1936ko Gerra Zibila. Tropa Nazionalak Azkoitiko plazan

1938ko maiatzaren 5ean, Ikuskaritzak Azkoitira bidalitako zirkularra

Idazlana, Bambi 1952an

Floreagako eskola, 1960an

Bilduma partikularrak

Joxe Manuel Alberdi. *Olango Luzia Alberdi maistra.*

Pedro Aldalur. *Azkoitiko Dotrina Kristauro Anaien ikasleak, 1924an*

Pedro Aldalur. *Azkoitiko Jesusen Bihotzaren ikastetxeko ikasleak, maistra*

Pedro Aldalur. *Floreagako La Salle ikastetxeko ikasleak. 1935ean*

Pedro Aldalur. *J. Aranbarri, maistraren, ikasleak 1934an*

Aginagako auzo-elkartea. Aginagako ikasleak

Jeronimo Aranbarri. *Madariagako gazteak prozesioan*

Jeronimo Aranbarri. *Madariagako auzotarrak, 1954an*

Jeronimo Aranbarri. *Madarixako gazteak ibilaldian*

Jeronimo Aranbarri. *Zelai luze baserriko amona*

Jeronimo Aranbarri. *Zuazola-Arratza baserria*

Jeronimo Aranbarri. *Auzotarrak prozesioan, eta Madarixako maisua*

Jeronimo Aranbarri. *Kongregaziokoak, 1951n*

Jeronimo Aranbarri. *Misioen bukaera, 1954an*
 Jeronimo Aranbarri. *Madariagako gazteak eta helduak prozesioan*
 Jeronimo Aranbarri, *Madariagako maisu zaharra mahaian*
 Miren eta Lurdes Arrieta. *Zuzula-aldeko auzotarrak*
 Aurora Artetxe. *Urrategiko ikasleak, 1949an*
 Aurora Artetxe. *Urrategiko ikasleen komunioa*
 Horminda Baños. *Astarbe-azpiko baserria*
 Kandido Bernaola. *Leon Bernaola maisuaren argazkia*
 Joxe M^a Beristain, *Ixaun. Claudio Orbea maisua*
 Milagros Elduaien. *Elosuko Kongregazioko taldea, 1946an*
 Marina Fernandez. *Aldundiak iraititako landa-eskola, ikasle eta irakasleak*
 Marina Fernandez. *Aldundiaren landa-eskolaren inaugurazioa*
 Juan Jose Garmendia. *Manuela Arrizabalaga maistra*
 Maria Dolores Iriondo. *Ibilaldiko argazkia, Saturraran*
 Nekane Jimenez. *Azpeitiko Olazko baselizako landa-eskola, 1953. urtea*
 Nekane Jimenez. *Cálculo Moderno, 1950. hamarkadako kalkulu liburua*
 Joxe Miel Larrañaga. *Aizpurutxoko Kongregazioko taldea, 1944an*
 Juan B. Mendizabal. *Miserikordiako lekaimen eskola*
 Juan Bautista. Mendizabal. *Album de Guipúzkoa, 1915.*
 Joxe Mugerza. *Toribia Arregi maistraren argazkia*
 Josu Oria: *Santa Kutz bailarako Laja baserriko familia*
 Axun Plazaola. *Maria Teresa Plazaola maistra, Agarre-Portillos-eko ikasleekin*
 Juan Ignacio Uria. *Trino de Uria maisua*
 Juan Ignacio Uria. *Azkoitiko Zalduntxoan Akademi berria egitasmoaren horma-Irudia*
 Axun Zubizarreta. *Martiteteko eskolako ikasleak, 1949an*

Euskal Herriko Hezkuntzaren Historiarako Dokumentazio Gunea EHU-UPV.

Euskal liburuak: Gipuzkoako Aldundiak, Ixaka eta F. Iturriotz-ek argitaratuak
Enciclopedia
Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat

Gipuzkoako Artxibategi Orokorra. GAO

*Landa-eskolaren proiektua. Tolosako San Blas eskola
Martirietako Eskola Publiko berriaren aurreproiektua
Urrategiko Eskola Nazionalaren proiektua
Martittekoko Eskola Nazionalaren proiektua
Aizpurutxoko Eskola Nazionala*

GAO Indalezio Ojanguren Argazki Artxiboa

*Madariagako San Isidro basiliza eta eskola
Azkoitiko herria, atzean San Martin, eskuinera Intsaustiko jauregia
Idiakes Dorretxea
Azkoitiko Eskola Publikoak
Haurrak Azkoitiko kale Nagusian
Urrategiko basiliza eta bertako eskola
Aginaga
Aizpurutxoko eliza eta eskola
Urrategiko Gure Amaren irudia
Urrategiko eliza eta eskola
Madariagako Isidro Donearen eliza eta eskola
Santa Kutz bailara*

Loiola Santutegiko Artxiboa

*Astetea, Azkoitiko eskoletan gehien erabilitako dotrina
Eskolan erabiltzen ziren dotrinak
Donostiako Andra Mari Koroako ikastetxeko liburua
Astetea, 1911. urtean, Azpeitiko Martinez moldiztegian egina
Gasteizko Elizbarrutirako Kristau-Ikasbidea
Gasteizko Elizbarrutirako Kristau-Ikasbide eta Dotrinak*

Autorearen bilduma

*Aldundiak eraikitako landa-eskola, Zizurkil 1934an
Flores baserria*

Jenara Aranbarriren Plaza-berriko eskola
Olazko baseliza
Floreagako eskola
S. Jose Ikastetxo, Sor Encarnaciónen ikasleak, 1963an
Floreaga Ikastetxeko, P. Jose Antonioren ikasleak, 1967an
Arrieta-mendi bailara, Etxosta-menditik
Martitteko eliza
Zendoia baserria
Mendizabal baserria
Amustei baserria
Martitteko apaiz-etxea, eskola ezker aldean zegoen
Martitteko Eskola Nazional berria
Martitteko frontoia
Montte baserria
Arrite-Muno baserria
Korta baserria
Astarbe bailara, Larrume-handitik
Astarbe-berri baserria
Lete baserria
Lete eta Letetxo baserriak
Mendizabal-Astarbe baserria
Agarre-Portillo baserria
Izagirre-Astarbe (Izarre) baserria
Larrume-handi baserria
Astarbe-goikoa baserria
Astarbeko-azpiko baserri zaharra
Astarbeko-azpiko baserria
Astarbeko Eskola Nazional berria
Astarbeko Eskola Nazionala eta auzoko frontoia
Aginagako eskola zaharra
Aginagako San Martin Eliza
Aginagako Eskola Nazional berria
Aizpurutxo Etxosta menditik
Ule baserria
Ibitete (Patrongua) baserriko eskola

Igaran baserria
Aizpurutxoko erakin honetan, gau-eskola ere irakasten zen
Aizpurutxoko Eskola Nazionala berritua
Etxosta bailara, Martittetik hartuta
Zelertxo baserria
Utxerri baserria, Maltzetatik
Utxerriko baserri berria
Goenatxo baserria
Otola-barrena baserria
Korteta baserria
Zeler baserria
Elosuko eliza
Elosuko eskola eta eliza
Elosuko eskola
Elosuko udal-eskola
Ormolamendi bailara
Kondekua baserria
Egurbide-ola baserria
Izagirre-Torre baserriko eskola
Olan baserria
Koategiko baserria
Zukiazu baserria
Izar-etxetxoko eskola
Urrategiko baseliza eta bertako eskola
Urrategi baserria, baseliza eta Eskola Nazionala
Urrategiko Eskola Nazionala
Izarraitz, Martitte aldetik
Txintxilo gaina
Urkiolegi baserria
Olaso baserria
Olasoko eskola nazionala
Olasoko eskola nazional barrutik
Madariaga auzoa
Madariagako eskola eta frontoia
Laxao baserria

Aittola-zahar baserria
Sakabixa baserria
Zelai-luze baserria
Basarteko Gurutze Donearen lekaimetxea
Gipuzkoako Batzar bereziaren oroigarria
Kamiño baserria
Illarragako baserria
Agarre baserria
Loiolako basilika

Eskolen berri eman duten herritarrak

Epelde baserriko Eladia Garmendia
Zendoia baserriko Tomas Zubizarreta
Amustegi baserriko Angeles Aramendi
Korta baserriko Joxepa Antoni Soraluze eta Arantxa Soraluze
Montte baserriko Elena Sudupe
Artzabal baserriko Joxe Mari Zubizarreta
Teresa Lara
Juan Bautista Mendizabal
Horminda Baños
Astarbe- azpikoa baserriko M^a Cruz Epelde
Lete baserriko Inazio Segurola eta Candida Altuna
Mendizabal baserriko Antonia Larrañaga Gabilondo
Agirre-Portillos baserriko Jose Antonio Lizarralde
Izarre baserriko Milagros Manterola
Larrume baserriko Alejandro Larrañaga
Erribera baserriko Isidra Larrañaga
Juanita Urrestilla
Maria Pilar Azkoitia
Bittori Plazaola
Axun Plazaola
Luis Epelde
Begoña Diez

Jazinto Plazaola

Patxi Plazaola

Erratzu baserriko Joxe Miel Larrañaga

Patrongo Manuel Zuazolazigorraga

Kandiko Bernaola

Utxerri baserriko Joxe Mugerza

Korteta baserriko Luis Alberdi

Maltzeta baserriko Joxe Luis Epelde eta Joxe Joakin Epelde

Jose Antonio Uriari

Xabier Zubizarreta

Ixaun baserriko, Joxe M^a Beristain

Euskitze baserriko Joxe Mari Mendizabal

Olan baserriko Joxe Manuel Alberdi

Koategi baserriko Martin eta Manuela Zubizarreta eta Xabier Aranbarri

Zukuzu baserriko Joxe Mari Aranbarri eta Jeronimo Aranbarri

Urrategi baserriko Kontxa Juaristi

Azalgorreta baserriko Aurora Aurora Artetxe

Izer baserriko Jesus Arrizabalaga

Joxe Mari Arrieta

Julen Juaristi

Ziriza

Constantina Puente Villafaña

Zuzula-Erratza baserriko Miren eta Lurdes Arrieta

Zuzula baserriko Martin Arregi

Urkiolegi baserriko Luzia Lizarralde

Maria Dolores Iriondo

Feli Gonzalez

Encarna Domenech

Madarixako Jeronimo Aranbarri

Kataolatza-azpikoa baserriko Pako Bastida

Laxao baserriko Juan eta Feliziana Uranga Aldabaldetrekua

D. Juan Martin Zuriarrain

D. Ignacio Ramirez
Juan Joxe Garmendia
Karmen Salegi

Illarraġa baserriko Julia Errazti, Xanti Mendizabal eta Ana Mendizabal
Esteban Garmendia
Kepa Garmendia
Inixio Garmendia
Sekundina Larrañaga
Joxefa Larrañaga
Maria Larrañaga
Maria Pilar Uria
Juan Ignacio Uria
Ander Alberdi Perez
Josune Iturria

BILA

BILDUMA

1. Paulo Iztueta: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, 2000
2. Paulo Iztueta: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, 2000
3. Paulo Iztueta: *Erbesteko euskal pentsamendua*, 2001
4. Ander Iturriotz: *Boterea gizarte homerikoan*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Orixe saiogilea*, 2003
6. Paulo Iztueta: *Orixe auzitan*, 2003
7. Paulo Iztueta: *Orixe gaitzesia*, 2003
8. Txomin Peillen (koord.): *Euskal etorkinak Ameriketan*, 2003
9. Begoña Bilbao: *Curriculuma eta kultura Euskal Herrian*, 2003
10. Karmele Perez: *Curriculuma eta testuliburua Euskal Herrian*, 2004
11. Josu Amezaga: *Satelite bidezko nortasunak*, 2004
12. Gurutze Ezkurdia: *Curriculuma eta ingurunea Euskal Herrian*, 2004
13. Begoña Bilbao; Gurutze Ezkurdia; Karmele Perez: *Euskal curriculuma ala euskal dimentsioa curriculumean*, 2004
14. Pello Jauregi; Asier Huegun: *Sentitu*, 2005
15. Jose Inazio Imaz Bengoetxea: *Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005*, 2006
16. Joxe Garmendia Larrañaga: *Azkoitiko bailaretako eskolak, 1824-1977*, 2006